

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Beasain



Aurkibidea

Udalerria: Beasain

Sarrera



Udalerria bost auzotan banatuta dago, hiriguneaz gain: Arriaran, Astigarreta eta Gudugarretako auzoak, eta Aratz-Matxinbenta eta Garingo Elizateak. Gainera, auzo-herriekin ere oso harreman estua izan du. Beasaingo euskalkia gipuzkeraren aldaera da, eta Goierriko euskararen ezaugarri gehienak edo denak biltzen ditu; mendebaleko euskararen zenbait ezaugarri ere nabari dira. Salbuespen bakarra Aratz-Matxinbentako hizkera da, zenbait berezitasun dituelako.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 13.721
- **Euskaldunak:** %58,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **49**
- Zintak: **67**
- Pasarteak: **618**
- Transkribatutakoak: **98**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **616**

Proiektuak

- Beasaingo euskara eta etnografia
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- Markel Olanoren fondoa
- Ordiziako ahotsak
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan

Hizlariak

Esteban Agirrezabal Lizarralde (1919-2015)



Garin auzoko Erdikoetxe baserrian jaioa 1919an. Ume-umetatik baserriko lanetan laguntzen zuen eta sarri askotan eskolara joan ordez artzain edo basomutil lanetan aritzen zen. Auzo-eskolara joandakoa, eskolako urteak amaitu zituenean morroi joan zen baserri batera. Basoko lanei buruzko azalpenak eman zituen 2005ean egindako elkarrizketan, eta batez ere ikazkintzari buruzkoak.

Iñaki Agirrezabala Landa (1956)



Matxinbentako Erdiko Ostatuan jaioa. Zazpi senide ziren. Aitona eta birraitona saskigileak ziren, eta amak ikasi zuen ofizioa (gizonen lanbidetzat hartua, garai batean: bi anaia gazterik hil zitzaizkion) eta aitari erakutsi. Hori izan zen andre-gizonen ogibidea. Taberna-denda ere bazuten. Iñakik eta bere anaiek saskigintzaren artea ikasi zuten, eta Iñakik eman zion segida negoziolari, 27 urterekin langabezia geratu zenean. Ezkondua eta ume baten aita zen ordurako. Saskigintzan 40 lagun zebiltzan Matxinbenta inguruetan, eta elkarrizketaren unean hiru geratzen ziren. San Telmo museoan erakustaldia egin zuten, eta elkarrizketa egin genion.

Bitoriano Apalategi Aranburu (1921-2008)



Ugartemendi auzoko Ugartemendiazpikoa baserrian jaiotako eta bertan bizi izan zen. Baserriko lanez gain, lantegian ere lan egin izan zuen hainbat urtez. Bateko zein besteko kontuak kontatu zituen Beasaingo hizkera jasotzeko bekarako egindako grabazioan. Jose eta Juan Bautista Usabiaga anaiak izan zituen lagun elkarrizketan.

Jose Inazio Aranburu Esnaola (1938-2021)



Garin auzoko Erdikoetxe baserrian jaiotakoa. Hainbat urtean "erregidore" lanak egin izan zituen Garin auzoan. Beasaingo hizkera aztertzeko oso hiltun interesgarria. Azalpen zehatzak eman zituen zizkigun gai askoren inguruan: baserriko lanak, ohiturak, lexikoa; etab.

Paulino Aranburu Mendizabal (1929)



Beasainmendiko Arizmendi baserrian jaio zen. Aita artzain ibiltzen zen inguruko mendietan eta bera ere ume-umetatik artzain ibili zen; gerora, delinearzaile lanetan jardun zuen hainbat urtean. Azalpen sakonak eman zizkigun, artzaintzari lotutako kontuez batez ere.

Antonio Barandiaran Aldasoro (1936-2014)



Beasainmendiko Abarizketabekoa baserrian jaioa 1936an. Elkarrizketa bere anaia Inazioarekin (1931) batera egin zitzaion. Beasaingo hizkera aztertzeke oso hiztun lagungarriak izan ziren biak. Azalpen zehatzak eman zituzten baserriko lanen, ohituren eta hiztegiaren gainean.

Inazio Barandiaran Aldasoro (1931-2022)



Beasainmendiko Abarizketabekoa baserrian jaioa 1931n. Elkarrizketa bere anaia Antoniorekin (1936) batera egin zitzaion. Beasaingo hizkera aztertzeke oso hiztun lagungarriak izan ziren biak. Azalpen zehatzak eman zituzten baserriko lanen, ohituren eta hiztegiaren gainean.

Xanti Enparantza Leunda (1946)



"Errementari" (Ermentari) baserrian jaioa. Bere aita Angel Enparantza zen, Beasaingo errementari eta ferratzailea. Beasaingo eta inguruko baserriar guztiak joaten ziren beraiengana ganadua ferratzerara; baserriko tresnak ere egiten zituzten. Xantik ere lagundu izan zion aitari lan horietan. Errementari lana 1965 inguruan utzi zuten. "Errementari" baserria 2005ean bota zuten. Xanti futbolari amorratua ere izan da. Gazterik hasi zen Beasaingo taldeetan jokatzeko, eta gerroago Sansen, Ordizian (Villafranca), Legazpian eta Bergaran jokatu zuen.

Juan Esnaola Mujika (1945)



Gantzarain baserrian jaioa 1945ean. Baserriko bizimoduaren inguruko azalpen ugari (lanak, erromeriak, antzinako bizimodua, ohitura zaharrak...) eman zituen 2005ean egindako elkarrizketan. Oso hiztun baliagarria izan zen Beasaingo euskara eta ahozko ondarea aztertzeke bekarako, bere euskara ederragatik.

Juan Etxezarreta Landa (1941)



Aratz-Matxinbenta auzoko Otoabarrena baserrian jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Antzinako hainbat kontu, ipuin eta istorio kontatu zituen 2005ean egindako elkarrizketan. Matxinbentako bizimoduaz ere hitz egin zuen eta baita ehizako kontuez ere, ehiztari amorratua izaki.

Kontxi Etxezarreta Landa (1940)



Aratz-Matxinbentako Otoabarrena baserrian jaioa. Auzoko eskolan egin zituen lehenengo ikasketak. Garaiko bateko bizimoduaren eta ohitura zaharren inguruko azalpenak eman zituen 2005ean egindako elkarrizketan; gerra osteko egoerari buruzko azalpen interesgarriak ere eman zituen.

Patxi Etxezarreta Mujika (1910-2011)



Beasaingo Aranburugoikoa baserrian jaioa, 13 anai-arrebako sendi batean. Eskolan Beasainen ibilia. Umetatik baserriari lotuta bizi izan zen. Baserriko produktuak azokan eta dendan saldu ohi zituen. Gaztetan Ordiziara joan zen bizitzera anaiaren etxera eta denda ireki zuten bertan. Goenkalean jarri zuten denda eta baserriko tresnak eta bestelakoak saltzen zituzten. Bere izena hartu zuen lixiba egiten aritu zen urte batzuetan, "Lejías Patxi" zeritzona. Ehizarako afizio handia izanik, Ordiziako ehiztarien elkartearen sortzaileetako bat izan zen, hasieran "Esperanza" eta gerora "Itxaropena" izena hartu zuena.

Aitor Garmendia Goitia (1934)



Beasaingo erdigunean jaio zen. Ume-umetatik euskara eta euskal gaietarako zaletasuna jaso zuen gurasoengandik. Gaztetan Beasaingo kultur giroa zuzenean ezagutzeko aukera izan zuen eta musikarekiko zaletasuna laster sendotu zitzaion. Musika munduan, gorengo mailara iritsi zen tenore bezala.

Bitoriana Garmendia Odriozola (1935)



Arriaran auzoko eskolara joan zen 14 urte bete zituen arte. Baserriko bizimodua bete-betean ezagutu zuen eta oso azalpen interesgarriak eman zituen gai nagusi horren inguruan: besteak beste, baserriko lanak, ohiturak, gaztetako ibilerak eta mendi-erromeriak. Beasaingo euskara eta ahozko ondarea aztertzeke bekarako oso lagungarria izan zen.

Josefa Gurrutxaga Oiartzabal (1915-2016)



Matxinbenta auzoan jaio zen 1915ean; gurasoak ere bertakoak zituen. Auzoko eskolan burutu zituen ikasketak, eta geroago, 12 urterekin Azpeitira joan zen umezain. Senarrarekin batera saskigintzan aritu zen hainbat urtez. Inguruko herrietako azoka eta feria garrantzitsuenetan oso ezagunak ziren beraiek egindako produktuak.

Alfontso Ibaibarriaga (1907-1992)

Mari Carmen Ibarbia Sarriegi (1941)



Uxategi baserrian jaio zen eta Loinatz auzoko Gaztelumuñon bizi. Eskola urteak karmeldar mojekin egin zituen Beasainen eta, ondoren, Donostiara joan zen ikasketak amaitzera. Oso hitzun interesgarria. Hainbat gai jorratu zituen 2006an egindako elkarrizketan: umetako jolasak, gaztetako ibilerak, jai giroa, erromeriak, antzinako ohiturak, erlijioaren garrantzia gizartean, eta abar.

Plazida Intxausti Lekuona (1896-2007)



Garin auzoko Bazterretxe baserrian jaioa; XIX. mendean jaiotako hitzuna dugu. Beasaingo euskara jasotzeko bekan elkarrizketatutako lekukorik nagusiena. Elkarrizketa egin zitzaionean, 2005ean, 109 urte zituen.

Ana Mari Lakarra Mujika (1945)



Gurasoak baserritarrak. Gizona Itsasokoa. Gerra ostean jaio zen Beasaingo erdigunean. Eskola nazionaletan eta karmelitetan ikasi zuen.

Patxi Lasa Imaz (1929-2018)



1929an jaio zen Zaldizurreta baserrian. Ama Idiazabalgoa zuen eta aita Zaldizurretakoa bertakoa. Baserria "Duque del Infantado"rena zen eta beraiek errenteroak ziren. Baserria kale ondoan zegoen eta bi fundizio zituzten etxetik gertu. Baserria bota egin zuten Beasaingo anbulatorioa egiteko. Antzinako bizimoduari buruzko azalpen ugari eman zituen 2006an egindako elkarrizketan.

Jose Inazio Lasa Odriozola (1924-2014)



Garin auzoko Garin-Arretxe baserrian jaio zen 1924an. Gurasoak biak ziren Garin auzokoak. Ume-umetatik lan egin behar izan zuen baserrian. Auzoan bertan ibili zen eskolan hasieran eta, geroago, Beasainen fraideekin. Bertsolaritzarako zaletasun handia zuen eta horri lotutako kontu ugari aipatu zituen Beasaingo euskara eta etnografia jasotzeko bekarako egindako elkarrizketan. Goierri Telebistarako ere egin zioten beste elkarrizketa bat.

Mari Carmen Lasa Odriozola (1929-2018)



Garin auzoko Garin-Arretxe baserrian jaioa. Elkarrizketa egin zitzaionean kalean bizi zen, baina baserriko bizimodua oso ongi ezagutzen zuen, eta azalpen ugari eman zituen hainbat gairen gainean (lanak, erromeriak, ohitura zaharrak, gaztetako ibilerak, etab.). Beasaingo euskara jasotzeko bekarako egin zitzaion elkarrizketa.

Francisca Lizarralde Mujika (1930)



Arriaran auzoko Kortabehekoa baserrian jaio zen 1930ean. Ikasketak auzoan bertan zegoen eskolan egin zituen. Beasaingo euskara eta ahozko ondarea jasotzeko egin zitzaion elkarrizketan bi ahizparekin batera agertzen da: Maria Angeles (1942) eta Teresa (1938).

Maria Angeles Lizarralde Mujika



Arriaran auzoko Kortabehekoa baserrian jaiotakoa 1942an. Ikasketak auzoan bertan zegoen eskolan egin zituen. Beasaingo euskara eta ahozko ondarea jasotzeko egin zitzaion elkarrizketan bi ahizparekin batera agertzen da: Francisca (1930) eta Teresa (1938).

Teresa Lizarralde Mujika (1938)



Arriaran auzoko Kortabehekoa baserrian jaio zen 1938an. Ikasketak auzoan bertan zegoen eskolan egin zituen. Beasaingo euskara eta ahozko ondarea jasotzeko egin zitzaion elkarrizketan bi ahizparekin batera agertzen da: Maria Angeles (1942) eta Francisca (1930).

Migel Mendiguren Larrea (1932)



Beasaingo Errekarte auzoan jaio zen baserri batean. Etxez inguraturik geratu zen baserria eta Migelek ingurune hori nolakoa zen azaldu zigun, Beasaingo euskara eta etnografia jasotzeko bekarako egindako elkarrizketan.

Francisca Mujika Unanue (1919-2009)



Gantzarainandi baserrian jaioa, ezkondu ondoren auzo bereko Gantzaraintxiki baserrira joan zen bizitzera. Herrigunetik nahiko urruti zegoen beraien auzunea eta bidea egin aurretik izaten zituzten arazo eta zailtasunez hitz egin zuen 2005ean egindako elkarrizketan. Beste hainbat gai ere izan zituen hizpide: antzinako bizimodua, bidegintza lanak, umetako bizimodua baserrian, eta abar.

Jose Mujika Urbizu (1910-2009)



Herrigunetik gertu zegoen baserri batean jaio zen 1910ean. Hainbat esparrutan izandako aldaketak bete-beteaz ezagutu zituen, eta kontu ugari aipatu zituen Beasaingo euskara eta etnografia jasotzeko bekarako egindako elkarrizketan.

Gotzon Mujika Zumeta (1987)



Beasainen jaioa, Ingenieritza ikasi zuen Donostian, EHU. USAC programako ikasle amerikarrak izan zituen pisukide hainbat urtez eta, hala, bere emaztea izango zena ezagutu zuen: Renon (Nevadan) jaioa eta jatorri mexikarrekoa. 2016ean ezkondu ziren eta Renon bizi dira geroztik. Alaba bat dute. Gotzon ingeneria da, Renoko enpresa batean. Badu harremana Renoko euskal klubeko jendearekin eta Renoko unibertsitateko euskal ikasketen departamentuarekin.

Jose Migel Odriozola Peñagarikano (1929-2014)



Letamendi baserrian jaiotakoa (Beasainmendi auzoa). Beti baserrian egin izan zuen lan. Elkarrizketan bere lagun Juan Jose Oiarbide ere azaltzen da, kale ondoko baserri batean jaiotakoa.

Juan Jose Oiarbide Sarriegi (1921-2008)



Igartetxe kale-baserrian jaiotakoa, baserria bota zutenean kalera joan zen bizitzera. Joxe Migel Odriozolarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Carmelo Olano Segurola (1930-2006)



Aranezarra baserrian jaiotakoa. Aitona Lazkaokoa zen eta amona Itsasondokoa. Aita Lazkaon jaio zen eta ama Azpeitiko auzo batean. Baserria herrigunean bertan zegoen, eta horren ondorioz, kaleko giroa eta bizimodua ere bertatik bertara ezagutu zituen. Grabazioan bere arreba ere agertzen da, [Ixabel Olano](#) (1925).

Ixabel Olano Segurola (1925-2017)



Aranezarra baserrian jaiotakoa. Aitona Lazkaokoa zen eta amona Itsasondokoa; aita, berriz, Lazkaon jaio zen, eta ama Azpeitiko auzo batean. Baserria herrigunean bertan zegoen eta, horren ondorioz, kaleko giroa eta bizimodua ere bertatik bertara ezagutu zituen. Ixabelek irakasle izateko ikasi zuen eta Beasaingo ikastolaren bultzatzaile eta sortzaileetako bat izan zen. Oso hiztun interesgarria, hainbat gairen inguruan jardun zuen: baserriko lanak, ohitura zaharrak, gerra osteko urteak, hizkuntzaren egoera Beasainen, ikastolaren hastapenak eta abar.

Jose Osinalde Iurrita (1921-2019)




Agirrebarrena baserrian jaioa 1921ean; umea zela baserria erre zitzaien. Gerra aurreko zein gerraosteko urteak bete-beteaz ezagutu zituen. Azalpen interesgarriak eman zituen gai askoren gainean: baserriko lanak, umetako jolasak, erlijioaren garrantzia gizartean, Loinazko ermita, toponimia eta abar. Grabazioan Maria Pilar Urkiola emaztea ere azaltzen da,.

Maria Peñagarikano Garin (1925-2023)



Beasainmendi auzoko Imiategi baserrian jaio zen 1925ean. 10 senidetan zaharrena izanik, ume-umetatik baserriko lan ugari egitea tokatu zitzaion. 8 urterekin Karmelitetan hasi zen eskolan eta 9 urterekin esne-partitzen ere ibiltzen zen etxez etxe eskolara joan aurretik.

Joxepa Peñagarikano Romaratezabala (1937-2023)



Lupazketa baserrian jaio zen 1937an. Umea zela, baserria erre zitzaien eta inguruko baserriarren laguntzari esker berria jasotzea lortu zuten. 10 urterekin eskola amaitu eta neskame joan behar izan zuen Zeraingo baserri batera. Han egon zen bitartean, Segurako mojen eskolara joaten zen. Ume-umetatik gogor jardun zuen baserrian lanean eta etnografia gairez oso azalpen interesgarriak eman zizkigun.

Jesusa Sarriegi Aiestaran (1919-2008)



Zelarre baserrian jaioa, Erauskinzahar baserrian bizi izan zen. Beasaingo mojen eskolan ibili zen 10 urte bete zituen arte. Gerra aurreko zein gerra osteko urteak bete-betean ezagutu zituen. Azalpen interesgarriak eman zizkigun etnografia arloko zenbait gairen inguruan: gari-ebakitzeak, erromeriak, abereak, sagardogintza...

Mikel Sarriegi Etxezarreta (1965)



Dantzaria eta mendi ingeniaria da. Zazpi aldiz irabazi zuen Euskadiko Aurreku Txapelketa; lehenengoa 19 urterekin. Haur literaturako liburu bat ere idatzia du. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, Soka proiekturako.

Felipe Sarriegi Olanan (1930-2007)



Beasainen jaioa. Gurasoek sagardotegia izan zuten ("Bodegon") 1934-1954 bitartean (gutxi gorabehera). Umetan bertan lagundu behar izaten zuen. Hamalau urterekin CAFen hasi zen lanean. Kirolzale amorratua, umetatik hasi zen lasterketetan parte hartzen, eta batez ere futboleko jokatzeko. Beasaingo hainbat taldetan jokatu zuen (Avenida, Loinaz, Beasain...), familiak uzten ez zion arren.

Txomin Sarriegi Olanan (1928-2017)



Beasainen jaioa 1928an, gazte-gaztetatik izan zuen kirolerako zaletasuna. Bi gai nagusi izan ziren hizpide berarekin egindako elkarrizketan: Beasaingo lantegietako lan-giroa, eta kirola (futbola, batez ere).

Gregorio Telleria Pagoaga (1929-2017)



Legazpin jaioa; aita bertakoa zuen eta ama mutrikuarra. Gerra ostean heldu zen Abarizketa baserrira, 1940an, 11 urte zituela. Elkarrizketan bere emaztea ere azaltzen da, Mari Cruz Gaintza (1934), Azkaratekoa (Nafarroa).

Mikaela Urkiola Usabiaga (1923-2018)



1923an jaio zen Beasaingo alde zaharrean. Aita Bergarakoa zen, baina ezkondukoan Beasainera joan zen bizitzera. Azalpen interesgarriak eman zituen hainbat gairen inguruan: Beasaingo herriaren izaera, kale giroa, ohitura zaharrak eta abar. Bere anaia Santosekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Santos Urkiola Usabiaga (1921-2006)



Beasainen jaio zen 1921ean. Aita Bergarakoa zuen, baina ezkondukoan Beasainera joan zen bizitzera. Santosek La Salle ikastetxean egin zituen ikasketak eta CAFen hasi zen lanean oraindik gaztea zela. Azalpen interesgarriak eman zituen hainbat gairen inguruan: Beasaingo herriaren izaera, kale giroa, lan kontuak eta abar. Bere arreba Mikaelarekin (1923) batera egin zitzaion elkarrizketa.

Luis Urretabizkaia Aranburu (1926-2008)



Beasainen jaioa 1926an. Ume-umetatik ezagutu zuen baserri giroa. Baserriko lanak, bizimodua, ohiturak eta abar aipatzeaz gain, gaztetako ibilerak eta gerra kontuak ere gogora ekarri zituen elkarrizketa honetan. Elkarrizketan bere emaztea (Carmen) ere azaltzen da.

Jose Usabiaga Etxeberria (1923-2013)



Ugartemendi auzoko Ugartemendigoikoa baserrian jaio eta bertan bizi izan zen. Beasaingo hizkera jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, bere anaia Juan Bautista (1924) eta Bitoriano Apalategi (1921) lagun zituela.

Juan Bautista Usabiaga Etxeberria (1923)



Ugartemendi auzoko Ugartemendigoikoa baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen. Beasaingo hizkera jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, bere anaia Jose (1924) eta Bitoriano Apalategi (1921) lagun zituela.

Agapito Usabiaga Oiarbide (1930-2019)



Altamira auzoan jaioa, Lazkaoko mugan. Baserritarra, auzoko eta baserriko bizimodua eta lana aipatu zituen, gehienbat, elkarrizketan.

Antonio Zubillaga

Jose Zufiaurre Goia (1934)

Beasainen jaiotakoa 1934ean, aita Zaldizurreta baserrikoa zen eta ama Zeraingo Inurritegi baserri-errotakoa. Ospitaleko mojekin ikasi zuen lehendabizi, eta geroago fraideekin 12 urte bete zituen arte. Horren ondoren, Saturrarango Seminarioan egon zen 3 urte t'erdian. Betidanik izan du kezka humanistikoa: euskal gaietarako eta etnografiarekiko zaletasuna aitarengandik jaso eta seminarioan indartu zitzaion. On Joxe Miguel Barandiaranekin hartu-eman sendoa izan zuen eta hark sortutako Etniker taldean hasi zen berehala lanean; Gipuzkoako lan-taldearen arduraduna izatera iritsi zen. Hainbat ikerketa eta lan burutu ditu eta Euskal Herriko Atlas Etnografikoan ere parte-hartze zuzena izan du. Beasaingo lan monografikoaren egilea ere bada.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Auzoaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Lizarralde, Esteban; Aranburu Esnaola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-003/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Auzoa nola aldatu den. Lehenago familia gehiago zeuden, eta gazte gehiago. Erdikoetxe, lau bizitzako etxea zen. Auzoko etxeen zenbaketa egiten dute. 22 familia guztira.

Transkripzioa

- Eta zelan gogoratzen duzu zuk, auzo hau nolakoa zen zeure ume-denboran? Asko aldatu da edo...?

- Esteban: Aldau, bai, jendez bai. Ordun gazte-jendea gehiau zan hemen. Gaur kanpoa jun da lanea ta orduan baiño gazte gutxigo dau gaur hemen.

- Joxe Inazio: Familik´e gehiao ordun. Familik...

-Esteban: Familik´e gehiao. Nik hemen [...] juxtu-juxtun ezautu nian famili bat. Gero, bestea, [Arrola] zana. Hemen bat, bi, hiru, lau famili. Erdikoetxen...

- J. I.: Lau, beste lau.

-Esteban: Bai, beno... Geo zuek etorri ziñeten, eo zuen aitte zana ta ama zana.

-Joxe Inazio: Baiño hue...

-Esteban: Haak´e ezkondu hittuun lehengo etxe zaharretik honuntza pasauta. Ta hemengo obrea eitten ni ibili nittuan hor morroi.

-Joxe Inazio: Erre ein emen zan hoi, etxe hoi.

-Esteban: E?

- Joxe Inazio: Erre ein emen zan etxe hoi.

-Esteban: Nik dakiala ez.

-J.I.: Esaten zuen [lehenao]...

-E: Lehenao bai, erre ein emen huan, baiño nee akordun ez, zeatik hoi geo zuenak Garin-Arretxen bizi dittuk...

-J.I.: Bai.

-E: ... aitte-ta, aitte zana ta...

-J.I.: Bai.

-E: Geo ezkontzen, ni morroi eaman nittuen hiru hillabeteako. Garotarako garaie huan ta hor obran. Ta Zaldibiko...

-J.I.: [...] hiru, ordun? Hiru etxe al zin gure Erdikoetxen, hiru bizitza?

-E: Lau hittuan, lau, bai.

-J.I.: Oseake, hemen lau, beste lau hor, zortzi.

-E: Ta Garin-Arretxen beste lau bahittun...

- J.I.: Beste lau han´e, hamabi.

-E: Bai.

- J.I.: Argoiñen beste hiru...

-E: [Apaiz-etxea].

- J.I.: ... hamahiru.

-E: Hamahiru. Argoiñen, honuzkaldeen hiru, ta Argoin-berrin bi, bost.

- J.I.: Hamahiru ta bost hemezortzi.
-E: Hemezortzi. Erlotan hiru...
- J.I.: Hemezortzi ta hiru, hoeta bat.
-E: Hoeta bat.
- J.I.: Eta Etxeberrietan?
- Esteban: Etxeberrietan hiru, uste diat izan behar zittuela. Nee akordun ez.
Nee akordun bakarria haik. Baiño lehen...
- J.I.: Zure akordue nun hasten da?
- E: Ba, Etxeberrin bat.
- J.I.: Hoeta bi baserri, hoeta bi famili, txikixek o haundixek.

1.2. Baserriko lanak eta eskola batera

- **Hizlaria(k)**: Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-006/012
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:17:52. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola garaiko eguneroko bizimodua deskribatzen du.
Eskolara joan aurretik, baserriko lanak egiten zituzten.

Transkripzioa

- Bertan, eskolara honea joaten ziñetenean, ze izaten zen, eguneroko bizimodua zein zen? Goizean goiz esnatu... Ze ordutan hasten ziñeten...?
- Jeiki ta hola? Jeiki goiz. Udaan behintzat oso goiz jeikitzen giñen. Ba, geo etxen beti lana izaten zan, ikuillun ta... Txikik izanaatik, seittun lanen [ikasten] da, baserriko lana ikasten. Lan goor-goor batzuk kendu ezkeo, ba, mutiko batek-eta ohittu ezkeo... umeek lan asko eitten do! Lan asko in dezake umeek! Ez jolasen bakarrik ibiltzen baa, ez, ta lanik ez bazaio eakusten´e, ez. Baiño eakutsi ezkeo... Eta ordun, ba, ikasten zan etxeen, etxeko... etxeko martxea! Ba, behiek jexten´e Beasaiña eskolaa juteako hasitta neon, esnea xamurrena zuena jexten ta hola. Ta arten ez neuzken hamahiru urte baiño gehiao. Baiño halaxe, lanpeen. Hortan ikasi gendun ta...
- Eskolara negu aldean edo... Eskola garaian, bertara joan aurretik, eskolara joan aurretik, lanen bat egiten zenuen etxean?
- Etxen, ba, zeoze ein behar izaten zan beti. Jakiñe, ba! Edo azpik ein edo ikuillun beti eoten da lana. Ta geo garai bakoitzen, ba, baatzati... baatzan amai laundu edo egurre ekarri o txikittu edo... milla gauza.
- Ta gero arratsaldean...
- Arratsaldean lanea, hoi bai. Hoi zan gue hemengo martxea. Oain, esan dean bezela, behin Beasaiña alde itten hasi giñenen, ba... hango lana ez zitzaian lana iruitzen nei, hango eskolako lana, zeatik gehiegi´re ez giñutzen estutzen. Alde batetik, ezin zalako. Ezin da, zeatik maixu batek nik ez dakit zenbat izango litzaken hola... ideala.
- Zenbat ikasle...?
- Hamabost, hogeit? Hortik aurrea, beharbaa, gehiegi. Eta gu, pentsau, berrogeta hamar giñen!
- Bai, eta segun ze adiñetakoak diren...

1.3. Ume-umetatik lanean

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ume-umetatik umezain ibilitakoa. 13 urte zuenetik ezkondu arte, aitari laguntzen zion soroan, belardian...

Transkripzioa

- Ba, hori. Ta zer nijon gehiao esatera hor?
- Orduan, ume-umetatik...
- Alaba: Ordun, ya ni jaio nitzenetik...
- Ya zu jaio ziñenetik ya etxen, hemen. Ba...
- Ume-umetatik lanean, orduan, ez?
- Bai. Eta nik umek izan nittuneako banekin nola hazi umea.
- Alaba: Bai, bai...
- Ta holaxen. Ta geo, gaiñantzen, guk ibilli deu hamahiru urte ezkeo, hoeta bostea, ezkondu nitzen arte, aittekin lanen soron eo belardin, belarra ebaitzen.
- Alaba: Segan...
- Segakin. Aitte aurreti ta ni atzetik. Zaharrena nola nitzen, ba, nik laundu behar aitteri. Ta behi sail haundie genduken: beatzi behi ta bi iri genduzken baserrin, eta, beste... Ba haintzako jana prepa(ra)u behar. Eta horixen.

1.4. Denek plater batetik jaten zuten

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Sukaldea nolakoa zen. Garai batean jatekoa mahai erdian jartzen zen eta guztiek jaten zuten bertatik. Gerora agertu ziren familiako kide bakoitzarendako platerak.

Transkripzioa

- Sukaldea nolakoa zen? Beheko sua ta...?
- Alaba: Berezia zen...
- Bai, bai, dan-dana.
- Alaba: Kontaiozu nola zen...
- Bai, hori da, kontaidazu sukaldea nolakoa zen.

- Alaba: ... zeatik ni gogoratzen naiz nola... ni gogoratzen naiz nik ze irudie neuken zuen etxeko sukaldeko [...]

- Bai.

- Hori da, bai, beheko sua ta...

- Beheko sue eta geo... Gero ya, ni umea nitzela, ya hazitxoa nitzela, jarri zoen ekonomika.

- Eta beheko sua non? Erdian edo bazter batean?

- Erdin.

- Erdin?

- Bai. Ta leihoa... sartu sukalden ta frenten leiho bat hiru kristalekoa. Eta han zeon ekonomikea. Eta beste aldamenen...

- Alaba: Ekonomikea leiho aurren?

- Leiho aurren ekonomikea, bai. Eta aldamenen su-bajue tximini haundikin behetik gora.

- Tximinia beti ezautu zenuen zuk, ez?

- Beti, beti. Oaindio uste det... Ez, kendu zuela uste det. Teillatue arreglau zuenen kendu in zuen tximinie.

- Eta sukalden ibiltzeko ta kozinatzeko ze erabiltzen zen?

- Eltzek. Eta, geo, zeak, su-bajukin aitzen zanen, aber, nola du izena harrek? "Krispi" o holako bat. Zauken aro bat, han sartzen zan eltzea ta e(g)osten zan su-bajun.

- Alaba: Nolakoa zan eltzea, lurrezko [...] edo...?

- Ez, ez, portzelanazkoa. Ordun, behintzat. Guk lurrezkoik... ez naiz akordatzen gue etxen... ez naiz akordatzen. Eta...

- Portzelanazkoak...

- E? Portzelanazkoak. Eta peligrosoa zan, zeatik eroitzen bazan, kaskau eitten zan, ta herdoia.

- Eta bazkaltzeko orduan guztiok erabiltzen zenuten platera ala erditik jaten zen edo...? Garai batean aitari edo amari entzunda...?

- Bai...

- Bai?

- Bueno, hori´re bai, bitatio. Erdin fuente haundie ta handik hartu kutxara bakoitzek ta jan. Geroa, geroa ya sortu zan platera norbeana, bee kubiartokin. Ta hori.

- Orduan, aurrekoa ere ezautu zenuen?

- Bai, bai, ezautu nun.

- Alaba: Baiña mahaie fijoja zeneukaten, ez? Ama? Mahaie fijoja zeneukaten, ez? Mahaie fijoja, ez zan hola paiten [...]....

- Ez, ez, lau hankako mahaie.

- Alaba: Lau hankako mahaie.

- Bai, lau hankako mahaie.

- Gaiñera, mahaikada haundixa, ez?

- Hamar laun.

- Hori, ba...

- Juntatzen giñen. Hamar laun: aitte, ama eta gu sei-zortzi. Ta hamar´e bai. Hamabi´re gero bagañen, baiño ya orduako ni ezkondu nitzen eta bajatzen.

1.5. Logelak; artilezko koltxoak

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/006
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Logelak nolakoak ziren. Koltxoiak, artilezkoak. Artzainei erosten zitzaien artilea eta etxean garbitzen zen.

Transkripzioa

- Eta habitazioak esan dezu... Nolakoak edo...?
- Ba, bi ohikok, habitaziok bi ohikok, haundik ta gaiñea asko. E?
- Alaba: Bai, bai.
- Este...
- Eta oheak altuak edo...?
- Normalak, oso normalak, oain bezelaxe. Eta gure aitte eta amak zeuken, este... bat haundie eta beste bat txikigoa. Bat “uno veinte” ez dakit aillako zan, “uno quince” o hola. “Uno veinte” igual. Eta bestea “uno cinco” o “noventa”. Bai, [...] aittena ta amak umekin egoteko, bularra emateko ta...
- Alaba: Haundigoa.
- Haundigoa.
- Eta koltxoiak eta orduan nolakoak...?
- Illezkok. Ta ordun illea e(r)osi itten zan, artzaiei. Ta eitten zan ekarri, errekan garbittu, jaboiaquin-ta jabondu eta gero jo eitten zan.
- Alaba: Makillaz...
- Makillakin, hagakin.
- Eta hori zenbatero? Urtean behin, hillean behin...?
- Ez, ez, behin, behin, hori behin. Koltxoiak ein behar zoen garaien. Nik ezkondu nitzeneako holaxe in nittun. Holaxe in nittun.
- Orduan, artillea garbitu ta...
- Zenbat kotxe da(b)illen gaur hemen...?
- Alaba: Ez preokupatu horrekin...
- Eske nola nere familie hor daon, ba... preokupau eitten naiz. Bueno, aber...
- Orduan, koltxoiak hori: artillezkok...
- Bai, illezkok. Este... ni ezkondu nintzenen, zeñi e(r)osi giñon illea, ardi-illea? Ez naiz akordatzen zeñi e(r)osi giñon... Eta etxea ekarri, errekan aska haundie zeon eta etxe ondón e bai askea, etxe ondón uste det beratzen euki nittula jaboiaquin illek. Gero, ondo jabondu eta gero sekatzan alanbren. Eta gero makillekin, esan deuna, jo ta harrotu ta holaxe eitten zan.
- Eta koltxoiak gero, lantzean behin, harrotu egiten zen, illea atera edo...?
- Zer?
- Alaba: Zenbat? Bi urten behin itten zendun zuk gutxiñez hori, etxen behintzat.
- Bai, bai, bi urten behin hola berritu illea.

1.6. Urtean behin altzariei argaizaria

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/008
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

• **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Jangela ere bazuten. Jaiegunetan bertan bazkaltzen zuten. Urtean behin altzari guztiei argizaria ematen zieten. Aitak gramola bat ekarri zuen baserrira.

Transkripzioa

- Eta lehen aipatu duzu etxe-ordea. Etxe-ordea zeri esaten diozu?

- Alaba: Salea. Sala... komedorea zeukaten oso politte, oso ederra komedorea.

- Ia, orduan, lehelengo, komedorea nolakoa zen?

- Komedorea normala.

- Alaba: Nola normala? Ta nola aitzen ziñeten negun-ta...?

- E?

- Alaba: Argizaria ematen negun ta...

- A! Zoruri bai, zoruri.

- Alaba: Zoruri ta mueblei!

- Ta komedorea orduan? Osea, sukaldeaz aparte, komedorea?

- Bai. Ez... sukaldea eta hoi zan festatan, urten behin, inbitatuk getorkiuneako, gonbiatuk, hobeto esanda, ba, haiantzako. Komedoren jaten zan orduun. Mahai haundie, bi aldetaa ataatzen zitzaion doble...

- Alaba: Bai, bai.

- Doble... doble tabla ta...

- Baiña hori baserri guztietan ez zen egongo, ez? Holako...?

- Ba! Gehienetan bai, e?

- Bai?

- Bai, gehienetan bai. Geo hementxe egon zan mahai hura ta ez da(k)it oain... bota?

- Alaba: [Ez dakit], ez dao ya [...].

- [Gure] aittek puskauko zon...

- Alaba: Ze esan behar nizun, ama... Ta ordun bazenduketen, ba, zuek ohittura... udan ze beste lan batzuk eitten zenituzten ta gero negun aprobeztatzen zenduen, ba...

- Soiñue jotzeko.

- Alaba: Etxeko...

- Garbiketak eiteko edo...?

- A! Baita, hoi bai.

- Eta ze...? Zelan egiten zenduen?

- Eta urten behin eitten gendun mueble guzik danak argizaittu. Argizarie ematen nien. Oain bezela, ez zeon, gaiñera, hor esprairik; ordun zeon kajak. Eta argizarikin...

- Alaba: Ze izaten zien...

- Bai, holako...

- Alaba: ... pastillak bezela?

- Ez, holako...

- Alaba: [...] bezelakok edo kajak?

- Poteek. Poteek. Tapea kendu, hartu, biun-biuiñe eoten zan. Hartu ta [...] eman danen, danen eman goitik behera holaxe egurren eraa eta gero frotatu.

- Eta lurra...?

- Lurrei berdin. Baiña hori ez, e! Klase hori.

- Beste klase...?

- Beste klase bat harentzako.

- Eta, orduan, lurra garbitzea ere lan gogorra izango zen?

- Belauniko, dana belauniko.
 - Alaba: Baiño... Baiño gustoa aitzen ziñeten.
 - Bai. Mikrofonoa jarri...
 - Alaba: Mikrofonoa ez, gram... Nola da?
 - Gramola, gramola. Gramola jarri... Bai, ta bagendun oso politte...
 - Gramola zeneukaten baserrian?
 - Bai.
 - Alaba: Dotorea zeukaten.
 - Oso. Ez dakit nundik etorritakoa.
 - Alaba: Ze esango dizut, hola...
 - Hola, kanpaidune.
 - Alaba: Nola esango nuke nik? Karakola bat balitz bezela, estilo hortako... horrela. Baiño bikaiña zan. Aitak ekarri zizuen, ez?
 - Bai.
 - Eta gogoan duzu aitak nola edo zergatik ekarri zuen gramola?
 - Gu...
 - Edo non erositakoa zen edo?
 - Ez dakit, hoixe ez dakit nun erosi zon.

1.7. Errenta gariarekin ordaintzen zen

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Auzoko baserri gehienak etxe-jabeak ziren; hala ere bazeuden errenteroak ziren batzuk. Errenta gariarekin ordaintzen zen; baserrietan ez zen dirurik egoten.

Transkripzioa

- Eta, hemen, inguru honetan, baserriak ze izaten ziren etxejabeak edo errenteroak edo...?
 - Ez, ez, etxejabeak, danok etxejabeak. Hemen errenterok...
 - Alaba: Bai...
 - Zein?
 - Alaba: [Basarte ta...] ta hauek.
 - A! Bai, hoitxek. Bueno... San Andres ta holako batzuk. Bai, oaindio urte gutxia arte.
 - Alaba: Ingurukok jabeak, etxejabeak zien.
 - Bai, danak, zeatik gu, [Muazpikok, Munekok], Artetakok... danok etxejabeak. Holaxen.
 - Eta. Orduan, beharbada ez duzu jakingo, baiña etxejabeek edo errenteroen artean alde handia izaten zan, ez? Errenteroak urtean jabeari...
 - Pa(g)au ein behar izaten zon, pa(g)au ein behar izaten zon. Ez da(k)it zenbat paatzen zoen orduun.
 - Baiña dirutan ala garitan ala zelan ordaintzen zan?

- Bai, hoi seguro, garitan. Bai, zeozer ordaiñekin. Diruik ez. Diruik ez pensa eskun... ez zan ibiltzen ordun eskun diruik! Ez zan ikusten!

1.8. Eskolara joan beharrean etxean lanean

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:28:15. **Bukatu**: 00:30:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zortzi urterekin karmelitetan hasi zen eskolan. Aitak ez zuen eskolarik, baina amak bai. Aitak tratuak eta kontuak buruz egiten zituen. Maria askotan etxean geratu behar izaten zen aitari laguntzen.

Transkripzioa

- Esan dezu, orduan, zu karmelitetan...
- Bai, karmelitan. Ta... beatzi... zortzi urtekin amak eakutsi zin nei nola hartu lapitze. Arten ez zeon boligrafoik. Ba, lapitze. Ta nola manejatu. Zortzi urtekin.
- Eta amak... etxian, orduan?
- Amak etxen. Eta gero...
- Alaba: Zuen amak bazekin?
- Aittek ez zeuken eskolaik.
- Alaba: Aittek ez zauken eskolaik...
- Eskolaik ez zeuken, ez zekin firmatzen. Amak bai.
- Alaba: Ta tratuk nola itten zittun aittek?
- Aittek memoriz.
- Alaba: Buruz...
- Errealakin. Hoinbeste erreal ta hoinbeste erreal.
- Orduan, orduko dirua errealak, ez?
- Errealak zien. Eta hoinbeste... behi horrek hoinbeste balio du, hoinbeste erreal ta hola eta holaxe eitten zoen trataoa.
- Eta amak, orduan, eskola nun hartutakoa, auzoan bertan edo...?
- Amak ez dakit nun ikasiko zon, Unsaingoa zan hua ta. Gue gizonan bizilagune, bestekoa. Ez dakit nun ikasi...
- Alaba: Hogeit urtekin ezkondu zan...
- Hori da, hogeit urtekin.
- Alaba: Baiño...
- Ondo.
- Alaba: Baiño jantzik zien haiek, ama...
- Bai, oso.
- Alaba: ... etxe hartakok.
- Oso, oso.
- Orduan, zortzi urtekin zuk ya...
- Bai, ta geo hamaika urtekin ya... Bueno, zortzi urtekin hasi eskolan, baiño erditan etxen. Aittek esaten zin: "Maria —ni, Maria— Maria —o Mariatxo o ez dakit ze esaten zin— ba, gaur irik ittulatzeke laune behar det ta etxen geatu beharko dezu". Akabo nee eskolea. "Y yo feliz".

- Bai? Bai? Gustorago etxean lanean eskolan baiño?
- Alaba: Geroz ta atzerago eskolan, noski...
- Eta hori. Eta hala gelditzen nitzen ni etxen, ta prime... gustora. Baiño hurrungo eunen atzea ni bestetatio. Bestek aurrea pasauta... ta ni atzeago.

1.9. Baserriko lanak: lurreta, garia, artoa, babarrun-biltzea...

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Umetako, gaztetako kontuak. Baserriko lanak: sorobarrena, lurreta. Soroak landu egiten ziren: garia, artoa... Babarrun-biltzea.

Transkripzioa

- Eta garai baten zu... gaztetan...
- Bai, hemen dana irikin ta...
- ... auzoko giroa ta... baserri guztietako umeak elkarrekin ibiltzen ziñeten edo...?
- Bai, bai. Ta gu... ni gaztetan hasitakoa naiz lanen. Ta sorook... dana soro ibiltzen zan ordun: garie, artoa... dana ibiltzen zan. Ta geo eitten zan sorobarrena, beti lurre eroitzen zan barrena ta lurketea esaten zitzaion. Saskika, auzokoi danai deittu ta aldiko bakoitzeti bat jutun zan ta bizkarren lurre kargatzen zuen batzuk sestoia ta kanbiatuz, bata bestei emanez. Ta ni, ba... ordun´e soroa jun ein behar, ba, ta aittek esan zin: "Ni jungo naiz nekau ingo zea zu ta" ta "Ez, ez. Ni oain jun behar det". Bizkarren kriston babea ataa zitzaten saskikin, ta deseitzen jun zitzaten garaien. Geo gazta ta ogie eo ematen zoen atsalde-erdi ingurun, usarioa hala izaten zan ta. Ta aitte jun zitzaten garaien, enee, esan´e in non: "Ni ez nauk berriz jungo hola [boluntadekin] lurketaa". Lurketak eitten zien; baten "Bueno, gaur holako lekutan lurketea emen dao. Bihar beste leku baten...". Ta artosartzek eta hola´re bai, e? Artoa-ta eskuz sartzen zan orduun, ta "Bueno, gaur holakok banetuta jarrita emen dauke lurre ta gaur han artoa sartu behar da" ta danak alkarri launtzen. Eskuz sartzen zana, bakizu, urrie geatzen zan. Ta holaxe batea ta bestea. Bueno...!
- Alaba: Geo [...] gari-jotzek, garie...
- Garie´re bai.
- Alaba: Hemen ni gariikin akordatzen naiz.
- Bai.
- Alaba: Makinea...
- Garie ebaitzen aurrena ittaiekin ebaitzen zan. Ta guk hemen, ba, hamalaun bat lagun edo bai, baiño dana etxeko parientetakok etortzen zien. Ta beheti etortzen zienak Seferina ta Kandido ta...
- Alaba: Esnezalek.
- Esne... Bai.
- Alaba: Baiño launtzea etortzen zien.
- Laun...
- Alaba: Alabesak o etorri sobra´re garai baten ta eak´e geo eaman [eitten]

zuen jana eantzako haik´e... ta, ordun, etorri launtzea ta gero jeneroa eaman eak. [...] Ohitturea...

- Bai. Ta babarrun-biltzea ta askotan etortzen zitzaten nei hua, emakuma hua.

1.10. Lurreta auzolanean egiten zen urtean behin

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Lurretaren inguruko azalpenak. Auzolanean egiten zen hau ere; txandatan jaso behar izaten zen lurra otarretan, bizkar gainean. Urtean behin egin beharreko lana zen. Laian egindakoa da bera; gerora etorri zen goldea. Lurretaren inguruko azalpenak. Udaberrian egiten zen "lurketa".

Transkripzioa

- Lehen aipatu duzu lurketa eta zer izaten zen orduan, zestokadak?

- Bai, zesto txikik, otarrak esaten die batzuk, "lur-saskik" esaten giñon guk. Lur-saskik esaten diou. Saski txiki bat. Ta hua, ba, betetzen zoen ta batzutan tontorra o igual jartzen zoen ta harek karga haundie. Ta batek bizkarren damakizuna zuk hari hartu ta txandatuun, lau o bost laun igual. Zuk...

- Alaba: goora eman behar...

- Bai, goora. Konpaztea, barrenekok jasotzen do bizkarrea ta hurrungoa zureana etortzen zanai zuk bizkarra jarri ta harek hartu ta harek ematen zizun hutse zuk behera eamaten zendun. Bakoitzek txandan. Ta goora´re igual, bizkarren, txandatuz.

- Alaba: Ta ordun laian indakoa izango zan, goldaik eta ez zan izango arten.

- Laian-ta, bai. Goldan´e...

- Alaba: Orduako bai?

- Baiño gerotxon goldan. Laian gehiena.

- Dena dela, lurketa bizkarrean, ordun, lur-otzarak edo eramaten zenituzten, eta hau noiz izaten zen urtean... noiz? Behin edo...?

- Urteen behin.

- Urtean behin...

- Klaro! Soro hua urteen behin banetzen zendun ta beti lurre behera juten zan. Ta muiño-eskiñan... bestela behera erabat kargauko zan, ta eitten zoen, ba, metro erdi bat o metron bat zeatu, barreneti kendu. Ta hua jasotzen zan gora. Ta guenea eaman ber zendun hua.

- Ta hori uda parten egiten zen lan hori?

- Bai, bai, hoi...

- Alaba: hori udaberria igual...

- Uda... e, udaber... udako garaie izango zan, e? Hoi arto eittekon eo hola. Arto eittekon.

- Alaba: Ta artoa noiz itten da, udazkenen edo udaberrin?

- Ez, ez, udaberrin, udaberrin. Artoa? Bai.

- Alaba: Artoa ta babarruna. Bai, udaberrin, bai.
- Hoixe, San Joanak baiño aurreti, bai. Udaberrin.
- Alaba: Ba, ordun ein beharko zuen gora jaso.
- Klaro. Banetzen eta lurre jartzen zendun garaien, geo hua jaso eitten zendun gora.

1.11. Basoak gaur baino garbiagoak

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Mugak asko zaintzen ziren. Baserritarren arteko harra-marrak. Basoak oso zainduta egoten ziren; garbi-garbiak. Orbela biltzeko "zarbea" erabiltzen zuen.

Transkripzioa

- Alaba: Eske ordun diskusiok´e hola belar pixkat bizilaunek...
- Muga.
- Alaba: ... mugak mozten baldin bazon, hasarrau ta dana eitten zien baserritarrak.
- Bai. Hemen...
- Alaba: Hua zan...
- Asko zaintzen ziren?
- Alaba: ... pekatue zan balarra kentzea batek beste.
- Hemen guk, zea... jakiñe, nausi batena zan hau. Da. Zea gendun... Nola zon izena honek?
- Alaba: El Duque del Infantado, esan diot.
- Bai. Eta, jakiñe, horrena bezela gurea. Baiño ter(re)nok partittuta zeren, nun mugak. Eta hemen beheran murkoa, zeak, hemengo amonak, ittaiekin ebaita ekartzen emen zon belarra muiñokoa. Ta hemengo aittonak hoiña zala muiñoa ta muiñoa izaten da goiko ter(re)nok daukenana izaten da behera jo arte, murkoa seiñale zon. Ta horrekin hasarrau. Ta hor goien mendin, berriz´e, segan eitten zoena zuzenen eman behar, e? Zea, mugea. Diskusiok zertako, danak bertan utzita jun behar ta.
- Alaba: Oain dana laharra. Oain dana laharra ta belarra.
- Dana, bueno...
- Alaba: Baiño ordun zan belarra ta hola...
- Bai, asko zaindu behar zan. Bakoitzak...
- Alaba: Bakoitzek bere terrenok.
- Bason orbela´re... Orbela´re ekartzen gendun, gaztiña-hostoa ta eroitzen zanen ta, hango belarrakin batera ebai ta ekartzen zan. Ta saski bat bakarrik´e ez zan uzten bason! Dana aitzeneko hondarra´re bilduta ekarri behar etxera orbela! Oain han geatzen die danak, orbela eta gaiñetikook.
- Alaba: Erratzakin´e bai, ez? [Eskoarekin partez]...
- Erretza? Hoixe!
- Alaba: Erretza´re bai pasau.
- Bueno...! Majiña bat aldiz...

- Alaba: Garbi-garbi gelditzen zan basoa.
 - Majiña bat aldiz ein non nik juten nitzenen eskoarekin baiño hobeto bitzen zala ta. Baztarren eoten zien zeak izaten zien... elorriik.
 - Alaba: Elorri, bai.
 - Ta harekin ein hola eskuun kendu eskue ibilli behar zan lekukoa ta sokekin lotu ta zarbea orbelak bitzeko. Ez zan hua bezalakoik. Harek bitzen zon ondo! Ta holakook einda nao ni majiña bat, e?

1.12. Gaztaina-klaseak

- **Hizlaria(k)**: Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-016/011
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Gaztaina klaseak: "Otañue"; "Bettargie"; "Txertekoa"... Bakoitzaren ezaugarriak.

Transkripzioa

- Danboliñen ordun erretzen gendun gaztiñea. Ta onak gaztiñak, e! Oain haik akordauta eon beharko deu.
 - Lehen aipatu duzu gaztaiñarik onenak eta...
 - Ke ba! Ez dao oain gaztiñaik.
 - Baiña orduan...
 - A! Orduun saltzea íre bai!
 - ... gaztaiña-klaseak egoten ziren gaztaiña-klase diferenteak?
 - Alaba: gaztiña-klaseek...
 - Otañue.
 - Alaba: Otañue izena?
 - Bai, [...]. Bettargie, hua goizagokoa zan, bettargie. Ta otañue zan atzenekoa. Ta geo txertakea —txertakea esaten giñon—, bate txertau beko gaztiñak. Haik íe gaztiña ona izaten zoen.
 - Ta onena zein izaten zen?
 - Ba, haundie otañue; oain, bettargie zan goxogoa. Otañue zan ikaragarrizko gaztiña-alea. Gustoa ematen zon harek biltzea! Bueno...!
 - Orduan, gaztaiñak...
 - Ta hutskerin, e?
 - Alaba: Ta plazaa gero saltzea.
 - Saltzea...
 - Plazan saltzera, e?
 - Bai, oain... geo hor Zelarretik ta ekartzen non orduun ez gendun...
 - Alaba: Ez, lehenakok hemen hartzen [...].
 - Lehenao bai, lehenao saltzen gendun, baiño gero kitto. Geo ez gendun gaztiñaik saltzen. Geo dana jartzen nittun ganbaran eo nun o han pillan jartzen nittun ta beti gaztiñea erreta etxen jan. Hemen anaiek-eta geo honea etortzen zien afaltzea; majiña bat afari ein zoen.

1.13. Ogia egitearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Baserriko ogia. Batzuk "orantza" edo "legamie" gordetzeko ohitura izaten zuten, hurrengo astean berriz ere ogia egiteko.

Transkripzioa

- Eta ogia egiteko orduan, masa, esan duzu, batetik bestera, aste batetik bestera, gordetzen zenuten masa zati bat...
- Bai, bai, aste guziin.
- Alaba: Baiña ez zendun gordetzen masa, ore-masea.
- A! Ez. Orantza o... nola do...? Legamie batzuk esaten dioe, beste batzuk orantza. Ta ogi-masea o zea, baiño [Loitzeneko] amona horrek...
- Alaba: Gorde eitten zon, ez?
- ... puskea kendu ein zoon masei ta hurrungo asteako hua gordetzen zoon. Horrena diferente, baiño ez zan gurea bezelako ogie etaatzen, ittogoia.
- Ta ittoagoa zer da?
- Zer da? Ba, pisugoa. Gurea harrogoa.
- Alaba: tupittuta bezala.
- Tupittue harena. Oain, jateko ez dakit nik zenbateaiño zea izango zon, hua bee eraa ibiltzen zan ta. Baiño guk ez, guk ekartzen gendun le(g)amie o esan dizuan hoi. Ta gue anaiek, gaiña, osoik botatzen zien, biri osoa.
- Alaba: dana, paketea.
- Pakete hoi, bati erdie ta bestei erdie. Ta ogie ondo harrotzen zan. Ta geo aste guztie... Hue gizajo hutse zan. Ogie danai eman behar izaten zien. Itten zon ogie kilo t´erdi, pisatzen gendun geo masea labeen sartzeko, ta kilo t´erdiko zeakin. Izaten zittun batei eman beharrekok, bestei eman beharrekok...

1.14. Baserriko bizimodua; gerra-ostean garia entregatu behar

- **Hizlaria(k):** Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-022/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua. Uda partean belarretara Murumendira. Abereak; soroa. Babarruna, artoa eta garia ereiten zituzten batez ere. Gerra-osteko kontuak: ereiten zen gariaren zati bat entregatu beharra zegoen.

Transkripzioa

- Kontatuko didazu nolakoa zen egun normal bat, baserriko egun normal bat, jaiki eta... goizean jeiki eta ze iten zenuten?
- J. M.: Pues... Belarra ebaitzea, udan belarra ebaitzea segea hartuta. Ta Murumendi ez dezu jakingo nun daon?
- Bai.
- J.M.: Bai, bakizu? Ia hauntzaiño. Erremintak bizkarren hartu eta bero latza ta belarra ebaitzen holako malkar baten. Jo, nearra´re... Ta zenbat urte eukiko nittun nik? Hamabost urte o hola. Hamabost urtekin. Bai, Murumendiaño. Oain piñuri dao; ez naiz jun hemezortzi urte hontan. Ta, gaiñantzen, pues, ganaukin.
- Lan gehien ze izaten zan ganauekin o...
- J.M.: Eta...
- ... soron?
- J.M.: ... soroon. Zeatio ordun itten zan babarruna, artoa... garie ya... ez dakit ze urtetan utziko zitzaion. Ez zea akordatzen zu?
- O: Ez hola nabarmen... Baserri batzutan lehenao, beste batzutan berandugo...
- J.M.: Berrogeita... berrogeita... berrogeita zazpi ingumarin. Cuarenta y dos zan mixerik haundiña... Eta... garie ein ta deklarau ein behar zendun zenbat area zenduzken. Ta etortzen zien neurtzea igual. Bueno. Eta entregau... gobernoei entregau behar zitzaion parte bat.
- Parte bat?
- J.M.: Bai.
- Ta zenbat? Gogoratzen dezu?
- J.M.: Paatu? A! Huskeri bat. Una treinta uste det aittuta naola kiloko. Bueno. Ta etxeako behar zan eta akordatzen naiz gue aitte zana-ta —jai gaue zan, gaiñea— hor etxe atzen goien holako berrehun litroko barrikoa eaman, zuloa ein, gariz bete ta tapatu. Etxea errejistratzera etortzen zien ta “Garik nun dare?” ta “Hemen, ganbaran pillan”. Beitzen zien ta alde itten... Guardia zibillek etortzen zien.
- Bai, e?
- J.M.: Hala, gero jun die gari horik´e errota eamateko, ba, etaa ein behar doela ta danak ernetzen behetik gora, berde-berde.
- Oiarbide: A! Humedadekin...
- J.M.: Humedadekin. Joe... Harrika tiratu!

1.15. Urte-sasoia ren arabera ereiten dena; baserriko tresnak; bidegintza

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-022/008
- **Iraupena**: 0:05:20. **Hasi**: 00:10:35. **Bukatu**: 00:15:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Soroan zer ereiten zuten urte-sasoia ren arabera: garia; arbia; artoa. Baserriko tresnak: laiak, goldea, alperra, area. Abereentzat

jana menditik ekarri behar izaten zuten. Bidegintza kontuak. Auzoko bidea auzolanean egiten zuten. Gurdi-egurra.

Transkripzioa

- J.M.: Ta, gaiñantzen, ba hori. Artoa kendu... Garie kendu, arbie itten zan; arbie kendu ta artoa. Arbie ganauntzako, neguako. Erremolatxa ´re bai.
- Kontatuko didazu soroak eta nola banatzen ziran eta... hau, orain esan dezuna, e?
- J.M.: Ni laian ez naiz aittu, ezautu in nittun. Oin, aittona zanakin pixkan bat igual hola baztarren baten. Goldan. Goldea.
- Eta, adibidez, pentsa gariakin hasten zarala. Hasi gariakin eta... Nola izaten zan prozesu guztia? Garia ta gero... gero ze izaten zan, arbia edo...? Hori kontatuko dezu?
- Oiarbide: Garin ondorenen ze eitten zenduen?
- J.M.: Garin ondorenen arbie eitten zan agostun.
- Agostun...
- J.M.: Eta hua izaten zan neguako ganauntzako jana. Belar ondue arbikin batea emateko gauen, [osea], onduta. Orduun ez zeon siloik eta hola. Eta arbie kentzen zan garaian...
- Eta noiz kentzen zan?
- J.M.: Arbie? Ba, otsaille, martxoa hola. Eta gero eitten zan beiz´e goldau goldeekin. Ta area. Harriz bete gaiñetio ta "tarrrraaaa" atzea ta aurea ta. Geo alperra. Alperra ezautu al dezu?
- Hemen kanpoan daukazuna?
- J.M.: Bai. Majiña bat buelta... Bi dare, gaiñea, bat etxez hauztio. Bat´e kanteran eindakoa ta ormigoizkoa. Ta aldapan, ze eitten zon "tarrrraaa" sokor baten "tarrraa" behera jun ta hemen zapaldu be utzi. Beiz´e. Baiño nekea, e? Eta... pues... artoa ta indabea, babarruna.
- Hori noiz hasten da? Noiz izaten zan?
- J.M.: Hori, ba, apiillen...
- O: San Prointziok aldea. [...]
- J.M.: San Prointzio o hola, eta maietzen. Maietzen erditi hola. Maietzen aizkenea bittarten. Horik soron eitten zien. Geo jorrau ein behar zan! Handi aurea hasten giñen belarretan. Uda guztin belarretan, zeatio hemen nola laborea eitten zan, pues belarra ´re gutxigo izaten zan, ter(re)no gutxigo zeon ta. Horreatio jun behar izaten gendun mendia. Eta ordun ez zeon baztarrik... oain danak zikinduta dare, e! Otarik ta batzuk piñu aldau ta piñuk ez do bate balio ta kasoik ez dioe itten ya. Ta hautza jun in behar zan. Ta gu bakarrik ez, auzo guztiik. Birek... A! Udaberrin bire eittea, birea konpontzea.
- Hori urtero?
- J.M.: Urtero. "Holako tokitan bire ittea da". Ter(re)no haundie bazendun, ttikie bazendun, bestek bezela lana .
- O: Auzolanea jun behar, sozidaden, debalde lana ittea.
- J.M.: Bai, bai, auzolanen.
- Eta auzoko guztik?
- J.M.: Auzoko guztik. Hartu pikotxoi...
- O: Bidea okupatzen zuenak danak.
- J.M.: Bai, bai. Pikotxoiakin kiskiti-kaska. Ta hantxe. Ta geo toki batzutan lokatzea igual egongo zan lurren ta galtzarea eitten zan, harrie etaa nunbaitten, irikin gurdin eaman, ta galtzarea jarri. Hemen badao galtzarea Beasaingo elizatio goiko baserri hoitaa. Oain... pa! urte asko. Zeatio hemen goien dao ermitea, San Andres ermitea, lehendabizikoa Beasaingoa. Oain piskan bat konpondu doe. Eta alkatea emen zan hemen goiko baserrin; alkatean etxea hor goien. Ta galtzarea dotorea izan behar zon. Geo, ba,

jendea zabartu zan, egurrek arrastaka... Zeatio ordun diru txanponen bat hartzeko panaderia egurre ekartzen zan. Gaur ez dao panaderitan ogie eitten doen tokitan egurren beharrik. Gaur ez dao. Ta negun eo gurdi egurre prepaatu, hartu irikin ta atzetio arrastaka batzuk. Beasaingo elizen ondoren moztu bi metron, bota gurdi gaiñea —kalen arrastaka ez zeola eamateik eta— Santiñeko panaderia. Ni´re einda nao beajek Etxea etorri ta “Noa jun behar deu?” ta “Beste gurdi bat egur prepaatzea mendia”. Hara jun ta prepaatu ta hola. Hori, martxa hori baserriko danak.

- Eta ze izaten zan: haritzak o pagoak o...?

- J.M.: Paga ta haitze igual. Ba, bai. Oain, gaztiñea ahule da. Egurre, edozein egur, gaztiñea ez beste guzik, e? Gaztiñek sue eitteko ez do be(r)otzen labeik. Urkie, lizarra, haitze, paga... ta, horik izaten zien. Ta pagok ia gastatzen ai zien. Etxen sue eitteko´re gaztiña zaharren bat´e... gaizki. Oin sobren dare danak. Guk bauku pagarie [Kortatatik] goraxeon. Aitte zanak: “Bota zak hor adar bat, hako haunditxon hua bota zak”. Haundiña, baiño holakotxea. Oain´e, zea, holakotxek dare ta egurre sobre dao oain.

1.16. Idirik ezean, lanerako behi gogoragoak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-022/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Larre-behiak, esnetakoak. Behi pinta izaten zen hemen inguruan egoten zena. Idirik ez zegoen tokian, behi gogoragoak edukitzen ziren lanean laguntzeko.

Transkripzioa

- J.M.: Ta jendea oain itxuli da, ba, lantokitaa. Bai, hemen baserrik´e ia ganaduik daonik hemen goian ez dao.

- Asko aldatu al da?

- J.M.: Ba, bai.

- Lehendik honea?

- O: Dana ia.

- Dana?

- J.M.: Nei bihotzeko zea batek eman zin ta kendu ein nittun behiek. Larre-behiek nauzken nik. Bueno, lehenao esnetakok.

- Lehen-lehen, aspaldi, ze izaten zan, beti esnetakok izaten zien?

- J.M.: Bai, bai, bai, danak. Lehengo baserrin ez zan... Gero azaldu zien behi gorri limusin eta pirinaikak eta hok gero azaldu zien honea. Hor Alemania aldetio etorri zan bastante eta oain hor segitzen duenak. Lehen behi pinttea izaten zan. Santander aldetio ekartzen zittuen. Esnetako.

- Eta ze izaten zan, behiekin lana ze izaten zan? Goizen hasi ta...

- J.M.: Guk iriik eukitzen giñuzten soroako ta mendia garoa-ta ekartzeko, e? Baiño beste baserri batzutan, pues, behiek, hok bezela.

- O: Bai, guk´e behiek...

- J.M.: Behi suiza batzuk, fuerte samarrak. Baiño ni ezaututa nao hemen, e?

Behi suizak uztarrin nola ibiltzen zittuen akordatzen naiz. Ba, oain igual hirurogei urte edo, aitte zanak nola eukitzen zittun.

- O: Oso ganau fuertek zien suiza horik.

- J.M.: Bai, suizak indarra´re bai, e?

- O: Suizak. [...] suizak eukitzen zittun.

- J.M.: Indarra´re bazuen haak, e? Jo-ta... Gaiñantzen, irik egon die hemen.

- O: Eske ordun ez zan ez motokultoreik, ez tratoreik... ezer ez.

- J.M.: Ba! Ezer ez!

- O: Dana animalie: astoa, zaldie, irie, behie... hemen ez zeon besteik ezer.

- Danerako, ez? Simaurretarako ta mendira juteko...

- O: Dana animalie.

- J.M.: Bai, bai, ba...

- O: Esnea kale... Baserriti esnea kalea jeisteko´re astook. Astoi saski batzuk jarri aldamenetan ta...

- J.M.: Neoni´re ibillita nao zaldikin neoni´re.

1.17. Ume jaioberriari "bisita" eramaten zitzaion

- **Hizlaria(k)**: Olano Seguroola, Carmelo; Olano Seguroola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/002
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Ohitura zaharrak. Ume jaioberri bat zegoenean familian, "bisita" eramaten zitzaion. Ardo goxoa, azukrea, etab. eramaten zitzaizkion amari. Perretxikoak batzeko zaletasun handia. "Txerri puxkak". Odolkiak eta morzilak.

Transkripzioa

- I: Ni gogoratzen naiz Santiago garaie zan eta Etxeberritan, Garingo Etxeberritan jaio zan Santi. Eta gure etxetik jarraitzen gendun bixitakin. Osea... Ez dakit zuk ezautu dezun. Norbait jaiotzen zanen eta familiartekoa eo baldin bazan, tartekoa baldin bazan, bixita eamaten zitzaion. Edo ardo goxo boteillea edo azukre ta txokolatea edo kafea... Eta Garin da Beasaingo auzo bat. Ordun, oiñez hemendik Usurbetik bueltan, aillatzen giñen zeara [Etxeberrieta] zon izena baserrik. Eta amakin. Eta izango zan, ba, uztailen bukaera edo abuztun hasiera. Eta bagiñoatzen ya Usurbei... aldamenetik hartzen zan, han itturritxo bat, eta pagarie. Osea, biden gaikaldeen pagarie. Eta amak esan zian: "Hara, beida, beida, beida! Beida zan! Beida zan!" eta zeak, ontto baiño illarea orbel eta garo azpin ikusten zien. Baiño soldau txikik balie bezelaxe danak, danak zea. Io zan gue ama —zeati sasoi bat bazeuken ordun!—, io zan, zean, maldan gora, soiñekoa eantzi zon, azpikogonea hartu zon, azpikogonan sartu zittun mordoa — baiño kantidadea, e? Danak berdin-berdin-berdiñek, berri-berrik— eta pago-ipurdi baten gorde zon eta bueltakon hartu giñutzen ta etxea. Baiño hemen perretxiku...

- K: Asko.

- I: Zaletasun haundie izan da. Eta ni gogoratzen nauk zea... hik esaten

dek, ba, nola garoa ebaitzea jun zien gizonezko hoik... Baiño lehenao nola ibili ziñeten zuek zea biltzen... Zakukara perretxikue etxea ekarri ta ordun nola ez zeon ez neberaik eta ez zeon konserbatzeik, ba, banatu etxeko zean batzun arten ...

- K: Bizilagunei.

- I: Bizilagunei eta izeba Batistai ta hoiri.

- K: Txerrin zea erregalok bezela. Nola izaten zan, ba?

- I: Bai.

- Bai, bai, bai.

- K: Baiño txerriña nola esaten zan, ba? Txerrie hildakon...

- I: Txerri-puskak.

- K: A! Puskak.

- I: Txerri-puskak, bai.

- K: Izaten zien, ba, izeba ta hola...

- I: Bai, aurrena apaizei.

- K: Bai.

- I: Aurrena apaizei eta puskaik onenak, gaiñea, apaizei, e?

- K: Puskea...

- I: Bai. Geo ama neskame eon zan señoari.

- K: Odolkik, odolkik...

- I: Odolkik, murtzillek... zeatik bi eratakok izaten hittuan.

- K: Bai.

- I: Heste mehekin einda eta heste lodi-lodikin einda. Eta bat zan odolkie eta bestea zan murtzille.

- A... ta ze desberdintasun edo...?

- I: Ba, hestea. Masea berdin-berdiñe zan.

- Bata fiñagoa ta bestea...

- I: Ez, ez, ez, zea zan, hestea zan, bat fiñe eta bestea heste lodie.

- Bai, baiña jat...

- I: Ipurteste zabal-zabal hori.

- Baiña jateko orduan...

- I: Jateko igual-igualak zien. Heste lodi horrenak izaten zon azala lodigoa, baiño ondo egosita ona gelditzen zan.

- K: Buo! Ikusgarri goxok!

- I: Bueno, ba, banatu perretxiku hoik eta, hala ere, gogoratzen nauk, simaur pilla gaiñen onttoi-ta kentzen zaion menosa...

- K: Ezkoa.

- I: Hori da. Baiño simaur-pilla gaiñen pillea, e?

- Eta zelan esan diozu, onttoei kentzen zaien...?

- K: Azpin eukitzen do. Erderaz [tubos] o hola esaten zaie, zea batzuk...

- Eta euskeraz zelan esan duzue?

- K: Ezkoa.

- I: Ezkoa.

- Ezkoa... Ta zer da?

- K: Hori jartzen da zahartuta...

- Bai, pixkat berdeska...

- I: Ezkamea´re... ezkamea´re esan izandu zaio. Osea, azpin onttok izaten dittu bi kapa bezela. Eta berrie danen gaikaldea ta azpikaldea dana jaten da. Baiño pasauta daonen, kendu itten zaio ezko hue.

- Bai, pixkat berdeska...

- I: Hori da, hori da. Ba, hondakin horrekin...

- Hori da ezkoa...?

- I: Bai.

- Ezkamea...

- I: Ezkamea´re bai.

- K: Ezkama izango da erderaz.

- Beira... Orduan, txerri-puskak, orduan, bizilagunen eta arten...
- K: Gero, gero gibelurdiñek eta ziza-horik eta...

1.18. Errazionamenduko ogia txerriek ere ez zuten jaten

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/011
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:20:25. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errazionamenduko ogia. Ama talogile bikaina zen. Oremahaia. Errazionamenduko ogia txerrien askan botatzen zutenean, txerriak ez zituen jan ere egiten.

Transkripzioa

- K: Halamoduzkoa izaten zan ogie razionamentukoa.

- I: Puff!

- Bai?

- K: Ze sartzen ote zioen?

- I: Bueno, gure amak beste gauzaz gain talogillea zan aparta, baiño ein zittun, ein zittun talok bee bizi guztikok. Goizen hamahiru laun etxen; gizonexkok: aitte, hok bost, sei eta morroi bi, jenealen, eo morroi bat eta apupillo bat. Ordun, gizonexko hoiri danak, danairi eman behar zitzaien jaten.

- K: Hirurogei talo baiño gehio igual.

- I: Esango diat, esango diat. Ba, gue ama jeikitzen zan zazpietako edo lehentxeo. Bezperan ya guk uzten genion pasata iriñe. Ore-mahie zeon ikuillun eta ore-mahien pasata ya iriñe. Beak basea itten zon eta hasten zan "taka-taka-taka". Gosarie talokin. Egurdiko bazkarie razionamentun ematen zittuen opiltxo borobil hori batzuk Mexikotik barkutan ekarritako artokin egindako iriñekin. Ordun, arto hori barkutako zeatan, sototan eo ekartzen zoen lekutan mindu eitten zan.

- K: Bai, dana lizunduta.

- I: Bueno, hura ez zeon kristaurik jango zonik! Ordun, egurdin razionamentuko bollo haik bakoitzei berea jaten zonak jan, jaten ez zonak han gelditzen zan.

- K: Bai, beste batek jaten zon.

- I: Ez! Txerri-pertzea juten zien. Txerriri askaan bota eta txerrik ez zuen jaten. Txerrin askaan egoten hittuan naranja-azalak —zeatik naranja-azalak ez due jaten txerrik— eta bollok. Ez zittuen probau´re itten. Eta, pentsa, ordun bazan jendea razionamentuko ogie sobrau zan edo ez galdetzea ordu batak aldea etortzen zienak panaderia. Oseake batzuk hartzen zittuen... Eta gero, atsaldeen, gue amak eunero-eunero-eunero taloz gain, itten zon ogi bat. Zeatik gue etxen nola artoa zeon eta iriñe zeon... Gero kontauko dizkitzut arto hori ta irin hori lortzeko ze ibiltzen zien. Holakotxe ogi bat eitten zon, haundi-haundie, lau librakoa huan... haundie. Laben kabitzen zana, zeatik labea ez genduken su-labeik. O labe... Ez genduken ogie erretzeko, ez. Ekonomikan, baiño ekonomika

haundie ta ederra [hartzen] zan. Ba, me(r)iendau etxen. Etxe barrun. Ez zeon kalera ateatzeik meinda harrekin.

- K: Jo, usaiekin bakarrik´e...

- I: Iñok ez zeuken. Ez, eske ez, ez.

- K: ... etortzen zien "Maria Luisa..." iñez.

- Bai, e? Jesus...!

- I: Eta akordatzen naiz aitte eta morroia edo meindatzen sukalden ai baldin bazien eta gue etxeko atea egoten zan beti zabalik, osea, giltzatu gabe. Ordun, "kris-kras" krisketea sentitzen zuenen hartu ogie eta mahai azpia. Ez zekizun zeñek etorri behar zon...! Bueno, meindatu horrekin eta afaldu atzea taloa. Aurrena batzuri zopea eo porru-patatak edo zerbait, baiño gero talokin edo urdai hirugiharrea edo txoixoa edo zerbait.

1.19. Umetako lanak

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Romaratezabala, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-027/003
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Baserriko bizimodua umetan; egin behar izaten zituzten lanak. Auzolanean zumea ebaki; abereei azpiak egin; pinu sartzen; otea batzen; etab.

Transkripzioa

- Ta garai batean, zu umea ziñenean eta, basarrian ze lan egiten zenituzten umetan edo...?

- Umetan ze lan?

- Bai.

- Bueno, ez iazu aittau ze lan. Handik etxeik etxe izaten zan orduun zume asko ta zumea ebaitzen jaio orduko auzolanen. Eta gero etxen´e bateko azpik etatzea zala, besteko piñu-sartzen´e bai saio eerrak. Elurre goien beheran ta ebie, txingorra ta piñu-sartzen aittuta nao ni. Jendek negar eitten zola´re bai, e, aittuta nao ni piñu-sartzen. Holako plemoia ta "Ezin naiz jun. Ez naiz gauza ta ezin naiz jun" ta zeak aitteordekook "Jun beharra zeon!" ta juten ez baziñen eman eitten zizun zapindue ta jun ein behar. Ta ni jendea ne(g)ar eiñez hola aittuta nao piñu-sartzen plemoiakin ta. Jende danak: "Baiño kazkabarra ai dola arpegi horrekin! Hilko zea!", "Hiltzen banaiz, hobe". Hola ibiltzea baiño hobe esaten nien nik jendei. Gaizki. Ta harrezkeo´re, pentsa zazu, bata dala, bestea dala... eske egun bat onik ez. Oain gaizki naola esaten doe "Bai, zu ibili zean bezela ibili ezkeo gaizki egon behar" esaten doe batzuk. Batzuk konprenitzen doe, beste batzuk ez. Oain nola... lehengo situazioa nik nerea, batzuk konprenitzen doe, besteek ez doe konprenitzen.

- Abere-zain eta egoten ziñen?

- Hantxe gutxiña. Ni han ibiltzea baiño nahio non lanen ibiltzea. Eske ni ika(r)au eitten nitzen ganauk alde ingo... galdu ingo zitela aberek. Ta ni lanea o atxurrea o hau eittea o hua eittea azpik etatzea o ota etatzea.

Lehen´e simaurre eitten zan oteekin. Bestela azpigarrrik ez zeola ta holako otak, holako eskue baiño haundiagoko otak ataa , ekarri, hue txikitu ta harekin simaurre eitten zan sorotako. Ez zan oain bezela abonoik botatzeko diruik izaten. Oain ez ta ordun´e ez. Orduun gutxigo. Ta otea etatzen ta... bueno!

- Eta otea nundik ekartzen zendun?

- Mendiin eoten zan!

- Bertan, etxe ingurun edo...?

- Igual kilometro bat [bidera] jun ta atea ta gurdin ekarri ta jarri ta hua dana txikitu. Geo, piñu-landarea ein etxen ta haik aldatu. Ma(k)iña bat piñu aldau gendun hor gure basarrin, jaiotetxen. Oain danak botaik duzke baiño... Txiki-txikittatik amargauta, jaio orduko.

1.20. Otea, abereen azpia egiteko

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Romaratezabala, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-027/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Otearen inguruko azalpenak. Abereen azpiak egiteko erabiltzen zuten otea. Jai egunetan ukuilutik simaurra ateratzen zuten. Abereak nola zaintzen eta hazten ziren.

Transkripzioa

- Eta, orduan, otea esaten duzu aizkorarekin?

- Bai. Haundiñak aizkorekin, bestela atxurrekin. Dana garbittu ipurdie ta ipurdittik, lurren azpittik ebaki ta gero hua etxea ekarri ta hura txiki-txiki ein ta simaurra eitteko ikuillun. Zeatio oain azpik eunero ataatzen die, baiño ordun ataatzen zien, normalen, zortzi eunetik zortzi eunea, astebetea. Gureen problema eoten zan jaietan elizaa etorri, elizati etxera jun, gosaldue ta azpik etaa... aste guztiko azpik etatzea. Igual sei-zazpi jornada azpik ataa gurdie hartuta irik lotuta ta segi!

- Eta metatu egiten zen otea edo...?

- Ez. Otea ekarri ta montoian jarri.

- Ekarri, txiki-txiki ein ta...

- Txikitu, montoian jarri, txikitu ta azpie eitteko... Geo gaiñea iñaurkin pixkat bota hari eta simaurre eitteko. Ganauk nola astebetean eoten zien ikuillun, ikuillun ez zan eoten oain bezela hormigoik eta zeaik ta holako zuloa eoten zan ta zulo hura bete eta han azpie atatzan zanen astebeteko simaurrek. Gure baserrin ezautu dittut nik.

- Lehen ganaua ukuilluan egoten zen? Kanpora ez zen ateratzen?

- Larreen. Lehen ganadue larreen. Lehen ez ziten ikuillun... Bai, nundik? Oain bezela pentsue ez ziten ematen, e? Txahalak errepen, kalea jun... mataderia eaman arte. Behin baiño gehiotan eaman giñuzen errapetik kendu gaur, gaur illuntzen esnea eman ta bihar goizen txahala matadeia. Handi Beasaiña mendiik mendi aber zenek... Oain kamionakin eamaten die, baiño handik Beasaiña... Haik hartu ta ibili ta... bueno! Desastre!

1.21. Baserriaren egitura; sukaldea, ukuilua, logelak

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Romaratezabala, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-027/010
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Baserriaren egitura. Sukaldea nolako zen: beheko sua; eta abar. Ukuilua nolako zen. Logelak, koltxoiak.

Transkripzioa

- Eta baserria zelakoa zen? Sukaldea eta beheko sua edo...
- Beheko sue. Han ez dao oaindio txapaik, e? Ekonomikaik ez dao han. Beheko sue.
- Eta beheko sua zuk nun ezautu zenun, bazter batean edo erdian?
- Eskiñan. Ez, eskiña baten, baztarren. Baztarren, etxen baztarren.
- Tximiniarekin edo...?
- Tximinikin.
- Hitztuna 2: Hau bezela, o hola, [...] baztartxo...
- Frigorifikoa daon bezelaxe pareta kantoian, kantoie itten don pareten dao sue han oaindio. Ba, hala zan. Ni aspaldi ez naiz jun, e? Gero ya, ba, beheko sue ta butano, baiño han txapaik ez do iñok ezautu.
- Hitztuna 2: Han ekonomika...
- Ez, ekonomikaik ez du iñok ezautu.
- Eta, orduan, sukaldean eta, ba, ez dakit, baba-lapikoak eta...
- Beheko suun! Parrillan. Neskamea esaten zien burnizko katxarro txintxilika ta han jarrita o bestela beheran, brasea ein ta brasen ondoren egosi [...] babarrunak-eta egosita. Beheko suun. Bestela neskamea esaten zioen katxarro bat izaten zan, hola, ba, butanon katxarro hoitako bat kirtenakin. Hura gelatza esaten ziuero gero goien txintxilika [egoten] zana. Txintxilika jarri ta han o bestela beheran brasatan e(g)osten zien.
- Eta labaren bat bazegoen horrelako txaparen bat, burdiñazko txaparen bat edo bertan beheko suaren atzekalden?
- Zean, bai, aurreko kantoneran paeta ez erretzeko ta gero azpin beste txapa koskor bat. Geo bestea, nola esaten zien? Suun bueltan brasea ez zabaltzeko hola angulo ein ta bi burni... bi burni hola ta gero angulon alkarri akoplatzen ziela hautse kanpoa ez etaatzeko, surtako hautse.
- Eta horrek ze izen zun?
- Ez dakit nola esaten zien horiri... Su-burnik uste det esaten ziela, sutan nola egoten zien. Su-burnik uste det esaten ziela.
- Oseake, sukaldea horrelakoa.
- Bai.
- Eta gero logelak edo habitazioak...
- Logelak goien. Sukaldea beheran, gero pasillo bat eta ganaruuk, ikuillue ta sukaldea beheran. Ta gero goien habitaziok goien.
- Eta ikuillua sukaldera begira? Ganauak sukaldera begira?
- Bai. Pasillo bat, sukaldeko atea ta pasillo bat ta ganau-ganbelak dana zeakin, atekin, ean atekin, janak aurrea botatzeko.
- Esan duzu ganbelak? Zer dia ganbelak?
- Bai, ganau-askak. Eta geo atea jartzen zieten hai(ri) bestela jan dana

botatzen zizuen sukaldeako pasilloa. Ta ganbelak. Gero atek hairi jarri ta hala zien han.

- Ganauentzat, janaria emoteko bazenuten horrelako ontziren bat edo gero goikaldean uzten zana?

- Ez. Atzekalden zulo bat ein, ate bat ein, eta handik bota eta atzekalden, ean aurrekalden, ikuillun, askak. Ta han lotuta egoten zien. Atze-zulotio askaa bota.

- Eta horri zelan esaten zenioten “aska-aurrea” edo?

- Askak, ganaun askak.

- Eta aurrekaldeari?

- Pasilloa. Aurrekaldea pasilloa.

- Hiztuna 2: Bai, aska-aurrek garai hartan...

- Aska-aurrek.

- Hiztuna 2: ... garai hartan.

- Eta habitazioetan koltxoiak-eta nolakoak ziren zure akorduan?

- A, illezkok.

- Ardi-illezkok?

- Ardi-illezkok han. Han oain´e hala egongo die. Pentsatzen det hala egongo diela, e? Ez dakit, ni ez naiz juten oain... Oain´e hala egongo die han. [...] koltxoiak illezkok.

- Eta aurreragoko koltxoiak nolakoak ziren edo? Beti ardi-illezkok ezautu dituzu zuk?

- Nik bai, beti.

- Artoarekin egindakoak ez?

- Artokin indako koltxoiak? A, bai, e?

- Artoaren...

- Bai, bai, txorrokakin, artoon buruko hostookin. Arto-txorrokea esaten dioe horri, arto-txorrokekin eindakok.

- Arto-txorrokea?

- Arto-txorrokea esaten dioe. Artaburuk eukitzen don gaiñeko lasto horri arto-txorrokea esaten dioe.

- Orduan, horrekin egindako koltxoirik ez dezu ezautu?

- Ez, nik ez det ezautu, nik illezkok ezautu dittut beti.

- Eta ehunezko erroparik edo? Bertan habitaziotan edo...?

- Ez, hola... Bueno...

- Sobrekama edo horrelakoak...?

- Han ez zeon. Han, bakizu, zuk etxe hura erre zanen danak erre zien ta gero ya... Ta ni etxea erre zanen ttikie nitzen. Hamahiru urte o... Hamahiru urte ez dakit eukiko nittun. Bai, hamahiru-hamalau urte, ze hamar urtekin jun nitzen neskame ta bi urte pasak in nittun. Geo ya aspertu nitzen etxeako ta gero etxea etorri ta etxea erre zan. Hamahiru urte ez neuzken ta nik orduko akuerdia ez dauket hola detaille danak...

1.22. Baserriko sukaldea, gelak, koltxoiak...

- **Hizlaria(k):** Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/005
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** Jaiotetxea nolakoa zen: sukaldea, logelak. Ekonomikan arbia egosten zuten egunean birritan, abereei jaten emateko. Logelak nolakoak izaten ziren; artilezko koltxoiak. Koltxoiaren azpiko egitura, arto-orriekin egiten zen.

Transkripzioa

- Gantzarain-haundi baserrian, zure jaiotetxen, sukaldea-ta nolakoa zen? Nola gogoratzen dituzu?
- Semea: Zeorren etxen...
- Beheko sue ta...
- Semea: Zeorren etxen...
- Ez, beheko suik ez non nik han ezautu.
- Ez?
- Ez, ekonomikea bakarrik, ekonomika haundie bee kaldera ta guzi — kaldera haundi bat o— eta hue ta dana. Geo, han e(g)osten giñuzen arbiik eta danak eunen bi aldiz: bat eguardi arten e(g)osten gendun, ta bestea atsalden jarri ta gaueako e(g)osten zan, goizen emateko.
- Eta, bestela, baserria nolakoa zen? Sukalde eta, gero, habitaziok zelakoak ziren?
- Habitaziok´e...
- Neskak alde batetik eta mutillak bestetik? Nola egiten zenuten lo? Edo guztiak habitazio bakar batean, logela bakar batean...? Ez?
- Hitztuna 3: Ez dizu ulertu...
- Beharbada zeuri... aitari edo amari entzunda, aurreragokok habitazio bakar batean guztiak egiten zuten lo edo...?
- Ez, ez, aparte. Neskak aparte ta motillek aparte. Koarto baten neskak eta motillek beste koarto baten eitten gendun.
- Eta orduan koltxoiak-eta nolakoak izaten zien?
- E?
- Koltxoiak-eta nolakoak?
- Koltxoiak-eta illedunek, ardi-illekin eindakok eta urten behin jotzen giñuzten ta...
- Eta zertarako izaten zen...?
- E?
- Jotze hori zertarako izaten zen?
- Hoi makillekin hautsek´e kendu ta garbittu. Nola udekin´e ez zeon... ez daon itteik, bestaldea zeatzen zien, garbitzen eo... garbittu o, jo ta hautse kentzen zitzaien, harrotzen zien eta berriz´e zea... koltxoi o sartu... hua garbittu eta sartu berriz´e ta berriz´e hua josi ein behar.
- Eta hori lan haundia izango zen, ez? Gero berriz josi behar eta...
- Ohittuta genden ta.
- Hori urtean behin egiten...?
- Urten behin eitten zan, bai. Nahiko izaten zan!
- Bai, ez?
- Gaiñontzeko lanakin geo, gaiñea, haik...! Ta, bestela, berriz, oso zepa-zepea geatzen da. Ta geo, berriz, azpiko ohia´re, berriz, lasto... esto... artoko... artoon orrikin, [maxa-orrikin] eitten zan. Hua zorro haundi bat billatzen zan, zakue bezela, eta hua bete eitten zan dana. Eta geo harren gaiñen jartzen zan koltxoi. Baiño hua´re harrotu ein behar zan eunero, bestela zulon sartzen ziñen ta! Han zulon geatzen zan!
- Orduan, ze izaten zen, lehelengo artoarekin egindako koltxoiaren azpian jartzen zen zerbait...
- Hitztuna 3: Jergoia.
- Jergoia...
- Jergoia. Eta geo jergoian gaiñen lastaie, hoi, artokiko... arto-orrikin indako

zea ta geo gaiñen koltxoia ardi-illekin eindakoa.

1.23. Ehunezko "kamixak"

- **Hizlaria(k):** Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ehunezko arropa. "Kamixak" nolakoak izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta ehunezko kamisak edo erropak garai baten...
- Bai, bai, kamixak eta... "Kamixak" esaten zitzairen, oain ez da usatzen.
- Eta zelakoak ziren?
- Ba, ze esango dizut nik? Gizonezkoon alkondarea bezela izaten ziren, sartu eta besook izaten zittuen, [lotu] eta hemen bordauta, eta dana ehunezkoa. Baiño hua gogorra izaten zan. Oain ez genduzke ibilliko.
- Gogorra, orduan, latza...
- Oso gogorra da hua. Dotorea bai.
- Bai, e?
- Dotorea bai. Ama zana gurek´e ni ezkondu ta gero´re bazittun alkondarak. Ta errealau´re in zittun.

1.24. Artilea lantzeko modua

- **Hizlaria(k):** Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Artilearen inguruko azalpenak: artilea garbitu, sikatu, eta haria nola egiten zuen amak. Artilearekin galtzerdiak egiten ziren.

Transkripzioa

- Eta badakizu lehelengo artillea garbitu egin behar izaten zen edo...?
- E?
- Haria egiten hasi aurretik artillea garbitu egin behar izaten zen?
- Bai, bai. Garbitzen aittu ta sekau ondo ta jarri txintxilika jartzen zuen eta harie txintxilika eta tira eitten ziren eta geo dana biltzen zan hoola. Bilduz, bilduz, bilduz juten ziñen. Eta geo, ondoaiño juten ziñen garaien, berriz´e luzau ta berriz´e segi.
- Eta hor izaten zen bihurra edo... hariak zerbait... bihurra edo zerbait?
- Bai, ba! Bihurrie... bihurrie jartzen zan garaien, ba, etxoin eta luzau in

behar izaten zan.

- A, goian?

- Bai, bai. Ta geo zeorri ai ziñela, ai ziñela, ba, berriz´e etorri eitten zan zereana. Ta berriz´e... berriz´e bihurrittu eitten zan.

- Eta gero hari horrekin zelan...?

- Artillea itten zan.

- Artillea. Baiño bildu egiten zenuten edo...?

- E?

- Ez dakit...

- Semea: Obilloa, obilloa ein.

- Obilloa egin lehenik...?

- Obilloa, bai. Bai, baiño guk obilloik ez gendun eitten, bestaldea, hola, luzek eitten giñuzen guk, ezautu nittun nik etxen´e. Zea, lanea nola etortzen zan lehen garai baten? Hala jartzen zittuen.

- Eta nola etortzen zan, ba, garai baten?

- Mordoskan jartzen zittuen ta, hola, besok za(b)alduta zeatzen zien eta zuk bi kantoitan hontaa hartzen zendun eta beste batek bildu eitten zon.

- Orduan, biren artean egiten zen...

- Bai.

- Eta gero artillearekin zer egiten zenuten?

- E?

- Artillearekin zer egiten zen gero?

- Artille harrekin etxeako galtzerdik-eta eitten giñuzen.

- Jertserik-eta?

- E?

- Jertseak edo...?

- Jertseik ez non nik ezautu, baiño galtzerdie bai, galtzerdie asko.

- Eta abarka-sokak?

- E?

- Abarka-sokak artillearekin egiten ziren edo...? Abarka-sokak, ez dakit, aitak-edo eiten zitun abarkantzako sokak?

- Abarkantzako? Ez, ez, ez da eitten abarkantzako sokaik harekin.

1.25. Baserriko beheko sua

- **Hizlaria(k)**: Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-029/015
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:19:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Garai batean Gantzarainandi baserrian egon zen beheko sua nolakoa zen. Burdinak, txapa, eta abar. Taloak egiteko zer erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Hori da, oseake, hemen bertan baserri honetan bazegoen beheko sua?

- Bai, bai.

- Eta nolakoa zen edo ze zegoen baztar aldean, erdian...?

- Lurren jartzen da eta burni bat izeten da. Bi izeten die. Bi bata bestekin

unittu eta haren gaiñen zeatu ta azpitiu txotx batzuekin eo pizten dezu. Zeati burnie egoten da ta burni harren gaiñen beste alboti jartzen diozu, bi burni hain gaiñetio bestek, eta errez hartzen doe. Su hartzen doenen eo erretzen dienen aurreatu in behar prasana.

- Eta suaren inguruan egoten ziren egur batzuek edo zer bait?

- Bai.

- Horrelako quadro antzeko bat egiten?

- Bai. Koadrokoa... Koadrokoa... burniik zien. [Hoik] ekarriko dittue seguro.

- Hitztuna 3: Ez, ez dao, burnirik ez dao.

- E?

- Hitztuna 3: Burnirik ez daola.

- Eta burni hain gaiñen jartzen zan egurre.

- Eta gero txaparen bat edo zegoen...

- Ez.

- ... paretaren kontra edo...?

- A! Bai Atzekaldetio bazeuken. Zeatio paiten kontra bestela paeteak hartuko zon ta paetek ez hartzeko, ba, atzekaldetio metro erdin bateko kapea eamaten zon bee amonakin.

- Zerekin?

- Amona, amona dauke ataata txapek.

- A, bai, e? Oseake, marrazki edo...

- Bai.

- Bestela sukaldean zer gehigo egoten zen? Galdarea edo...?

- E?

- Beheko suan zer gehiago egoten zen?

- Bueno, kalderea ibiltzen gendun, ibiltzen gendun, kaldera haundi bat.

- Eta zintzilikatzeke?

- Zintzilika, ba, katea goiti, kate lori bat, ta bee gantxoa eamaten zon. Ta gantxo hartan sartu behar zendun pertzan, kalderen kirtena. Ta azpiti sue eitten zendun ta eosi eitten zien.

- Eta, bestela, lapikoa edo ipintzeko parrilla edo zer erabiltzen zen?

- Haik´e bagiñuzten...

- Hitztuna 3: Neskamea.

- E?

- Hitztuna 3: Ez al zan izaten neskamea?

- Neskamea izaten zan taloi-ta eusteko. Hemen ez gendun guk hoi ibiltzen, baiño ama zana gurek bai, talok eitteko. Talok jartzen ditzu neskameen kontra eta harro-harro-harro, puztu-puztu-puztu einda geatzen die, eak geatzen zien. Oain hemen talok eitten die, baiño ez da nik ezautu dean bezelako talok ez da itten hemen. Ta hemen kanpotan einda ikusten dittut, baiño haik´e ez die gure amak eitten zittun bezelako talok. Zapal-zapal-zapalak.

1.26. Antzinako bizimodua lasaiagoa zen eta hitz egiteko denbora gehiago zegoen

- **Hizlaria(k)**: Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-039/002
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Antzinako bizimodua; hitz egiteko denbora gehiago. Arto-zuriketa; aitonak bertsoan egiten zuen. Bertso zaharrak; bertsolariak. Errementaria ogibidez. Euskararen inguruko gogoetak. Bizimodu aldaketa; ohitura aldaketak.

Transkripzioa

- Lehenago konbersaziorako astia egoten zen, gaiñera, ez?

- Bai. Bai, bai, bai. Ez zeon beste trasteik eta hitz egin behar. Garai baten arta-zuritzera jun ezkerro, ba, hizketan o... Gue aitona izaten zan kantun ibil... eitten zona. Bazeuken berso zaharran liburu bat eta handi ikasitakook. Hantxe kantari, gau guztin aitzen zan. Bueno, illuntzen juten giñen arta-zuritzera ta holako lanetaa. Kantuako zeuken bere... Zekitzen bersook: Txirritanak, Pedro Maria Otaño, nola da hori... Pello Errota ta hoik danak.

- Buruz?

- Buruz zekitzen, bai.

- Eta...

- Ta... zan er(re)mentarie. Bueno, er(re)mentarie, forjadorea zan, fabrikan [ibili zan]. Eta beti hortako izan zun bere gogoa, kantuako. Beti, e? Gure amak esaten zion behin baiño gehiagotan, goizeko zazpitan jaikitzen ta txistu jotzen ia “tipirri, tipirri, tipi”, “Garai onak die, ba, oaintxe txistue jotzen aitzeko” esaten zion [holako...]. Osea, umorea, berezko, berezko... umorea. Beti umore onen jaiki edo. Jaiki ta seittun “ttipili, ttipili...” txistue. Oain beste gauza bat ahaztu dana da hoixe beste bat.

- Txistu eitea?

- Bai. Ez hola “fsssi”, e?

- Kantuan edo...?

- Kantue, kantue. Edo trikitixa o... jotzea. Hori dana ahaztu ein da. Lehen mundu guztie kalen “tipi, tipi” juten zien, horik txistu eiñaz. Eta holaxe gauza asko, ba... grazie jun in zaio. Ni neretzako [euskerai] grazi asko galdu do berezkoa zona.

- Bai. Eta ze zentzutan edo...?

- E?

- Grazia esaten duzunean ze zentzutan? Grazia esaten duzunean, ez? Euskerak...

- Ataldi haundik zittelako jendeek. Ataldie. Ta hola... burla eitteko gogoa ´re bai izaten zan, e, bata beste. Hola, taberna-zulotan ta holako... izaten zien batzuk grazie eitteko beti —andaluzek badue hori pixkat— beste pixkat miñe erain o hola... eraitten dienak.

- Eta hemen ere bazegoen horrelako zerbait?

- Bai, bai, bazeon, bai. Bai, hasten zan broman ta bueno... holako jende berezik zien, holako grazi puskat zuena gauzak esateko ta beti holako buelta einda jendeekin ta parre eitteatio ta... beste gauzaik ez zeon.

- Eta hori ere zeharo galdu da, ez?

- E?

- Hori ere zeharo galdu dela...

- Bai, bai, bai, bai...

1.27. Zaldizurreta baserria

- **Hizlaria(k):** Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-039/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Gurasoen jatorria. Zaldizurreta baserria, Duque del Infantado-rena zen. Baserri ondoan bi lantegi handi zeuden, horietako bat Bernedo. Garai batean Beasainen kutsadura handia zegoen; lantegi asko herrigunean.

Transkripzioa

- Esan didazu, bueno, ama Idiazabalgoa...
- Bai.
- Ez? Donostiatik...
- Bueltan ibilitakoa.
- ... honuntza etorri eta ya ezkondu.
- Ezkondu zan baserria eta hortxe.
- Eta baserria, Ardantza baserrira edo...?
- E?
- Ze baserri? Baserriaren izena?
- Zaldizurreta. Hor kalea ta guzti dao. Hoi dana Zaldizurreta kalea da, hor anbulatorioa daon hori. Haren izenakin geatu da.
- Baserriaren izena hartu du, orduan?
- Bai. Ama´re baserrikoa zan, noski.
- Eta baserri hori norena zen edo historia...?
- Duque del Infantado. Hor Lazkaon palazioa dauke. Hori Madrilgoa zan Duque del Infantado. Ta horrek ez zon eze saltzen; arreglau´re ezer ez. Baserrie kanpotio behintzet, ba, itsusitzen-itsusitzen jun zan. Behin gogoratzen naiz nola zurittu gendun, ta oso politte geatu zan. Baiño hortako... Oin itten dien bezela, porlanakin hartu harrie ta... Harri ona zon. Noski, ondo indako etxea zan. Ta, bueno, zahartu in zan. Eta beti ai zien esaten bota in behar zuela ta udaletzek erosi zon eta hor ein zoen anbulatorioa. Ta oin hortio aldatzea dijozte beste leku batea. Oain ai die itten berrie berriz´e. Ta hor zien bi enpresa haundi zien hor, gue etxe ondón: Bernedo —oain aparkalekue hor dao, oain anbulatorioa [eitten ai dien] lekue— ta bestea beste alderdin fundizio bat zeon. Oseake, genden simaur arten, eon giñen hor gazte-denboran gu. Bi fundizio etxetio ehun metroa ta ehun metroa. Bi aldetaa: erreken beste alden ta gue alderdin´e bai. Ta gue sorotako gauzea oso zikiñe izaten zan, ke asko izaten zalako. Oain ez konparau... hemen ez dakit ze kontaminazio eongo dan, baiño garai hartan´e Beasaingo herrin... Enpresa asko zien herri barrun ta.
- Bai, eta, gaiñera, enpresa zikiñak, ez?
- Zikiñak.
- Fundizioak eta...
- Fundiziok eta forjak eta kea... ikatz asko erretzen zuen...

1.28. Zaldizurreta baserria duke batena zen

- **Hizlaria(k):** Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-039/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Zaldizurreta baserria Duque del Infantado-rena zen. Ordizian zituen bere ordezkok, eta haien bitartez egiten zituzten ordainketa guztiak. Etxejabea, udan Lazkaora joaten zen. Haren inguruko kontuak. Jentilen inguruko pasadizoak.

Transkripzioa

- Esaten duzu baserria dukearena zela.
- Bai.
- Zeuek errentero...
- Bai, bai, bai, errentero.
- Dukearekin harremana nolako izaten zen?
- Batez.
- Edo noren bitartez...?
- Horrek Ordizin zittun jarrita halako bere ordezkok. Nola zan familia hura? Urbiztondo o hola uste det zala. Eta haik kobratzen zoen errentea. Hor, San Martin inguruun o izaten zan. Eta, gaiñea, eaman behar zitzaien errentea eta bi kapoi. Pisu onekook, e? Kapoiak. Ta etxan ez bazeren [hain] pisukok kanpotio erosi behar. Ta [holako kontuak] aittuta nao nola ibiltzen zien. Eta bea etortzen zan uda parten Lazkaoa. Han palazio bat dao mojan paren — ez dakit ezautzen dezun Lazkao—, bestalden. Edifizio oso ederra, e? Joe, Lazkaon daon ederrena bai. Eta hautza etortzen zan hura ´re bere jende serbizio guztie hartuta hor etortzen zan.
- Dukea...
- El duque del Infantado. Horrek Ataunen zittun propiedade haundiik. Garai baten ejerzittoa izandakoa. Eta harek hemengo jentillek-eta esaten [zien horik]... Ataunen esaten due, ba, jentillen kontue ta?
- Bai.
- Horik bialdu zittun ta nausi in zan ta... Danana, e? Baso, baserri ta kristo guztik ein zan nausi.
- Orduan, hemen inguruan...
- Hemen Beasaiñen hiru baserri zittun, nik dakitela, e? Hiru baserri: Zaldizurreta, [Etxeubi] eta [Mariaras], han Ordiziko muga. Harek Ataun alden zitun propiedade haundik.

1.29. Gaztaina klaseak: iñurria, bettargie, otañua, hosto beltza...

- **Hizlaria(k):** Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-039/010
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- **Laburpena:** Errenta nola ordaintzen zuten; garai batean gariarekin ordaintzen zen. Gaztainadi handiak zituzten baserrian; gaztaina klase asko. Zein garaitan biltzen zituzten gaztainak. San Agustin gaztaina, Andra Mari gaztaina, latza, iñurrio haundie, iñurrioa, bettargie, bizkai gaztaina, otañue, hosto beltza, berde gaztaina, txakarroa. Lakarie, imiñue.

Transkripzioa

- Eta, orduan, zeuek errenta-eta Ordiziko familia honi ordaintzen zenieten?

- Bai, bai. Hautza halako fetxatan juten zan ta errentea pagatzen zan.

- Eta garai baten, zuk aitari-edo entzunda, errenta gariarekin ordaintzen zela?

- Bai, bai, bai, bai. Hori aurreagokoa izan behar do oaindio.

- Oseake, aitak ya...

- Bai, bai, hainbeste anega ta holako kontuuk. Hori´re bai aittuta nao, bai, bai, bai. Gure etxen ez non ezautu hori [hala], baiño izaten zala bai. Gue etxen zeon... gaztiñadi haundik zittun. Gaztiña-klase pillo bat. San Agustiñetan hasten zan, agoztun atzenen o irailen aurreneko eunetan, ta santu guztin arte gaztiña biltzen, e! Ta etxea ekartzen gendun morkotsen, gaiñea. Kontserbatzeatio ta... Gure etxeko fuertena gaztaiñea zan, kriston lanak ematen ziuna. Bota eitten gendun hageekin, bildu ta etxea ekarri ta ganbaran holaxe lodi-lodi botatzen gendun morkotsa. Badakizu zer dan morkotsa, ezta?

- Bai, beran koskola, ez?

- Hori da, kanpokoa.

- Eta gaztain-klase asko esan duzu...

- Bai.

- Gogoratzen duzu izenen bat edo?

- Bai, bai, bai, bai. Pillo bat esango dizut, hamar igual esango dizut.

- A, bai, e? Jesus! Ia, bota.

- San Agustin gaztaiña, Andra Mari gaztaiña. Hori zan ia ekaiñen ze egunetan izaten da Andra Mari? Zazpin, zortzin... Osea, hori ya bigarren klasea. Hirugarrena: latza. Latza, zan arantza motzeko motz-motza, zulatzen zon morkots bat zan... Geo zien: iñurrio-gaztiña, iñurrio haundie ta ttikie. Bueno, iñurrio haundie ta iñurrioa. Geo zan bettargie.

- Eta iñurrioak ze ezaugarri zittun? Txikiagoa zen edo...?

- Ale izugarri ona, zoragarrie gaztaiñea. Gue etxen gehiena hua zeon. Zoragarrie. Ta bettargie zan... beak esaten do: morkotsa zan hain ederra, ttikie zan, baiño argie, argie, bettargie, beak esaten do: "begi argikoa" esan nahi do. Eta behin galdetu omen [zien] bati: "Hi, ze mokau eskauko huke jateko?" ta "Bettargin erdiko alea". Hiru ale izaten zittun jenealen, ta beetzako mokauik hobena.

- Erdikoa...

- Erdikoa. Holako kontuk. Bueno, segi zagun. Gero bizkai-gaztiña´re bazan.

- Eta hau nolakoa zen?

- Hori´re beste honen igual txamarra zan, bettargi honen igual txamarra, ttiki xamarra. Geo zan otañue-gaztiñea. Geo zan hosto-beltza; hostoa zon beltzagoa. Ta berde-gaztiña´re bai. [...] zeatio, ze diferentzie zon horrek ez naiz gogoratzen. Diferentek zien baiña erretzeko-ta oso onak, berezik zien. Eta zer gehiago? Otañue... Ta txakarroa. Txakarroa atzenekoa, santu guzin ingurun o biltzen zana zan. Ya urtaberek eitten zon, ba, zortzi egun lehenago o berandugo, ezta? Urtaberea nolakoa izaten dan...

1.30. Aitak saskiak, amak artilezko arropak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Mujika, Maria Angeles; Lizarralde Mujika, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-045/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Aitak saskiak egiten zituen. Erabiltzen zuen materiala; gehienetan hurritza. Amak artilezko galtzak egiten zituen. Antzinako bizimoduaren inguruko iritziak.

Transkripzioa

- Hiztuna 3: Zestook´e bai.
- Hiztuna 1: Saskik´e bai.
- Hiztuna 3: Basoa jun, gaztiña zepak...
- Hiztuna 1: Gaztiña baiño gehio ibiltzen ziñan hurritze.
- Hiztuna 2: Hurritze, bai, hurritzek.
- Hiztuna 3: Eta [haiei] zeak... nola esaten [zaionan]...?
- Hiztuna 1: Zepak.
- Hiztuna 3: Zepak, zepak. Baiño geo etatzen [zienen], nola esaten [zionan], ba?
- Hiztuna 1: Zumitzek.
- Hiztuna 3: Zumitzek. Zumitzek etaa eta harekin pasauz-pasauz, saskiik, etxeako saskiik, beak eitten zittun.
- Hiztuna 1: Beak eitten zittun. Abarkak beak eitten zittun ta amak galtzerdi artilezkook. Gure ama zanak esan ohi zon... Pentsazu, beatzi ume zittuun, e! Baserrin. Eta gauen galtzerdi pare bat ein´e izandu zoola umek ohira bialdu ta indakon. Pentsazu nolako belozidaden eingo zittuun!
- Hiztuna 2: Harie nahiko lodie...
- Hiztuna 1: Klaro, artillea, bakizu, lorie izaten da, baiño hala ta guzti´re...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Auzoko eskola

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Lizarralde, Esteban; Aranburu Esnaola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-003/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Eskola, auzoan bertan. Esteban bertara joandakoa. Irakaslea apaiza zen. Joxe Inazioaren amonaren ahizpa irakaslea izan zen apaizarekin batera.

Transkripzioa

- Eta eskolan nun ibilitakoa zara?
 -Esteban: Ni? Hementxe.
 - Hemen bertan?
 -E: Elizen atzen lehengon esan gendun eskola txiki hartantxe. Esan nun, ba, lehengon ´e? Apaize...
 - Zeure irakaslea apaiza izan zen?
 - E: Apaize, bai. Ta [geokoan Istaar] zana zan beste bat maestrea solterea. Ta hue...
 - J.I.: Maestrea uste det zala nere izoa. Nere izoa ez, nere aitten-ta izoa izan zeiken. Eta nere amonan ahizpa. Eta uste det zala mankoa o hola...
 - E: Bai, zeoze harek ´e bazian.
 -J.I.: ... beso bat fallatzen zona. Baiño eskribitzen ta leitzen-ta zekiña behintzat!
 - Moldatzen zen...
 -J.I.: Moldatzen zana, ta ordun, ba, dotriñea ematen ta umei zeoze erakusten ta ibiltzen zala uste det.
 -E: Apaize ta...
 -J.I.: Apaize ta bik.
 -E: Bai. Don Kandido Arregi. Hue jarri nian, ba, nik petrillen gaiñen zeharrea [...], don Kandido Arregi apaize Inixio zanan kulpaz. Harek behintzat bakarren bati han zeoze ein eo ez zekiat ta nei kriston zaplaztekoa eman zian... apaizek. Ta nik kulpaik ez. Ta "rrraa!" heldu nioan ta —mutikoa deabrua ni ´re, ta— "rrraa!" petrillen gaiñen zeharreea, ta [Arbeldiko Inaxi] ta horik kendu nitxoan, bestela petrilletik behera bo(ta)tzen diat nik apaize. Nik ez nun kulparik eta! Earra ein nun! Geo negarrez etorri nitzen ni etxea.

2.2. Don Candido Arregi apaiza

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Lizarralde, Esteban; Aranburu Esnaola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-003/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Apaiza, Don Candido Arregi. Nafarra zen. Apaizaren anaiaaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Nolakoa zen apaiza bera?
 -E: Gaiñez, ona apaize.
 - Ona?
 -E: Bai. Nafarra, don Kandido Arregi. Geo osaba zon solteroa, bere osaba, ta hue kitarrea jo ta eliz-zain ta...

-J.I.: Pixkat edanda...

-E: Edan ta... Bai, baten bazian pakete earra.

-J.I.: Nik ez non ezautu, baiño esaten doenez... Apaize bai ezautu non nik. Arregi hoi ezautu non nik zeatio hoi eon zan geo hemendik Arriaranen, Arriaranen egon zan...

-E: Geo Gaztelua jun huan hoi, Arriarandik Gaztelua.

-J.I.: Geo atzea honea etorri zan.

-E: Gaztelutik atzea honutza?

-J.I.: Bai. Eske ni, ni, harek bataiatu [niñun].

-E: Zeati... horren osaba, kitarrea jo ta "bren, bren" aitze hoan ta "jeup" eta zea kantau ta o(b)ispoa etorri, ta hue ez zala apaiz-etxeako martxea ta hue fuera.

-J.I.: Napar hori?

-E: Napar hori ta mutil zahar hoi. Harek hala esaten zian: "A nere jainkoa! Hil behar banak hil nazak, baiño kontu gero neri min eman!". Ta aitzenen hilda billau emen zien.

2.3. Auzo-eskola; apaiza irakasle

- **Hizlaria(k)**: Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-006/003
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:02:09. **Bukatu**: 00:04:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Garinen bertan zegoen eskolan egin zituen ikasketak. Irakasle ofizialik ez baina ona bai: apaizak ematen zituen eskolak. Eliz atarian zegoen gela txiki batean kokatzen zen eskola hura. Auzokoak bakarrik joaten ziren bertara.

Transkripzioa

- Gero, ba... eskola´re, ba, bertan. Bertan zan gue eskolea. Nahiz eta maisu ofizialik ez gendun, baiño maisu ona bai: apaize. Apaizek hemen eitten zon apaize izateaz gaiñea maisutzea. Oain, hori bai, eguardi arten bakarrik. Eguardi arte izaten gendun. Ez nao seguro ze ordutan hasten giñen, baiño eguardi arten bakarrik.

- Arratsaldetan ez...?

- Arratsaldeetan lanea. Aittei laguntzea ta, aittei ta amai ta danai.

- Eta eskola non ematen zuen abadeak?

- Eskola? Hortxe, lokal txiki-txiki bat zan. Hamabost bat lagun edo... ba, hoguei baiño gutxigo behintzat, hola biltzen giñen, hemen auzokook. Eta elizpen edo eliz-atarie esaten zaion hortan, hor zan, ba, lokal txiki bat, sukalde hau baiño zerbait haundixegoa, baiño hola. Hantxe ikasitakokin defendittu gea.

- Eta bertatik, ingurutik, Arriaran auzotik edo igotzen ziren umeak hona?

- Eskolaa ez.

- Eskolara ez?

- Ez, ez, bertakok bakarrik.

- Zeuek, auzokoak...

- Bertakook, auzokook bakarrik, auzokook bakarrik. Eta nik uste det, udaletzek edo hola zeoze ematen baldin bazion ta, gaiñantzen´e, baserriko

umek... haik... zeatik babarruna edo zeoze eramaten bazioen eta kitto hola bestela, e! Oain, maisu bezela, badakit seguro, direktamente maisu bezela ez zon eze kobratzen apaizek. Baiño, klaro, zerbait ein behar zoon, ba, hemen... pff! gizon batek´e beste lanik bae zeon garaien, ba... Eskola ematea, beharbaa, beantzako izango zan, ba... ez dibertsioa bakarrik, baiño handik aurrea ez halako lan... lan goorra´re ez.
- Ez, ume gehiegi ere ez eta, bueno, arratsaldean libre izanda...

2.4. Eskolan euskarazko eta erdarazko liburuak erabiltzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-006/004
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:04:02. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Eskolak ematen zituen apaiza abertzalea zen. Katona (irakurtzen ikasteko erabiltzen zen lehendabiziko liburua)euskaraz zuten, "Martin txilibitu" zeritzon. "Xabiartxo" izeneko liburua erabili zuten aurrerago. Gaztelaniazko liburuak "Valentin" zuen izena.

Transkripzioa

- Hantxe behintzat guri eakutsi ziuna izan zan, ba, ezer baiño gehiao, irakurtzen leitzen... este... idazten —eskribitzen, esaten deun bezela— nahiz euskeraz eta nahiz erderaz. Zeatik bera abertzalea zan. Aspaldi hil zan, baiño abertzalea zan. Eta berak ez dakit... nolabait´e moldatzen zan "Xabiartxo" eta lehenengo katona bezela, katona bezela lehenengo jartzen ziuna zan "Martin Txilibitu" izeneko... letra haundikin. Katona. Katona, erderaz esaten zaion katona entzun dezu iñoiz? Bai...
- Bai, ze izaten zan hori? Letrak ikasteko edo...?
- Katona zan, ba, aurreneko... bost-sei urteko... sei bat urtekin hasten zien ordun eskolan. Ba, sei urtetik atzea aurreneko ematen zitzaien letra haundikiko liburuska bat zan katona esaten zitzaiona. Eta hori euskeaz genduken, "Martin Txilibitu" izena zona.
- Eta "Martin Txilibitu" hori...?
- Euskeraz!
- Bai, bai. Eta berak zeukan liburu bakarra ala zeuei banatzen zizuen edo...?
- Eongo zien, ba, eskolan, bi eo hiru eta bata besteai utziz ta abar. Hola eitten zan. Eta gero pixkat hasi giñen, ba, ya zortzi bat urtetik atzea edo, ba, "Xabiartxo". "Xabiartxo" izeneko liburu bat. Gogon dauket ze moldeztegitan eindakoa zan, Tolosako... Oain ez zat akordatzen... "Isaak Mendizabal"! "Isaak Lopez Mendizabal" izeneko moldeztegin eindakoa zan liburu hoi, "Xabiartxo" izeneko, "Xabiartxo" izeneko liburu hoi. Hoi zan irakurtzen ikasten genduna. Eta gero, ba, erderazkoa´re eakusten ziun: "Valentín", "Valentín" izeneko.
- Liburua?
- Liburua, irakaste... este... erdez. Eta... "Valentín, o el niño bien educado" zon izena horrek. Eta "Xabiartxo" eta hori, bat erderaz ta bestea euskeraz irakurtzen seitzen giñon. Ta, gogon dauket, korrón jartzen giñen —txikiik´e, pixkat bajuxeok aparte ziela ta abar— eta bata besteai leitzen gendun. Lerro bat leittu eta "Oain...", beak apuntatzen zon hoola eta bestea irakurtzen ez

bazijon, ezin zan hasi lerro beretik, ordun seittun eroitzen zan. Holaxe.
- Arretaz egon behar, ez?
- Jarraitu ein behar! Ba, hasten zan, ba... gaur esango deu, ba...
"Xabierto beti pozik dabil, gurasoak eta zaharrogoak agintzen dioten lanak egiten. Martin, berriz, beti kopetilun dago" eta abar. Holako esaldik.
- A! Halako estiloko esaldiak ziren?
- Bai. Eta hola, ba, illaran eongo giñen, ba, klase banaka... Klasek bertan ein behar izaten zittun: txikixeok, hazixegok eta abar.
- Bai, adin desberdiñetakoak guztiak elkarrekin...
- Adin guztiak alkarrekin, baiño danai diferente eman behar zien. Ta hiru-lau bat egongo giñen irakurtzen, illaran, lehen esan dean bezela. Geo, idazten, ba, antzeko zeozter izango zan, nahi ta nahiez. Ta, horrez gaiñea, asko sartzen ziuna zan "matemáticas".

2.5. "Kristo errege" abestia

- **Hizlaria(k)**: Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-006/016
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:24:01. **Bukatu**: 00:26:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Sabino Aranaren kutsua zuen "Kristo errege" abestia kantatzen du

Transkripzioa

- Gero esan zenidan abestiak ere ikasten zenituztela, ez?
- Abestiak eskolan? Bai.
- Dotriñarekin batera edo...
- Bai, dotriñakin-ta eliz-abestik? Buuf! Asko, asko!
- Eta, gaiñera, bat... gogoan zenun bat —oso-oso ondo kantau zenun, gaiñera— "Kristo errege" edo.
- A! "Kristo errege"-na?
- Bai.
- Euskera... Klaro, ordun zan garai bat hor Sabino Aranaren... sortu zon ya garbitzaille, garbi... euskera garbi-hizketa zea hori asko eta horren kutsu pixkat zemaken garai horrek. Eta hemen apaizek eakutsi ziun Kristona hoi. Nahi baezu, abestuko dizut...
- Bai, bai, mesedez.
-
"Gure bakalduna Josu zera
zure gurutze deuna
gure ikurriñik maiteena
maiteena.
Sinismen maitea,
ez zera galduko
Kristo zaindari dezula
gaizkatu zera
Gora, gora, Josu,
gure bakalduna."
- Ze politta...

- Polita al da?
 - Bai, bai.
 - Berrie o... zuretzako oso berrie; neetzako ez!
 - Oso berria, bai, bai. Eta, gaiñera, igartzen da, bai, zuk esan dozuna, ez? Kutsu hori. Ba, pixkat... "Josu deuna" ta...
 - "Josu" ta "bakalduna" "erregea".
 - "Erregea", ez? Horrelako hitz...
 - Oain, hoi ez gendun iñoiz abestu elizan. Eakutsi in ziun, baiño ez gendun abestu behin´e. Hoi gogon dauket. Baiño hoi ikasten aste bat, baiño pozik!

2.6. "Harrapaketan", "poteketan" edo sokasaltoan jolasten ziren

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-008/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak. "Harrapaketan", "poteketan", sokasaltoan... jolastu ohi zuten. Garizuma garaian jolas berezirik ez. Dotrinaren garrantzia.

Transkripzioa

- Ze jolas egiten zenituzten orduan?
 - Buo! Guk neskak [jeneralien] egiten gendun este... sokakin., soka-salto ta holako gauzak eiten giñuzen.
 - Aponak edo tortolosak edo...?
 - Bai, holakok´e bai.
 - Eta gero mutillekin batera...
 - Mutillek asko eiten zuen pelotan ta hola.
 - Harrapatzen edo...?
 - Bai, harrapatzen´e bai.
 - Baita...
 - "Harrapaketan" esaten giñon.
 - Harrapaketan. Eta beste jolasik gogoratzen duzu?
 - Bai! Asko izango zien. Oain ez dauzkat nik danak gogon, baiño...
 - Urte sasoi bakoitzean jolas bat...
 - Poteketan´e esaten gendun, poteketan.
 - Eta ze jolas zen hori?
 - Hori zan: pote bat hartu ta toki baten ipiñi, eta bat pote harekin. Ta beste danak, ta beste gaiñantzeko danak, gorde, izkutau. Eta potea zeukan harek billatu in behar zon hua. Eta billatutakuan, azkar jun ta poteakin han jo in behar zun. Eta, bestela, bestiek harrapatzen bazittun aurretik, ba, berriz´e harek segi in ber. Hola.
 - Eta garizuman ze jolas egiten zenituzten orduan?
 - Garizuman´e guk aparteko jolasik ez gendun eiten. Elizaa ordun asko. Bueno, hoixe! Dotriña ta... bueno! Dotriñak-eta ikasi giñuzen guk ondo!

2.7. Maisu erdalduna eta beraiek hitzik ez erdaraz

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskola kontuak. Dotrinaren garrantzia. Matxinbentan izan zuten maisua euskalduna zen. Gerora maisu erdalduna izan zuten. Umeek erdaraz hitz bat bera ere ez zekiten.

Transkripzioa

- Eskola kontuak aipatu dituzu lehen, dotriña eta...
- Dotriña?
- Dotriña asko ikasi zenutela, ez?
- Dotriña dana ikasi gendun guk, asko baiño asko. Jesus! Ikaragarri!
- Dotriña nork ematen zuen abadeak edo irakasleak?
- Dotriñaako? Apaiza, herriko apaiza dotriñaako.
- Eta eskola, eskolako irakaslea?
- Eskolaako maixu bat.
- Eta bertakoa zen?
- Ni hasi nitzan sei urtekin eta ordun Matxinbentan zeon maixue euskalduna zan. Azpeitin bizi zan ta Azpeititik etortzen zan e(g)unero Matxinbentaa. [Familikin] bizi zan eta izatez Matxinbentakoa zan hue. Eta bizi zan Azpeitin. Eta ni eskolaa hasi harekin eta oso denbora gutxi barru jubilatu ein zan. Gero etorri zan kastellano bat Ceutakua edo Afrikako... ez dakit nik nungua, kastellanoa. Harek ein zitun bost urte Matxinbentan.
- Eta aldaketa haundia, ez, somatuko zenuten?
- Ez genekiun hitz bat erderaz guk ordun. Matxinbentan ez zeon ume bat erderaz zekiñik, "Sí"... Ez "sí" ta ez "no". Ez genekiun ze esan nahi zuen. Guk pasa giñuzen orduun! Nei [gauzak] akordatzen zaitzit, ta oain baleo hue, e, ez dakit ze ingo nioken.
- Azpeitiko edo Matxinbentakoa zen...
- Matxinbentara etorri zan maisu harek.
- Matxinbentakoa zen maisua... nola zuen izena?
- Zenek?
- Hasierako irakaslea, maisua...
- Maixua?
- Azpeitiko edo Matxinbentakoa zena...
- Matxinbentakoa, haserakua? Ez, hori zan kastellanoa, esan det, gero etorritako...
- Baiña hasieran izan zenuna?
- Hasierakoa zan Matxinbentatik Azpeitira ezkondu ta han bizi zan.
- Eta haren izena gogoan duzu?
- Haren izena zan Inazio Mari. Eta hue etortzen zan Azpeititik Matxinbentaa.
- Eta eskola, orduan, euskeraz ematen zuen?
- Harek dana euskeraz.
- Dana euskeraz?
- Dana euskeraz. Eta beste maisue etorri zanen, hitz bat ez genekiun guk.

Ezta hitz bat´e! Guk hartu giñuzen palizak! Ta zergatik, ta erderaz ez genekiulako.

2.8. Euskaraz hitz egitearren zigorrak

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola kontuak. Zer ikasten zuten. Maisu erdaldunak zigorrak ipintzen zizkien euskaraz egiten zuten umeei. Euskara-erdara. Euskararekiko gorrotoa.

Transkripzioa

- Ta lehenengo maisuarekin Inazio Mari edo...
- Inazio Mari.
- ... zer ikasten zenuten?
- Harekin zer?
- Zer ikasten zenuten?
- Harekin dana eakusten ziun guri harek.
- Matematika edo...
- Bai, bai, bai, bai. Gero ni hasi-berri xamarra nitzan orduun. Gaztia. Sei urtekin hasten giñan ta... Bai. Baiño... bueno.
- Ondo, ez?
- Ondo.
- Harekin ondo...
- Ondo.
- Eta gero aldaketa handia.
- Gero aldaketa galanta. Erdalduna etorri zan ta hitz bat ez genekiun. Ta harek nahi zon erderaz eitea. Beak ez zekin hitz bat euskeraz... ezerre. Ta baakizu ze iten ziun? Bati ematen zion anillo bat eta harek ein behar zon beste bat euskeraz eiten harrapatzen baldin bazon, anillo hua hari eman. Eta hurrengoak besteai eta hurrengo besteai, hola. Eta geo hurrengo eguna eskola jutun giñenen, "A ver, ¿tú a quién le has dado el anillo?". Esango zion beak emandakoari, harek esaten zion holakoi, beste harek beste, danak han pasautako guztik, mordoa, kastigua. Eta mutillak gaizkiña ibiltzen zian, e? Mutillak baldin bazian jo iten zitun. Jo! Hola ipini behatzak, hola eskuk, eta goitik behera behatzak makillakin. Ta gu, neskak, jenealen eiten ziun belauniko jarri ta hola ipini besok zabaldua, liburuk kargauta eskutan, ta kargakin ta... Buo! Holaxe. Ta hori dana euskeraz ein gendulako.
- Eta berakin erderaz...
- Berak ez zekin. Ta bost urte pasatzeako, ba, hitz batzuk, bakizu, ikasi ein zitun. Ta guk´e bai zerbait. Eske hue etorri zanen guk hitz bat ez genekiun erderaz, e? Ezta hitz bat´e! Ta, gero, harek alde eiteako pixkat ikasi in gendun.
- Eta erderaz jakin gabe nola ikasten zenuten edo...?

- Ba! Entenditzen hasi giñan ta... ahal gendun bezela, palizak hartuta! Hori bada geo, e? Erderaz ez dakiulako palizak. Eske... nik ikusten det, e? Ez due... Erdaldunak gorroto haundie izan due euskerai, e? Haundie, gaiñea! Hemen bertan ´e...

2.9. Dantza lotua egitearren kongregaziotik kanpora

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/036
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Bizitzarekiko ikuspegia. Dantza lotua egitea debekatuta zegoen. Dantza lotua egiten zuten neskak "Mariaren alabak" kongregaziotik botatzen zituzten. Beste debeku batzuk.

Transkripzioa

- Lehen esan duzu Kizkitza ta... erromeria politak izaten ziren?
- Bai. Nei hue asko gustatzen zat lehengoa. Nei oaingoa baiño gehio gustatzen zat lehengoa.
- Bai, e?
- Bai. Oain adelanto haundia eongo da ta oin best modu batea dare gauzak, baiño...
- Zelakoa zen lehengo [bizimodua]?
- Guk dantzan dana suelton eitten gendun. Hori... ordun goorregi eiten zuen, e? Agarraon eiten bazan, ba, bueno, Marian alabatatik kanpoa esaten zuen. Eramos... gu giñan "Marian alabak". Eta gero kanpoa, dantzan agarraon ein ezkeo. Ni neon Beasaiñen neskame. Ni etorri nitzan hamasein bat urtekin-o ta bi urte ein nitun Beasaiñen. Bueno. Hemengo festatan agarraun in non neure launekin —lagunek baneuzken hemen ta— eta batenbatek kontau zion nik hemen agarraon in nola Matxinbentako apaizei. Hurrena ni Matxinbentaa jun nitzenen, ze bronka in zian!
- Esan duzu "Mariaren alabak"...
- "Mariaren alabak", "Hijas de María". Ez al dakizu zuk hori?
- Kongregazioa. Bai lehen...
- Kongregaziua. Eske komonio haundia eiten genduneen, egun hartatik izaten giñan gu "Hijas de María".
- Eta mutillak?
- Mutillak luistarrak.
- Eta kongregazioan zer egiten zenuten?
- Eta hillen behin jauna hartu ber, reglamentua zan kongregaziokoa hillen behin jauna hartzea.
- Beste zerbait egin behar izaten zenuten?
- Bueno, hainbeste gauza in beharko giñuzen... nik ez dakit ze esan. Buf!
- Bazenuten medalla edo horrelako zerbait?
- Zinta, zinta medallakin.
- Ze koloretakoa edo?
- Zinta zan azul celeste, medallakin.

- Eta zinta horren... zinta aldatzen zen edo...? Ez dakit, horrela, dantza...
 Lehen esan duzuna, adibidez, dantza agarraua egin ezkerko zinta zuria ipini
 edo horrelako kastiguren bat edo ezagutu zenuen?

- Ez, eingo giñuzen apaizak, ba, borratu Marian alabatatik. Ta orduun
 esango zuen danak: "Hori kanpoa dao, hori kongregaziotik kanpora dao".
 Ya esta, eso.

- Gogorrak, e? Orduko...

- Baiño herrin beti izaten die holako zeak eta... ez ziuen uzten guri gona
 motxak ibiltzen, luzea ibilli bear gendun. Eta eskoteik 'e ez. Eskotea 're
 goraiño itxita, hola, dana. Bueno. Eta ni arteen umea nitzen, baiño neska
 gazteek bazien orduun herriin, eta ze in die apaizek? Eskote dexente
 zeukelako o ez dakit nik ze, han neska paren bati o hola komunio... jauna
 hartzea jun zienen bate ez eman, bate eman gabe pasa. Eskandalok izaten
 zien, e? Bai. Eta gero ze in zun aittak? Bi alaba hoik hartu ta o(b)ispoana
 jun. Ta o(b)ispoa ordun, seminarioa ez zeon Donostin, Vitoriin zeon. Vitorin
 zeon ordun seminarioa. Ta, ordun, o(b)ispoana jun jantzi harekin beakin.
 Holaxe jun zian, hau hola, hola [...] ta jaunik ez zien eman. [...] eskandalo!

- Eta obispoak zer esaten zuen edo ze...?

- E?

- Orduan, obispoarengana joan eta...?

- Eta... eakusteatik jantzi harrekin jun ziala ta apaizak ein ziela jauna eman
 gabe pasa, ez ziela eman.

- Baiña derrigorrezkoa izaten zen obispoarengana joatea edo hori ya...?

- Geo ez dakit zertan geldituko zian.

2.10. Eskolara joan aurretik esne-partitzera

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/014
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:28:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Maria umea zela (9 urterekin) esne-saltzen hasi zen
 amarekin. Eskolara joan aurretik (Karmelitetara) esne-partitzen ibiltzen
 zen. Babarrunak eta arrautzak ere eramaten zituzten herrira. Barazkiak
 etxerako ereiten zituzten.

Transkripzioa

- Alaba: Zuk ibiliko zendun, ba, dirue?

- Bai, nik esnekin.

- Alaba: Kontau zazu, ba...

- Ni esnek... gero.

- [...], ez? Kalera jeistea gauzak saltzera?

- Bai, gero ni kalea. Ni hasi nitzen hamabi urtekin... Bai, beatzi-hamar.
 Beatzikin hasi nitzen amai laguntzen esne-partitzen. Ama jesten zan
 mandokin —zaldi bezela [mando ez], mandokin— zestotan marmittak
 zittula eta esne-partitzea. Eta ni beatzi urtekin... Klaro, zortzi urtekin hasi
 nitzen eskolan.

- Alaba: Ze eskolatan?

- Karmelitan. Karmelitak giñuzten garai hartan. Eta este...

- Alaba: Beatzi urtekin...?

- Beatzi urtekin ni eskolaa jun behar non. Amai launtzen nion goizen bi edo hiru esnezalei partitzen. Ematen zin marmit txiki baten bi litro aldiko eamateko pisutaa. Akordatzen naiz egun baten —lehen´e esango nizuen ta — este... banoa behetik gora ta distraittu naiz nunbait ta estrapozu in det...pff! deskansillo baten marmittak... bi litrok han jun zien. Eta Polancona zan, pastelerin, gaiñen, gaiñea, eta “¿Qué pasa? —esan zin— ¿Qué te ha pasau?”, “Es que me he caído”. Umea ni, beatzi urtekin. “Que me he caído” eta “No te apures, no te apures, ya te recogeré yo. Tú vete, ya recogeré.”. Jun amana, berriz hartu esnea eta ya eaman nion. Ordun zan Geberanai. Eta hola. Eta gero hortik aurea... Zer zan ordun?

- Alaba: Bai. Eta, bueno, ze eamaten zenioten...

- Hori da. Bezeroak izaten ziren orduan, ez?

- Bai, bai. Ta ni...

- Ez ziñeten plazara jeisten...?

- Ez.

- Zuzenean bezeroengana...

- Ez, ez, zuzenean etxetaa. Ta ni pasatzen nitzen hoeita bi hoita lau sukaldetatik.

- Egunero?

- Eunero. Bati litro bat, bestei litro-erdi bat, bestei litro t´erdi, bestei bi litro... ekartzen nittun berrogeita piko hola litro. [...]. Klaro, beatzi behietatio... Eta...

- Eta esneaz aparte beste zerbait ekartzen zenuten edo...?

- Ez. Babarruna jenealen. Babarruna.

- Alaba: Arrautzak?

- Arrautzak´e bai. Bai. Behie... ardin... o... oillon arrautzak. Baita, hoi´re bai. Baiño ordun jende gutxi... arrautzea erosi eitten zon edo ez dakit ze eitten zon. Guri gutxi eskatzen ziguen.

- Eta barazkirik? Porrurik edo...?

- Ez, hoi ez zan saltzen, saldu batez, etxeako. Eitten gendun, baiño oain bezela ez, e? Ordun...

- Askoz gutxiao, ez?

- Askoz´e gutxiao. Ordun ez zan baserrin lan eitten baatzan. Oain norberak gehio itten deu orduun baiño.

- Bai, ez? Orduan soro haundiak garia ta...

- Garie ta artoa, babarruna, patata... hori bai.

- Eta bedarrondua, ez? Arbia edo dena delakoa ganauarendako.

- Bai, bai.

- Alaba: Porrurik saldatako?

- E?

- Alaba: Porrurik? Porrurik-patatak...

- Porrurik. Porrurik-patatak jaten zin gauen, gauero, afaltzeko.

- Alaba: Afaltzeko porrurik-patatak...

- Gauen afaltzeko porrurik-patatak gauero.

- Orduan ama ere mandoar... ama jeisten zen mandoarekin eta marmittekin ta...

- Bai, ta geo gaiñeen juten zan gora.

- Alaba: Mando gaiñen...

- Mando gaiñen, ni´re hala ibiltzen nitzen.

- Alaba: Ogik hartuta...

- E? Ogik-eta hartuta, etxeko behar zana eta... Oain bezela ez zeon

supermerkauik eta ordun ezerre, denda txikik. Ni, este, Joakina Aldaregia... handi ibiltzen nintzen.

2.11. "Congreso Eucarístico"an estandartea eraman zuen

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/023
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:42:20. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Congreso Eucarístico. Mariak estandartea eraman zuen Ordiziara.

Transkripzioa

- Alaba: Ez, ez, nik esan nahi nuena, ama, zan kongreso eukaristiko bat izan zala...

- Hori da, hori da, hori da.

- Alaba: Congreso eukaristiko bat.

- "Congreso eucarístico". Ta hemendi estandartekin. Ta nei´e tokau zitzaian estandartea.

- Alaba: Ordizia?

- Ordizia.

- Alaba: Ta Ordizin zer zeon eliza...?

- Eliza sartu giñen.

- Alaba: A! Ordiziko elizan...?

- Elizan. Eta han in zan bee funtzioa, ta gu atzea bueltan geen estandartekin etxea.

- Eta kongreso hori ze izaten zen, urtero edo lantzean behin edo...?

- Behin eo... Ze... behin bakarrik.

- Eta zu estandartearekin nondik nora? Ordiziraiño, baiña nundik?

- Beasaindio. Elizatik, elizatik Ordiziko eliza.

- Eta atzetik prozesioa edo...?

- Bai, bai, bai, jende asko! Asko asistitzen zon jendek ordun.

- Eta orduan, gaiñera, prozesioetan mantilla edo ze izaten zen?

- Mantilla. Mantillakin.

- Alaba: Beltza.

- Beltza.

- Alaba: Beltza. Eta soiñekoa eta dana beltza?

- Hala izango non. Ez dauket ya gogon, ya ahaztu...

- Alaba: Nik... komenta... irudi...

- Ez dauket ez fotografi bat´e!

- Alaba: Ba, nik irudikatzen det zuri entzunda, irudikatzen det beltzez, guante txurikin... Guantekin ziñen...?

- Guante, guante...

- Beharbada bai, estandartea eramateko...

- Bai.

- Alaba: Guantekin ta...

- Bai, guante txurik.

- Alaba: Eta zergatik aukerau zizuten [zu]? Beasaiñen hainbeste neska polit eongo zan...

- Ez dakit, ez dakit, indarra neukelako o... baserritarra, lanen ohittutakoa. Indarra neukelako o... resistentzie.
- Alaba: Bai, nik nere kasa pensatu det beti horregatik izango zala.

2.12. Murumendiko erromeria; elizaren debekuak

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/026
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:48:10. **Bukatu**: 00:51:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Murumendiko erromeria. Neskatan-mutiletan. Neska-laguntzea. Elizaren debekuak; neskak kongregaziotik botatzen zituzten dantza lotua eginez gero. Bikarioa. Kongregazioak.

Transkripzioa

- Beharbada, uda garain jolas batzuk egingo ziren eta neguan...
- Uda garaien, uda garaien, ba, Murumendin eitten zan erromerik eta jendea juten zan hautza. Ta gu´re jun giñen behin o bi aldiz. Eta han eitten zien, ba, otorduk. Zuk esan dezuna, arkumea erre parrillen o sun brasan gaiñen eta holako gozok, e? Eta ordun geo goitik behera neska-laguntzea mutillek. Akordatzen naiz... Ez da(k)it ondo noan, e?
- Alaba: Bueno, zuk segi zazu. Geo eamango zaittu berriz lehengo lekua.
- Ba... Este...
- Murumenditik behera...
- Murumenditik behera ni gootzen naiz jeitsi nitzela behin Artetako Joan Joxekin, nee kintakookin. Eta harek laundu ziun goittik... Kukarreaiño, e? Ez etxeaiño, zeati handik behera barrankoa jeitsi behar zan ta. Eta gero besteik... gero, hemen goien, oain esan dean Artetan, baserri hortan, hasi zan soiñujolea soiñu jotzen. Ta zan, gaiñea, hamen Gorriñenekoa, Ordiziko parten dau. Oain Ordizi esaten diou, baiño Villapranka zan ordun. Ba...
- Alaba: Soiñue...
- E?
- Alaba: Soiñue hasi zala...
- Soiñue. Eta parrokoa kontuatzen zan, harutza juten giñenak "fuera de... del esto. ¿Cómo se dice?"
- Kongregaziotik edo?
- Kongregaziotio.
- Alaba: "Congregación de María".
- Fuera! "Hijas de María".
- Dantza egitearren edo bertara joateagatik, ez?
- Hauntza juteati "Hijas de María" fuera. Hortan genduken bikario hura... Don Florencio [Asla]. Don Florencio...
- Alaba: Axpe.
- Axpe. Getarikoa zan. Bfff... "Era un párroco de..."
- Gogorra?
- Oso gogorra, oso gogorra´re. Gaur baleo, ez litzaioke iñor jungo elizaa. Iñor ez.

- Bai. Lehen, gaiñera, aipatu duzu hori, ez? Jaunartzea, jaunartze handia eta...?

- Hori da, txikie ta haundie.

- Eta...?

- Txikie normalakin, e? Eguneroko arrokekin.

- Eta kongregaziora, baiña, sartzen zen behin jaunartze handia egin ta gero?

- Hori da, ordun sartzen zan.

- Neskak "Hijas de María" ta mutillak?

- San Luis.

- San Luis Gonzaga.

- Eso es, San Luis Gonzaga. Eta...

- Alaba: Zer zendukaten jantzita?

- Medallak.

- Alaba: Medallak ta...?

- Bai, zintak. Gu... zinta txuri eta urdiñe gurea. Mutillek uste det iguala zuela, e? Ahaztuta nau.

- Eta ze izaten zen hori?

- Ez dauket bate gordeta.

- Hillean behin edo elkartzen ziñeten? Edo mezatara joateko?

- Nik uste det negu parten hillen... ya udaran... ya... zortzin behin. Udaan nola lana zeon baserrin ez zeon etortzeik. Eta negun igandero jeisten giñen elizaa.

- Eta ze izaten zen, errosarioa errezatu ta...?

- Bai. Funtzio bat, kantatu; errosarioik ez.

- A! Errosarioik ez?

- Ez. Kantatu.

- Alaba: Ta elizan neskak eta mutillek batea ez ziñeten egongo...

- Mutillek alde baten ta neskak bestalden. Bikario harekin?!

- Alaba: E?

- Bikario harrekin?! Bueno!

2.13. Eskolan klaseak gaztelaniaz

- **Hizlaria(k)**: Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-016/030
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:54:45. **Bukatu**: 00:55:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskolan klaseak erdaraz izaten ziren. Erdaraz zerbait bazekiten ordurako, herrian esne-saltzen ibiltzen zirelako beharbada.

Transkripzioa

- Eta eskolan, ez dakit, klaseak eta erderaz izango ziren...

- Bai. Euskeaz ez zan eitten orduun, e?

- Eta ondo moldatzen ziñeten edo...?

- Erdeaz. Bai. Hemengo zeak esaten zoon, gaztenak, [Batisek], dana euskeaz, erdeaz tutik ez jakin, ta hari txarrena gertau zitzaiona erdeaz entenditzen ez ta eskolaa jun. Ta ze esaten zioen ez zekiñen. Harek beti

hua esaten do. Nik ez dakit... guk ez dakit hoinbesteañoko... Nik ez det uste hoinbeste diferentzi izan gendunik. O esne-partitzen ibiltzen giñela o kaleko jendekin gehio zeatu giñelako o... Zeatik esne-partitzea ´re juten giñen gu behera, kalea, astokin gerrako garaien.

2.14. Eskolara joan aurretik esnea banatu eta itulan egin behar

- **Hizlaria(k):** Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-022/011
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Umetan, goizean goiz esnatu eta esnea banatzera joaten zen kalera. Itulan ere egin behar izaten zuen goizean. Ondoren, eskolara joan behar. Askotan eskolara joan ezin, baserrian lagundu behar izaten zuen eta. 13 urte ingururekin eskola utzi zuen.

Transkripzioa

- Neoni ´re ibilita nau zaldikin neoni ´re.
- Zaldikin o astokin?
- Astokin ez, zaldie hemen.
- Zaldie, e?
- Astoa ´re ezaututa nao, baiño zaldie. Ta mula bat ´e bai euki gendun. Ta nee ama zana bee denbora guztin. Pentsa zazu, Beasaingo residentzia eaman zan gerra aurretí hasita esnea. Ta gero legek kanbiau zien, diputaziok esijittu ziun esnea enbasauta ta jarri behar zala ta ya jubilau eitten nitzen ta “Ez, ez, ni ez noa holako lanetaa oain. Fuera!”.
- Eta umetan zer joaten ziñen amakin o...?
- Amakin esne-partitzea!
- Zu bakarrik ´e bai?
- Ta eskolaa... eskolaa, ba... aittek goizeko bostetan igual jeikiazin — bosterditan bai, behintzat—. Bueno, itxulaa. Badakizu zer dan itxula?
- Zer da?
- Ba, irin aurretio hak ´e...
- Gia bezela ibiltzea ganaun aurretio.
- Gia bezela. Aittek esango dizu: “Beheraxeo”. Ya behiek... irik ´e aitzen zuen. Zuk pauso bat beheraxeo eitten bazu, erak ´e bai. “E! goraxeo”. Zeatio goldea zuzen eamaten ez bazu, errueda hua, kurpille etaa itten da...
- Osea, lurre labratzeko, lurrei buelta emateko.
- Ta, ordun, goldea aldapan eroi eitten da igual eta lurrek ez do baretzen. Harek jun behar do bee txokon, zuzen-zuzen-zuzen jun behar do. “E! Beheraxeo!”. Eta...
- Orduan, aittakin ittulan?
- Udan, ba... ganauk die pertsonak bezela: negu guztin ikuillun eon, eta pertsona bat ´e beti baldin badao etxe barrun etaa be ta etzanda, gero lanen hasten dan garaien belaxe moteldu itten da. Ba, irik igual, mingaiñe etatzen zuen, be(r)otu itten zien. Ta beroa etortzen zan apiille, maietzen...

Bost eta erdietan aitte zanak: "E! Benga, jeiki!". Buruik jaso ezinda. Hartu esne pixkan bat eta makillekin itxulaa, haik giatzea. Goizeko beatziek laurden gutxio o hola "Bueno, jun hai oain eskolaa". Aittek idik askauko zittun ta gosaldu ta beste lanen batea jungo zan hua. Eta korrika eskolaa. Eskolaa jun ta nekauta, igual hoge kilometro inda atzea ta aurea. Ta zea, hola, ta.

- Logurek...

- Praille bat zan hemen, don Julian o, Matximentakoa (Matxinbentakoa) o nongoa zan?

- Bai, horkoa nunbaitekua.

- Matximentakoa (Matxinbentakoa) o. Atzetio kaskarrekoa "danba!" "Ez al dek lo itteko denboraik izan?", ta harrezkeo eoten naiz pentsatzen ni "Hi're ibili bahitz ni bezela goizeko bost eta erditan jeikita, geatuko hitzen". Ta kitto. Eta hurrungoon esango zizun aittek: "Gaur ez hai eskolaa jun, gaur'e artok simaurtu behar zetoau ta idik hartzeko geatu hai", gustoa geatu're! Hurrungo egunen'e bai beste lanen bat. Hirugarren eunen jun hai eskolaa ta ia lotsau eitten ziñen. Bestek aurea hartu zizuen eta zu beti baztartuta han atzen. Ta ia gogoik ez. Ta behin hamahiru... bai, bai, hamahiru urte ezkeo batez eskolaa. Kitto. Hemen, jo ta ke.

2.15. Erdaraz ez zekitelako burlak jasan behar

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-022/015
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:29:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Eskola-kontuak. Baserritar eta kaletarren arteko gorabeherak. Erdaraz ez zekiten eta besteen burlak jasan behar.

Transkripzioa

- Eta eskolan baserritarren artian ta kaletarren artian ta nolakoa izaten zan?

- J.M.: Horrek'e jakingo do.

- Emaztea: Neri ez sartu...

- J.M.: Beti kaletarrak baserritarrei burla itten zion.

- Bai, e?

- Emaztea: Eske beandu eskolan hasi ta...

- J.M.: Ta...

- O: Bai, kaletarrak baiño atzeraxeo baserrikok.

- J.M.: Beti atzeatugok, e? Osea, lotsatigok.

- Emaztea: Eta nola kastellanoz ez zekin...

- J.M.: Erderaz nola ez zekiñai ta parre eitten ziu. Ta nik askotan esaten det, zea, lehenao'e euskeraz eitten zonai parrez ta oain'e... oain euskerea ikasi behar dala! Nik behin soldauskan bizkaitarrak-eta nittun ta etorri gea permisokin Cadiztik Madrillea ta Madrillen beste treña hartu behar. Han euskeraz ai gea ta alleau zaiu gizon bat: "¿No saben hablar en cristiano?"

esan ziun holaxe. Belarrik makur-makur ein, ta han izkutu giñen baztar batea. Ta trena etorri zan garaien sartu ta zea, etxea. E? Ta hoik egik die.

- Eta eskolan neskak eta mutillak eta elkarrekin izaten zian?

- J.M.: Ez. Aparte, aparte. Ala? Bai, horrek...

- Emaztea: Nei ez, ez iazu... ahaztuta nao.

- J.M.: Ahaztuta? Aparte, aparte. Prailletan ez zan emakumaik granoik´e; ez, ez, ez, dana mutille.

- Eta mojetan bai?

-J.M.: Mojatan emakumak, neskak.

- Baiña zu mojetan ibili ziñan?

- J.M.: Bai, baiña aparte han´e. Han zauken zea bat motikoskorrantzako. Ni bost urtekin hasi nitzen ta geo handik prailletaa pasau niñuen ta aparte. Oain danak berdin danak egoten die. Bueno, igualtsu dio.

2.16. Sakristauaren eta seroraren egitekoak

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Bizimodua erabat aldatu da. Eskolatik arratsaldean atera eta txerria ateratzen zuen. Aita sakristaua zen eta Carmelo akolito bezala egon zen urte askoan. Goizetan, meza laguntzera joan behar izaten zen. Hilarriak elizan. Seroraren lana zein izaten zen.

Transkripzioa

- I: Eske bizimodue, erabat, erabat aldau da.

- Zeuek ere igartzen duzue hori? Ze zuek nahiko gazteak zarete...

- I: Bueno! Ni akordatzen naiz, ni umea nitzela, eskolaa. Zeatik gue etxen lana eongo zan etxen, baiño aurrena eskolaa jun behar zan. Eskolatik atera eta, ni ya hamar urtekin hasiko nitzen, txerrie zaintzen non. Osea, eskolatik atsaldean atera, txerria ateratzen non. Buelatxo batzuk ematen nizkion, txerriteian sartzen non eta solfeoa juten nitzen, beste klase batea. Ta, klaro, nola dana bertan genduken... Hori´re... horrek´e zea, badu bentaja, zeatik urrutiko baserri baten egon bagiñe, ba, ez. Baiño...

- Bai, bertan kale...

- K: Ta gu´re berdin. Zea, pixkat gogortu giñenen beti bazan nobenea o zeozer ta... akolito.

- I: Zeatik gure aitte sakristaue zan. Gure aitte...

- Eta zeu akolitto?

- K: Akolito urte askon. Eta nobenea baldin bazan, bea igual soroa jun behar aittek eta esaten zin: "Jun hai ta piztu itzek halako argik" ta hala. Ta goizen meza launtzea. Goiz. Aurreneko mezea tokatzen [bazitzaizun], ba, bostetan arriba!

- I: Bai, baiño bostetan aittek laguntzen zian.

- K: Bai, batzutan.

- I: Bai, gehien... baiño gehienen.

- Aurreneko meza noiz izaten zen, ba?

- I: Azkenengoa?

- Ez, lehenengoa.

- K: Bosteterditan.

- I: Bost eta erditan.

- Goizeko bost eta erditan?

- I: Bai.

- Eta nor joaten zen hor...?

- I: Ba, sakristaue atek iriki eta matutie jotzea.

- Baiña batenbat joaten zen...?

- K: Bai, bai, baserritarrak eta...

- I: Hoixe! Bai, bai.

- Baserritarrak?

- I: Bai, bai. Azkenengoa zortziterditan, eta zortziterditan piztu behar zien, zuk ezagutu dittuzu argizariolak?

- E... Bueno, ez, gerora.

- I: Gero...

- Ezautu dittut baiña ez...

- I: Ba, etxe bakoitzek —klaro, kaleko etxek ez zuten, baiño baserri bakoitzek— zeuken sepultura deitzen zitzaion tarte elizan. Etxe bakoitzek zeukan bere zenbakikin. Ordun...

- Zenbakikin?

- I: Zenbakikin. Ordun, han, urten hildakoa zeukenak trapu beltz bat eta argizariolak beren argizarikin. Ordun, zortziterditako mezatan egunero-egunero nik pizten nittun. Nik edo etxetik juten zanak, baiño hori emakumen lana izaten zan, gizonezko ez. Osea, seroran lana: argizari hoiek danak piztu, mezan hasiera kanpaia jo, meza erdikon kanpaia jo eta bukatzen zanen meza argizari haik itzaldu eta eskolaa.

- K: Bai, eta geo eguardin ´e kanpaia jo.

- I: Egurdin hamabitan kanpaia.

- K: Eta gauen ´e bai.

- I: Arratsalden...

2.17. Gabonetako ospakizunak eta Erregenetako opariak

- **Hizlaria(k)**: Usabiaga Oiarbide, Agapito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-025/022
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:35:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Gabonetan, Erregenetan, opariak izaten zituzten. Jaieguna izaten zen, eta lan gutxiago egin behar izaten zen baserrian. Jateko berezia izaten zuten egun horretan. Gabonetan, Ordizian feria handia egiten zen.

Transkripzioa

- Eta lehen gabonetan eta eguberritan izaten zen horrelako erregalorik? Zuen gazte-denboran...?

- Erregenetan. Erregenetan izaten zan. Nik ezautu diat hemen beti. Ezautu

diat erregenetan.

- Eta nolakoak ziren erregenetako jaiak eta?

- Orduun, esaten dizut, ba, orduun´e zapatilla o zapatan batzuk falta baldin bazien eo holoko zea batzuk. Ez hola jostailu eta holakook, e? Ez, beharrekook, norbeak behar zittun holako zea batzuk.

- Baiña lehen ere izaten zan oain bezela, ba, erregeak etorri behar dirala eta umeak ohera...

- Ohia sartu ta hoixe.

- Eta sinistuta?

- Seko sinistuta? Hoixe bai, sinistuta. Oaingok baiño denboa gehiotan.

Ordun inuxentegoak giñuztean orduun; oain baiño inuxentegoak giñuztean. [...] Oain lehen ikasten dittuk gauzak.

- Eta goizean jaiki...

- A, bai. Guk hemen... Gu hemen hamar senide hazi gaittuk eta danantzako zerbait. Festa izaten huan ordun´e, hoi dudaik be.

- Bai, ilusioa...

- Ilusiokin.

- Oain baiño gehio...

- Hoi seguru, hoi seguru.

- Erregenetan izaten zan?

- Erregenetan izaten zan. Oain eguarrittan ta urte zaharretan ta toki askotan itten [zan]. Ta hori oain´e guk etxe hontan, oain´e, erregetako ohiturea lehengoai eutsi eitten zioau. Oain illobai ta hoiei danai zeoze.

- Eta jairen bat egiten zan erregenetan? Erregaloak-eta jaso, baiña bazkarin bat o kantun bat o...?

- Bai, jai izeten hoan, ez hoan lanik eitten. Oain baiño gehio errespetzen zan, gaiña, orduun. Jakiña, ganadu-lana derrior ein beharra zenduken, baiño hua, normalen, jaiako, janak, behi-janak eta horik bezperatik gehientxonak behintzat einda, jai beti gertatzen hoan arintxoogo, lanak-eta arintxoogo.

- Eta kantuan edo...?

- Ez, ez det izan nik kantuako zeaik ez det izan. Ta gue etxeen´e ez dek, ez dek...

- Eta erregenetan bazkaria... edo?

- Bai, bazkari espezialtxoa beti. Hori bai.

- Eta ze izaten zan edo...?

- Izaten huan bai gabonetan, bai urte zaharretan ta bai erregenetan, hoitan beti-beti zeoze he(g)azti o zeoze behintzat.

- Eta zer gehio? Beste zerbait jaten zan?

- Ba! Jan faltaik ez huan izaten. Konpota. Hoi egoarritako pestatan beti, hiruetan: gabonetan, urte berrittan ta erregenetan. Konpota beti eitten huan gue etxen.

- Ta intxaur-saltsa ta...?

- Ez diat, ez... Ez dek izan hemen ohituraik. Oain, oain hemen gue gazteek eta hook sozidadetaa junda ta esaten die [...]. Neonek ez diat jan, gaiña, ez diat oandio jan. Ez.

- Orduan, konpota [...]...?

- Bai, bai, bai, bai, gue etxen´e... Oain´e gustoa jaten diat nik jarri ezkeo.

- Eta gero hegaztin bat?

- Bai, hegaztie.

- Kapoia o oillaskoa...?

- Oillaskoa, oillarra, gabonetako oillarra. Gue amak ohiture haundie zian. Urte askotan jarriko zon, gaiña, oillarra hil ta hua menestran.

- [...]. Eta bakailorik o izaten zan? Arraiñen bat?

- Bai, horiik izaten hittuan perie hola fuerte xamarra... oain´e hala izeten dek ta Ordizin izaten zan ordun ta Ordiziaa zan joera haundie. Ta, ordun,

hautza jun ezkeo, ordun bakaillao, arraie ta antxoa o... hautza jun ezkeo beti.

- Eta, bestela, normalen, ze izaten zan?

- Ba, potajea.

- Potajea beti?

- Potajea. Guk beti. Ba(b)arruna beti. Urten aurreneti azkenea, oain ez diat jaten, oain ez diat...

- Orduan, asko jasotzen zan orduan?

- Bai, asko. Saillek eitten zien! Sail haundiik itten baitzien! Bai, bai, ordun potajea zan ta potajea gutxigo o allatzen ez baldin bazan, orduun lenteja o hola; garbantzue jaietan ta holako toki batzutan, zea espeziala baldin bazan, ordun garbantzuk.

- Garbantzurik-eta ez zan izango?

- Hemen ez. Ez, ez zan.

- Baiña ezautu bai, beti ezautu dezu?

- Jateko? Jateko bai.

- Eta lenteja?

- Lentejak ´e bai. Horik nee akordu guzi-guzin beti izan dittuk. Beti izan die. Nun hartzen zien ta ez zien ez dauket ideaik!

- Ta arroza?

- Arroza ´re bai beti izan da. Beti, beti.

2.18. Taloa nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Taloa nola egiten zen; Franciscaren amak nola egiten zituen. Gaiarekin zerikusia duen lexikoa.

Transkripzioa

- Gogoan al duzu amak egindako taloak-eta, bueno, nola egiten zituen ta nolakoak ziren? Zer behar izaten zen taloa egiteko?

- Taloa eitteko iriñe, gatzeta ta ude.

- Hitztuna 3: Artiriñe...

- Artiriñe. Ogi-iriñe, igual. Ogi-iriñe [zehexeo] izaten da. Nik neonek jateko ´re nahio det taloona baiño. Taloona biunagoa izaten da, baiño bestea gozogoia izaten da, iriñena. Artoona lehorraoa izaten da. Horreati... Baiño hue etaatzeko ´re eskue behar dezu, zeatik ama zana gureek eskue zon.

- Eskua bihar izaten zan, ez?

- Eskue.

- Ze masa...

- Masa eitten zon ta...

- ... zapal-zapal edo zelan egiten zen?

- Geo, zea, ohol bat eukitzen zon, harei zapi txuri bat ipintzen zion uretan bustita, txa(b)al-txa(b)al einda, haren gaiñeen eitten zoon eta ez zitzaion easten. Geo tala-burnie holako kirtenakin —bruí bat zeatten zon— eta

tala-burniri trapu harrekin easten zion taloa eta geo pixkat iruitzen zitzaion garaian ein zitzaiola azpikoa, eskukin hartu ta eskukin errez bueltatzen zan. Ta geo erretzen ai zala bestaldea bueltatzen... tu zan garaian, ba, erretakoa igual altxatzen zan dana. Eta geo altxatu ta suun aurren, prasaan aurren´e, zuk esan dezuna, su bajun´e ondo. Eko(no)mikan zailtxio, zeatio surtaa eskiñea barrua sartu ein behar zaio harrotzeko. Surtan hemen´e.

- Beheko suan errezago...
- Hemen´e bai, baiño beheko sue errezago da.
- Beste zapore bat ere emango zion, ez?
- Bueno, bueno. Harek eindako talook taloa gustatzen zitzaionak nahikoik´e ez zon eitten.

2.19. Taloa nola jaten zen

- **Hizlaria(k):** Mujika Unanue, Francisca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Elikadura baserrian. Goizetan taloa jaten zuten esnearekin batera.

Transkripzioa

- Orduan, taloa noiz jaten zen? Goizean goiz gosaltzeko taloa jaten zenuten edo...?

- Bai, bai.

- Taloa ta esnea edo...?

- Bai, goizen´e orea einda, masa einda uzten zan ta geo behar zanen erre. Baiño nik... esanez aitzen naiz ta katillu erdi bat, katillu bat esne talo erdi bat jateko. Katillue osoik esnea talo erdi bat jateko. Hua zaille izaten zan neetzako. Ta beste batzuk´e bi o hiru jaten zittuen.

- Taloari gero ipintzen zitzaion barruan zerbait, ba, beharbada eguerdian edo, ez dakit, afaltzeko orduan, ez dakit, urdaia edo...?

- Batzutan urdaie eo txoixoa o erreta baldin bazeon, ba, hua jartzen... hua erdin jartzen zitzaion ta bueltatzen zan ta [han]. Nik ezin non hua.

3. Euskara

3.1. Estebanen garaian eskolan dena euskaraz

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Lizarralde, Esteban; Aranburu Esnaola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-003/006
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Estebanen garaian, apaizak dotrinaz gain, irakurtzen eta idazten ere irakasten zien, dena euskaraz. Maistrak ere dena euskaraz.

Transkripzioa

- Eta zer nolako eskolak ematen zituen apaizak?

-E: E?

- Ze erakusten zuen apaizak dotrina ala...?

-E: Dotriña harek.

- Irakurtzen eta eskribitzen...?

-E: Bai. Geo eskribitzen-ta´re bai.

- Orduan berak ematen zituen...

-E: Bai, bai. Beak dana ematen zon.

- Eta ze izaten ziren klaseak euskaraz, erdaraz, bietara...?

-E: Euskeaz, dana euskeaz. Erdeaz...

- Gutxi?

- E: Gutxi. Guk ez gendun erdez eze ikixi hemen.

- Ez? Eta maistrarekin ere euskeraz?

-E: E?

- Lehen esan duzuen maistrarekin ere...?

-J.I: Bai, hue´re euskeaz. Harek ez zekin erderaz; harek erderaz ez zekin.

Nere aitten izoa horrek? Harek ez zekin erderaz.

-E: Hemen dana... erderaz batez! Batez erdez, dana euskeaz.

3.2. "Guía del artesano", idazkera-estiloen liburua

- **Hizlaria(k):** Lasa Odriozola, Jose Inazio

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** BEA-006/014

- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:23:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Euskara » Tratamenduak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

- **Laburpena:** Dotrinaren orde, "Kristau ikasbidea" ikasi zutela kontatzen du. "Guía del artesano" izeneko ikasliburua ere ondo gogoan dauka; eskutitzez osatzen zen liburua zen, kaligrafia ikasteko ere baliagarria.

Transkripzioa

- Apaizarekin dotriña ikasten zenuten...?

- Dotriña, bai. Dotriña´re ia gu baiño lehentxeo aldatu zan. Lehenao "dotriña" zan eta geo "kristau ikasbidea". Guk ikasi gendun "Kristau ikasbidea".

- Eta liburuska berdiña...?

- Liburuska berdintsue. Ez dakit etheen eongo dan... igual... igual galdu izango die. Eskolan ikasten gendun beste liburu bat, pozik ikusiko nukena, "Guía del arte sano" izeneko.

- "Guía del arte sano"?

- "Guía del arte sano", hoi zon izena.

- Eta zer ikasten zen...?

- Eta zan dana eskuidatzittako kartak, eskutitzak, “vamos”, kartak, eskuidatzittakok. Nahiko... redondilla antzeko zeakin eta abar.

- Bai. Eta, gaiñera, aurreko baten esan zenidan —hemen gordeta izango dut...—, letra-tipo berezi bat, ez? Eta, gaiñera, ze...?

- Aizkenen, bukaera: “Su seguro servidor que besa su mano”, dana maiuskulakin.

- Horrelako...

- Bai, bai. Letra inglesa esaten zioen horri, ez dakit... Orduun hala esaten zitzaion, oain ez dakit ze esaten dien. Baiño zien kartak sozidaden zea guzittakok, batzuk been “vucencia”. “Vucencia” zan, ba, osea, militarren, ejerziton...

- Bai, tratamendu...

- Bai, “de coronel pa´ arriba, vucencia”. Eta gero zeantzako, este... o(b)ispontzako bat: “reverendísimo”, “reverendo”, “su santidad”...

- Mailla desberdiñak, ez?

- Been maillakin eta abar. Oain, bukatzeko beti berdin: “S.S.S.Q.B.S.M”... - “Q”...

- Osea, “su seguro servidor que besa su mano”. Eta ez dakit, liburu hoi pozik ikusiko nuke. Ez dakit nun eon leiken, baiño zaille iruitzen zat billatzen. Eta, lehen esan deana, zien, ba, neska-mutilen arteko zeak, kartak eo fabore haundi bat eskatuz sozidade altuko batzuri, ta bakoitzei been... “de usted”, “de vucencia”, “de usía”... hoik danak aurkitzen zien karta hortan edo... liburu hortan. Ta ez dakit ze in zuen liburu haik, galdu in zien, nunbait. Baiño ez zendun iñoiz aittu, e?

- Ez...

- “Guía del arte sano”.

- Ez. Bueno, lehengo egunean esan zenidanean, baiña bestela ez.

- Holaxe, bueno.

3.3. Erdararen indarra Beasainen; baserrietan euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-019/001
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Beasainen erdarak indar gehiago izan du. Orain euskarak hartu du indarra. Dena den, baserrietan beti euskaraz egin izan da. Beraiek dotrina ere euskaraz ikasi zuten.

Transkripzioa

- Euskera kontuak-eta hitz egingo ditugu? Hemen, Beasaiñen-eta...

- Apalategi: Beasaiñen...

- Beti izan da euskalduna o...?

- A: Ez, erdere.

- Usabiaga 1: Erderek indar gehio izan dik hemen.

- Bai, e?

- Us1: Oain euskerek indarra hartu [baldin bado´re].

- A: Bai. Oain, guk baserritan euskerea, e?
- Us1: Baserritan beti euskerea.
- Eta umetan eta?
- Us1: Bai, bai, bai, bai.
- A: Konparazio bateako, dotriñea ´re guk euskeraz, e? Dotriñea... hori obligazioa zan. Oain, behin prailletan hasi giñen ezkeo, hango errezok eta gauzak danak erdez.

3.4. Lazkaon euskara gehiago Beasainen baino

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/003
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena:** Beasaingo kaleetan erdara gehiago entzuten zen euskara baino. Lazkao herri txikiagoa zen eta euskara gehiago mantendu zen. Lagun artean beraiek euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta [...] kalen erdera asko?
- Apalategi: Jendek erderea asko eitten zian, bai. E?
- Usabiaga 2: Euskerea gehiao Lazkaon.
- A: Baiño guk geok... guk geok...
- Us2: Lazkaon. Lazkaon euskerea asko ikusten dana. Ikusten zana, Lazkaon.
- Us1: Lazkao beti euskaldunagoa izan dek.
- Beasain baiño?
- Us 2: Bai, bai, bai, bai.
- A: Lazkao.
- Us1: Lazkao bai...
- A: Ttikigoa ta...
- Us1: Ttikigoa zalako ta, gaiñea, euskerentzako... Hemen beti...
- A: Baiño guk geon arten guk geok koadrillan juntau giñenen, e? Guk geok beti euskeraz, e? Guk euskerea ibili diau beti.

3.5. Neskei gehienetan "zuka" egiten zieten

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Euskara » Tratamenduak

Euskara » Tratamenduak » Berorika

Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

- **Laburpena:** Berorika; zuka; hilka. Lagunartean edo familian nola egiten zuten. Neskei gehienetan zuka. Emakumeak beraien artean hika egiten zuten sarritan.

Transkripzioa

- Eta hika edo zuka edo nola izaten zen?

- A: Hori bai. Hortan ´e beti... persona haundie hola...

- Us1: Hari beti bee errespetoa.

- A: ... haundi xamarra baldin bazan beorika.

- Beorika?

- A: Eta zaharragoa izan ezkeo, zuka. Eta...

- Gurasoei-eta?

- Us2: Apaizei ´e beori. Beori apaizei ´e.

- A: Gurasoei ta... Geon etxen... gu lau senide izan gea, izan gaittuk, e? Geen amakin. Zeatio ni sei urtekin aitteik be geatu nitxoan. Eta gue etxeen senidek alkarrekin hika danak, bata besteekin. Neri zu.

- Us1: Ttikiña...

- A: Anaiek ez, anaiek beti hi. Baiño arrebak-eta neri zuka.

- Amak ´e bai?

- A: Bai. Ta ni neonek, ni neonek, anaiei hika, baiño senideei zuka, arrebai. Hortara. Ni hola izan naiz.

- Eta normalean holan izaten zan?

- Us1: Ba, modu askotan. Batzuk zuka, hika...

- Gurasoei beti zuka?

- Us1: A! Bai, bai, bai, bai.

- Us2: A! Gurasoei bai.

- A: Ta! Lehenao esan deana, e? Gue izeba Donostikoi-ta beorika.

- Bai, e?

- A: Bai.

- Us2: Ta apaizei beorika apaizei ´e.

- A: Bai ta lehen "Ave Maria purisima" esaten ikusi ta gu korrika junda ta... Holako zea hoiek bagiñutzen.

- Eta neskekin zuka o hika?

- Us1: Jenealen zuka. Jenealen...

- A: Emakumei zu...

- Us1: Jenealen bai.

- A: Bai, bai, bai, bai.

- Us1: Hi neskari...

- A: Nik hi ez zekiat iñoi esan dioan. Ez, ez, hortan...

- Us1: Nik arrebai. Arrebai hika, baiño gaiñeakon emakumei iñoi hiik ez.

- Eta emakumek beraien arten?

- Us1: Segun...

- A: "Aizan".

- Us1: Hika ta zuka ta...

- A: Hika gehio, e!

- Us1: Hika gehiao, e?

- A: Bai, bai, een arten bai, e?

- Us1: Bai, guk bezela! Guk bezela. [toka] ta hika. Bai, bai. Ta neskak alkarren arten jenealeen hika. Ez do esan nahi danak, baiño gehienbat bai.

3.6. Beasain gehiago erdaldundu zen Lazkao baino

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena:** Lazkao herri euskaldunagoa. Beasainera kanpoko jende asko etorri zen eta herria erdaldundu egin zen.

Transkripzioa

- Eta hemen inguruko herrietan-ta euskera gehiena, orduan, Lazkaon? Ordizin ta Beasaiñen baiño gehiago?
- Us1: Hortan... fabrikako jende zea sartu huan honea, kastellanoa, kastellanizatugoa izan dek.
- A: Valladolid alde hortati ta... Bai.
- Us1: Bai. Burgos ta...
- A: Bai.
- Eta Ordizin?
- Us1: Ordizi kasi-kasi honek baiño euskera gehixio bezela. Hau ya kastellanogoa. Lehen. Lehengo kontuk.
- A: Fabrika haundie baitzan ta Renfek´e hor. Ta geo estazioa ´re nola tokau zan, zea, kategoria gehiokoa Beasaingo hau, e? Hemen ´e trenak bat o bi geatzen ez zienak, baiño gue aurrekok danak geatuko hittuan, zea, elektrifikazioa in baiño lehenao. Nola uden depositoa eta gauzak zeren...
- Us1: Estazioa, estazio prinzipalagoa da hemengoa Ordizikoa baiño. Ta, jakiñe, enpleatuk. Enpleatu jendea ta... Bai, hemen kastillano-jende asko.

3.7. Inguruko herrietako hizkeren arteko aldea

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Ormaiztegi, Legorreta, Zumarraga eta Beasaingo euskara oso antzerakoak. Zegama, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Zerainen beste ikutu bat du euskarak. Legazpikoa ere desberdina; baita Ataungoa ere.

Transkripzioa

- Eta lehen esan didazue hamen Lazkao, Ordizi ta Beasain inguruko euskera nahiko antzekoa dala, ez?
- A: Bai, bai. Olaberri, Lazkao, ta Ordizi ta Itsasondo...

- Us1: Hemen ez dao diferentziik. Itsasondan ta... ta Legorretan´e...
 - A: Ta Ormaiztegi... hok danak. Geo... Ba, Zumarra(g)an´e bai, e?
 - Us1: Zumarra(g)an´e bai.
 - Ta zuek Zumarragakon bat entzun eta...
 - A: Ez, ez diau...
 - ... [...] hau ez da Beasaingoa?
 - A: Ez, ez, ez, ez, ez. Hori Idiazabalgoi segurogo.
 - Us2: Bai, Idiazabal ta...
 - Us1: Gertugo eonaatio beste deje bat ematen dioe, Zegaman bezela.
 - A: Zegama o Segurak´e bai.
 - Us1: Segurak´e bai, e? Ta Mutillok´e bai. Zeraiñek´e bai. Horik ya... beste deje zera bat daukee.
 - A: Eta Zumarragan, berriz, ya... hemengo...
 - Us1: Bai, hemengo estilo [...].
 - A: Ta Legazpi bertan, ondon, gertun daola, baiño ya hak´e...
 - Diferente...?
 - A: Bai.
 - Eta Zaldibi ta Ataun eta?
 - A: Zaldibi ez. Zaldibi´re honen estiloa.
 - Us1: Bai, bai.
 - A: Ataun ez, e? Ataunek ya...
 - Us1: Ataun, Ataun...
 - A: "Etxekook etoi gea". E?
 - Beste doiñu bat?
 - A: Bai. Bakoitzek bee... Ta, gaiñea, personea jarri eitten da aguro, eta, e?
 Nik Aizarnazabalen ikusi nun zeatio Aizarnazabalen beste deje bat ta nik han derrepente hartu nun hango dejea.
 - Us1: Bai, gaztetan, berriz, oandik azkarrao.
 - A: Bai, bai, bai.

3.8. Inguruko herrietako euskararen ezaugarriak

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-022/025
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:48:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Inguruko herrien euskararen ezaugarriak. Bizkaiko euskara. Etorkizuna; euskara batua. Zaldibia; Ordizia; Zegama; etab.

Transkripzioa

- Euskera inguruan eta beste kontu bat, hemen inguruan, ba Ordiziko euskera, Zaldibikoa, Ataungoa...
 - J.M.: Tolosatio berdiñek ia.
 - Berdiñak dia?
 - J.M.: Bai. Baiño hemendik Zumarragaiño. Juten bazea zea aldea, e... nola da?
 - Oñati...?
 - J.M.: Oñatia. Nik... egurzalea etortzen zat honea Oñatikoa ta, ba, hartzen

diot hizketan; oso zea da, diferentea da. Honek andrea Lesakakoa... o zeako dezu zuk andrea...?

- O: Zubieta.

- J.M.: Zubietakoa. Han ´e desberdin oso hemendio.

- Baiña hemen inguruan, Ordizin, Lazkaon... berdin?

- J.M.: Garbigoa iruitzen zat nei euskerea. Ta Bizkaia juten zea ta nik bizkaitarrai esaten diet: "Hara, eiazu erderaz, zeatio nahasten dizue...". Geo, gorraizea dauket, gaiña, nik.

- O: Guk esaten deu euskeraz badakiula, baiño hasten zea leitzen oain egunkari zea "Hitza" ta horik ta ni hasten naiz leitzen eta hitzen erdik ez dittut ulertzen ze esan nahi duen. Dana gauza berrie.

- J.M.: Baiño... Guk ez deu ezautuko, baiño hemendio hogei urtea euskera hau oso politte izango da, garbigoa askoz ´e.

- Baiña zuena ez da polita? Zuen euskera ez da polita?

- O: Guretzako bai, [...], baiño...

- J.M.: Guretzako bai. Baiño bai...

- O: ... baiño erdi erdera, erdi euskera...

- J.M.: Eozeiñi aittuko diozu: hasi Tolosa aldetio ta beheraxeotio ´re bai eta hemen Ataun ta Idiazabal, Zumarraga bittarte hau garbie da euskerea. Baiño juten bazea Naparra aldea, Barranka alde hortaa esango dizue: "Bihar e... triguak maduratzen ai dia ta hasi beharko diu lanian" naparrak; bestek: "Bai, nik bazaukeat lana, bentanak pintau in behar zetuatu, etxeko bentanak eta..." dana holakoxe zea. Oain ez naiz juten ni Napar aldea baiño oso diferentea. Ta Bizkai alden ´e bai, e? Eta Antzuola alden ta beste...

- Eta hamendik Tolosara alderik bada?

- J.M.: Bee, alde haundiik ez.

- O: Pixkat bai badao, e?

- J.M.: Zeoze bai, baiño oso gutxi.

- Zuek somatuko dezue, ez? "Hau tolosarra da o ez da o Beasaingoa da o...", ez?

- J.M.: Bueno, igual zeoze batzui ematen zaie beheralde hortakoa ote dan, bai. Bai, [...] zaie zeoze. Bai, hasten bazea Zaldibi, Ordizi, Beasain, Zegama eta... Zegaman ´e bauke holako zea ttiki bat, e? Zegamarrak hizketan bauke. Baiño ni Tolosa aldekokin ta ondo zeatzen naiz. Nik ez dauket... Baiño bizkaitarrakin? Zeauta geatzen naiz, nahastuta.

- Eta polittena nongoa da, Tolosakoa, hamengoa...?

- J.M.: Netzako Tolosa aldekoa.

- O: Hala esaten doe bai, Tolosakoa dala...

- Polittena.

- O: ... polittena.

- J.M.: Bueno, Andoain aldea o jo zagun eta hor ´e behera igual. Baiño polittena Tolosakoa.

- Eta Azpeiti alden? Azpeitin?

- J.M.: Azpeitin? Azpeitin... beee! Azpeitiarrakin eonda nao ni ta... bai, zeoze desberdiñe zeatzen da hemendio, e? Zeoze o bai, gehixeo.

- O: Bai, diferentzi pixkat badao, bai. Hemengok baiño dotoregok iruitzen zaie eai, hemengok baiño elegantego dakiela o... bueno! Bilbao aldea gehiao jotzen due haik, Bilbao aldea.

3.9. Euskararen inguruko gogoetak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-022/026
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:48:35. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Euskararen etorkizuna. Euskara; tokian tokiko euskara.

Transkripzioa

<p>- J.M.. Ia badie honuzkeo hamar urte, gizon bat Caja de Ahorrosen garai hartan lan eitten zon zea… aber… Sarriegi txikin semea, alargundu ein zan. Biok bagarela etorri zaiu bat. Baiño euskerea harek eitten zon garbie ta rapidoa. Baiño oaingo berrie, e? Ta jendea ahoa zabaldua. Ta nik horreatik pentsatzen det hau garbitzen jungo dala. Guk ya, ba… guk honuzkeo zea, lehengo zea, baiño datorren gaztea euskerea garbiga eingo dola. Ez al zaizu iruitzen zuri? - Ez dakit, ba. Bai… - J.M.: Bai, bai, bai, bai. - O: Bai, oain, esaten dan bezela, laboratoriotio etatzen dien hizkuntza… -J.M.: Eske guk esaten deu “Noa hoa?” ta “Aiuntamentua” esaten deu. Baiño “udaletxea” izango da. Eta beste gauza asko´re bai. - O: Plazai´e “plaza” esaten diou guk. - J.M.: “Plaza” esaten diou. - O: Ta euskeraz “enparantza” ta… - Ta zuen gurasoek eta aiton-amonak eta nola hitz egiten zuten? - O: Ba, gue modun haik´e. - J.M.: Igual-igual. - O: Guk haitatik ikasi gendun ta. - J.M.: […] haak´e berdin. Haak esaten zuen: “Jun hai aiuntamentua. Holako zeataa ta jun hai ta…”… “plaza”-re igual, “Jun hai plazaa” o…</p>

3.10. Euskararen egoera; hika, zuka, berorika

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:32:00. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Hizkuntzaren egoera. Parrokoak euskaldunak izan arren umeei ez zieten euskaraz hitz egiten. Hika, zuka, berorika.

Transkripzioa

- Baiño parrokoa ´re euskaldune, ba, zeakoa...
- Plazentzikoa.
- Plazentzi. Ez, Antzuolakoa.
- A, Antzuolakoa, bai?
- Bai. Aspe. Ta euskera eitten zon zuen alderdikoa, baiño euskera primeran.

- Eta don Pedro ataurra eta don Pedro Mokoroa tolosarra.
- Tolosarra.
- Baiño nik, esate bateako, gaur pentsatzen hika zen... nola itten gendun hika, zeintzuk itten gendun hika? Ba, gurasok guri hika, guk gurasoi zuka, baiño gure ama eta koiñata —guk izeba bat bizi gendun etxen, aitten arrea bat— haik ean arten hika itten zuen. Guk beorika ez deu ezautu etxen, guk aittona ta amonai “zu”. Eta apaizei nola ez genien euskeraz hitz eitten, ba, ezta ideaik ´e.
- “De usted”.
- Baiño nik Beasaiñen ezautu det beorika.
- Ta praillek ´e danak euskaldunek baldin zien... bat Matximentakoa ´re (Matxinbentakoa) bazan, eta haik gue aittekin beti euskeraz aitzen zien...
- Baiño umekin ez.
- ... baiño gero umekin ta... Jo!

3.11. Beasaingo euskara eta inguruko herrietakoa: Olaberri, Lazkao, Ordizia

- **Hizlaria(k)**: Usabiaga Oiarbide, Agapito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-025/027
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:39:40. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Inguruko herrietako euskara. Beasain, Olabarri eta Lazkaon berdintsu egiten dute; Idiazabal eta Seguran desberdin egiten dute. Ordizia eta Itsasondokoek ere Beasaingoan antzera. Legorretako euskara ere oso antzerakoa. Lehenago, Tolosako euskara ederrena zela esaten zen.

Transkripzioa

- Zuek hemen inguruan zaudetela, Lazkao, Beasain, Olaberria... hemen inguruko euskara alde batetik bestera igartzen dezue zuek alderik? Lazkaoko o Beasaingoa o...?
- Ez, Olaberri ta Beasain ta Lazkao ta hor ez.
- Denak berdin?
- Berdintsue. Porejenplo, abitzen baldin bazea behin Idiazabal eta Seguraa bai. Ordun bai. Ta Zegama aldea oandio gehio.
- Eta zein da aldea? Ze aldatzen da?
- Hemen garbigo hitz eitten dek. Han bestelako holako... ez dakit nola esan ´e.
- Beste azentu bat o...?
- Bai, beste zea bat ematen zaiok.
- Eta hemen inguruan ez dao bate alderik?
- Ez, ez dao aldeik. Hemen ez. Hemen ´e Beasain [...] auzo hotan ta hortan ez dao, ez dao.
- [Beasainmendin] o...?
- Ez, ez, ez. Ordizi ta Itsasondo ta hotan, hotan ez dao bereizteik hemen euskeraik. Dana igualtsu. Bai, igualtsu.
- Eta ez dezu Lazkaoko bat entzun ta “A! Hori Lazkaokoa”...
- Ez, ez, ez. Hori ez.

- Eta Zaldibikoa?
 - Ezta hortaiño... Zeoze igual, baiño ezta oaindio hortaiño.
 - Hemen non hasten da aldatzen? Behin Legorreta inguruan?
 - Legorretakoa ´re hemengo moukoa dek. Ta Alegin... Alegin egongo dittuk hola pixkat gehixio. Behin Tolosaa ezkeo pixkat gehixeo aldatzen dek. Hitz... Ze esango nizuke hitz, hola, hitz eitteko modu gozogoa o... ez zekiat ze esan, nola esan. Lehen-lehen esaten zien euskeraik ederrena Tolosa alden zala. Hala esaten zien lehen. Eibar aldea, berriz, zuetaa juun ezker, berriz, han erdi erderaz.
 - Hori hemen esaten zan Tolosa ingurukoa bertakoa baiño hobea zala?
 - Hizkuntza garbigoa, gozogoa o esaten zien. Nik hemen gue etxen askotan entzun izan nian hori. Hori bai.
 - Ta, bestela, esan dezu, beste alderantz Idiazabal eta Segura inguruan ya aldatzen hasten dala?
 - Aldatu, bai. Seguran bastante aldatzen dek hizkuntzea.
 - Eta Ormaiztegin?
 - Ba! Ormaiztegin hemengo moukoa. Normalen bai, Ormaizteittik Gabiri ta hor ya gehio aldatzen dek hemen [...]. Bai, gehio aldatzen dek.
 - Eta Ataun?
 - Ba! Ataun ´e gutxi gorabehera... pixkat igual nahastuko dek, baiño hemengo modu... zea dek Ataunen.

3.12. Itzultzaile soldadutzan

- **Hizlaria(k):** Esnaola Mujika, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-029/031
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzako kontuak. Gehientsuenak erdaraz jakin ez. Erdaraz ez zekien bizkaitar bati esandakoa itzuli behar izaten zion, baina berak ere ez zion ezertxo ere ulertzen.

Transkripzioa

- Orduan izaten zen erdera ikastera, ba, kanpora joaten ziren batzuk soldautzara joateko orduan, ba, zerbait jakitzeko... Ba, Arabara edo...?
 - Ba, ez, ke, ba!
 - Lehenago ez?
 - Lehenao ez dakit nik ze zeauko zan, baiño lehen ´e ez zan jungo, zeatik ni soldau jun nitzen garain nik bizkaitar baten traduzimentue ein behar izan non. Ta nik ez nion ente(nd)itzen bizkaitarrai ta neonek ´e ezin non esan harek ze esan nahi zoon. Hoi, hoi nei gertau zitzaian Arakan.
 - Ama: Tristeia da, tristeia da...
 - Baiño ez, ordun ez zan jutun. [Bueno], jun balitz soldauskaa juteko zean erdeaz han ikasten zendun. Beharko ikasi!

3.13. Euskararen galera; sukaldeko euskara

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Sarriegi, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-033/001
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Euskararen galeraren inguruko azalpenak. Erdararen eragina; jendearen pertzepzioa. Beasainen euskara ia guztiz galdu zen garai batean; hala ere, zenbait etxetan euskara oso ongi gorde zen, batez ere baserri giroan. Euskararen egoera inguruko herrietan.

Transkripzioa

- Ordun galdu emen zan hemen euskera asko. Ta gero bertako jendek ´e iruitzen zitzaien, ba, gutxigo zekiela euskeraz bakarrik eitten bazoen, eta, ordun, asko galdu zan hemen. Eta eskerrak etxetai, etxei. Nee edadekok badare jendek euskeraz ez dakienak, e? Hemen jaiotakok, e?

- Orduan, ze esango zenduke, Beasaiñen euskera non gorde izan da edo...?

- Etxetan.

- Etxetan?

- Nik euskera sukalde esaten diot gure euskerai; sukaldetan gordetako, bai, bai, etxetan.

- Eta kale inguruan gehiago edo baserri inguruan?

- Baserrin, baserrin; kalen... mmm... bakarren bat igual bai, baiño oso gutxi. Baserrin, baserrin bai gorde da. Ta baserri danetan ´e ez, e? Baiño gehienetan bai.

- Eskerrak, orduan, ez?

- Bai, bai, bai. Nik esango dizut, nere gizona tratante izandakoa da eta aittekin, bere aittekin, ibiltzen zan. Eta nere gizonak euskeraz badaki baiño bere senidek ulertu bai pixkat, baiña hola konbersazio bat eamateko ezta pentsatu ´re. Ta aittek ia ez zekin erderaz, e! Itten zon erderaz, baiño alrebes-alrebes erabat, e? Baiño... Bai, bai, hemen Beasaiñen... Ta ingurutako herritan bai, Idiazabal dala, horik dana, dana, asko euskeraz. Baiño Beasaiñen kalen ez zan bate eitten.

3.14. Baserritarrak gutxiago ziren ustea

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Sarriegi, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-033/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Beasain eta inguruko herrietan euskararen egoera oso desberdina zen. Ordiziako giroa; egoera. Amonaren ustez, trenbidea

egitera etorritako jendearen eraginez hasi zen euskara galtzen Beasainen. Bertako jendearen erantzuna. Erdara vs. euskara; kaletarrak vs. baserritarrak. Baserritarrak ezjakinagoak zirela pentsatzen zuten askok. Eskolara joatearen garrantzia.

Transkripzioa

- Orduan, ez dakit, egoera oso desberdiña zan Beasaiñen edo inguruko herrietan?
- Bai. Bai, bai, bai, bai, bai. Ta Ordizin´e gehio eitten zan Beasaiñen baiño.
- Merkatua zala ta...
- Bai. Merkatue nola zan, ingurutako herritatik etortzen zan jendea ta, ordun, ba, trato... ganadue ta eoten zan ta hoik danak euskeraz. Baiño Beasaiñen... Eta esaten dizut, gure amonak esaten zon ferrobiariokatik zala.
- Orduan haiek kanpotik etorri eta...
- Kanpotik bai, bai. "De fuera vendrán que de casa te echarán" da erderaz esaerea ta... Bai, bai.
- Eta bertako jendeak ez zuen holako ahalegin edo...?
- Ez, geittu... ba... atrebittu´re ez ordun. Karo, ikusten zuen erderaz, "jo, gu baiño gehio die" pentsauko zuen. Ba, nik behin batekin euki non diskusio bat: baserritarrak ez ziela hain azkarrak. Ta esan nion: "Zuk ez diazu esango zu ni baiño azkarragoa zeanik", "Nik ez det hori esan nahi! Nik ez det...", "Ez, hori esan diazu ta ez, ni ez naiz zu baiño tontagoa, e! Zu ez zea ni baiño azkarragoa, e! Tontagoa´re ez, baiño azkarragoa´re ez, e!". Horrek ez du ezer jakin nahi. Baserrian jaio... Baserrin bakizu zer gertatzen zan asko? Baserriko lana baldin bazoen, eskola´re asko faltau. Ta kalekok egunero-egunero; gertugo, ta beti... Baiño ez tontogoa dalako, e, baserritarra. Baiño harekin... Baiño iruitzen zitzaien, ba, hori, ez bazekien erderaz, ba, gutxigo zekiela o nik ez dakit. Bai, bai.
- Eta orduan bazegoen pixkat pentsaera hori...
- Bai, bai, hemen bai.
- ... basarriko jendea, ba, hori, ez? Pixkat...
- Gutxigo giñela. Bai, bai.
- Eta esan duzu, gaiñera, burlak edo...?
- Bai, bai, "Casera!", hola, burla bezela esaten zan, bai.
- Bertako jendeak, baiña?
- Bai, bai, baiño erdaldune, e? Jende erdaldune hemen bertan bizi zana. Bai. Oaindio´re badare batzuk, e! Azokan hemen baserritarrak eta bee berdurak eta azak diela eta hau dala eta bestea dala saltzen jartzen die, ta batzuk: "Mira las caseras vendiendo". Oaindio´re badare. Bai, bai. Ta nik hola aitzen badiet, nik... ez naiz ixilik geitzen. Eske min ematen dit! Min ematen dit egia esanda.

3.15. Beasaingo garai bateko hizkera galtzen ari da

- **Hizlaria(k)**: Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-039/001
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Beasaingo euskara. Euskara galduz joan da; hitz asko galdu egin dira. "Betiko gaitze, ahaztu". Baserri inguruko hitz asko galduz doaz, batez ere erabiltzen ez direlako. Zaharren hizkera.

Transkripzioa

- Euskerea, lehengo euskerea dana galdu in da ya.
- Bai?
- Lehengo jendek beste euskera ta errexago ta eitten zuen egunero ibiltzen zittuztelako. Ta ze esango noke... ba, ahaztu ein die hitz asko lehen ibiltzen zienak. Betiko gaitze: ahaztu. Baserriko erreminta izenak bakar-bakarrik´e danak ahaztu ein die. Gurdiik eamaten zitun trastek: eutsaga, kurtolak, ezpatak... hoik danak, danak ahazten ai die. Gaiñagea... ta holako gauzak danak ahazten ai die ta hitzek´e bai. Lehen baserri ingurun beti hitz horik ibili itten zien ta kalea junda´re bai esne kontue ta dana. Oain danak galtzen... galdu in die, ez da ibiltzen ta. Kito. Ta konbersazion´e galdu eitten die, nola ez dan ibiltzen.
- Ta berba konkretoetaz gain, askotan, ez dakit, espresioak edo... Ez? Esamolde asko lehenao erabiltzen zirenak eta orain ya gazteok, ba, ez ditugunak ezagutzen edo...
- Bai, oain hori atatzeta ez da hain errexeta.
- Orduan, aldaketa haundia somatzen duzu?
- Puf! Ikaragarria, ikaragarria. Ta geok´e ahazten ai gea, ya burue´re txarra daukuu ta horreatio esaten dizut hau ein balitz´e oain hogeitau urte... puf! O hamabost. Nik ikusten det hizkera hura ahaztu ein dala. Ahaztu o utzi. Beste gauza batzuk, beste modu batzuk ikusten die bai telebistan, bai radion ta, hitzak jun ein die ta konbersazio hura ere bai.

3.16. Ama Idiazabalgoa zuen

- **Hizlaria(k):** Lasa Imaz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-039/004
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Beasaingo euskara. Euskararen egoera. Hitzunaren jatorria; ama Idiazabalgoa eta aita Zaldizurreta baserrikoa. Amaren gaztetako ibilerak. Gaztetxoa zenean, osaba batekin artzain ibilitakoa.

Transkripzioa

- Eta, orduan, oraingo euskerak ez du horrelako...
- Hitz asko falta die.
- ... graziaz edo. Ez?
- Nik netzako...
- ... bizitasunik edo...?
- Beste... beste... Hitz tekniko asko ibiltzen da, baiña... erderazko lehen sortu dien hitz berrik eta hori, hori... Erderan´e lehen ez zien hitzek ibiltzen

die oain erderan´e. Teknikok, ez dakit. Mundue beste bide batetio dijolako da hori.

- Hori, bakoitzak azkenean bere...

- Eta euskeraz´e hitz asko sartzen dittue erderazkok, ez daukelako... ez dakit, tradukzioik o ez dakit nola dan hori. Ez dakit.

- Eta, orduan, hitz asko desagertu egin direla edo, bueno...

- E?

- Erabiltzen ez direnez hitz asko desagertzeko bidean daudela, ez? Aipatu dituzu baserriko tresnak edo...

- Lehenoko konbersazio [jende]... Puo! Askok, e? Puf! Nik buru txarra dauket, egie esan. Esan dizut ni ez naizela iñor euskeran gaiñen... Egongo dielako beste batzuk daukenak jakinduri gehiao hortaz, hizketan´e bai abildade gehiao.

- Ez, baiña zuk, behintzat, zeure euskera mantendu duzu, ez? Bertakoa, gaiñera. Bertan jaiotakoa zara...

- Beasaiñen? Bai, bai.

- Gurasoak ere bertakoak zien?

- Ama Idiazabalgoa ta aitte horkoa, Zaldizurretakoa. Gue ama gaztetan, ba, Donosti alden ibillitakoa zan serbitzen ta hoteletan ta... Oso emakume atsegiñe zan; koziñan ta josten ta prakak eitten ziun guri ta... dana eitten zona zan. Hautza juteako aurrena egon zan osaba batekin artzai. Nola da hori? Hor Alsasu ondón. Aber, aber, aber... Ez naiz gogoratzen.

- Eta artzai ibili zan bera?

- Bai, aste guztie beakin egoten zan eta larunbatetan oiñez etortzen zan Etxegarartetio. Eta gero ibili zan josten han Etxegarate biden Ursuaran, Ursuarango etxe, baserri baten neskai eakusten zien josten. Ta geo ibili zan Beasaiñen koziñan. Etxeti irtetzeako, e? Ta geo Donostia jun zan.

- Eta artzain esan duzu...

- Bai, bai, harek gazta eitten ta dana zekin.

- ... bere senideren batekin edo?

- E?

- Senideren batekin-edo ibili zen artzai?

- Edo osaba batekin.

- Osaba batekin...

- Eta bera bakarrik ala osabarekin batera biak ibiltzen zien?

- Bai, alkarrekin ibiltzen zien. Hura launtzea juten zan; ba, sukaldean ta gazta eitten ta eakutsi zion ta holaxe ibiltzen zien. Aste guztie han pasatzen zon.

- Bizimodu gogorra izango zen hori, ez?

- Pff! Ta geo oiñez etorri [han].

- Eta ze ingurutan izaten zituzten... artaldea non izaten zuten?

- Artzaie nun eoten zan?

- Bai edo...

- Ez naiz gogoratzen, la ostra, izena. La ostra. Txabolea ta guzti zuen, bertan lo ta guzti... La ostra... Nola da?

- Ba, berdín da.

4. Aisia

4.1. Goierrin bertsolari gutxiago egoteko arrazoia

- **Hizlaria(k)**: Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-006/026

- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Bertsolari gutxi egon izan da Goierriin. Beterri (Tolosaldeko eskualdea izendatzeko erabili izan den modua) baino eskualde pobregoa izanik, ez da hain bezain beste lagunarte, sagardotegi eta abar egon. Goierriin, Zaldibia izan da bertsolari gehien eman duen herria.

Transkripzioa

- Gaiñea, lehen esan deuna, hemen Goierriin bertsolari gutxi zan, oso gutxi. Zeatik Goierri... probintziko lurrik pobreena [da Goierri]. Hoi betikoa da. Zeatik Goierrietik Beterria juten zien, ta Tolosatik beherakoa aberatsagoa da. Bi alderdi, bi gauzogatik: kapitala gertuun daukelako eta terreno bezela hobe dalako. Eta beti goierriarrai, ba, ba!, pixkat bajuxeo balitz bezela eo. Eta diru gutxi daon tokin, jakiñe izaten da geo, launarte gutxigo dao; ez [zan] Beterriin bezela, ez zien sagardotegik.

- Ez dao giro egokirik...

- Giro... ez, ez, dife(r)entzie zeon hortan. Ta hemen, nik uste det, Goierri guzin herri bat izatekotan, ta Goierriin ta probintzin´e... onak edo txarxeok, bertsolari gehienak Zaldibin, artzai-herrin. Zeati artzaiek´e, behintzat, gutxiñez udan, egun lasaixeok´e izan eitten zittuen, ta alkarreana gehieo biltzen zien, nunbait, mendi aldetik eta abar.

- Orduan izaten zuten aukera edo...

- Jakiña! Aukera, aukera. Klaro, gauza bat, ez baldin bazaio... jarraitzen ez baldin bazaio, ba, ez da juten aurea. Hoi jakiñekoa da.

4.2. Inguruko erromeriak: Mandubi, Kizkitza, Nuarbe, Beizama

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/035
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeria kontuak. Jai arratsaldetan soinurolaren bat etortzen zen auzora. "Ttunttuna". Erromeria ezagunak: Mandubi, Kizkitza; Nuarbe; Beizama.

Transkripzioa

- Gaztetan erromeriak eta...

- A! Erromeria bai, juuten giñen, baiño danak atsalden zian. Atsalden zian danak.

- Eta non izaten ziren? Matxinbentan bertan?

- Matxinbentan bertan askotan, jai atsalden ta. Soiñu... soiñujotzaillen bat o etortzen zan ta gu dantzari. Nik dantza asko ein nun gaztetan, e? Ni oso dantzari nitzen, nik dantza asko ein nun. Asko dibertitzen giñen. Dana sueltoon, e? Bai, beste dantzaik ez gendun eiten, baiño guetzako hue ona zan.

- Dantza agarraua edo ze izaten zen...?

- Ez, ez, ez, ez.
- ... pekatua edo...?
- Pekatua bai, apaizak ez ziguen uzten ta. Apaizak hasarratzen zian ta ez zeon libre. Apaizak eta gero etxen gurasook. Danak.
- Orduan, sueltoan egin behar. Eta Matximentako erromerian soiñujole bakarra egoten zen?
- Ez, ez gehio´re bai. Ttunttuna´re bai ta gero kordeona´re bai eta danak.
- Eta ttunttuna zeri esaten diozu?
- Ttunttuna ez dakizu zer dan? Batzuk danboliña esaten [diue] baiño ttunttuna con... este... txilibituakin o "con flauta o no sé".
- Orduan, soiñujole bat baiño gehiago...
- Bai, bai.
- Ttunttuna eta guzti, erromeria haundia izaten zen, orduan?
- Bai. Matxinbentan bakarrik ez, gu auzoota´re juten giñan soiñua zanen igandetan. Igandetan. Auzoko festata´re bai, danetaa: Mandubira ta Kizkitzaa ta...
- Hoiiek izaten ziren inguruko festarik handienak?
- Eta Nuarbe´re bai, gertun dao herri hori ta. Ahal gendun toki guztitaa. Beizamaa ta...
- Eta famatuena edo jende gehien biltzen zuena zein izaten zen?
- E? San Marzial?
- Ez, famatuena, erromeriarik...
- Famatu...
- ...inguruko famatuena...?
- Famatu... danak famatu guretzako.
- Handiena?
- Bai, bai, bai, ondo.
- Matximentakoa edo...?
- Baiño atsalden jun ber zan, e? Han ez zan gauen iñor ataatzan; gaueako etxea. Atsalden, dana atsalden.
- Eta Nuarbera edo inguruko...
- Bai, bai, Nuarbea.
- ... auzoetara...
- Auzotaa juuten giñan festak zianen.
- Eta gero etxera bueltatzeko? Erabiltzen zenuten zerbait...?
- Ba, oiñez jun ta oiñez atzea bueltau.
- Eta illuntzen hasitakoan...
- Ba, illuntzeako etxea jun ber.
- ... zerbait erabiltzen zenuten argia emateko bidean?
- Ee... argi beharrik ez zeon.
- Ez?
- Illuntzeako jun in ber. Ta Nuarbea jun ezkeo ta beti dantzan eiten gendun "Bueno, bai, hauxe indakon, pieza hauxe indakon jungo gea; hauxe indakon" ta geo luzetu. Eta geo bidea lehengoa egoten zan eta geo biden korrika. Eta pixkat tardatzen bagendun, ama aten, beira.
- Zain...
- Ez, gurea bakarrik ez, e? Gehio´re bai, danak.
- Orduan, inguruko auzokoekin harremana nolakoa izaten zen, beste gazteekin?
- Ona, ona. Danak ondo, ondo.

4.3. Arteta baserriko erromeria; dantza eginez gero kongregaziotik kanpora

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/001
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Usurbeko erromeria. Auzoko jaiak. Arteta baserrian egiten zen erromeria. Dantza-soltea egin behar izaten zen; lotua debekatuta zegoen. Hijas de María kongregaziokoak zaintzen ibiltzen ziren. Kongregaziora zenbat urterekin sartzen ziren.

Transkripzioa

- Alaba: ... Guk ez gendun ezautu. Beste basarri baten, Arteta...
- Hemen goien basarri baten, ba, gazte-jende asko zeon. Eta hemen Gariñeneko hortan bizi zan Joan Joxe eo... soiñue jotzen zoon. Ta bee bizkarren soiñue zola jutun zan baserri hortaa. Ta gu gazte asko. Ta horti bakarrik ez, hemen beheti´re etortzen zien ta.
- Alaba: Kaletik jutun emen zien...
- Bai, kaleti. Ta geo, zea, esto... baltseon ez zeon eitteik, libre bakarrik. Galazi eitten zoen. Ta etortzen zien beheti Marian alabak ziela o... Gu´re, bakizu, arten gazteek eta...
- Alaba: "Hijas de María".
- "Hijas de María". Ta kongregazioti botako giñutzela hor baltseon eitten baldin bazan. Eta etortzen zien hiru o lau neska beheti, ba, ikustea baltseon eitten zon iñok o... Baiño jenealen sueltokoa jotzen zon. Oso soiñujole ona zan.
- Orduan, lau neska etortzen ziren zaintzera?
- Bai, kaleti, zea, "Hijas de María", baiño buru zerenak, haundiik, gradu gehio zeukenak. Ta ez gendun... gu ez giñuzten behintzet bota kongregaziotio; igualtsu ibili giñen. Hamalaun bat urte eo hola neuzkela nik. Ia zenbat urte dien.
- Kongregazioan ze sartzen zen...?
- Kongregazioa?
- ... komunioa egin eta gero, ez?
- Bai, bai. Hamabi... hamar urtekin guk ein [gendun] jaunartzea ta ya kongregazion sartuta genduken. "Hijas de María"-n medallea izaten gendun, gaiñea, komunioa hartzera juteko ta. Kategori haundie izaten zan, e? Orduan, garai hartan, elizan? Bueno! Ta, esaten dizut jendea... bueno! Izaten zan hor asko! Ta, hola, ardi garaien ta, ordun, mondejuk-eta itten zittuen ta afaltzen-ta jendea izaten zan. Izeba-osabak giñutzen guk hoik, hor basarri hortakok. Osaba hil zan ta izeba, ta nee edadekoa zeuken semea ta geo bestek gaztegek. Baiño kanpoti launtzea jutun zitzaion, hola, ardie hiltzen zuenen ta mondejuk partittu ta eitteko jendei. Bai, hola, hor ´e. Bizimodue... Ba! Gaztetakoa, bakizu.

5. Politika

5.1. Gerraosteko gosea

- **Hizlaria(k):** Lasa Odriozola, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-006/036
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Garingo eskolatik Beasaingo eskolara pasa zen. Gerra zibila eta gerraosteko gosea bizitzea suertatu zitzaion. Garai oso gogorak izan zirela kontatzen du.

Transkripzioa

- Bueltauta Garin auzora eta zeure umetako edo gaztetako denborara...
- Gaztetako denbora hor nonbait esan det, batzuk behintzat bai: eskola.
- Eskola-kontuak eta...
- Eskola-kontuk eta handik aurrea, ba...
- Ta gero Beasañera maristetara, ez?
- Maristetan eon nitzen, bai, Beasañen.
- Orduan Beasaingo maristek, gaiñera, izen haundia izango zuten, ez? Inguruko mutillak ahal zuenak behintzat bertara...
- Bai, bai, zeatik, klaro, nazionalak fama gutxigo zeukeen. Nazionala esaten zitzaienak, eskola nazionalak, ba... Baiño eskola nazionaletan´e uste det berdintsu pasatzen zala. Zeatik gerrea ta historiik eta... Jende asko eta laneako... zeatik sasoi onenekok gerra eamaten zittuen, ta...
- Bai, ez zen garai erraza...
- Ez zien garai... garai onak ez zien. Eta ondo(r)enak´e askoz hobeek ez. Geo dana been esku hartu zoen garaien, dana bildurre sartu ziuena danai eta... guk emandakoa jan. Eta, gaiñantzen, ixilik. Nahi bezela... Nahi dan bezela pentsau, baiñ ixilik egon baezpa´re. Eta hola igaro zien, ba, urte mordoxka bat, pixkat ahazten juun arte gauzak. Ta zeatik jan kontuun, baa, dana jarri zoen... "Junta de abastos" esaten zitzaion bat sortu zan, ba, jauntxo batzun tarten eta hue zeukenak dana zeuken.
- Eta besteak...
- Bestek, ba, ahal zonak ahal zona. Ordun... Baiño ordun gaizkiña fabrikatoko langillek-eta pasau zoen, e! Hemen Goierrin behintzat bai; gaiñantzeko lekutan nik ez dakit. Castilla alden-ta beharbaa, orduun ez zeon hainbeste... Osea, lurretik jende gehio bizi zan. Ta lurretik bizi zanak nik uste det jana errexao hartzen zola.
- Hemen ere baserrietan...
- Baiño hemen baserritan... gu ondo defendittu giñen. Ba! Nahiko ogie ez bazeon, taloa; taloa ez bazeon, patatea. Ta babarrune ta etxen hartzen zan gauzea. Hoi jan ezkeo ez dao goseik. Oin... Gaur bezelako moko-fiñik´e ez. Holakoik ez.
- Ez zegan...
- Ez, holakoik ez zeon orduun.
- Hitztuna 2: Ardie-ta etxen zeon. Ardik zeuzkenak eta ardik hiltzen...
- Bai, ardik hilda´re bai ta... Janaldi batzuk galantak´e bai. Oain baiño haundigok´e bai. Bueno...! Eske oain beteta gare, ta ez deu hainbesteko ilusioik.

5.2. Gerra garaiko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/031
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerrako kontuak. Tiroak; soldaduak. Ataun inguruan tiroketak.

Transkripzioa

- Zeatik esne-partitza ´re juten giñen gu behera, kalea, astookin gerrako garaien. Beheran esneek partittu ta gora getozela a hor goiti [Ametzarrati] tiroteok ekin ta zulon barrenetik atzera behera jetsi, Miel Antonenen — ikuillue zeuken ordun Miel Antonek. Zuk ez dakizu...

- Alaba: [...]

- Bai, Inixio Altuna ta bizitako hortan ikuillue zan. Eta han astook utzi Klara ta biok ta Altunea jun giñen. Ta Altunen ´e, zea aldeti, Ataun aldetik soldaduk eo ez dakit ze zea... Bueno! Ibili gendun...! Ta aber itxen nola eongo zien, gu agiri ez. Ta [Ametzarratik] hasi zien garaien tiroka... bueno! Atzera jirau ta astok hartu ta goitik behera. Esne partitzen ibiltzen giñen gu gazteik eta nik erderazkokin ez dakit hoinbesteaiñoko...

5.3. Euskararen egoera gerra ostean

- **Hizlaria(k):** Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-023/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Hizkuntzaren egoera gerra ondorengo urteetan. "Hablar en cristiano". Umeen artean ere, baserrikoei irainak; etab.

Transkripzioa

- K: Eta gaiñea ´re hori baiño okerrago euskeraz ´e igual juten ziñen denda batea eta kastillanan bat baldin bazeon, "Hablar en cristiano" esaten zizun. Eta, jo, guk kristonak armatzen giñuzten.

- I: Eta Beasainmendiko umek eskolaa eta kalle Santa Mariko erdaldun ume nazkagarrik "Casero burro no vale un duro ni media..." ... nola huan?

- K: "Ni una peseta".

- I: "Casero burro no vale un duro ni una peseta ni medio duro".

Beasainmenditio zetozen, eskolaa zetozen umei.

- K: Gu baserritarrak defenditzen beti.

- I: Onbre, eske ala giñutzean ta!

6. Herria, azpiegitura

6.1. Inguruko ume guztiak biltzen ziren eskolan

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara auzo desberdinetako umeak biltzen ziren. Ezkio-Itsasoko etxe batzuk ere bertara joaten ziren. Azpeitia beti gertuago izan dute Beasain baino. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eskolan.

Transkripzioa

- Eta eskolara esan duzu herrira bertara...
- Bai, herri guztirako eskola bat: Azpeiti partekontzat eta Beasaingontzat, ume danentzat eskola bat. Gero bazan... Ezkio-Itsasokok bazien beste lau etxe eo, lau basarri-edo bazien.
- Eta bertako umeak ere...
- Haik´e bai. Bai, bai, danak toki batea eskolaa.
- Neskak eta mutillak...
- Bai. Baiño gero, piskanen-piskanen hori utzitzen jun zan, ta gero hasi zian Azpeitira juten. Autobusa etortzen zan umeek eamatea, ta gero Azpeitira. Eske Azpeiti beti gertuo euki deu guk Beasain baiño. Gertu, gertu, bide gutxigo.
- Eta neska eta mutilak elkarrekin...?
- Danak alkarrekin eskolan, danak.
- Eta esertzeko orduan, irakasleari aditzeko orduan, elkarrekin jarrita edo banatuta?
- Jolasen´e danak batea igual. Mutillak igual pelotan han frontoian, ta guk beste jolas bat igual, baiño...
- Bai? Gogoratzen duzu ze jolas egiten zenituzten?
- Batzutan danak batea, ta bestetan aparte. Danak hola.

6.2. Gariaren inguruko lanak; auzolana

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/029
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gariaren inguruko lanak. Garia jotzeko makina hiru baserriren artean erosi zuten. Gari-ebatea; batzea; nolakoa izaten zen. Soroan zer ereiten zuten. Behiek arto berdea gustura jaten zuten. Auzolana artoa ereiteko garaian.

Transkripzioa

- Alaba: Eta garia aipatu dezunetik, zuek etxen makinea etortzen zan ala zeok zeneukaten...
- Geok...
- Alaba: ... ganbaran jotzeko?
- Bai, txikitzeko, trillatzeko.
- Alaba: Trillatzeko. Trilladorea. Zeok zeneukaten?
- Bai, hiru sozion arten. Guk, Letamendikook eta Euzkintzarkook. Hirun arten.
- Alaba: Hiru basarrin arten trilladora bat zeneukaten.
- Oain nun ote da makina hura?
- Alaba: Bueno, ama. Asko eskatzea da hori. Eta, ordun, gordeta eukiko zenduen, zeatik gero ganbarako sarreran eukitzen... jartzen zenduen.
- Bai, bai.
- Alaba: Eta nola [itten zan]...?
- Eta hura han egoten zan aldamenen.
- Alaba: E?
- Aldamenen egoten zan.
- Alaba: Nola itten zenduen lan hori?
- Lan hori? Ba, guk ittaiekin ebaitzen gendun garie. Ittaiekin, eskukin, ta fardoka. Dana fardoka uzten gendun zutik.
- Alaba: Lotu...
- Gero lotzen zan, hoi gero. Egualdik´e gaur baiño gehio laguntzen zon, e? Buf! Eta ebaitzen gendun goizeen ta eskuk beteen; eutsi esku beteen ta lau eskutara hola fardoa. Ta geo lotzen gendun garikin beakin. Eta gero, lehenau ni umea nitzela, gaiñea, jotzen zan —hola, egoten zan losa bat bezela— goitik behera joz. Joz jaulkitzen zan. Baiña behar zon oso sekoa.
- Beroaldia, ez?
- E?
- Beroaldia behar izaten zen, ez?
- Hori da, oso sekora egon behar zon, bestela ez zan jaulkitzen. Eta, gero, gure aittek eta beste osaba Letamendikook eta Euzkintzarko Sarriegiñak, osea, Jesusa esan degun horren gizonak-eta ekar... juntau zuen makina bat. Makina haundie, e! Haundie makinea, gurdikin eamaten zan. Eta sartzen zitzaion ta beak “tris-tris-tris-tris” dana trillatzen zon. Burue bakarrik, e? Ta lastoa fuera. Eta... gero hoi... hoi gauza handie zan. Hoi etorri zan ezkeo... haundie.
- Eskuz egiten zenutenean harri-losaren gaiñean...
- Nik ez non... neri ez zitzaion tokatu eittea.
- Horri zelan esaten zitzaion? Izenen bat zuen horrela... horrela jotea...?
- Harri-jotzea?
- Txanketian edo horrelako izenen bat...? Garia jotea eskuz?
- Ez dakit. Ez...
- Orduan ya makiñarekin bentaja haundia, ez?
- Bai. Geo makinekin oso ondo, de primera. Oain, hautse tragatzen zan, e?
- Gari-soro haundiak izaten ziren orduan?
- Haundik, bai. Buf! “Hectáreas”. Haundik. Oain dana belarra daon bezela, ordun dana garie. Garie ta artoa ta babarruna, patatea...
- Alaba: Erremolatxa ta...
- Erremolatxa, hori da, ganaduntzako.
- Alaba: Ta negun?
- Negun erremolatxa eman behiei.
- Alaba: Negun beste bat hartzen zan, ez?
- Ze jartzen zan?
- Alaba: [...]

- Aber, lagunduiazu. A! Arbie, arbie.
 - Alaba: Si, ¿no?
 - Arbie.
 - Alaba: Hori baita, ez?
 - Baita, baita, baita.
 - Alaba: [Eta ganauantzako]...
 - Hori da.
 - Alaba: Eta babarruna arto arten´e bai oain bezelaxe?
 - Babarrun arten eo baina... arto arten babarruna.
 - Alaba: Oaintxe... oain bezela.
 - Hori da. Hori da. Oain... Oain... arto asko ez da eitten, e? Berdea.
 - Alaba: Horreatik askotan...
 - Berdentzako artok. Oain artoa berden emateko. Txikitu aizkorekin eo egur baten gaiñen eta behiek jaten doe gustora; menditi datozenen ta ez badoe jan nahikoa, hemendi ematen ba(d)iezu, pff!, behiek marruka, hoska, hoi behar duela. Jose Marik ematen die.
 - Alaba: Bai, bai.
 - Eta, orduan, garia baserri guztietan ez zen...
 - Danetan, danetan eitten zan...
 - ... garai berdiñean helduko, ez? Batetik bestera egun batzutako diferentzia egongo zen, ez?
 - Alaba: Aldea...
 - Lehenago...
 - Garai...
 - Beheragoko baserrietan lehenago heltzen zen eta goragokoetan...
 - Bai, berdintsu.
 - Alaba: Bai, bai, eguteraan jarriko zan garie; ez zan jarriko...
 - Ez, laiotzen ez, laiotzen ez. Eguteraan. Ta ordun danak bate(ra)tsu izaten giñen, e?
 - Baiña lehelengotik imajinatzen dot hori auzolanean egingo zen, ez?
 - Alaba: Esan nahi zon beherago...
 - Auzolanen ez, bakoitzek bereek.
 - Bakoitzak berek, e?
 - Bai, auzolanen oso gutxi. Juten giñena auzolanea zan artoa eitteko garaien. Artoa eitten zan garaien. Artoa, babarruna. Ordun juten giñen launtzea. Saletea junda nao ni eta akordatzen naiz Saleten zeon, gaiñea, este... barrabasa, belar txar bat. Eta aittek esaten zin: "Maria, kontuz ibili, e! Ez geo barrabasik hartu".

6.3. Gariaren lanen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-016/007
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:10:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten. Otorduak prestatzen izaten zuen Jesusak lana. Gari-jotzea egiteko eguzki beroa behar izaten zen. Gariak duen lanaren inguruko azalpenak. Garia metatu egiten zen; "gari-balak" egiten ziren. Gari-jotzeko makina 3-4

baserritarren artean erosi zuten. Jende asko behar izaten zen garia jotzeko.

Transkripzioa

- Atsalden, urdaiazpikokin... Urten behin hiltzen gendun txerrie ta beti gordetzen zan eozein lan ein behar bagendun, urdaiazpikok eta hoik gorde eitten zien, salmueran eo zea, ondo. Ta, geo, tomatekin jartzen zendun urdaiazpiko hua ta eamaten zendun me(r)iendatzeko garaien. Ta, bueno, ze pillea bueltan holaxe jarrita. Ta nik otordue prepaatzen izaten non lana: aurrena atsaldeko meriendea ta geo gaueko afarie. Ni ez nitzen juten kanpoa, baiño sukalden izaten non nik lana hainbeste lagunei emateko. Baiño ondo moldatzen zan, e? Ta, geo... Hoi ebaitzeko garaien, ta jotzeko, berriz, behar izaten zan euzki beroa. Metauta eukitzen zien garik. Hola, esku tamaña hontako bat lotu ta jartzen gendun aurrena. Ta geo hua eitten zan metau. Ta geo garie jo behar zan garaien zabaldu eitten zien zea haik, bala esaten giñon guk, gari-bala. Ta hua zabalduta jartzen zan euzkitan ta geo batzuk gurdikin ekartzen hua. Geo, zea, makinea gendun, trilladorea. Hiru launen arten sozio zuen, eta gue gizona bea aitzen zan zeatzen, eta arreba, Mari Joxepa, hari ematen. Ta beste batzuk hauntza barrua sartzen ta jende asko behar izaten zan. Geo, harek jotzen zon lastoa ganbaraa jaso behar izaten zan. Han ´e laun pare bat behar izaten zoen! Jende asko, baiño lana asko ein behar izaten zan, e? Ta hautse ´re bai, e? Gariik zikiñe do.

6.4. "Matxardea"rekin biltzen zituzten gaztainak

- **Hizlaria(k):** Sarriegi Aiestaran, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-016/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Gaztaina-biltzea asko gustatzen zitzaion. Morkotxarekin batzen zituzten gaztainak. Gaztainak biltzeko, "matxardea" erabiltzen zuten. Toponimia. Danbolinean erretzen zituzten gaztainak.

Transkripzioa

- Ta gaztiñak bildu?
- Gaztiñak bitzen... ai ene! Nei ikaraarri gustatzen zitzaten ta gaztiña-ale batzuk izaten z...
- Alaba: [... makurtuta], e? Morkotsa zabaldu ta... Atzaparrak eta hala eukiko zittuen geo.
- Baiña zerbait erabiliko zenuten gaztaiñak biltzeko, ez?
- Bai, zea, matxardea esaten giñon, hola, ixten zan bat izaten zan.
- Alaba: Egurrezkoa...
- Egurrezkoa. Ta batzuk lehenao [indakok]´e izaten zien, baiño nik bason igual itten nittun. Zarbea, hola, bi adarrekoa ikusten banon, moztu beheragoti, puntea ´re mozten nion ta morkotsa zeatzen nin ta nik basoon igual eitten nittun. Hainbeste gaztiña bildu non...! Ta etxekook bakarrik ez...

- Alaba: Ta bere amanak [...].
- Hemen Zelar... bai, honea etorri zeaten baiño lehenao hor baso bat zoen. Ze gaztiña-alea izaten zan...! Eta hogeita bost bat kilo inguruko zaku txiki bat. Orduun, zeak, anaiek-eta ekarrita han fabrikatik etarrita o honea. Eman zin ta zaku batzuk polittagok zien... Ba, hua puntaiño betetzen non gaztiñekin, ba, hogeita bost bat kilo bai. Ta Egileor aldeti, banekin gaztiña nun zeon hobena, ta han bildu ta etortzen nitzen honea, zeatik, lehen ama zana zan hola aitzen zana gaztiña biltzen. Ta geo hua... utzi zion, hil ein zan hua´re ta geo ni hasi nitzen. Zelarkok eak ez zoela eak bilduko gaztiñaik eta, bueno, nik biltzeko.

6.5. Usurbe mendiko basoak; perretxikoak

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/001
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Basoak: pagadiak, gaztainadiak, hariztiak, etab. Garoa eta orbela ere bertan batzen zituzten. Perretxikoak. Usurbe mendian basoak zeuden eta makurtuz gero onddoak ikusten ziren.

Transkripzioa

- ... hemen inguru guzti honetan, hemen bertan, perretxikoak egoten zirela, ez?
- Karmelo: Hemen´e guk´e baso batzuk genduzken —oain´e zea dao... eskonbrera eo esan dizuana— eta hor zeren pagarik...
- Ixabel: Gaztiñarik...
- K: ... gaztiñarik. Eta garoa, urteroko garoa, han biltzen gendun.
- I: Eta orbela´re bai.
- K: Orbela. Ta han [...] perretxikok baiño bu!
- Bai, e?
- K: Ta geo hemen Usurbeko azpin beste garari haundi bat bazan ta hor´e atetzen zien makurtu eta garo arten ikusten ziñuzten ontok.

6.6. Inguruetako perretxiko-klaseak

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

- **Laburpena:** Perretxiko ugarienak inguruan: gibelurdinak, ziza-horiak, ondoak, "apaiz perretxikuak", San Juan berdeak, kuletoa (gorringoa). Gaztainadiak asko urritu dira azken aldian. Toponimia.

Transkripzioa

- Gitxi gorabehera zeintzuk izaten ziren hemen perretxiko ugarienak edo...?
- K: Gehiena guk jaten giñuztenak hoik: onttok, gibelurdiñek, ziza-horik eta gero apaiz-perretxikuk eta esaten zien, baiño hoik ya...
- I: Eta San Juan berdek.
- K: ... bigarren maillakook eo hirugarrengok. Osea...
- A, bai? Besterik ez zeuanian orduan...
- I: Baiño gure etxen ez zien hoik jaten.
- K: Ez, ez.
- Eta zeintzuk ziren hoiek?
- K: Ba, apaiz-perretxikue zan horie, baiño hanka txurikin.
- I: Baiño miñe... osea...
- K: Gero oso gutxi jaten zan baiño oso goxoa zea zan...
- I: Kuletoa.
- B: Kuletoa, baiño euskeraz beste... arrautzak esaten giñon..
- I: Goringoa ´re bai.
- A, bai, Eibar aldean ere horrela esaten zaio. Bai.
- K: Haik ´e gaztiñarin ta, hola, leku jakin batzutan urtero juten giñan, baiña urtero ez zan ateatzen.
- Baiño hori eskaxa da, ez? Edo oso urria...
- I: Eske gaztiñadik ´e urritu ein die, ya ez dao gaztiñaririk. Ni gogoratzen naiz, orain dala zenbat urte izango die? Hogei bat edo hogeita bosten bat urte bai. Eta ordun hasi zan jendea Naparro aldea juten perretxikutaa.
- Orduan ya, e?
- I: Eta nere senarra, Joxe, Etxarri aldea. Eta urtetan kuletoik ikusi be. Eta sailtxoa: hoeta bosten bat, hoeta hamarren bat. Baiño...
- K: Hori asko da...
- I: Eta, bueno, in emen zion baiño inpresio bat...! Eta beak esaten zon: "Momentu hartan bost milla duro agindu balizkie ez nittun emango. Ez nittun emango!". Ein zion ilusioa! Zeatik hemen gure zea hortan, Aierdin, nahikoa izaten huan, e?
- K: Baiño hoik... leku bat oso ona zeonan han [gure] beheko baso aldea, [Isasti]... nola den? [Basoko etxeko] paren erreka [Gantzarain] aldea, han zeonan leku bat urtero-urtero atetzen ziena. Ta...
- I: Kuletok...
- K: Bai. Guk gaztiñan billa juten giñenen, beti sartzen giñuztenan. Eta batzutan, klaro, ez den, urtero ez den etortzen, baiño goxoa ikaragarrikoa hori.

6.7. Altamira inguruko mendibideak eta gurdibideak

- **Hizlaria(k):** Usabiaga Oiarbide, Agapito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-025/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Lehenago, gurdibideak eta mendibideak ziren guztiak. Toponimia. Bideak nondik nora doaz. Antzinako elizbideen izatea.

Transkripzioa

- Eta hau inguru guztiau asko aldatuko zen, ez?
- Bai, asko.
- Zuen gazte-denporatik...
- Asko, asko, asko aldau koanto. Lehen dana... nee gazte-denbora jakiñen nik´e bai hemen inguru hook oain danak berde dare, baiño lehen danak sorook zien.
- Sorok?
- Danak sorook zien.
- Zer zan? Ze...?
- Garie, artoa... Garie ta artoa. Horik zien, artoa indabekin.
- Batera?
- Bai, artoa ta indabea batea eitten zien, batea eitten zien. Garie kendu ta geo [garie] kendu ta gero arbie eitten zan igual ganaduntzako. Hori hemen ta beheko baserritan hemen. Bueno, hemen dana, baserri guzittan.
- Eta basorik ez?
- Basoak guk gutxi, etxe honek baso gutxi. Baserri asko dao basoa daukenak, baiño baserri honek gutxi. Badaukeu pixkat, baiño gutxi.
- Gehiena soroa...
- Bai. [Lehen... zana oain belardik zerek].
- Eta orduan ganadua izaten zan gehio o...?
- Bai. Orduun izaten zan soroa laborea eitteko. Hobe bai garai hartan [gehixeo saiau balie] ganadukin gehio ateako zan.
- Bai, e?
- Laborekin baiño. Seguro, gaiñea. Seguro, gaiñea. Baiño orduun hue zan oseake lehengo ohitture hua dana soro ibiltzekoa. Ez zeon zaharrai esan besteik gaztek [beste harta...]. Buf!
- Eta egun guztia lanean...
- A! Bai, egun guztia lanen, [...] soroon. Soroon nik lan asko in det sorotan eta sorok eta nik eta familik. Danak. Oai ya gaztetzako ya [...] tratorek sartu hittuan ta soroa´re gutxittu, e? gutxi... lehengo alden´e gutxi zeatzen dek.
- Eta hau inguru guztiau ze auzo da? Altamira auzoa da edo...?
- Bai, Altamira. Auzo... Ez dek... Bueno, auzoa... auzoa, jakiñe, hemen beheran baserri ta... bi baser... hiru baserri ta hau bakarrik, lau. Lau. Altamira. Hoik Zunzunegi dittuk hiru diferente... izen diferentekin zerek beheran, baiño...

6.8. Beasainerako joera

- **Hizlaria(k):** Usabiaga Oiarbide, Agapito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-025/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Beraien baserriak Beasain, Lazkao eta Olaberriako eremuetan ditu lurrak. Baina beti Beasainera joateko joera izan dute. Esne-saltzera Beasainera joaten ziren.

Transkripzioa

- Zuek erdi-erdian zaudete, ez? Beasain, Lazkao, Olaberria...
- [Olaberria]. Erdi-erdin garek. Bai, guk ter(re)nok, ter(re)nok Beasaiñen, Lazkaon ta Olaberrin hirutan zeuzkeau, [...].
- Bai, e?
- Bai.
- Ta nora zan zuen irteera nora zan?
- A...
- Beasaiñera beti?
- Bai, bai, hori bai.
- Beti?
- Hori bai. Irteerea Beasaiña.
- Bai, gauzak eroatera, saltzera...?
- Saltzea, esnea saltzen zan lehen kalea. Urte askotan saldu diau esnea kalen. Ta hori dana Beasaiña. Hori bai.
- Eta esnea saltzera kalera?
- Kalera, etxetaa.
- Etxerik etxe?
- Etxerik etxe urte askotan ibili gaittuk gu, urte askotan ibili gaittuk.

6.9. Uharka

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Sarriegi, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-033/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Uharka zaharra (egurrezkoa) aurkitu zuteneko kontuak. Toponimia.

Transkripzioa

- Eta esan duzu, ez dakit, hor uharka edo aurkitu zutela.
- Uharka, bai.
- Eta zeri esaten diozu hori?
- Uharka? Presa. Presa. Nik harrizkoa ezautu non. Ta gero hori bota zuenen, geo, este... "una riada" nola esaten da?
- Bai, uholdia edo...
- Bai, udaldie izan zan eta azaldu zan egurrezkoa, egurrezko uharka, "una presa". Eta oain...
- Bai, bai, bai. Zaharrena, ez?
- Zaharrena. Eta handik sobra´re datorkio izena soroi: "Uharka aldea" zon izena soro horrek.
- Orduan, lehenengo presa egurrezkoa; gerora ya...

- Eta gero bai, gerora... Oaindio zenbat urte da bota zuena bestea? Nere seme-alabak´e ezautu zuen bestea, harrizkoa, bai.

7. Familia eta harremanak

7.1. Etxean ere erdaraz, maisuak zigorrik ez jartzeko

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-008/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gurasoek erdaraz ulertzen zuten. Amak aitak baino zertxobait gehiago zekien. Etxekoekin euskaraz egiten zuten, baina gerora maisua zigorrik ezartzen hasi zenean, orduan etxean ere euskaraz hitz egiterik ez.

Transkripzioa

- Orduan Matxinbenta, gaiñera, auzo euskalduna izango zen...
- Bai, bai. Baiño oain... oain urtek eta urtek jun die ta oain danak entenditzen due. Danak. Baiño garai hartan...
- Garai hartan...
- Garai hartan...
- ... umeentzat gogorra izango zen, ez? Zuen gurasok bazekiten erdaraz?
- Ba, pixkat bai. Nere ama zan Donostin zerbitzen eondakoa eta aittek´e bai... hitz batzuk bazek... haik bai, haik bazekiten. Baiño nik sei urte nitun ta ni nitzan zaharrena senidetan. Eta ze, ze jakingo gendun, ba? Eskolan, Matxinbentan eskolan gebiltzenak ezer ez erderaz.
- Etxean, orduan, euskaraz egingo zenuten, ez? Gurasoekin euskaraz egingo zenuten...
- A! Bai, etxen beti euskeraz.
- Beti euskeraz...
- Eta [...] egoten giñan. Gure etxea zan bi bizitzakoa, bi bitzitza: goian ta behean. Ez naiz geldirik egon...
- Lasai...
- [...]
- Bi etxebizitzako eta...?
- Ba, aldamenekuai tokatzen bazitzaion anillua... A! Zuk esan...
- Ez, ez, bai, esan...
- Aldamenekuari tokatzen bazitzaion anillua eukitzea, nei, nahiz neure etxen eon, hue zai-zai eoten zan nik nola hitz eiten nun. Ni neure sukalden, e? Amakin o etxekokin hizketan. Eta aitzen baldin bazian, korrika jun ta anillua eman.
- Orduan, eskola kanpo ere... Eskolatik kanpo ere zaintzen...?
- Eske, klaro, anillua zeukanak eman ein nahi zion batenbati. Eman ein behar zon. Hortaiñoxe, e? Hortaiñoxe.
- Orduan, etxean ere azkenean...
- Bai. Isilik egon. Bate hitz... Ez genekiun erderaz ta isilik egon ber. Sinistekook ez dia, e? Baiño...

7.2. Nagusia zenez anai-arrebak zaindu behar

- **Hizlaria(k):** Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-012/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 10 anai-arreba ziren. Gurasoek soroan, basoan lan egiten zuten eta berak, nagusia zenez, besteak zaindu behar izaten zituen.

Transkripzioa

- Gu gea hamar senide, ni zaharrena. Nik hazi nittun nere ondo(r)engo danak, zeatik ama juten zan aittekin basoa eo soroa o lanea. Eta nik otordue prepa(ra)u, txerrin jana, frantzi-berdea, ebaki soroan eta ekarri. Ittaiekin, e! Ez segekin, itteiekin. Eta hura txiki-txiki ein aizkorekin egur baten gaiñen eta prepaatzen nien zahiekin, "salvao". Eta prepaatzen nien

jana behi... txerriri. Eta geo ama etortzen zan aittekin, ta bazkaltzea. Eta ni ezkondu nitzenen, nee hamar senidetan ttikiña bi urteko utzi non. Eta ez dakizu ze pena eman zin ume harrek, han uztea baserrin. Eta [...] total, e(g)unero iotzen nitzen, zeatik makina han nauken eta etxekeo arreglok makinan hantxe eitten nittun.

- Alaba: Josten...

- Jostea juten nitzen. Erteteatio, etxetio. Arten nola ez zeon etxen lanik, umeik ez ta... Gero ia urtea jaio zan hau. Gu ezkondu giñen “siete de Mayo”, maietzen zazpin.

- Alaba: Ze urtetan?

- “Cuarenta y... nueve”, hori da.

7.3. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Peñagarikano Garin, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-012/025
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:48:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: kanikak; tortolosak. Zibarekin ere jolasten zuten.

Transkripzioa

- Eta umetan zetara jolasten zenduten? Bai, baserrin, auzoan...

- Jolasen?

- ... edo eskolan.

- Kanikatan. Eta tabak. Bueno, tabak´e bai, tabak´e. Eta gero, kanikatan, txuloa ein ta kanikak bota ta hola sartzen.

- Bertara zulo txora...

- Akordatzan naiz urte baten, eo... eun baten, bagijozten behetik gora — baakizu, esan det, ba, kamiñoik ez gendukela; baso-bidea— eta han goien gelditu gea [Muazpiko] Paulakin. Kanikatan ein behar gendula, hantxe txulo hartantxe, kanikatan ein behar gendula. Eta hasarrau zan erabat, e? Gero nik irabazi nion...! Eta “se enfadó del todo”.

- Bai, e?

- Oandio akordatzan da! Irunen bizi da, e? Irunen bizi da ta iñoiz eon naiz geo, gaiña, kintakok gea eta hemen egin gendun bat, bazkari bat, hola, kintakok. Ba, ordun etorri zan ta esaten zon: “Ai, ai, Maria, akordatzan nitxon, bai, akordatzan nitxon ze tranpa ein heianan basozelaien”.

- Eta kanikatan eta gero tabatan...

- Tabatan´e bai.

- Eta gogoan duzu tabatan zelan jolasten zen? Kanturen bat edo...?

- Tabatan...

- Zerbait...

- Ya ahaztuta nao tabak nola zien. Baiño beste bat zan, beste bat zan... ziban bai. Ziba [hori].

- Sokarekin...

- Soka bildu ta “ddsss” bota.

- Diabolon?

- Ez, hortan ez. Este, beste bat zan, este... aber, nola dan hura?

- Alaba: Sokasalton?
 - Txirikilla...?
 - Ez, makilla bat, edo txotxak. Holako... puntak txorroxtuta. Eta beste palekin hola jo behar zan ta asaltatzen zan ta ordun bota in behar zendun. Beakin hartu behar zendun. Hola jo punttan, saltau eitten zan eta palekin hartu ta bota behar zendun besteana. Holako gauzak.
 - Eta kanikak erositakoak edo...
 - Bai.
 - ... zuek egindakoak?
 - Ez, ez, erositakok, kristalezkook ta lurrezkook ´e bai. Kristalezkok [...], ia dana erositakoa.
 - Eta tabak bertan etxean...
 - Bai, arkumek...
 - [...]
 - Hori da, ordun jasota... Jaso ta gero, gaiñea, batzuk eukitzen zittuen oso dotore, esmaltekin...
 - Margotuta.
 - ... margotuta. Oso dotore.

7.4. Garai bateko baserritar asko maizterrak

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BEA-022/002
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:02:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Garai bateko kontuak. Baserritar asko maizter bezala bizi ziren. Etxeren bat hustutzen zenean, batetik bestera mugitzen ziren. Aitona Olazar baserrian jaiotakoa.

Transkripzioa

- Joxe Migel: Ba, Beasaiñen ta Gipuzkoa ta Bizkain maiztar-etxek zien maiorie, gehientsonak. Eta, bueno, garai hartan baserritarra maiztar zeona ibiltzen zan "Ataunen holako tokitan etxea hustu ein emen da eta hau baiño hobea da ta" hartu trasteek gurdiin eta juten zien Atauna bizi izatea. Hangoa jungo zan igual o Zaldibia o beste toki batea. Hemen nee aittona zana jaiota zan Olazarren eta hemengok ´e alde ein beste toki batea eta hua baiño hobea zala hau eta honea bildu zien. Hartu gurdiin traste zaharrak eta behiek atzetio eta honea bizi izatea. Danak hola ibiltzen zien garai hartan, bateti bestea.
 - Batetik bestera... Danak maizterrak?
 - J. M.: Hua ´re tristea izango zan, e? E? Laiak eta atxurrek hartu gurdiin ta gaiñantzen ze izango zan? Ohi zaharren bat edo traste bat eta... ibiltzen zien. Ba, bai, ibiltzen emen zien.
 - Oiarbide: Gure etxen oaindio laiak badare.
 - J. M.: Guren ´e bazien, baiño puo! puskauta ta zea...
 - O: Ta aurreko baten ikusi gendun fotografi bat Seguran laian nola ai zien

lurrei buelta ematen.
- J.M.: Bai, bai, bai...
- O: Gure etxen ´e bazerek ba oaindio laiak.

7.5. Umetako entretenimenduak: ziba, karburua...

- **Hizlaria(k):** Odriozola Peñagarikano, Jose Migel; Oiarbide Sarriegi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BEA-022/016
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolas eta entretenimenduak: ziba; txori-habiak aurkitzen; karburua.

Transkripzioa

- Eta ume-denporako jolasik eta jokurik eta gogoratzen dezue? Zetan pasatzen zenduten zuek denpora lagunekin?
- J.M.: Kanikak eta holako batzuk izan zien.
- Kanikatan?
- O: Kanikatan asko. Eta geo izkutaketan ta alkar harrapatzen ta “a guardias” ta ez dakit ze ta... Alkarrekin nahasi. Joe, bu!
- J.M.: Orduun ´e gaur bezelako zeaik ez zan ta... Tiragoma o —nola esaten zaio, gomakin-ta lotzen dan bat— harekin etxe ingumariti bueltan, txorin batei o [...].
- Txoritan-eta ibiliko ziñaten, ez?
- O: Zibakin [...], tronpakin.
- J.M.: A! Txori-apitan? Bai.
- Txori-habitan bai?
- J.M.: Xoxo apik eta hola ta... Oain... Oain... Orduun ugari egoten zien, oain ez da asko ikusten. Xoxo-apik billau ta jai atsal... o... jai atsalden o hauntza ta hola ta.
- Ta hartu o? Hartu?
- J.M.: Hartu? Batzutan bai. Besta batzutan hurruna gu juteako alde igual eitten zoen! Ta jan... Ia Murumenditio sapelatxan umek ekarrita nau. Bueno, aittona zanak erakutsi zin ta harekin junda. Ta bi zien ta hemen ibiltzen zien. Jana bota ta jaten zoen ta aizkenen akau ein zien. Hola.
- Eta, bestela, esan didazu, zibuakin?
- O: Ziba. Euskeraz ez dakit nola esaten zaion horri.
- Bai, ziba.
- O: Sokekin lotu ta bota ta...
- J.M.: Bai. Geo eskun hartu ta...
- O: Eskun hartu ta zeñek denboa gehion euki ta...
- J.M.: Zeñek denboa gehio...
- O: Beste eskua pasa ta... geatu be.
- J.M.: Bai, bai.
- O: Geo bestea inka ´re bai: estaka batzuzkin metro erdi luzeko estakakin lokatzetan sartzen, “dza! dikiti daka!” Ta jo ta botatzen bazon kontrariona...
- J.M.: Ta geo hobena elizan atzeen karburuukin zea: karburue potea, ur

potzu txiki bat jarri eta potea eta urrutitio makilla batekin o, sue papel bati eman ta aber zeñek gorago botatzen zon kanpantorre alde gora, elizan atzetio. Eta akordatzen naiz zean, relojero Imazen goien bizi zan —ez dakit motil hoi bizi dan— jo zon kopetan, o begin, ta begie galdu zoon.

- O: Hoixe...

- J.M.: Elizen atzen.

- Karburoakin?

- J.M.: Karburua ´re, zea, eman zion gertutik sue, ta lehertu zan garaien, potek “dan!” begin jo zon.

7.6. Gurasoen jatorria; amonaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Olano Segurola, Carmelo; Olano Segurola, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-023/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:08:45. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aranezarra baserrian jaiotakoak. Aitona Lazkaokoa; amona Itsasondokoa. Aita Lazkaon jaiotakoa eta ama Azpeitiko auzo batekoa. Amona langile amorratua zen; oso sukaldari ona. Amonaren inguruko pasadizoak. Umezain Ordiziara etorri zen eta etxe on batean lanean jardun zuen urte askoan.

Transkripzioa

- Orduan jatorriz nongo aldekoak-edo zarete edo?

- Karmelo: Gu, hemengok, bertakok.

- Ixabel: Bai, gu bai.

- Bai, bertan ezta, kale-baserrian?

- K.: Hau gure baserrin soroa zan, hementxe beheran zan gue baserrie, Aranezarra.

- Aranezarra. Baiña aittona ta?

- I.: Aittona Lazakaokoa, aitten aldetikakoa, eta amona Itsasondokoa. Eta ama zan Aratzerrekakoa. Azpeitiko auzo bat da Aratzerreka. Osea...

- K.: Bai, aitte ´re Senperen jaio zan.

- I.: Eta aitte Lazkaon jaiotakoa. Baiño ama Aratzerrekakoa. Eta ama etorri zan neskame hamazazpi urtekin Ordizia eta hor ezautu zon gure aittek ama, bai.

- K.: Laroita hemeretzi urtekin hil zan ama. Bueno, oain badauku bat Beasaiñen 109koa.

- Bai, Gariñen, ezta?

- I.: Bai, Plazida.

- K.: Bai, oso... familikoa gendun gaiñea guk, famili hura.

-I: Ba gure ama, lehen esaten zenduna zuk, kozinera beharko zola izan boniatok eta hoik jartzeko, zan emakuma bat... ardi bat larrutuko zizun... baiño lasai, eta brazogitano batzuk eitten zittun...

- Kozinera.

- I.: Eske egie da e! Eske egie da. Zeatik ze gauza... Zeatik langillea zan amorratue, oso langillea, eta zea haundiko emakumea. Zeatik ia zahartzaron reumaidea ta beti desgastek eta... Jun giñen bea ta bi alabak Donostiko reumatologo bateana. Eta, bakizu, aurrena ein zizkion belaunetan kolpek eta nola ematen dittuen, eta geo eskue eman zion “

Agárreme usted fuerte –erdaldune zan– Agárrame usted fuerte la mano”.
Eta heldu zion eta esan zion “Señora, ¡qué fuerza tiene usted!”.

- ¡Tanto no!

- I.: Eta beak esan zion “Ay fuerza, fuerza. Ahora ya no tengo fuerza.” Eta medikue ikarau zon, asi es ke pentsaizu hura bere sasoi...!

- K.: Baiño oso gazteik etorri Ordizia eta... umen bat zaintzea etorri zan Ibarbian etxea, eta gero ezkondu zan, ba, hogeita lau o...

- I.: Ez, gutxigo. Lau? Lau.

- K.: Lau. Hamar bat urte eon zan etxe hartan e!

- Askok, ez?

- K. Bai, ta etxe haundie zan, ordun...

- I.: Notario baten etxen´e eon zan, asi ke pentsa.

- K.: Amerikanon semek zien gainea´re, ta Ordizin famili fuertea zan Ibarbiatarra. Ta han ikasi zon sukalden, ta, bueno, etxeko lanak dana, buf. Horrek goizen jaikitzen zanetio ohiakotan ez zan geldi eoten hor.

7.7. Umetako jolasak; sokasaltoan, harrapaketan, "a tocos"...

- **Hizlaria(k)**: Ibarbia Sarriegi, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-033/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: sokasaltoan; "a tocos", harrapaketan, ezkutaketan... Palazio, errota ingurua izaten ziren beraien jolas-lekuak.

Transkripzioa

- Ta, bestela, esaten duzu sokasaltoan-eta asko...

- Hor dolare aurrekalden? Askok! Eta “a tocos”.

- Ze da hori?

- “Tocos”? Raia batzuk eitten die, ba, lurren? Eta hola harri batekin bezela hanka baten gaiñen... “a tocos”. Guk... Oain nola esaten dan ez dakit, guk “a tocos” esaten giñun.

- Txingor-gaiñean edo... Bai, tokian arabera...

- “A txingas” o nola... ez...

- Bueno, txingorrian edo...

- Bai. Guk “a tocos” esaten giñun.

- Beste jolasik gogoratzen duzu?

- Sokasaltoa... A, bai, harrapaketan? Askok! Hor ola ingurun ta “tres navíos en el mar” esaten [genduna]. Igual bi talde ein ta batzuk izkutatzea ta bestek geldittu. Enee! Hor inguru hortan? Palazion ta errotan ta goitik sartu ta behetik atea ta... Enee! Guk ein ez dittuonak! Bai, bai. Ta palazioko... klaro, oain paite bat ikusten da

7.8. Umetako jolasak: klixkean

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Mujika, Francisca; Lizarralde Mujika, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** BEA-045/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak: klixkean, kanikatan (intxaurrekin egiten zuten), haritzak izaten dituen "poxpoliñekin"....

Transkripzioa

- Hitzuna 1: Oain, adibidez, umek ze ez dauke? Jostailutatik hasi ta eske, eske, dana ta ez dan guztie dauke. Ta gero eak bakarrik jolasten ez dakie. Laune behar doe jolasteko. Ba, gu ibiltzen giñen klixkeen esaten giñun guk.

- Klixkeen?

- Hitzuna 1: Klixken. Ta intxaurrekin hola bota ta bestek jo ta... Kanikan partez intxaurrekin eitten gendun guk.

- Hitzuna 2: Intxaurrekin txikiñak apartau...

- Hitzuna 1: Txikiñak apartau...

- Hitzuna 2: Txikin-txikiñak.

- Hitzuna 1: Ta haikin.

- Hitzuna 2: Zu... kanikatan ibiltzen? Ezautzen dezu?

- Bai.

- Hitzuna 2: Ba, gu kanikatan intxaurrekin.

- Hitzuna 1: Ba, intxaurrekin eitten gendun guk hoi. Eta poxpoliñekin... Zuk ezautuko dezu zer dan poxpoliñe o ez dakizu zer dan? Haitzek izaten don...

- Hitzuna 2: Haitzek izaten don holako pinporta txiki bat.

- Hitzuna 1: Ba, horri jartzen giñon txurten bat eta zibea bezela dantzan ibiltzen gendun. Osea, horik zien gure jolaseako tresnak.

- Orduan, bertan, inguruan topatzen zenuten... basoko intxaurrekin, poxpolin...

- Bai, bai, bai.

7.9. Umetako jolasak: "amatan", panpinak, pilotak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Mujika, Maria Angeles; Lizarralde Mujika, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-045/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Umetako ibilerak; jolasak. "Amatan" nola egiten zuten; panpinak. Pilotak nola egiten zituzten. Amak artilearekin haria egiten zuten eta aitak larruzko abarkak.

Transkripzioa

- Hitzuna 3: Ta, esateko, por ejemplo gu juten giñen goizen eskolaa juten giñenen, goizen juten giñen eta egurdin, urruti nola zan, geatzen giñen lehengusun etxeen bazkaltzen. Eta geo denboa asko geatzen zitzaigun guri. Bueno! Laiste jaten gendun guk jan beharrekoa ta seittun libre. Ta

amatan jolasten ibiltzen baldin bagiñen, eantzi jertseek eta holako zea bat barrun sartu —arbie o lo ke sea—.

- Hitztuna 1: Bai, muñekak eitten...

- Hitztuna 3: Gaiñetik jertse batekin tapau, bestekin zeau eta muñekea seittun eitten gendun geen kasaka.

- Hitztuna 1: Eta pelotak´e bai, pelotak´e geok eitten giñuzten. Trapue jarri aurrena, gero etxen billatzen giñutzen artille... Garai hartan gure amak... Pentsau zazu, gure amak eitten zon harie, osea, artilleekin...

- Hitztuna 2: Ni inda neon, e, harie, e?

- Hitztuna 1: Harie beak eitten zon, zeatik gure etxen danak zien... Eta gero eitten zittun galtzerdik.

- Hitztuna 2: Jersek´e...

- Hitztuna 1: Baita. Eta nere aitte zanak, berriz, abarkak eitten zittun.

Narrukin beak eitten zittun harek guetzako abarkak.

- Hitztuna 2: Ganadun narrukin.

7.10. Amak ehuna egiten zuen linuarekin (lihoarekin)

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Mujika, Francisca; Lizarralde Mujika, Maria Angeles; Lizarralde Mujika, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-045/008
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Amak ehuna egiten zuen linuarekin (lihoarekin). Linasoroak (liho-soroak) nolakoak izaten ziren; "liñadie". Toponimia. Lihoaren inguruko lanak; tresnak: txarrantxa; etab. Lixiba nola egiten zuten. Emakumeen bizimodua baserrian. Ura etxera ekarri aurretik, garbitu beharreko arropak buru gainean ipini eta erre kara joan behar izaten ziren garbiketarak egitera.

Transkripzioa

- Hitztuna 3: guk ez gendun ezautu, baiño...

- Hitztuna 1: Eta liñoa´re bai etxeen.

- Hitztuna 3: ... een garaien liñoa eitten emen zuen. Eta ehune eak etxeen. Bazittun pusketak...

- Hitztuna 1: Bai, badauzkeu guk oaindio pusketak gordeta.

- Hitztuna 3: ... pusketak, eak indako ehunenak.

- Hitztuna 1: Etxen indakok.

- Hitztuna 2: Etxen bazien piezak.

- Eta liñua, baiña zeuek ez zenuten ezagutu, ez?

- Hitztuna 1: Bai, bai, bai. Gure etxen...

- Soroa, liñua...?

- Hitztuna 1: Bai. Liña-soroa han [Mendeun] aldeko saasti hue liño ezautu niñan nik.

- Hitztuna 3: Nik ez.

- Hitztuna 2: Bai, bai, bai.

- Hitztuna 1: Nik bai.

- Eta nolakoa zen liñua?
- Hitzuna 1: Liñoa...
- Hitzuna 3: Urdin-urdin-urdiñe.
- Hitzuna 1: Oain´e badao liñoa, e?
- Hitzuna 2: Lora txiki...
- Hitzuna 3: Lora txiki-txikie.
- Hitzuna 1: Oain´e... ez dezu ezautzen?
- Ba, hemen... ikusita, baiña ez.
- Hitzuna 1: Ez dezu ezautzen? Ba, da landara bat luzea. Orri txiki-txikie izaten do eta lora txiki urdin bat.
- Hitzuna 3: Urdin-urdiñe eta oso politte. Liñadie nik ez det ezautu, baiño izan behar do zoragarrie.
- Hitzuna 1: Nik bai.
- Hitzuna 2: Oso politte izango da.
- Hitzuna 3: Urdin-urdin-urdiñe izango da.
- Hitzuna 1: Hantxe nik ezautu non.
- Hitzuna 2: Ez neon gehiegi akordatzen, baiño...
- Hitzuna 1: Amak esan zianan behin, ba, baietz, hue izan zala azkenengo liño-soroa.
- H2: Bai, ba, ni´re gogoratzen neon pixkat, baiño ez hainbeste hainbeste.
- Eta liñuarekin zerikusia duten lanak eta ezagutu zenituzten edo...?
- H1: Ba, hoi, ba...
- Liña-soroa bai eta liña-putzua egoten zen edo...?
- H1: Ez, baiño liñoa´re, gaiñea, gure etxen tresnak´e oaindio egongo die.
- H3: Txarrantxea.
- H1: Txarrantxea ta...
- H2: Txarrantxea. Kardau eitten zuen.
- H1: Kardatzeko ta... Berau aurrena udetan...
- Hori da. Eta horretarako potzuren bat edo zerbait egongo zan, ez?
- H1: Bai, eske etxe aurren...
- H3: Ez, nik etxen ezautu nona zan...
- H2: Ude beti.
- H3: ... zea, lixubarrie. Lixubea eitteko putzue. Oain´e badao.
- H1: Baiño hori etxe barrun, e? Sukalden, e? Sukalden gendun. Lixuba egosteko lekue?
- H3: Egosteko bai, baiño lixubarrie ez, e? Guk etxen gendunan tiñea.
- H1: Bai, tiñea ta lixuba...
- H2: Bai, tiñea ta azpin zulo bat, e? Ude juteko. Sukalden baxtarren eukitzen gendun...
- H1: Tiña bat.
- H2: Lurrezkoa o ez dakit zer zan.
- H1: Ez, harrizkoa.
- H2: Harrizkoa, zulo bat. Eta gero haren gaiñeen jartzen gendun egur bat o bi jartzen giñun eta han tiña bat zinkezkoa. Ta han jartzen giñutzen erropak. Eta harek azpin nola zuloa eukitzen zoon, goittik botatzen giñun jaboí... surtako hautse eta ude berotuta bota. Eta berriz´e bera jutun zan garaian, hartu, berotu ta berriz´e gaiñetik bota.
- Eta sutako hautse zuzenean erropara edo zerbait jartzen zenuten gaiñean?
- H3: ez, ez...
- Zapi edo oihalen bat edo...?
- H2: Igual zaharren bat jarriko giñun. Seguraski jarriko giñun zaharrentxonen bat o, porke surtako hautse... Eta gero, hola, nik ez dakit zenbait aldiz ingo gendun, baiño askotan botatzen giñun.
- H1: Eta gero putzua eaman ta han aklarau.
- H2: Eta gero aska bat genduken guk etxe aurren beti. Ude, beti. Ude ona

beti euki de. Hoixe bentajea. Eta aska bat ganaduntzako etxe ondoon eta beste hautzaxeo koadratu haundi bat —bi aldetatik harrik, jotzeko erropea harrikin—, beste aska bat haundie.

- H3: Lixubarrik. Oaindio ´re han dare.

- H2: Gero hautza jun eta [han] izarak... Gogoratzen naiz ni, gu neska gaztek eta arten indarra ´re asko ez gendun eukiko, ta ehunezko izarak. Badakizu ze kargea hartzen zoen?! Ze kargea? Ba, haik ezin uretatik ataata, geo han harrin jo ta... komerik [...].

- H1: Eske eak... eske eak eindako izarak...

- H3: Hori guk ezautu gendunen, gaiñea, etxeen zalako harrie, baiño ama zanak-eta eamaten zittuen errekaa. Burun hartu o bizkarren eta errekaa. Ta han aklarau ta geo belardin zabaldu.

- Eta lehenik, baiña, belardin zabaldu aurretik ura kendu behar izango zen...

- Bai [...].

- Horri zelan esaten diozue?

- H3: Eskurrittu.

- H1: Bihurrittu.

- H2: Bihurrittu. Bihurrittu. Bihurrittu.

- H3: Eskurrittu nik.

- H2: Guk bihurrittu beti.

- H3: Hola zeoze.

- H1: Bihurrittu ta eskurrittu gauza berdiñe da.

- Eta gero belarrean zabaldu ta...?

- H3: Belarretan zabaldu. Ta gero hasi giñen alanbretan zabaltzen, baiño aurreti...

- H2: Gero alanbre batzuk jarri baratzan bueltan hola...

- H3: Zurigo etaatzen zala serenotan ta esaten zan.

- Dena dela, lixubea, egunero ezingo zan egin. Ezta astero ere...

- H3: Ez, hamabosten behin.

- Hamabostean behin...

- H3: Hamabosten behin ohiak aldatzen zien gue etxen normalen.

- H2: Bai, nik seguro-seguro hori ez nekin...

- H1: Bai, hamabosten behin.

- H1: Oain aiña erropa ez zan garbitzen garai hartan. Hori egie da.

8. Lanbideak

8.1. Kamineroen lana; tresnak eta oinetakoak

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Oiartzabal, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-008/017
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:26:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Aitaren lanbidearen inguruko azalpenak. Lan gehiena eskuz egiten zen; erabiltzen zituzten tresnak: aitzurra; "pisoia". Oinetakoak.

Transkripzioa

- Aitak bakarrik egiten zuen lan edo...?

- Bakarrik eta beste batzutan koadrilla haundi bat igual danak batea. Nola... nagusiek nola agintzen zien.

- Lehen esan duzu bazterrak garbitu eta...?

- Bai, bai. Gu bizi giñen etxetik zeukan harek han... etxe aurre hartan hasi ta bee jakiñeko bidea zeukan kargu hartzeko. Ta beste kamiñerok´e bai. Orduun, garai hartan, danak hola. Gero hori denborakin galdu ein zan, ta gero beste modu batea: danak pillan ta danak alkarrekin ta hola gero. Gero kamiñok´e hobeto, hobetogo, ta lan gehio ta...

- Matximentatik (Matxinbentatik) kanpo ere lan egin zun...?

- Bai, aittak bai, ibiltzen zan.

- Kamiñero lana egiten... Ta ze tresna erabiltzen zituen orduan?

- Ze lanak?

- Ze tresna erabiltzen zituen edo...?

- A! Tresnak... Ba, tresnak ibiltzen zituen atxurra, atxurak zabal-zabalak ta beste batzuk izaten zittuen rastrillok, harriya zea eiteko ta. Eta gero harriya... kamiñon bota harriya ta zapaldu ein ber zan ta "pisoia" esaten ziyuen, "pisoia". Pisu haundiya zaukan tresna bat.

- Guzti-guztia eskuz egiten zuten, ez?

- Hori danak garai hartan. Oain ez dao holako [beharrik]. Baiño nola juten dan gauza, e? Garai hartan hala ta oain, oain daon adelanto hau ikusi... bueno! Nola juten dan.

- Orduan. Lan gogorra izango zen, ez?

- Bai, gogorra. Bueno, zortzi ordu pasatzen zituen kamiñon ta...

- Eta neguan ere...?

- Neguan´e bai.

- Bidea zaindu behar.

- Ta geo neguako ematen zizten sirak eta holako gauzak. Diputaziok ematen zien.

- Oinetakoak...?

- Baita. Botak, botak, azpin danak giltzekin, giltzak sartuta. Tatxuelak o esaten ziu. Botak holakok izaten zien.

- Ordun, gaiñera, neguak gogorrek izaten ziren, ez?

- Gogorrek, bai. Horik izaten zien, jenealen, kamiñon laneako ta, gogorrek izateatik.

- Bai, tatxueladun botak...

- Bai, gogorrek.

- Lan guztia, orduan, eskuz egiten zuten eta...?

- Bai, eskuz gauza asko, atxurrakin. Atxurak zian, batzuk estugoak, besteak zabalak eta hola.

9. Ekonomia eta industria

9.1. CAFeko ordutegia: txandatan, jai-egunak...

- **Hizlaria(k)**: Urkiola Usabiaga, Santos
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-014/012
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:28. **Bukatu**: 00:13:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- **Laburpena:** Lantegiko ordutegia; txandatan egiten zuten lan. Larunbatetan hasieran lan egin behar izaten zuten. Oporrak, astebetekoak.

Transkripzioa

- Eta ze ordutegi zenuten zeuek? Edo... aldatu egin zen zeuen aitaren garaitik zuek sartu ziñetenerako ordutegia edo lan-banaketa edo...?
- Santos: Ba, orduan goizen zortzitan hasten zien. Baiño erreleboa izaten zan.
- Mikaela: Errelebok, hiru errelebo, hiru.
- S: Bai, goizen, atsalden... Goizetik, goizeko bostetatik o seietatik ordu bittaa. Geo, bigarrena, ordu bittatik e... hamarretaa ta geo hamarretatik goizeko seiek arte. Hiru, hiru...
- Eta gaueko erreleboa ere...
- M: Bai, bai, izaten zan.
- ... izaten zan, e?
- M: A! Gure aitek hori hiru errelebok ibiltzen zittuen. Halako lan goorra ta hala´re...
- S: Bai, bai.
- Eta gero larunbatetan jai izaten zenuten edo...?
- M: Bai, zea! Ez.
- S: Bai, hasi in zan.
- M: Bela ez, e?
- S: Ez, ez...
- M: Ke ba!
- S: Ez, gue garaien ez. Gero aldatu zanen bai.
- Noiz aldatu zen gitxi gorabehera? Zu ya... zenbat urte izango zenituen?
- S: Hala´re urte asko.
- Eta, orduan, larunbatetan ya jai?
- S: Bai, atsalden jai izaten zan geroa.
- Atsalden...
- S: Bai.
- Oseake goizen bertara joan behar.
- S: Bai. Ta gero handik urte batzutaa kendu ein zoen, ta osoa, eun osoa. Oporrak´e astebete izaten zian ordun.
- Bai, e?
- S: Bai.
- Eta zer, abuztun?
- S: E?
- Abuztuan oain bezela ala...?
- S: Zean, este... kauen diez! Julion, julion.
- M: Uztaa.
- S: Uztaan, bai.
- Eta oporrak astebetekoak bakarrik?
- S: Astebetekok bakarrik.
- Eta gero gabonetan-ta izaten zenuten beste oporrik edo...?
- S: Ez.
- Gabonetan ez? Egunero-egunero harea...
- S: Bai, bai, bai.
- Gogorra,ez?
- S: Bai, baiño hala jarrita genden ta.

9.2. Lantegiek lur asko hartu dute Beasainen

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Beasaingo baserriak beti nahiko koskorak izan dira; lantegiek lur asko kendu dituzte. Lantegian noiz eta nola sartu zen.

Transkripzioa

- Eta beste kontu bat: lanbideak eta lehengo baserriko lanak eta zeintzuk izaten ziren? Zuek ganaua izaten zenduten edo...?

- A: Bai...

- Ala soro haundiak o...?

- A: Bi behi eukitzen...

- Us1: Hook baserri koskorak beti izan die, baserri txikik. Hemen fabrika... fabrikaik be hemen ez zeoan defentsaik.

- Zuek fabrikan lan egindakoak zerate?

- Us1: Bai.

- Us2: Bai, gu danok fabrikan.

- Us1: Bai, bai, bai, bai.

- A: Bi behiekin ze ein behar genduan, ba? E? Fabrikan lana eman ziguenean gustoa, gaiñea! Fabrikea izan da neetzako zea, e?

- Us1: Bai, hoixe, gaiñeakontzako´re.

- A: Eskolea´re bai, e? Ni nola umea geatu nitzen, oso umea, nei asko maitte zien hemen. Ta fabrikan sartu zienen —bat hon osaba izan zan—, han zeren ofizialik hoben-hobenakin ibiliazin zin nei. Sei hillabete, urtebete pasatuazin, e? Ta nik gogon dauket, e? Gure ama zanai nola esan nion: “Zuek nahi dezue neekin zerbait ittea baiño nik eskolaik ez dauket”. [...] Zazpi urteti hamaika urtera bittarten bakarrik neuken. Zenbat eskola? E? Lau reglak, bastante ondo etortzen zitza(d)alako geometrie pixkat ta kitto. “Ta hemen dibujo lineala behar da”. Harek hitz ein zon zea batekin, delineante bat hemen eskolea ematen zoonakin, ta esan nion: “Ez [dedilla] nei arrastok-eta txuxen eitten, e? Pixkat gorago zala gauzea, e?”. Ta ein zin. Ta hue dala medio geo atzenen´e urtea soldau jun aurretik beste suizo injinero batekin euki zin berriz ta ni bastante formauta jun nitzen soldauskaa. Eta geo nik bastante dominau det planok eta taillerrak eta gauzak.

- Us1: Geo lan-klasea halakoa.

- A: Norbeak´e behar dik, e?

- Us1: Bai, baiño lan klasea´re halakoa.

- A: ... zenbaitti ez zaiok ezer´e sartzan! Nik plana dominatzen nian nahi nun bezela. Ez zeoan injineroik nei eramaten zinik.

- Us1: Baiño hik izan baldin baho...

- A: Baiño eskolea nik han in nian!

- Us1: Baietz. Baiño guk bezela izan baldin baho, eskolaik behar ez dan lan-klase bat izan baldin baho...

- A: A! Kitto!

- Us1: ... hor atzeandu [...]. Nei hori pasau zitzaian. Eskolea beharreko lanik ez diau izan. Ente(nd)itzen dek? Lan rutinarioa. Ordun, eskolaik ez diau enpleatzen, ta lehen dakiun apurra ahaztu. Hurrena hasitakoon "aiba dios! Hau nola zan kontu hau?" ta... [...] neri pasa zaiak!

- A: Bai, baiño hor zeok difentzie.

- Us1: Oain, [...] eskolea beharrekoa, ordun praktikau eitten dek han ta... ordun... Baiño ez badek praktikatzen, hua beti herdoitzen juten dek. Herdoittu.

- A: Halako tokie tokau... Neri halako tokie tokau zat...

- Us1: Ba, horreatik esan diat, ba! Hori esan diat, ba!

- A: A! Hori...

- Us1: Ta hik han praktikau ein dek.

- A: Neetzako eskolea fabrikea izan da, fabrikea.

- Us1: Bai, ba. Ta geo daukean preparazio harekin, gaiñea, hua ta hik hari eutsi ein diok.

- A: Ba, eutsi... Ein [...].

- Us1: Bai, ba!

9.3. CAF lantegia militarizatuta gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Apalategi Aranburu, Bitoriano; Usabiaga Etxeberria, Jose; Usabiaga Etxeberria, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BEA-019/008
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** Baserritar asko hasi ziren lantegietan lanean. Jornala zenbatekoa izaten zen. Lantegi handiak Beasainen: CAF eta Bernedo. Egoera industrialia Beasainen. Errepublikaren aldarrikapena eta lantegietako egoera. Gerra garaian, CAF-en bonbak eta gerrarako munizioak egiten zituzten; militarizatu egin zuten lantegia.

Transkripzioa

- Normala izaten zen baserritarrak-eta fabrikatan lan egitea?

- A: Normala... jakiñe, etxe txikik zien ta... Baakizue, garai hartan esnea lau txakur haundin saltzen zan, ta baserrin familiik bee gastue do, nahiz gutxi izan. Ta asko jun zien baserritarrak, itxurako baserritarrak, lau abere zeuzkenak een irikin ta fabrikaa jun zien. Ta jornal bat, zortzi pezta izaten zien haseran, baiño... Ta hue seguroa.

- Bai, baserria baiño seguroagoa...

- A: Bai, ba; bai, ba. Ta geo, ba... Hori zuri... zuei ez [dizue] eze eakutsi nola jun dan gauzea hemen. Hemengo jendea bea zea haundikoa izan dek, arranke haundikoa. Ta tailler txikik jarrita-ta, gu baiño hobeto danak etaa dittuk. Zeatio Gipuzkoa nola daon zuek ondo asko dakizue. E? Industria asuntan. Zeatio guk ezautu gendun bezela Beasaingo fabrika haundie eta zea [Bernedo].

- Us1: Bai.

- A: Ta kito.

- Us1: Hue itxi huan.

- A: Bai, ba. Ta geo batak txapista in zola, bestek ez zekiat ze in zola, bazekiat ze in zola... bakoitzek bee taillerrak-eta jartzen hasi ta hala jun dek Gipuzkoa. Aber...

- Eta zuen gurasoen sasoian ere bai? Zuen aita, osaba...?

- Us1: Gure... gure... aitte ta senideek eta, danak fabrikan izan dittuk.

- Bai, e?

- Us1: Bai, bai.

- Us2: Aittejaune ez. Aittejaune ez.

- A: Aittejaune ez. Baiño gure aitte zanan garaiko jendea ya fabrikara.

- Us1: Gure gurasook... Gue osaba Pedro zana, gaiñea, hua Bilbaon hamalau urte... hamalau urte in bae... Geo jarri huan Republikako deboran hamalau urtera bittarten lanik ez hastea, lanen ez hastea ta hoi dana. Harek... uste diat hamabi-hamahiru urtekin o hasi zala lanen.

- A: Hori ez nian jakin...

- Us1: Haren garaie ya beste zea bat zan. Ta geo´re ze? Lana... ze...

- A: Geo, baakik, hok´e nola fabrika gertun zeren...

- Us1: Bai, hemen [...] gertu.

- A: Geo etorri zanen... Orduako gurea hilda huan, zeatio hillen hoeta zazpin hil huan gue aitte. O... urtea... hogeta zazpin hil huan gure aitte zana berroita bi urtekin. Baiño gazte-jendea ta geo Republika zorioneko hua etorri zanen hari boikota nola ein beharko zitzaioan, e? Boikota ein beharko... Ta ordun etorri huan hemen lanik ezak eta lehenao honek esan dittun histori horik danak. Ta geo hue pixkat txukintzen hasi zanen berriz mo(b)imentue etorri huan ta a tomar por sako!

- Us1: Bai, danak se(g)idan!

- A: Ordun lan faltaik ez huan izan, e?

- Us1: Ez, ordun lana bahuan.

- A: Ni motikotan sartu ta ehun ta berrogei bonba eitten aittu giñutzean hor, e? Fabrikan.

- Us1: "Material de guerra". Militarizau ta...

- A: Bai.

- Us1: Dana militarizauta... danetan.

- A: Bonbea jarri hemen ta...

- Us1: Brazalete urdin bat —pantaloi koloreko brazalete bat— ta harek artilleriko bonbea, artilleriko soldadun bonbea han. Harekin.

- Zu´re bai?

- Us1: Ez, gue gurasok.

- A: Ni, ni...

- Us1: Hau bai; gu ez.

- Hamabost-hamasei urterekin?

- A: Jakiñe. Geo soldauskara bittarteko zea hortan nola harrapau zien, ba... Ta... berrehun ta berroita hamar bonba berrehun kilokok egunero eitten hittuan han, e?

- Bai, e? Ze fabrikatan?

- Us1: CAF.

- CAF-en?

- A: Bai, bai, bai. Ta geo beste hotan granadak eta... beste mekanikon fundizion ta horittan. Baiño... Eta Ormaiztegiko zubie nola botata zeon ordun, garai hartan, automobilien eamaten zittuen hemendio zea Zumarragaa kajatan sartuta, ta geo hortik Mirandaa o... Ta geo zer ta Bilbon botatzeko. Horixe! Bai, bai, hori hola izan da.

- Eta noiz izan zan hori? Gerra...

- Us1: Gerrako garaien.

- ... hasi ta...

- A: Gerrako...

- Baiña azkar? Azkar? Nazionalak sartu eta...?

- Us1: Bai, bai, handik seittun ya mo(b)imentu hoi jarri zien: militarizau ta benga! material de guerra eitten.

- A: Bai, ni neoni lehendabizi metroko kotxetan jartzen zian. Lehenao esan diat nik zerbait nola ibili zien batetik bestea ta. Geo, sobra ´re etorri huan beste hori in behar zala ta, han jarri zoen Pio zana ta biok. Ta motikok eta, jakiñe, aindutakoa in behar!

- Eta ze egiten zan? Granadak, bonbak...?

- A: Granadak eta horik guk ez giñutzean montajen sekula ein. Horik hemen fundizio alde hontan ta alderdi hontan. Ta beste horik...

- Us1: Bonba... abiazioko bonban zeak gure taillerren ein zien, [...], prentsan. Zea, punta eitten emen zittien.

- A: [...].

- Us1: Bai.

- A: [Aurrekoa, muterrekoa].

- Us1: Bai.

- A: Hola, mutur bat.

- Us1: Muturra...

- A: Aurrekalden zulo bat bee roskekin. Geo handik [...], guk geo handik... Jakiñe, despiezea juten huan hautza.

10. Iritziak

10.1. Umetako jolasak; errekan bainuak

- **Hizlaria(k)**: Ibarbia Sarriegi, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BEA-033/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:12:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Umetan sarritan jolasten zuten errekan. Orduko denborapasak. Orduko umeak eta gaurkoak; oso bizimodu desberdina. Umetako jolasak. Errekan mutilak bainatzen ziren; neskak pentsatu ere ez.

Transkripzioa

- Zeuek errekan ere asko jolastuko zenuten, ez?

- Askok. Nik han ola ondon han beheran itten zan plaiatxo bat bezela. Hondarra bel... Onbre, hondarra beltza, ez itsason bezela. Baiño bueno...! Guk jolastu deu han...! Izaten gendun beti ontzi txikin bat eta pastelak itten ta tartak itten ta bueno, jolastu deu asko. Ordun telebistaik ez zeon ta... asko. Oain itten ez duena umek. Oain ez dakie jolasten! Guk asko, asko, asko jolastu deu.

- Edozein gauzakin, ez? Edozer asmatu ta...

- Bai. Bai, bai. Eta kamiñon erdin. Oain badau, ba, zubie?

- Bai.

- Bai. Hor aurrekalden, klaro, kotxek pasatzen zien ordu-erditik behin o

hola. Eta hor sokasalton? Bueno! Zenbat jolastu deun! Hor, dolare aurrekalden. Asko! Asko!

- Esaten duzu errekan bai asko jolastu duzuela eta baiñatu?

- Ni baiñatu... Nik ez nekin igari, baiño mutillek bai. Gerora ya, gerora zikindu in zan, Zegaman hor papelerea o jarri zuen ta gero ez zeon udetan sartzeik. Baiño bai, bai, baiñatzen zan jendea. Bai, bai.

- Baiña ze baiñatzen ziren mutillak bakarrik eta neskak ez edo...?

- Neskak ordun... Neskak ez zien baiñatzen ordun. Osea, traje de bañoa jarri neskea? Bueno! Ezta pentsatu ´re! Mutillek bai praka zaharren bat edo baldin bazeuken. Baiño... ez, ez. Gerora behin o akordatzen naiz hor traje de baño euzkie hartzen einda, baiño ke, ba. Nola igari gero ikasi non... Ordun ez nekin ta...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Garai hartan seminariora joandakoak asko izan ziren (BEA-001/003)

Ospitaleko mojekin ikasi zuen lehendabizi (haur hezkuntza); geroago fraideekin ikasi zuen 12 urte bete zituen arte. Ondoren Saturrarango Seminarioan hiru urte eta erdi egin zituen.

2. Zintzotasuna eta euskaltzaletasuna piztu zitzaizkion seminarioan (BEA-001/004)

Kezka humanistikoa noiztik duen. Euskal gaietarako zaletasuna eta maitasuna bertan piztu zitzaion. Don Andoni Basterretxea irakaslearen inguruko gogoetak. Beasainen ez zegoen euskal kutsurik; herria zeharo erdaldundua zegoen. Beraiek etxean euskaraz ikasi zuten aita oso zorrotza izan zelako kontu honekin.

3. Aitaren zaletasunak: ehiza eta soinua (BEA-001/005)

Aita soinujolea zen. Inguruko mendi-erromerietan jotzen zuen; Lierniko erromeria. Zeraingo gazteak bertara joaten ziren. Aitaren zaletasun nagusiak: ehiza eta soinua.

4. Aitak eskopeta berreskuratu zuenekoak (BEA-001/006)

Joxek etxean duen eskopetaren inguruko azalpenak. Gerra garaian, eskopetak konfiskatu egin zituzten eta aitak bere eskopeta nola berreskuratu zuen kontatzen du.

5. Beasaingo alkateak ehiztariak guardian jarri zituen gerra garaian (BEA-001/007)

Aita 1905ean jaiotakoa zen. Gerra Zibila hasi zenean, Beasainen sozialistak zeuden Udalean. Víctor Bernedo zegoen alkate. Udalak ehiztariei deitu zien eta guardia egiten jarri zituen ospitalean eta eliz atarian. Beasainen kanpotik etorritako langile asko zeuden, eta tartean sozialista asko. Altsasun Francoren tropek zer egin zuten ikusi ondoren, ikaratu eta ihes egin zuten. Aitak eta beste beasaindar batzuek gerratik ihesi egin zuten ibilbidea azaltzen du. "Subille".

6. Gudariei Bilbo defendatzera joateko dei egin zitzaien (BEA-001/008)

Eusko Jaurlaritzak gudariei egindako deia; Bilbo defendatzera joateko eskaera. Beasaindik ihes egindako batzuek Bilborako bidea hartu zuten. Gosea. Bilbo erori zenean, Urduñako kartzelara eraman zuten. Bitartean, ama-umeak Zerainera joan ziren bizi izatera. Ama Zeraindik Bernedoren lantegira joaten zen egunero bizikletan. Guardia Zibilek salbokonduktoa eman zioten.

7. Gerra ondorengo samina (BEA-001/009)

Aitaren gerra ondorengo samina, desilusioa. Euskaltzaletasuna gorde eta bizi guztian mantendu zuen. Autodidakta.

8. Aralarren lan etnografikoak egin zituen; Jose Migel Barandiaranekin harremana (BEA-001/011)

Etnografia gaietan nola sartu zen azaltzen du Joxek. Aitak piztu zion zaletasun hori. Aralar; bertako elementu etnografikoen bilketa. Kartografiari buruzko ezagutzak. Testigantzen bilketa. Joxe Migel Barandiaranekin hartu-emana. Arantzazuko Ama Birjinaren agerpenaren inguruko pasadizoa. Aralarko pilotalekuak.

9. Joxe Miguel Barandiaran eta artzainen pilotalekuak (BEA-001/012)

Joxe Migel Barandiaranek apaiz ikasketak non egin zituen. Orduko kontuak. Aralarrera egindako irteera; artzainekin harremana. Pilotalekuaren berri nola izan zuten. Joxe Miguel gerra garaian ihes egin eta Iparraldeko artzain batzuekin hizketan bertako pilotalekuak non zeuden aipatu zioten. 1953an itzuli zenean, beste lan batzuetan hasi zen. Salamanca; Iruñea. Joxe Zufiaurrek Barandiaranen esanei jarraituz, bederatziz pilotaleku aurkitu zituen Aralarren.

10. Etniker, etnografia-taldeak (BEA-001/013)

Barandiaranek probintzia bakoitzean Etniker taldeak sortu zituen. Jose Zufiaurre Etniker taldeen batzarrera gonbidatu zuen. Urte hartako batzarra Urkiolan egin zen eta elkarrekin joan ziren. Euskal Herrian aurkitu zen lehenengo trikuharria. Karmele Goñi; Jose Letona; Fermin Leizaola. Orduan hasi zen Joxe Beasaingo lan monografikoa egiten.

11. Beasainen lan etnografikoa egin zuen Barandiaranen laguntzaz (BEA-001/014)

Beasaingo lan monografikoa. Larunbatero Joxe Migel Barandiaranekin elkartzan zen. Barandiaranen lan-metodologia.

12. Euskal gaien inguruko interesa; euskal kantutegia (BEA-001/023)

Euskal gaien inguruko interesa aitak piztu zion eta seminarioan indartu egin zitzaion. Seminarioan, euskal kantak ikasi zituen. Euskal kantutegi baten bilduma egin zuten bertan. Hainbat kantutegi erakusten ditu.

13. Seminarioan ikasi zituen euskarazko kantak (BEA-001/024)

Euskal Kantutegia Seminarioan biltzen hasi zen. Aurretik ez zuen euskal kanturik ia ezagutzen. Eskolan fraideekin ibili zen eta dena erdaraz ikasten zuten. Heziketa gogorra.

14. Seminarioan politika konturik ez; euskal kultura, berriz, bai (BEA-001/027)

Seminarioan abertzaletasunaz ez zen hitz egiten. Politika alde batera geratzen zen. Kulturalki asko jantzi omen zen seminarioan egondako garaian.

15. Barandiarenek irakatsi zion bigarren lezioa (BEA-001/029)

Joxe Migel Barandiaranengandik jasotako bigarren lezioa: erretiroan dagoenak gizartearengandik jasotzen duen pentsioaren truke, gizartearentzat lan egin behar duela.

16. Basolana; egurketaria (BEA-003/011)

Inguruko basoak: harizti, gaztainondo, pagadi, sagastiak. Estebanek basoan egiten zituen lanak. Pagoak trontzarekin botatzen zituzten. Pago-buruak dinamitarekin txikitzen zituzten. Egurra nora saltzen zuten.

17. Egurraren beharra (BEA-003/012)

Ordizian, Garmendiak txikitzen zuen egur asko. Okindegietan egur asko behar izaten zuten. Ikatza ere lantegietan behar izaten zen.

18. Auzotik Beasainerako bidea, CAFekoek egina (BEA-003/013)

Egurraren garraioa baso-jabeak egin ohi zuen. Garin auzotik, Beasainera eramaten zuten ikatza. Bidea noiz egindakoa zen. CAF-eko langileak Garingo bidea egiten lan egin zuen.

19. Urtegia (BEA-003/014)

Urtegia noiz egindakoa. Inguru hartako baserria. Perretxiko lekuak.

20. Basomutilen lana (BEA-003/015)

Basomutilen lana. Urrutira joan behar zutenean, bertan geratzen ziren lotan. Egun horietako batean aitonaarekin gertatutakoa kontatzen du.

21. Ikazkintza (BEA-003/016)

Ikazkinaren lana nolakoa zen. Txondorra nola egiten zen. Egurraren arabera denbora gehiago edo gutxiago behar izaten zuen egosteko. Pago-egurrarekin ikatz oso ona ateratzen zen; gaztainarekin egindako ikatza.

22. Bidegintza (BEA-003/017)

Bidegintza. 1933-34 inguruan egiten hasi zen Garinerako bidea. Lehenagoko bidea nolakoa zen; zailtasunak jendea gaixotzen zenean herrira jaisteko.

23. Erlijioaren garrantzia (BEA-003/019)

Gurasoak oso fededunak, "beharko!". Erlijioaren garrantzia. Dotrina. Goiz-meza; meza nagusia; bezperak.

24. Amona, kanpajolea (BEA-003/021)

Garinen egon zen irakaslea, Joxe Inazioaren amonaren ahizpa zen. Berak ez zuen ezagutu. Amonak Garingo kanpaia jotzeko ardura izaten zuen. Errepiketa, kanpai-hotsa.

25. Eskola berria (BEA-003/023)

Eskola kontuak. Joxe Inazio, Don Florencio Portu irakaslearekin ikasitakoa. Akolito bezala jardun zuen umetan. Latinez egin behar eta ez zuen ezer ulertzen. Eskolan dena erdaraz ikasten zuten. Aitak apaizarekin izandako harra-marra. Beasaingo alkatea Esnaola zen garai hartan. Auzoko eskola berria nola egin zen. Irakasle berria. Dena erdaraz ikasten zuten, dotrina izan ezik.

26. Eskola berriko maistra (BEA-003/024)

Eskola zaharra; eskola berria. Gerora, 12 urte inguru igaro ondoren, eraikin berria egin zen. Maistraren gizona, maisua zen Beasainen. Apopilo egoten zen asteen zehar. Bi urtero irakasleak aldatzen ziren.

27. Eskolan ikasi zuten gaztelania (BEA-003/025)

Eskola erdaraz ematen zuten. Erdara ikasteko aukera izan zuten. Gurasoek erdara gutxi eta umeak ikas zezaten nahi izaten zuten. Poliki-poliki umeak gutxitzen joan ziren; urteetara Astigarreta eta Garingo umeak herrira eramaten zituzten eskolara.

28. Erregidore lanak (BEA-003/026)

Joxe Inazioaren aita erregidorea zen, eta hark egin beharreko lanak aipatzen ditu. Auzolanak egin behar izaten zirenean, antolatzeko ardura izaten zuen. Auzo bakoitzak bere erregidorea izaten zuen.

29. Erregidorearen hautaketa (BEA-003/027)

Erregidorea nola aukeratzen zen. Herriarekin, udalarekin harremana zein eratakoa zen. Garraioak.

30. Azokak; Beasain, Ordizia... (BEA-003/028)

Feria egunak: asteartetan Beasainen eta asteazkenetan Ordizian. Ordiziakoan garai batean ganadu ugari egoten zen. Astelehenetan Tolosan egoten zen feria. Ordiziara joateko joera handiagoa.

31. Herrira jaisteko garraioa (BEA-003/029)

Joxe Inazio mutil koskorra zenerako automobilak bazeuden. Lehenago, astoarekin jaisten ziren herrira.

32. Auzoko batek egiten zituen auzokoen enkargu guztiak herrian (BEA-003/031)

Joxe Inazioaren ama astoarekin jaisten zen herrira. Gerora, gurdia erosi zuten. Ordiziako feriara nola joaten ziren, astean behin. Beasainera ez ziren egunero jaisten. Auzoko gizon batek egiten zituen etxe askotako errekaduak.

33. Batak euskaraz, besteak erdaraz, elkarri ulertu behar (BEA-003/032)

Amak ez zuen erdaraz hitzik egiten. Zertxobait ulertu, bai.

34. Astigarreta auzoko Bekoetxe baserrian jaioa (BEA-005/002)

Astigarreta auzoko Bekoetxe baserrian jaioa da. Urpean dago baserri hura gaur egun.

35. Aitarekin txondorrerako egur prestaketan (BEA-005/005)

Basoan aitarekin aritzen zen lanean. Txondorrerako egurra prestatzen jarduten zuen. Haritzak eta gaztainondoak zituzten etxe inguruan.

36. Garingo eskola (BEA-005/006)

Astigarretatik Garinera joaten zen eskolak hartzera. Frantziska izeneko maistra gogoan du. Irakurtzen eta laborea egiten ikasi zuen bertan.

37. Dotrina euskaraz ikasten zuten Don Martinekin (BEA-005/008)

Don Martin apaizak ematen zuen dotrina euskaraz. Erraz ikasten zuen Plazidak.

38. Jolasteko astirik ez (BEA-005/010)

10-11 urte bitartean joan zen eskolara. Baserrian lan asko egin behar ziaten zela kontatzen du. Jolasteko astirik ez zen egoten.

39. Etxe ondoan erori zen bonba bat (BEA-005/012)

Gerra Zibilean, bonba bat erori zen etxe ondoan. Behiak etxera ziztu bizian nola etorri ziren ondo gogoan dauka.

40. 17 urterekin pasa zuen tifusa (BEA-005/014)

Tifusa pasa zuen 17 urte zituela. Oso gogorra izan zen gaixotasuna. Ilea ere galdu zuela gogoan du. Botikarik gabe, trapu bustiak jarriz egiten zioten gaixotasunari aurre.

41. Dantza lotua bekatua zen (BEA-005/015)

Erromeria zalea zen. Kizkitza aldera joan ohi ziren dantzara. Dantza soltean aritzen ziren lotua bekatu zelako.

42. 7 urte zituenerako baserrian lanean (BEA-006/002)

7-8 urte inguru zituenerako baserriko hainbat lanez arduratzen zen: itulan, behi eta ardian zaintzen, etab. Lanean hain gazte hastea ohikoa zen garai hartan. Baserri "on" eta "txarren" arteko desberdintasuna.

43. Matematikak (BEA-006/005)

Adin desberdinetako ikasleak zeuden gela berean. Matematikako irakasgaia gazteleraz izaten zen. Bizitza errealean gerta zitezkeen problemak ebazten ikasten zuten.

44. Sortalde, sartalde, hegoaldea eta iparralde (BEA-006/008)

Geografia irakasgaian zer ikasten zuten kontatzen du. Puntu kardinalak, adibidez, euskaraz ikasi zituzten. Gaiarekin erlazionatutako anekdota txiki bat kontatzen du.

45. Beasaingo eskolan jolasten ikasi zuen (BEA-006/010)

1937. urtean bidali zuten Beasaingo eskolara. Ezertan baino gehiago, jolasean ikasi zuen Beasainen. 50 lagundik gora gogoratzen ditu ikasgela bakoitzean. Gerra Zibila puri-purian, irakasle pare bat ere gerrara eraman zituztela kontatzen du.

46. Bertsolaritza garai desberdinetan zehar (BEA-006/018)

Garai desberdinak bizi izan ditu bertsolaritzak. "Basarri" zenak, pikarokeriari neurria hartzea oso zaila zela esan zion sarritan. Elizak indar handia zuen garaian ere, parrandara lotua zegoenez, gaizki ikusia egon zen.

47. Lazkao Txikiren "Ez eduki, ez, ni beti pozik" bertsoak mezu sakona transmititzen du (BEA-006/019)

Lazkao Txikiren bertsoa "Ez eduki, ez, ni beti pozik" bertsoa kantatzen du. Barrea eragiten zuten bertsolari askok, bertso oso serioak kantatzen zituztela iruditzen zaio. Bere iritziz gainera, Lazkao Txikiri ez zitzaion batere gustatzen bertsolaritzak hartu zuen noranzkoa.

48. "Basarri" bertsolaria (BEA-006/021)

Basarri bertsolaria oso serioa zela kontatzen du. Hitzak oso ondo neurtzen zituen pertsona izanagatik, jende askoren mesprezua jasan behar izan zuela dio. Gauza asko esan edo pentsatzea libre ez zen garaia bizitzea tokatu zitzaion Basarri. Ihesi joan behar izan zuen gerra garaian. Harrapatu izan balute, eraila izango zela kontatzen du. Orduko "El día" egunkarian eta "Zeruko argia"-n idazten zuen.

49. "Lazkao Txiki" (BEA-006/023)

Lazkao Txiki pertsona serioa zen izatez. Ateraldi oso sakonak izaten zituela kontatzen du. Erraz aserretu edo mintzen zen gainera.

50. "Udarregi" zen gazteleraz zekien bertsolai bakarrenetarikoa (BEA-006/029)

Bertsolaritza eta Euskara lotuta egon izan dira betidanik. Juan Jose Alkain "Udarregi" (1827-1895) bertsolaria zen gazteleraz zekien bakarrenetarikoa.

Idatzita dauden lehenengo bertsoak Fernando Amezketarrenak omen dira. Bertsoak idatzita jasotzeko ohiturarik ez zegoen.

51. Bilintx eta Xenpelar matxista lirateke gaur egun (BEA-006/030)

Bilintx, Xenpelar, eta abar, matxistak direla esango genuke gaur egun beste modu batekoa baitzen orduan emakumearekiko jarrera.

52. Bertsoaletasuna betidanik egon da Euskal Herrian (BEA-006/031)

Oso onak ziren bertsolariak jende ugari biltzen zuten. Duela 200 urte inguru Azpeitian ospatu zen lehiaketa batek 1000 lagun inguru bildu omen zituen.

53. Txirritarekin lan egin zuen aitonak (BEA-006/033)

Argia aldizkariak argitaratzen zituen Txirritaren bertsoak. Apaizak erosten zuen Argia eta hark lagatzen zion gero. Jose Inazioaren aitonarekin lan egin zuen Txirritak. Anekdotak bat kontatzen du

54. Txirritaren ateraldi zakarrak (BEA-006/035)

Ateraldi zakarrak zituen Txirritak. Adibide batzuk jartzen ditu. Euskarak bizi zuen egoerak arduratzen zuen oso. Gerra aurretik hil izan ez balitz, gerra garaian arazo larriak izango lituzkeela iruditzen zaio.

55. Aita kamineroa zen (BEA-008/003)

Aita kamineroa zen. Langile bakoitzak bide zati bat izaten zuen ("trozoa") bere ardurapean.

56. 6 urte eskolan, eta gero umezain (BEA-008/004)

Auzoaren inguruko azalpenak. Eskola kontuak. 6 urterekin hasi eta 12 urtera arte egon zen eskolan; ondoren umezain joan zen Azpeitira.

57. Matxinbenta auzoaren banaketa (BEA-008/005)

Matxinbenta auzoa. Ibaiaren alderdi batera gelditzen diren etxeak Beasain aldera jotzen dute; beste aldekoak Azpeitira. Ibai-eder.

58. Etxearen egitura; baserriko bizimodua (BEA-008/008)

Etxearen egitura. Beraiena kaleko etxea zen. Baratzea; oiloak. Inguruko baserrietakoak Azpeitira eta batez ere Ordiziara joaten ziren plazara.

59. Saskigintzan aritzen ziren (BEA-008/009)

Senarra, saskigilea zen eta biak jarduten zuten saskigintzan. Ordiziara joaten ziren saskiak saltzera; baita Errioxa eta inguruko herrietara ere.

60. Aitaren lanbidea; euskara-erdara (BEA-008/016)

Aitaren lanbidea. Erdara ikastea euskara ikastea baino errazagoa.

61. Dotrina apaizarekin ikasten zuten (BEA-008/018)

Apaizarekin ikasten zuten dotrina. Euskarazko dotrina ikasi zuten beraiek. Apaiza nolakoa zen; nongoa; e.a.

62. Jaunartze txikia eta handia (BEA-008/019)

Jaunartzea zenbat urterekin egiten zuten (jaunartze txikia eta handia).

63. Pazkoako txartela nola lortu (BEA-008/020)

Pazkoakoa egiteko, "txartela" behar izaten zen. Garizuman apaizarengana txartel bila joan behar izaten ziren eta dotrinaren inguruko galderak ongi erantzun behar izaten zituzten.

64. Garizuma debekuz beteta (BEA-008/021)

Garizuman, debeku asko egoten ziren. Dantza egitea, erromerietan soinua egotea... galarazita zegoen. Pazkoa egunetan poz handia. Igandetan mezara eta arratsaldetan bezperatara joaten ziren.

65. Urriko arrosarioak (BEA-008/022)

Urriko arrosarioak. "Eliza bete jende...!". Hilabete guztian 10 arrosario osatu behar ziren elizan. Etxeetan ere arrosarioa erreztatzeko ohitura egoten zen.

66. Garizuma garaian fraideak sermoia ematera (BEA-008/025)

Garizuma garaian fraideak etortzen ziren sermoiak ematera.

67. Eriljioaren indarra; bulak (BEA-008/026)

Erljioaren indarra. Bulak: gurutze-bula eta haragi-bula.

68. Asteazken zehar ere egunero mezara (BEA-008/029)

Igandetan bi meza egoten ziren eta gurasoak txandaka joaten ziren. Igandean ez ezik, aste osoan zehar ere egunero egunero mezara joaten ziren.

69. Bataioen inguruko azalpenak; "Eliz-sartzea" (BEA-008/030)

Bataioen inguruko azalpenak. "Eliz-sartzea".

70. Elizkizunak; erlijioaren inguruko ohitura zaharrak (BEA-008/032)

Elizkizunak; ohitura zaharrak. Hilarriak elizan. Hildakoren bat zegoenean etxean ohitura bereziak zaindu behar izaten ziren. Argizaiola; kandelak; ogia.

71. Prozesioak nolakoak izaten ziren (BEA-008/033)

Prozesioak nolakoak izaten ziren.

72. Kanpai-klaseak (BEA-008/034)

Kanpai desberdinak. Kanpai luzea jotzen zuten meza hasi baino ordu erdi lehenago. Ilunabarreko kanpaia; ilundu baino lehenago etxera joan behar izaten ziren.

73. Igartza auzoko hainbat baserri (BEA-010/002)

Igartza auzoko Agerrezabal baserriaren inguruan zeuden gainontzeko baserriak izendatzen ditu.

74. Soro eta zelaien aprobetxamendua (BEA-010/004)

Soroz inguratuta zegoen baserria. Garia, artoa, erremolatxa eta arbia egiten zituzten besteak beste. Alpapa eta ailubrea ere egiten zituzten. Behiek esne gehiago eman zezaten erabili ohi ziren. Esnari zaporea aldatzen zion tamalez. Baratzea ere bazuten. Amak egiten zuen baratzean lan.

75. Fraideen eskola (BEA-010/005)

Sei urte inguru zituela hasi zen eskolan fraideen eskolan. Plazan zegoen kokatuta orduan ere. Gogor egiten zietela gogoratzen du. Gazteleraz izaten ziren eskolak.

76. Umetako baserriko lanak (BEA-010/007)

Umetan hasten ziren baserriko lanetan laguntzen. Abereak zaintzen jarduten zuten eta baita egurra ekartzen ere. Igartzako errotara egurra eramatearen ordainetan ogia jasotzen zuten.

77. Igartzako errota (BEA-010/008)

Igartzako errota deskribatzen du. Astoz eramaten zituzten garia nahiz artoa errotara. Irin kilo batzuk errotan laga behar izaten ziren ordainetan.

78. Fruta-arbolak (BEA-010/012)

Baserrian zituzten fruta-arbola desberdinak izendatzen ditu. Sagardotarako saltzen zuten etxeko sagarra. Klase desberdinetako sagarren izenak aipatzen ditu.

79. Igartzako dolarean sagardoa egiten zuten etxeko sagarrekin (BEA-010/013)

Gurdiz eramaten zituzten etxeko sagarrak Igartzako dorarera etxerako sagardoa egiteko. Nola egiten zuten kontatzen du. Tresna desberdinen izen eta erabilerak.

80. Sagardoa egiteko prozesua (BEA-010/015)

Sagarrei zukua ateratzeko prozesuari buruzko azalpena. Sagar zukua barrikan gordetzen zen hiru hilabetez eta azkenik, botiletan sartzen zuten. Barrikako sagardoari zikina kendu behar izaten zion.

81. Lastoa sabaian eta belarra metetan (BEA-010/020)

Behiei neguan emateko gordetzen zen lastoa. Sabaian gordetzen lastoa; belarra, belar-metan. Nola egiten ziren azaltzen du.

82. Artoa (BEA-010/021)

Garia eta artoa sabaian gordetzen ziren. Eguraldi txarra zegoen egunetan zuritzen zen artoa. Aletutako artoa "artaganbaran" gordetzen zuten gero.

83. Sagar klase desberdinak eta hauen ezaugarriak (BEA-010/022)

Ganbarako belar artean gordetzen ziren sagarrak. Sagar klase desberdinak eta bakoitzaren ezaugarriak buruz mintzatzen dira.

84. Jatorduetarako elikagaiak (BEA-010/024)

Jatordu bakoitzean zer jan edo edaten zuten kontatzen du.

85. Txerri-hiltzea (BEA-010/027)

Txerri-hiltzea nola egiten zen kontatzen dute. Emakumezkoak arduratzen ziren tripak errekan garbitzeaz. Odolkiak egiteko barazkiak bezperan prestatzen ziren. Odola jasotzeko prozesua ere kontu handiz egin behar izaten zela dio. Odolkiak egunean bertan egin behar izaten ziren, txorizoak aldiz hurrengo egunean.

86. Txorizoa nola egiten den (BEA-010/029)

Txorizoak egiteko osagaiak eta prozesua.

87. Partizioa baserriz baserri (BEA-010/030)

Txerria hil ostean "partizioa" egiten zuten auzokoen artean. Umeak joaten ziren odolkiak eta urdaia baserriz baserri banatzera.

88. San Martingo erromeria (BEA-010/031)

San Martin eta Loinaz ziren gertuen zituzten ermitak. Ospakizun berezietarako erabiltzen ziren ermita hauek. Beasaingo jaietan, esterako, San Martinera prozesioan joateko ohitura zegoen. Erromeria polita egiten zen bertan.

89. Kongregazioak (BEA-010/032)

Neska eta mutilentzako kongregazio desberdinak zeuden. Dantza lotuan egitea debekatua zuten Mariaren alabek. Komunio handia egin eta gero pasatzen ziren neska-mutilak kongregazioko kide izatera. Betebeharrei buruz hitz egiten dute.

90. Jauna hartu ahal izateko txartela (BEA-010/033)

Aste Santuan debeku eta betebehar desberdinak egoten ziren. Jauna hartu ahal izateko txartel berezi bat jaso behar izaten zen apaizaren etxetik. Ez zion edonori ematen, noski.

91. Baserriaren egitura (BEA-012/004)

Baserria nolakoa zen; egitura. Ikuilua; etxe-ordea; oilategia.

92. Aitaren izakera; Etxarrira feriara joan zirenekoa (BEA-012/009)

Aita nolakoa zen. Etxarrira feriara joan zireneko eguna.

93. Baserriko bizimodu eta ohiturak (BEA-012/010)

Baserrian komuna zuten. Ikuilua nolakoa zen. Urtean birritan simaurra aitzurtzen zuten. Etxean ez zuten arrosarioa errezatze ohiturarik; lanean ari ziren bitartean, hitz egiten jarduten zuten.

94. Igande arratsaldeetan ere dotrina ikastera (BEA-012/020)

Dotrina mojetan ikasten zuten. Igande arratsaldeetan ere dotrina ikastera joaten ziren, jaunartzea egiteko. Lehenengo jaunartzea eta bigarrena (edo handia). Bigarrengoan jostunak egindako soineko dotorea eraman zuen.

95. Pazkoakoa; bulak (BEA-012/027)

Pazkoakoa egiteko txartel bat hartu behar izaten zuten apaiz-etxean. Bulak.

96. Bikarioarekin harremana; konjurua (BEA-012/028)

Bikarioarekin zuten harremana. San Juan aurretik konjurua egitera joaten zen baserrira. Baserri-izenak. Ordainean zer ematen zitzaion.

97. CAFeko lanik gogorrena, forjako (BEA-014/007)

Forjako lana, lan astuna. Aitaren lana: horren inguruko azalpenak, lan-ordu asko, bazkaria bertara eramaten zioten.

98. Fundizioko lana: langileak, harremana... (BEA-014/011)

Fundizio lana gogorra zen. Trenak egiteko piezak egiten ziren. Trenak gehienbat kanpora saltzen ziren. Goierrri guztiko langileak zeuden bertan; oinez edo bizikletaz etortzen ziren. Kanpotik ere langile asko etortzen zen. Langileen arteko harremana ona izan ohi zen.

99. Umetako gaiztakeriak (BEA-014/016)

Umetako kontuak. Lagun taldeak: bihurrikeriak; jolasak... Txoritara joaten ziren; habia bila ibiltzen ziren.

100. Errekara igeri eta arrantza egitera (BEA-014/017)

Umetan errekkara joaten ziren. Kaleko mutilak (erdaldunak; "belarrimotxak") beti errekkara joateko joera. Urtegia. Sare txikiekin harrapatzen zituzten arrainak.

101. Herrian musikarako zaletasun handia (BEA-014/018)

Jaiegunetan, musika egoten zen. "Ttunttune". Musika Banda. Beraiek gazte zirenean, gerra piztu eta bizimodua asko aldatu zen. Orfeoia.

102. Inguruko herrietako erromerietara (BEA-014/019)

Neskatan-mutiletan. Dantza egiteko zer esaten zen. Kalabazak ere jasotzen zituzten. Erromerietara joateko ohitura: Ordizia; Olabarria; Itsasondo; Zegama; eta abar. Gehienetan oinez joaten ziren batera eta bestera.

103. Eskolako ikasgaiak; emakumeak etxeko lanetarako prestatu (BEA-014/026)

Eskolan ikasitakoak. "Las cuatro reglas" deitzen ziotena: batu, kendu, zatitu eta biderkatu. Neskei josten ere irakasten zieten. Emakumeei etxeko lanak egiten irakasten zieten.

104. Euskara zigortu egiten zen (BEA-014/027)

Eskolan erdaraz egiten zuten. Dotrina ere erdaraz ikasi zuten. Euskaraz hitz egitea zigortu egiten zen.

105. Mutilak eskolara, neskak neskame (BEA-014/029)

Eskola amaitu, umeak zaindu eta hamazazpi urterekin neskame joan zen. Gurasoek diru gehiegi ez bazuten, mutilak eskolaratzen zituzten lehenengo. Alabak, orduan, neskame joaten ziren.

106. Neskame izandako garaia (BEA-014/030)

Neskame Segurara joan zen, mediku familia batean. Neskame lanak. Sei urte eman zituen bertan, ezkontzera joan zen arte, eta gustura igaro zituen urte haiek.

107. Neskame mediku familia batean (BEA-014/031)

Nagusia, medikua, sinesmen handiko gizona zen. Harreman estua zuten mediku eta apaizek, tertuliarako elkartzen ziren.

108. Etxeko lanak: arropa garbiketa, lurra (BEA-014/033)

Etxeko lanak. Arropa garbitzeko udaletxe ondoko harrasketara joan ohi zen jendea orduan, baina Micaelak ez zuen hara joan beharrik izan, etxean baitzuten. Lurra nola garbitzen zuten.

109. Garai hartako jatorduak (BEA-014/034)

Jatorduak. Kafesne-zopak, taloa, babarrunak, garbantzuak... Ospakizunetan, kapoiak.

110. Eguberrietarako kapoiak hazten zituzten (BEA-014/035)

Kapoiak eurek hazten zituzten, Eguberrietarako. Nola hazten zituzten azaltzen du. Gantza asko duelako, egun ez da horrelakorik jaten.

111. Arraina kalerik kale saltzera etortzen ziren (BEA-014/036)

Arraina saltzera etortzen ziren, kalerik kale. Oriotik asko etortzen ziren herrira saltzera. Orduan arrain gutxiago jaten zuten. Karroetan etortzen ziren antxoak, txitxarroa eta abar saltzera.

112. Eguberrietan opilak kantari zebiltzan umeentzat (BEA-016/014)

Santo Tomas egunean txorizoa sartzen zuten opilean. Eguberrietan baserriz baserri kantari ibiltzen ziren umeei ere opilak ematen zizkien anaiak.

113. Etxe-jabeari jeneroa entregatu behar (BEA-016/018)

Baserria "Duque del Infantado"-ren jabetzakoa zen. Inguruko baserriak. Beasainmendi. Basarte baserriak Markesarenak ziren. Etxe-jabeari eman behar zitzaion errenta (kapoiak...). Gerra ostean garia udaletxera entregatu beharra. Lazkaoko errota. Gerra osteko urteetan gosea.

114. Gerra-osteko egoera gogorra (BEA-016/019)

Gerra osteko egoera oso gogorra izan zen. Kaletarrak, dirua bai baina janik ez. Soroan lan asko egiten zen.

115. Ura nola ekarri zuten etxeetara (BEA-016/020)

Jaiotetxea nolakoa zen. 20 urterekin ezkondu eta gizonaren baserrira joan zen bizi izatera. Argindarra; ur-korrontea. Iturburua 7 baserriren artean. Udazkenean beste iturburu batetik ekarri behar izaten zuten ura. Ura nola ekarri zuten etxeetara. Abere asko izaten zituzten baserrietan eta ur asko behar izaten zen.

116. Abereei hostoak ematen zitzaizkien jateko, belarrik ezean (BEA-016/021)

Abereei ze ematen zitzaien jateko belarrik ez zegoenean. Lizarra; haritza. Adarrak kimatu eta hostoak ematen zitzaizkien. Arbia negurako.

117. Zelarre baserriaren egitura; baserri-izenak (BEA-016/022)

Zelarre baserriaren egitura. Logelak; ganbarak. Artoa jotzeko makina; "astoa". Dolarean sagardoa egiten zuten. Aita gari-garbitzeko makinarekin ibiltzen zen baserri batetik bestera. Baserri-izenak.

118. Sagardoa egiteko prozesua; sagar klaseak (BEA-016/023)

Sagardoa nola egiten zuten; prozesua. Sagar klase desberdinak: "frantsez txikie"; "errezile"; "moko-gorrie"; "urtebie"; etab.

119. Sagardoaren inguruko azalpenak (BEA-016/024)

Sagardoaren inguruko azalpenak. Sagastiak ihartu egin ziren eta egun ez dute sagardorik egiten.

120. Gariaren inguruko lanen azalpena (BEA-016/025)

Garia noiz ereiten zen. Gariaren inguruko lanen azalpena. Igitaia; sega. Metatu.

121. Orbela, ganaduaren azpiak egiteko (BEA-016/027)

Orbela batzen zuten basoan. Ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zuten orbela.

122. Eskolan zer ikasten zuten; umetako gaiztakeriak (BEA-016/028)

Eskolako kontuak. Moja frantsesak, karmelitak... 10 urtera arte egon zen eskolan, jaunartzea egin arte. Eskolan zer ikasten zuten. Jolasak. Umetako okerkeriak. Janztetxea; serora-etxean baserritarrek oinetakoak aldatzen zituzten. Usurbeko baserria.

123. Dotrina euskaraz; pazkoakoa egiteko txartela (BEA-016/032)

Euskaraz ikasi zuten dotrina. Orduan ikasitako zenbait pasarte. Pazkoakoa egiteko txartela behar zen.

124. Eskolan buruz ikasitakoak oraindik gogoan (BEA-016/033)

Eskolan buruz ikasitako gauza asko oraindik ere gogoratu egiten ditu.

125. Lehenagoko abestiak (BEA-016/034)

Lehenagoko abestiak. Kanturako zaletasuna.

126. Eskolako uniformeak; mojak nolakoak ziren (BEA-016/036)

Eskolako uniformeak. Karmelitak; frantsesak... Mojak nolakoak ziren.

127. La Salle ikastetxean erdaraz ikasi zuten (BEA-019/002)

La Salle ikastetxean ikasitakoa. Erdaraz ikasi zuten. Hizkuntza eta politika.

128. Aristrain lantegia; txirrindularitzako kontuak (BEA-019/009)

Aristrain lantegia (egun Aceralia dena). Bitorianoren anekdota Aristrainekin. Apaitegi txirrindularia, oso ona. Txirrindularitza kontuak.

129. Beasainera gaztelera ikastera (BEA-020/002)

Ulertu arren, gaztelera ez ziren ondo moldatzen gurasoak, ondorioz, seme-alabak Beasaingo fraide edo mojen eskolara bidaltzea erabaki zuten gaztelera ikas zezaten. Gaizki egiteko beldurrez, gehienetan euskaraz erantzuten zuela kontatzen du. Mojekin gertatutako hainbat anekdota dakartza gogora.

130. Apaizak euskaraz ematen zizkien eskolak (BEA-020/004)

Garingo eskola txikian eman zituen lehen ikasturteak. Apaiza zen bertako irakasle lanak egiten zituena. Euskaraz ematen zizkien behar zituzten azalpen guztiak.

131. Gurdiarekin jolasean (BEA-020/005)

Umetako jolasak. Gurdiarekin jolas nola egiten zuten azaltzen du. Sokasaltoan aritzeko sokak aitari kentzen zizkioten baserritik.

132. Zumarragara josten ikastera (BEA-020/010)

Baserriko lanetan baino, etxeko zereginetan laguntzen zioten amari. Hamasei urterekin Zumarragara joan zen josten ikastera. Asteburuetan etortzen zen etxera. Baserritik Zumarragara eramaten zituen jakiak esker onez hartzen zituzten.

133. Erromeriara joan aurretik, bezperak entzun behar (BEA-020/012)

Erromerietara joatea oso gustuko zuen. Joan aurretik bezperak entzutera behartzen zituen amak. Aitonak jotzen zuen organoa elizan

134. Ume-umetatik bertsozaletasun handia (BEA-020/014)

Gorrina izan zuen umetan. Praktikanteak ohean egoteko agindu zion baina, bakarrik egon nahi ez zuenez, bertsoak kantatzeko eskatzen zion aitari. Ume-

umetatik du abertzaletasun handia. Pello Errotaren kopla labur bat kantatzen du

135. Lixiba nola egiten zen (BEA-020/015)

Baserriko emakumearen bizimodua oso gogorra zen. Lixibari buruzko azalpenak ematen ditu. Arropa zuriak garbitzen ziren lehenengo eta, hauek utzitako xaboi-urarekin, kolorezko arropak garbitzen ziren. Arropa jotzeko lau harri zeuden albergan.

136. Kanpai-hots desberdinak I (BEA-020/016)

Elizako kanpaiak jotzeaz arduratzen zen aita. Makina bat aldiz jo zituen Mari Carmenek ere. Kanpai-hots desberdinak eta hauen esanahiari buruz mintzatzzen da.

137. Kanpai-hots desberdinak II (BEA-020/017)

Aste Santuko kanpai-hotsa desberdina zen. Aingeru edo hil-kanpaiak.

138. Gizonezkoak emakumezkoak baino libreago ibiltzen ziren (BEA-020/020)

Mutilak libreago aritzen zirela kontatzen du. Emakumezkoak hobeto zaindu behar zirela esaten zieten etxean ere. Dantza lotuan egiteagatik kongregaziotik botatzen zituztela kontatzen du

139. Hiru litro esne ematen zituen behiaren kontakizuna (BEA-020/024)

Egunean hiru litro esne ematen zituela esanez saldu zuen baserritar batek behia. Gezurrarekin damututa, apaizarengana konfesatzera joan zen baina espero ez zuen erantzuna jaso zuen.

140. Txahalarekin geratu zen abokatuaren kontakizuna (BEA-020/025)

Txahala egiteko zegoen behia saldu zuen baserritar batek. Eroslearen etxean egin zuen txahala baina erreklamatu egiten zion saltzaileak. Abokatuarengana jo zuten baina, arazoa konpondu baino, txahalarekin geratu zen. Abokatu bati buruzko kontakizun labur bat.

141. Euskaraz jarduteagatik kartzelara (BEA-020/027)

Senarrari 10 urte inguru zituela gertatu zitzaiona kontatzen du. Gerra garaian, euskaraz hitz egiteagatik kartzelara eraman zuten guardia zibilek.

142. Laborea zen gustukoaren zuen ikasgaia (BEA-020/030)

Karmeliten ikastetxeko irakasleen izenak gogoan ditu. Ikasgaien artean, laborea zuen gogokoaren. Egindako lan desberdinak aipatzen ditu.

143. Gerraosteko miseria garaia (BEA-020/033)

Gerraostean miseria handia zegoen. Baserriko produktuen zati bat udaletxean entregatu behar izaten zutela kontatzen du. Baserriz baserri, erregistroak egiten ibiltzen zirenak ere bazeuden baina, bizilagunen artean konplizitate handia zegoenez, abisua pasatzen zioten elkarri. Beldurra zen nagusi.

144. Garinen igaro zuten gerra (BEA-020/034)

Gerra Zibilak iraun zuen bitartean Garinen egon ziren. Ez zuten inora alde egin. Mandubitik botatzen zituzten kanoikadak gogoan ditu.

145. "Txerri erregaloa" bizilagunei (BEA-020/036)

Txerria hil eta berehala, odola eta tripak ateratzen zitzaizkion. Hurrengo egunean, hortzen ipintzen zen. Odolkiak bizilagunen artean banatzeko ohitura handia zegoen. "Txerri erregaloa" esaten zitzaion honi. Pernando Amezketarraren pasarte bat dakar gogora.

146. Gaztainak (BEA-020/039)

Artoa zuritzen edo gaztainak apartatzen jarduten zuten iluntzean. "Errekarderari", jakiak batetik bestera salerosketarako eramaten zituen pertsonari, saltzen zizkioten gaztainak. Anegaka saltzen ziren gaztainak. Gaztaina "txildokak", eskasena, abereak gizentzeko erabiltzen ziren.

147. Gauetz txerria zaintzen (BEA-020/040)

Txerriak txerrikumeak azpian harrapa ez zitzan, gauetz zaindu egin behar izaten ziren. Anai-arrebekin txandak eginez konpontzen ziren.

148. Hamaika urterekin Abarizketa baserrira (BEA-021/002)

Aitak meategian lan egiten zuen eta lana non hara joan behar izaten zuten. Legazpin jaio zen Gregorio, baina urtebete zuela Alegiara joan ziren. Gero, 11 urte zituela, Beasaingo Abarizketa baserria erosi zuen aitak. Ganadua hartuta, bera bakarrik joan zen Gregorio Abarizketara, aita lanean zegoen eta. Bertako familiarekin bizi izan zen sei hilabetez, haiek baserria saldu ostean ez baitzuten nora joanik.

149. Beasainmendi eta Beasaingo beste auzo batzuk (BEA-021/004)

Beasainmendi auzo handia da. Beasaingo beste auzo batzuk. Beasainen muga Mandubi inguruan.

150. Beasainmendi auzokoak elizara eta eskolara kalera (BEA-021/005)

Beasainmendi auzoak ez du ermitarik eta auzokoak kalera joaten ziren mezara. Inguruan badago San Martin ermita, baina hori ere kaletik gertu. Eskolarik ere ez zuten auzoan eta kalera joan behar izaten zuten. Berak eskola gutxi ikasi omen zuen.

151. Abarizketa ingurua nola aldatu den (BEA-021/006)

Ingurua zenbat aldatu den bera Abarizketara etorri zenetik. Lehen inguruak garbi-garbi zeuden, belazez eta soroz beteta. Orain pinu asko dago. Lehen basoetan haritza eta pagoa ziren nagusi. Garia eta artoa hartzen ziren gehien inguruetan.

152. Garia, azaroan erein eta uztailean ebaki (BEA-021/007)

Garia azaro erditik atzera ereiten zen. Horretarako lurra goldatu egiten zen, aurretik artoa eta babarruna egondako lekuan ereiten zelako. Erein eta gero

area pasatzen zen, eta karea ere botatzen zitzaion lurrari. Uztaile bukaeran ebakitzen zen garia. Hasieran igitaiarekin ebakitzen zuten eta, jende asko behar izaten zenez, auzolanean egiten zen. Ebaki eta "balak" egiten zituzten.

153. Garia, metetan lehortu eta losa gainean eskuz jo (BEA-021/008)

Garia ebakitakoan, lehenbizi meta txikiak egiten zituzten eta haiek sikatzen zirenean meta handiagoa. Gero garia eskuz jotzen zuten etxe atarian, harri-losa batzuen kontra joz. Babak aletzeko edo ondo jo gabe geratzen ziren buruak jotzeko "idaurra" erabiltzen zuten, bi makila elkarri lotuta. Gariak ematen zuen lanik handiena

154. Garia garbitzeko haizezko makina (BEA-021/009)

Garia jo eta gero garbitu egiten zen. Haizea botatzen zuen eskuzko makina bat zuten eta oso ona omen zen.

155. Garia kutxetan gorde; neurriak (BEA-021/010)

Garia egurrezko kutxetan gordetzen zen. Neurtzeko ontziak egoten ziren gero: anega erdikoa, iminia, lakaria...

156. Gerraostean garia eta babarruna entregatu egin behar (BEA-021/011)

Lehen eguneroko jatekoak artoa (taloak), garia (ogia), babarruna eta txerriak izaten ziren. Gregorio soldadutzan egon zen denboran errazionamendua eta ogi eskasia egon zen. Etxean jasotzen zen gariaren eta babarrunaren hainbesteko bat entregatu egin behar izaten zen.

157. Auzolanaren ostean afaria (BEA-021/012)

Auzolanean egiten ziren lan asko. Lanak bukatutakoan afaria edo merienda: baratxuri-zopa, gazta eta txerriak edo. Eta ardoa. Sagardoa etxean egiten zuten, baina halako afarietan ardoa zen ohikoagoa. Abarizketan taberna ere izan zuten.

158. Sagardoa egiten zuten Abarizketan bertan (BEA-021/014)

Sagardoa egiten zuten etxean. Lehenbizi sagarra jotzen zuten makina batekin eta gero dolarera bota. Estutu egin behar izaten zen bi-hiru aldiz. Gero barrikara. Gerora, harriak sagarra hondatu omen zuen eta sagardoa egiteari utzi zioten.

159. Gaztetatik basoan, egurra ateratzen eta zuhaitzak botatzen (BEA-021/016)

Hamabost urte ingururekin basoan hasi zen lanean. Etxean ere lan asko izaten zen, eta tarteka joaten zen. Idiekin egurra garraiatzea izaten zen bere lana. Pagoa eta haritza ateratzen zen gehienbat. Pinua ere atera izan zuen, inguruetakoa lehenbizikoak. Botatzen ere ibiltzen zen; orduan trontzarekin botatzen ziren bi lagun artean. Inguruetan ibili omen zen bakarrik lan egiten zuen bat ere.

160. Aitarekin ikatza egiten ibilitakoa (BEA-021/017)

Ikatza egiten ere ibili zen azken urteetan aitarekin. Lehenbizi egurra prestatu: erdian zuloa utzita, bueltan-bueltan jarri egurrak. Gero lurra botatzen zaio gainetik eta erdiko zulotik su eman. Azkenik, hura ere tapatu. Kea bakarrik atera behar da. Txondorra egosi egin behar izaten zen, ez erre eta, horretarako, gau eta egun zaindu behar izaten zen, zulo txikiren bat eginez gero, hura azkar estaltzeko. Inguruetan ikazkin nafarrak ibili ziren eta haiek txondor ondoan txabola egiten zuten bertan lo egiteko. "Txondar-zulo" ugari ziren inguruetan; baita karobiak ere. Berak ez du ezagutu karea egiten.

161. Artoa, esnearekin edo taloak eginda (BEA-021/019)

Artoarekin taloak egiten zituzten. Eibar edo Mutriku inguruan morokila ere egiten zen, baina Beasainen ez zegoen ohitura hori. Beraiek jaten zuten, Gregorioren ama mutrikuarra zelako. Bestela, arto-opila ere jaten zuten, batez ere esnearekin. Gosaltzeko, normalean, taloak. Eta gero bederatzia aldera, baratxuri-zopa.

162. Babarruna egunero; haragia, berriz, gutxitan (BEA-021/021)

Bazkaltzeko egunero babarruna jaten zuten. Oilaskoa jai handietarako. Arroz-esnea. Haragi gutxi jaten zen. Ardiak zituztenek ardikia jaten zuten. Zezina eginda, gatzatuta, kontserbatzen zen.

163. Lehen beste bero klase bat egiten zuen (BEA-021/023)

Gose urteetan ganaduari lizar hostoak ematen zitzaizkiola gogoan du Mari Kruzek, Gregorioren emazteak. Gregorio soldaduskara joan baino lehentxeago bi urtean lehorte handia egon omen zen. Lehen beste bero klase bat egiten omen zuen, ez oraingoa bezalakoa.

164. Garai batean elurte handiagoak (BEA-021/024)

Lehen orain baino elurte handiagoak egiten zituen. Elur handia egin zueneko kontuak. Egund askoan egoten zen elurra, gainera, kendu gabe. Izotz-kandelak.

165. Gaztaina klaseak (BEA-021/026)

Lehenago gaztaina asko izaten zen inguruetan. Gaztaina klaseak: goiz-gaztaina, San Agustin gaztaina, "iñurria"... Bakoitza nolakoa izaten zen. Gaztaina-erreak eta sagardoa. Ezkurra ere asko biltzen zen txerrientzat.

166. Lehengo sukaldeak (BEA-021/027)

Lehen beheko-sua zuten etxean. Gregoriok entzunda du garai batean sukalde batzuetan erdi-erdian izaten zutela sua, baina beraiek ez dute halakorik ezagutu.

167. Igandetako erromeriak; udaran Murumendira (BEA-021/029)

Igandetean festara joaten ziren. Murumendin bilera handia egiten omen zen. Bestela, baserri batean edo bestean, beti egoten zen soinu-joleren bat. Bazkalostean goiz irteten ziren, iluntzean goiz itzultzeko. San Pedro egunean Larraitzen egiten zena izaten zen inguruetakoa erromeria handienetakoa. Beste auzo batzuetan ere egiten ziren.

168. Dantza lotua bekatu; apaizari emandako erantzuna (BEA-021/030)

Erromerietan dantza soltea bakarrik egiten zuten; dantza lotua debekatuta zegoen, bekatua omen zelako. Behin Gregoriok apaizari eman zion erantzuna. Elizak indar handia zuen. Erromerietan ezkututik begira egoten ziren.

169. Joaten ziren lekuan erromeria jartzen zuten (BEA-021/031)

Auzoko 14-15 lagun ibiltzen ziren elkarrekin eta joaten ziren lekuan erromeria jartzen zuten, soinujolea ere beraiekin eramaten zuten eta. Gero kuadrilla desegin egin zen.

170. Pilotarako zaletasuna, baina auzoan frontoirik ez (BEA-021/032)

Futbolean ibiltzen ziren auzoko mutil koskorrak. Kaniketan ere bai; nola zen jolasa. Gregoriok pilotarako zaletasuna zuen, baina ez zuten frontoirik auzoan. Bolatokia ba omen zen, baina erre egin zen eta beraiek ez zuten ezagutu.

171. Marigorringoari: "bihar eguzki ala euri?" (BEA-021/034)

Marigorringoari "bihar eguzki ala euri?" galdetzen zitzaion, eskuan jarrita.

172. Gerraosteko zailtasunak eta inguruko errotak (BEA-022/007)

Gerraosteko zailtasunak. Garia nora eramaten zuten ehotzera: Igartzako errota, Lazkaora, Beizamara... Guardia Zibila zaintzen egoten zen.

173. Pinuaren inguruko azalpenak (BEA-022/009)

Lehenengo pinudiak noiz hasi ziren. Hemengo pinuaren ezaugarriak. Etorkizun iluna.

174. Umetako jolasak: harrapaketan, ezkutaketan... (BEA-022/017)

Umetako jolasak: harrapaketan; ezkutaketan; etab.

175. Antzuolar asko Olaran larru-ontze fabrikara lanera (BEA-022/019)

Kanpoko jende asko etorri zen garai batean Beasainera. Baserrikoek bakarrik hitz egiten zuten euskaraz. Olaranen larru-ontze fabrika jarri zenean Beasainen, antzuolar asko etorri ziren bertara lan egitera.

176. Galdutako baserriak; lantegiek hartutako lurrak (BEA-022/021)

Galdu diren baserri askoren izenak. Futbol-zelai zaharra. Fabrikak hartutako lurrak.

177. Baserriko umeek jolaserako denbora gutxi (BEA-022/023)

Kirola umetan; gaztetan. Pilotarako zaletasuna. Baserriko umeek jolaseako denbora gutxi egiten zuten. Baserriko bizimodua umeentzat. Abereak ikuilu barruan izaten zituzten. Euskararen beherakada Beasainen.

178. Amonak perretxikotarako zaletasuna (BEA-023/004)

Garai batean etxean ziza-horiak bakarrik jaten zituzten. Besteez ez ziren fidatzen. Amona oso perretxikozalea zen; aitonak, berriz, arrantzarako zaletasuna zuen.

179. Errekara arrantzan (BEA-023/005)

"Barkazioak" (oporak). Errekara arrantzan.

180. Amonak egindako lanak: apretak josi, koltxoiak garbitu... (BEA-023/007)

Amonaren inguruko kontuak. Umetako kontuak; 9 urterekin umezain joandakoa. "Apretak josten" lan egiten zuen. Langile amorratua. Koltxoiak nola garbitzen zituen. Beasainen koltxoiak garbitzen zituzten bi emakume zeuden.

181. Umetako ibilerak (BEA-023/009)

Umetako ibilerak. Eskolan CAF-eko injeniarrien alabak. Orduko kontuak.

182. Umetako kontuak; eskolako materiala (BEA-023/010)

Umetako kontuak. Eskolan, fraideetan erabiltzen zituzten paper eta blokak.

183. Gerra osteko ekonomia; errota "klandestinoak" (BEA-023/012)

Goserik ez zuten pasatu baserrian, baina gerra osteko urteak gogorrak izan ziren, batez ere kaleko jendearentzat. Artoa, garia. Errota "klandestinoak". Lazkaoko errota handira astoarekin joan zeneko kontua.

184. Txerri-hiltzea; umetako kontuak (BEA-023/013)

Txerri-hiltzea nola eta non egiten zuten. Umetako kontuak. "Aurrek erakusten dik atzea nola dantzau".

185. 50 urtekoak nagusi ikusten zituzten umetan (BEA-023/019)

Umeak zirenean, 50 urte zituztenak nagusi ikusten zituzten. Egun, badirudi jendea beranduago nagusitzen dela.

186. Ezagun baten inguruko anekdota (BEA-023/020)

Ezagun baten inguruko anekdota. Langile amorratua, bikarioari esan ziona.

187. Herriko jendea baserrietara lapurretara (BEA-023/021)

Herriko jendea baserrietara joaten zen gereziak, intxaurrak, sagarrak, etab. harrapatzera. Garia ereiten zutenean, lapurtxoriak ibiltzen ziren eta izutzeko egin behar izaten zutena. Gerra garaian moroak egon ziren eskolan; gerra ondorengo urteetan, tropak egon ziren. Txoriak bertan egiten zituzten habiak.

188. Inguruetako txori-klaseak (BEA-023/023)

Txori klase ugari inguruan. Txepetxa, txantxangorria, buztanikara. Zozoak, beleak. Birigarroa.

189. Txoriak harrapatzeko teknikak (BEA-023/024)

Txoriak harrapatzeko teknika desberdinak.

190. Gerra-ostean kaletarrak baserrira lanera janari truke (BEA-023/026)

Gose urteak. Baserrietara joan eta lanaren truke janaria lortzen zuten kaletar askok.

191. Baserriko eginkizunak; irratia ekarri zuteneko anekdota (BEA-023/027)

Indaba bildu berria. Baserriko eginkizunak: artoa aletu, etab. Irratia etxera ekarri zuteneko anekdota.

192. Amak fraideen arropak garbitzen zituen (BEA-023/029)

Amaren inguruko kontuak. Lehenengo garbigailuak. Garbitokiak. Fraideen arropak ere garbitzen zituen amak. Garai batean jendearen arteko harremana beste era batekoa.

193. Baserriko bidea noiz berriztu zuten (BEA-025/004)

Baserrirako bidea noiz berriztu zuten lehenengoz.

194. Auzoa erabat aldatu da: orain zelaiak direnak lehen soroak ziren (BEA-025/006)

Auzoan eman diren aldaketak. Gazte garaian, orain zelai direnak soro ezagutu zituen. Garia eta artoa ereiten ziren batez ere; baita indabak ere. Garia ebaki ondoren, arbia ereiten zen.

195. Ganadua baino, soroak ziren nagusi baserrian (BEA-025/008)

Abere gutxi izaten zituzten bera umea zela. Lur gehiena soroa izaten zen. Abere gehiago izan balituzte, bizimodua errazago ateratzeko aukera izango lukete. Ohitura zaharrari eutsi beharra. Egun guztia soroan ematen zuten. Gauzak aldatuz doaz.

196. Altamira edo Igartza auzoa eta Igartzako errota (BEA-025/009)

Altamira auzoa. Lehenago Igartza auzoa esaten zioten, baina azken aldian beraien baserri inguruan dauden etxe multzoari Altamira auzoa izendatzen hasiak dira. Igartza ingurua; desagertutako baserriak (Usategi; e.a). Igartza errota. Igartzako errotara eta Lazkaora ere eramaten zuten garia.

197. Beasainera esnea saltzera etxerik etxe (BEA-025/011)

Beasainera esne-saltzen etxerik etxe. Bidea egin bitartean astoarekin joaten ziren. Herrian ez zegoen astoak lotzeko tokirik, baina plaza inguruan uzten zituzten. Lazkaotik baserritar asko etortzen ziren Beasainera. Esnearen prezioa. Esnea egunero-egunero banatu behar izaten zuten; jairik ez. Baserriko bizimodua asko aldatu da azken aldian.

198. Beasainera esnea saltzera etxerik etxe (II) (BEA-025/012)

Gehienbat esnea saltzera jaisten ziren herrira. Behiak izaten zituzten; ardirik ez. Soroa lantzen zutenez, behiak ikuiluan izaten zituzten. Soroan lan handia izaten zuten eta erreminta gutxi.

199. Baserrian ume-umetatik hasten zen lanean (BEA-025/013)

Ume-umetatik baserrian lanean. Itulan egitea, aspergarria. Neska eta mutilen arteko desberdintasunak.

200. Abereak zaintzeko lanak: jana, esnea, simaurra... (BEA-025/014)

Abereen inguruan egin beharreko lanak. Segarekin belarra ebagi, baserrira eraman, behiak jetzi, azpiak egin, simaurra atera, etab. Azpiak garo eta orbelarekin egiten zituzten. Garoa eta orbela metatu egiten zituzten.

201. Garoa biltzea ere lan handia izaten zen (BEA-025/015)

Garotara nora joaten ziren. Lan handia izaten zen garoa eta orbela biltzea. Honen inguruko azalpenak. Beasainmendi, herri basoak zeuden.

202. Jai egunetan musikara, Beasaina edo Abarizketa auzora (BEA-025/017)

Jai egunetan zer egiten zuten. Arratsaldean musika egoten zen herrian eta bertara joateko ohitura izaten zuten. Negu aldean giro gehiago egoten zen uda partean baino. Neskatan egiteko aukera ona izaten zen. Mendi-erromeriak; Abarizketan soinua egoten zen. Kaletar eta baserritarren arteko harremana.

203. Ehiza eta galeperrak (BEA-025/018)

Ehiza kontuak asko aldatu dira. Ehiztariaren izatea. Garai batean galeperrak aske ibiltzen ziren. Ehiza kontuak.

204. Urtebetetzeak ospatzeko ohiturak (BEA-025/021)

Urtebetetzeak nola ospatzen zituzten; opariak.

205. Garai bateko bazkari eta janariak baserrian (BEA-025/023)

Elikadura baserrian; eman diren aldaketak.

206. Gerra zibilean, baseritik alde egin behar (BEA-025/025)

Gerra Zibila Beasainen. Herriko plazan kanoia jarri zuten beraien baserri ingurura begira. Baseritik ihes egin behar izan zuten.

207. Gerran frankisten tropak sartu ziren eguna (BEA-025/026)

Gerra garaiko kontuak. Tropak sartu zireneko eguna.

208. Bost herrik osatzen zuten Matxinbenta auzoa (BEA-026/002)

Matxinbenta auzoa bost herrik osatzen zuten: Beasai, Ezkio, Itsaso, Azpeitia eta Beizamak alegia. Gaur egun daudenak baina etxe eta baserri gehiago zeuden auzoan garai hartan. Lau errota ere izan zituen.

209. Eskola garaia (BEA-026/003)

Zazpi urterekin hasten ziren eskolan eta hamalau urte ingururekin, komunio handia egin ostean, amaitzen zuten. 50 ume inguru egoten ziren Matxinbentako eskolan. Eskolaz gain, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten ume gehienek.

210. Hiru taberna zeuden: "erdikoa", "behekoa" eta "eskinana" (BEA-026/004)

Hiru taberna zeuden: "Erdiko ostatu", "Txantxona" eta "Behekoa". Jendez beteta egotea zen ohikoena. Kanpotik ere jende ugari etortzen zen afaltzera: txuletak, oilaskoa, ardikiak eta, batez ere, ezkailuak.

211. Santa Ageda festak (BEA-026/006)

Santa Ageda inguruan ospatzen ziren herriko jaiak. Bezperan hasi eta zortzi egun irauten zutela kontatzen du. Jaietarako txekorra hil eta bizilagunen artean partitzen zen. Egitarauari buruzko azalpenak ematen ditu. Inguru guztietako jendea etortzen zen jaietara.

212. Lasto-zuziaren argitan mezatara (BEA-026/007)

Goizeko zazpiretan izaten zen meza egunero. Ilunpetan joaten ziren oso sarri. Bidea argitzatzeko farolak edo lasto-zuziak erabiltzen zituzten. Haiei buruzko azalpenak ematen ditu.

213. Igandeko giroa (BEA-026/009)

Igandeeetako giroa du hizpide. Meza ostean, gizonetzkoak tabernara joaten ziren. Emakumerik ez zen sartzen tabernara. Igande arratsaldeetan erromeria izaten zen. Frontoian pilota partiduak antolatzen zituzten edo bestela, karta jokoan jarduten zuten. Iluntzerako, bakoitza bere etxera erretiratzen zen oinez.

214. Bideak auzolanean garbitzen genituen (BEA-026/010)

Bideak nahiko txarrak izaten ziren. Lokaztuta egoten ziren sarri. Bideak konpondu eta garbitu egin behar izaten ziren auzolanean urtean behin edo bitan. Gorputz-bidea auzoko bide nagusiari esaten zitzaion.

215. Kortoloia, nola eta zertarako (BEA-026/013)

Behi simaurra eta otea nahastuz egiten da kortoloia deritzon ongarrria. Prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu.

216. Gaztainen aprobetsamenduaz (BEA-026/014)

Iraila eta urria artean hasten ziren garoa ekartzen. Gaztainak eta sagarrak biltzen ere sasoi horretan hasten ziren. Sagasti handiak zeuden eta sagar asko alferrik galtzen zen lurrean. Gaztainak nola jasotzen zituzten kontatzen du. Gaztainei "morkola" (morkotsa) kentzeko propio egindako egurrezko pintza modukoari "matxarda" esaten zaio. Gaztaina hoberenak etxerako edo saltzeko izaten ziren; bigarren klasekoak ardientzako eta txarrenak, "gaztaina xildokie", astoentzat.

217. Garia egiteko lurra prestatzea (BEA-026/015)

Neguko baserriko lanak. San Martin inguruan garia egiteko lurra prestatzen hasten ziren. Sail handiak landu behar izaten zituzten. Goldea eta laiak erabiltzen ziren lurra harrotzeko. Prozesua eta lanabesei buruzko azalpenak ematen ditu.

218. Artoa eta garia: lan-prozesua eta lexikoa (BEA-026/016)

Soroetako lanei buruz ari da hizketan. Udaberrian artoa egiten hasten ziren. Artoa eta garia egiteko lurra nola prestatzen zen azaltzen du. Artoa jorratu, garia moztu... prozesua eta lexikoa.

219. Lur jasotzea (BEA-026/018)

Abuztu amaieran egiten zen urtarriletik aurrera jasoko zuten arbia. Martxo inguruan, arbia amaitutakoan, lurra jasotzea egiten zen auzolanean. Sorbalda gainean garraiatzen zituzten soro barrenetik gora lurrez betetako saskiak. Egurrezko karroekin egingo zuten geroago. Aurrerapen izugarria iruditzen zaio hau.

220. Lurra "manetzea" (BEA-026/019)

"Lurra manetu": artoa eta arbia egin aurretik lurra prestatzea.

221. Idaurra eta txanketea (BEA-026/022)

Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Eguzkipean ihartzeko zabaldu eta jo egiten zuten gero. Idaurraz baba jotzen zuten, aletzeko. Eta baita koltxoiak egiteko artilea ere.

222. Arto-zuritzea eta aletzea (BEA-026/023)

Artoa nahiz baba, aletu egiten da. Hitz horren erabilerari buruzko azalpenak. Aletu aurretik, zuritu egin behar izaten zen artoa. Auzolanean egiten zen arto-zuritzea.

223. Basoak garbi mantendu beharra (BEA-026/025)

Negu partean egiten zen basoetan lana. Garbitu nahiz bota. Egur guztia aprobetxatzen zen orduan. Oso garbi mantentzen zituzten basoak, ez gaur egun bezala.

224. Inguruko basoetan oilagorretan (BEA-026/026)

Ehizarako zaletasun handia izan zuen gaztetan. Kartutxoak erosteko dirurik ez zegoenez, zepoekin harrapatzen zituzten txori txikiak. Etxe inguruan, urte guztian zehar bota zitekeen oilagorra. Gaur egun ia ez da ikusi ere egiten.

225. Inguruko pizti ezberdinak (BEA-026/028)

Azeriak lazoarekin harrapatzen ziren. Erbitan ere jende asko ibiltzen zen. Aspaldian desagertu ziren erbiak hala ere. Inguruan ikus zitezkeen piztia ezberdinak izendatzen ditu. Lepazuriaren narruak diru asko balio zuen lehen. Katagorriaren haragia jateko benetan gozoa dela aitortzen du.

226. Baserriaren egitura; ganbarak (BEA-027/011)

Baserriaren egitura. Ukuilua, ganbarak. Zer gordetzen zen ganbara bakoitzean. Fruta-arbolen inguruko azalpenak.

227. Gaztainak (BEA-027/012)

Garai batean gaztainadi handiak zeuden inguruan. Pinua etorri zenean hura sartu beharra. Gaztainadien gaitza. Gaztainak nola batzen zituzten. Gaztaina klaseak. Sarritan afaltzeko gaztaina egosiak izaten zituzten gaztaina garaian.

228. Jatekoak (BEA-027/013)

Taloa, morokila; babarrunak urdaiarekin. Neskame egon zeneko ibilerak. Jai egun berezietan zer jaten zuten.

229. Txerramak eta txerrikumeak (BEA-027/015)

Txerriaren garrantzia baserrian. Txerrama pareta izaten zuten normalean. Txerrikumeak Ordizian saltzen zituzten plazan.

230. Urte gutxi eskolan (BEA-027/017)

Eskolako kontuak. 10 urterekin eskola amaitu eta neskame joan behar izan zen. Klaseak euskaraz ematen zituzten. Baserriko lanek zuten lehentasuna, beraz, kale egin behar izaten zuten eskolan. Irakaslea Salbatoren egoten zen apopilo.

231. Eskolan euskaraz (BEA-027/018)

Erdara ikastearen inguruko kontuak. Eskolan euskaraz hitz egiten zuten Mariaren garaian.

232. Oinetakoak aldatu beharra (BEA-027/020)

Jai egunetan eskolako frontoian oinetakoak aldatu eta mezara joaten ziren. Gomazko abarkak.

233. 10 urterekin neskame (BEA-027/022)

10 urterekin neskame joan zen Zeraingo baserri batera. Orduko ibilerak. Bertan zegoela, Seguran zeuden mojatara bidaltzen zuten eskolara.

234. Pinu-sartzea (BEA-027/023)

Pinu-sartzearen inguruko azalpenak.

235. Belar lanak; segan, metak... (BEA-027/024)

Baserriko lanak. Belar-ondoa. Belarra nola ebaki, bildu, metatu, eta abar. Belar-meta nola egiten zen.

236. Ganadu-jatekoa (BEA-027/025)

Belarraz gain, abereei arbia eta erremolatxa ere ematen zitzaaien jateko. Ganadu-jatekoa.

237. Gari lanketa (BEA-027/026)

Gariaren inguruko lanak: noiz erein, ebaki, eta abar. Garia erein aurretik lurra ondo landu behar izaten zen. Auzolanean egiten ziren lanak: gari-jotzea... Gari-jotzeko makina.

238. Amak artilea egiten zuen (BEA-029/006)

Amak artilea nola egiten zituen. Alanbrezko makina bat erabiltzen zuen lan hori egiteko.

239. Artilezko galtzerdiak (BEA-029/011)

Kanpoan girorik egiten ez zuen garaian egiten zituen amak galtzerdiak. Galtzerdiak egiteko 4 orratz behar izaten dira.

240. Baserriko elikagaiak, jatorduak (BEA-029/019)

Elikadura baserrian. Jatorduak nolakoak izaten ziren. Jai egunetan zer jaten zuten. Babarrun klaseak.

241. Eskolarako bidea lokaztuta (BEA-029/021)

Eskola kontuak. Auzoko eskola. Bideak lokatzez beteta zeudenean, gona luzeak orratzarekin kateatzen zituzten. Eliz atarira heldutakoan, orratza kendu eta oinetakoak aldatzen zituzten.

242. Bideak auzolanean egiten ziren (BEA-029/022)

1967an egin zen baserrira doan bide berria. Herri-bidea. Auzoko bidea auzolanean egindakoa da. 18 urte bete arte mutikoek ezin izaten zuten auzolanean parte hartu. Bidegintza lanak; eskuz egindako lana. 1960 urtetik aurrera hasi zen Erauskin auzunetik gora bidea egiten.

243. Bidegintza eta baserri-lanak bateratu beharra (BEA-029/023)

Bidegintza lanak noiz egiten ziren; urteko zein sasoiotan.

244. Lokaztutako oinetakoak aldatu beharra (BEA-029/025)

Eskola kontuak. Neguan bidea lokatzez beteta egoten zen; eramaten zituzten arropak. Garbi heltzeko zer egin behar izaten zuten. Janztetxeak. Beasaingo elizaren aldamenean zegoen serora etxean uzten zituzten oinetakoak. Arazoak izaten zituzten, lekua lokatzez betetzen zutela eta.

245. Baserriko lanak zirela eta, herri eskolara berandu (BEA-029/026)

Herriko eskola. Baserriko lanak egin behar izaten zituen eskolara joan aurretik, eta sarritan garaiz iritsi ezin. Zigorrak. Bazkaldu, ezagun batzuen etxean egiten zuten.

246. Eskolara joateko astirik ez (BEA-029/027)

Eskolan zer ikasten zuten. Eskolara gutxitan joaten zen. Baserriko umeak sarritan etxeko lanak egin behar izaten zituzten eta eskolara joateko astirik ez zuten izaten.

247. Dotrina erdaraz eskolan, euskaraz etxean (BEA-029/029)

Eskolan erdaraz ikasten zuten. Dotrina eskolan erdaraz ikasten zuen eta amarekin gauean euskaraz.

248. Bula, garizuman haragia jan ahal izateko (BEA-029/033)

Dotrina ongi ikastearen garrantzia. Bulen inguruko azalpenak.

249. Hiletak (BEA-029/035)

Hiletan nondik norakoak (argizaria, erresponstuak...). Beasaingo elizan etxe bakoitzak bere hilarria izaten zuen. Etxean hildakoren bat egoten zenean jarraitu behar izaten zituzten ohitura zaharrak.

250. Apaiz zorrotzak (prozesioak, sermoiak, dantza...) (BEA-029/037)

Aste Santuan, San Martin egunean, eta abarretan prozesioak egiten ziren. Garizuma garaian fraideak etortzen ziren kanpotik sermoiak botatzera. Sermoi gogorak. Dantzan egitea gaizki ikusia zegoen; kongregaziotik ere botatzen zituzten neskek.

251. Esneketan etxez etxe (BEA-029/039)

Umetan mandoarekin jaisten ziren kalera esne-saltzera. Etxeetara banatzen zuten esnea.

252. Mandoarekin esnea saltzera (BEA-029/040)

Kalera esne-saltzera nola jaisten ziren mandoarekin.

253. Kanpotik etorritakoei "los coreanos" esaten genien (BEA-031/003)

Kanpotik etorritako langileei "los coreanos" esaten zieten. Francoren erregimenaren aldekoak ziren kanpotarrek lanerako erraztasun handiak izaten zituztela kontatzen dute.

254. "Bodegon" sagardotegia (BEA-031/007)

"Bodegon" zeritzon sagardotegian jardun zuten Txominen gurasoek gerraostean. Olaberriatik ekartzen zieten saldu beharreko sagardoa. Lazkaotik ogia estraperloan ekarri izanaz gogoratzen da Txomin.

255. Mojen eskola (BEA-031/010)

Sei urterekin hasi zen mojen eskolan. Bi moja-ikastetxe zeuden; neskentzat eta mutilentzat. Mojekin hasi arren, La Sallera pasatzen ziren mutilak gero. Irakasleen izenak gogoan ditu Txominek.

256. "Habla en cristiano" (BEA-031/014)

"Anilloa": euskaraz hitz egiten zuenari eraztun moduko bat ematen zion irakasleak. Hurrengo entzuten zuenari pasako zion hark eta, amaieran, eraztun hura zuenak jasotzen zuen zigorra.

257. Fabrika handiko eskola (BEA-031/015)

Hamalau urterekin, fraideen eskola utzi eta fabrika handiaren (CAF) eskolara pasatzen ziren. Urte bete egiten zuten eskola hartan eta handik, lanera pasatzen ziren.

258. Fraideek ezarritako zigorrak (BEA-031/016)

Fraideek erabiltzen zituzten zigor desberdinei buruz hitz egiten dute.

259. Matxinbentako eskolan euskaraz (BEA-031/021)

Matxinbentako eskolan ez zieten euskaraz hitz egitea galarazten. Baserritik aparte zegoenez eskola, ezagun baten etxean bazkaltzen zutela kontatzen du. Aste osorako jakia etxetik eramaten zuten ordea.

260. Umetako jolasak (BEA-031/022)

Umetako jolasei buruz ari da. Neska zein mutil, denak batera aritzen ziren.

261. Sagar harrapaketan (BEA-031/023)

Sagarrak harrapatzen ibiltzen ziren umetan. Zaindariak ibiltzen omen ziren baserriak zaintzen. Gereziak lapurtzen harrapatu zitueneko anekdota kontatzen du. Kanpotik etorritakoek baserritarrek baino gose gehiago pasatzen zutenez, azokara saltzera etortzen ziren karroetatik jakiak lapurtzen zituztela kontatzen du.

262. Lapurtutako balekin eskumuturrekoak egiten genituen (BEA-031/024)

Gerra zibilaren sasoian, udaletxearen etxabea gordetzen zituzten armak. Bala eta bolbora lapurtu eta jolasean ibiltzen ziren umetan. Gaiztakeriarekin jabetu zirenean, eskolara joan omen zen guardia euren bila eta labaderoaren ondoan zegoen kartzelan sartu zituzten umeak.

263. Eskola irteeran elkarri harrika (BEA-031/025)

Matxinbentan, eskola irteeran Azpeitiarrak eta Beasaingoak elkarri harrika ibiltzen ziren. Baserriko umeek kaletarrek baino denbora gutxiago iaten zuten gaiztakeriak egiteko.

264. Laian (BEA-031/026)

Garia egin aurretik lurra landu egin behar izaten zen. Goldearen odez, laiak erabiltzen zituzten aldapa zegoen lekuetan. Nola egiten zen kontatzen du.

265. Gari-jotzea (BEA-031/028)

Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Kontxi Etxezarretak ez du garia harriz jotzen ezagutu. Baserriz baserri joaten zen makina bat erabiltzen zuten.

266. Gari uzta (BEA-031/029)

Amaren baserrira joaten zen Txomin uda partean. Garia jotzeko eguzkia behar izaten zen. Igitaiarekin ebakitzen zuten, gero eskuz azaoak egiteko. Prozesuaren inguruko azalpenak ematen ditu Kontxi Etxezarretak.

267. Soroak bedeinkatzea (BEA-031/033)

Udaberrian apaiza baserriz baserri ibiltzen zen soroak bedeinkatuz. Trukean, arrautzak eta oilaskoak ematen zizkieten.

268. Egurrezko gurutzeak soroak babesteko (BEA-031/036)

Gurutze santuaren egunean, egurrezko makilekin gurutzeak egiteko ohitura zegoen. Gurutze haiei bedeinkatutako kandelaren argizari tanta bat bota eta soroetan jartzen ziren haiek babesteko.

269. "Frente de Juventudes"-eko kide izan behar (BEA-032/002)

"Frente de Juventudes"-en inguruko azalpenak ematen ditu. Kirol ekintza desberdinak antolatzen zituzten.

270. Trenbideari arriskurik ez genion ikusten (BEA-032/004)

Umetako jolasak dakartza gogora. Erreka ondoan aritzen ziren jolasean, baita trenbidean ere. Trenak hiru ume harrapatu zitueneko ezbeharrak kontatzen du.

271. Eskolatik CAF-eko laborategira (BEA-032/005)

Hamabost urterekin hasi zen CAF-eko laborategian lanean. Altzairu eta materia desberdinak analizatzea zen bere ardura.

272. CAFeko egitura (BEA-032/006)

Sail desberdinetan zegoen egituratuta CAF lantegia. Lantegi bertaraino iristen zen trenbidea. Trena erabiltzen zuten materialak naiz langileak garraiatzeko.

273. Brontzea lapurtzeko trikimailuak (BEA-032/008)

Langile batzuk brontzea lapurtzeko erabiltzen zituzten trikimailuak dakartza gogora. Fabrikatik ikatza saltzeko lapurtzen zuten langileak ere bazeuden.

274. Hutsetik hasi eta trena amaitu arteko prozesu osoa CAFen (BEA-032/009)

Tren edo bagoi bat egiteko prozesu osoa egiten zen CAF-en. Hutsetik hasi, eta produktua amaitu bitarteko prozesu osoa. 50 urtetan, izugarri aldatu dela aitortzen du. Orduan ere, kanpotik ekartzen zituzten kargu gorenak zituzten langileak.

275. CAFeko laborategiko kontuak (BEA-032/011)

CAFeko laborategian hamaika lagunek egiten zuten lan. Gerora, ordenagailuekin lanean hasi zirenean, urritu egin zen langile kopurua.

Erabiltzen ziren osagai kimiko guztien soberakina, harraskan behera joaten zen. Ingurugiroa ez zen inondik inora kontutan hartzen.

276. Lau auto baino ez zegoen Beasainen (BEA-032/016)

Inguruko herrietatik langile asko etortzen zen Beasainera lanera. Gehienak, bizikletaz. Lau auto baino gehiago ez ziren izango Beasainen.

277. Gasogenezko kamioia (BEA-032/017)

Gerraostean, gasolarik ez zegoenean, gasogenezko kamioiak zeudela gogoratzen du. Egur-ikatzak erabiltzen zuten hauek erregai moduan.

278. Beasain eta Ordiziaren arteko lehia (BEA-032/019)

Probintzia arteko futbol txapelketak antolatzen ziren. Beasaingo taldearen arerio nagusia Villafranca (Ordizia) zen hala ere. Futbol partidua girotzera joaten ziren Ordizia eta Beasaingo banden artean ere bazegoen lehia.

279. Futbolerako hanka mehegiak (BEA-032/020)

Futbol jokalaria oso onak eta ezagunak eman zituen Beasainek. 14 urtetik aurrera ez zuen futboleko jarraitu Txominek. Hanka mehegiak zituen larruzko pilota astunari ostikoak emateko.

280. Zinema (BEA-032/022)

"Acción Católica"-k antolatuta, pelikula emanaldiak egoten ziren apaizen lokalean astean behin. Erreal bat ordaintzen zuten sartzeko. Bakeroen pelikulak, Charlot-enak, La pandilla, eta horrelakoak ditu gogoan. CAF lantegiak ere izan zuen zinema. Helduentzako pelikulak botatzen zituen hirugarren bat ere bazen.

281. Bandak girotutako dantzaldiak debekatuta (BEA-032/024)

Zinemara joateaz gain, igande eta ostegunetan, dantzara joaten ziren. Beasainen ez bezala, Lazkao eta Ataunen galarazita zeuden bandak girotutako dantzaldiak. Apaizek ezarritako debekua izango zen ziurrenik. Txikiteoa ere oso ohikoa zen orduan.

282. Apaiza zelatan beti (BEA-032/026)

Bezperen ostean, gramolako musika jartzen zuen apaizak Matxinbentako plazan gazteek dantza egin zezaten. Inguruko erromerietara joateko ohitura ere bazuten. Apaiza zelatan izaten zuten beti.

283. Inguruko herrietara parrandan (BEA-032/027)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren gaztetan. Gauean, itzultzeko trenik ez zegoenean, autobusez itzultzen ziren. Oso beteta etortzen zen autobusa.

284. Debeekatutako filmak ikusteko Frantziara eta Andorrara joan behar (BEA-032/029)

Txikiteorako ohitura handia zegoen. Txiste berdeak kontatzen ari ziren lagun artean nahiz eta galarazita zegoen. Debeekatutako pelikulak ikusteko Andorra eta Frantziara joaten ziren.

285. Arlo askotan zegoen zentsura (BEA-032/032)

Politika gaien inguruan ere zentsura handia zegoen. Elizak indar handia zuen garai hartan. Kultur ekintza desberdinen antolaketa euren esku zegoen.

286. Beasaingo elkarte gastronomikoak (BEA-032/033)

Ekitaldiak antolatzeko garaian elkarte gastronomiko eta koadrilek zeresan handia zuten. Elkarte desberdinak izendatzen dituzte.

287. Azukrearen ordainetan sagardoa ematen genien mairuei (BEA-032/035)

Gerrako material asko Beasainen geratu zen gerraostean. Mairuak ("moroak") ere bertan geratu ziren hilabete batzuetan. Sendiaren sagardotegira azukrea ekartzen zutela gogoan du Txominek. Ordainetan sagardoa ematen zieten eta, nahiz eta mairuak izan, edan egiten zutela kontatzen du.

288. Uxategi baserriaren historia (BEA-033/003)

Uxategi baserrian jaiotakoa; olagizon baten etxea izandakoa omen zen. Baserrira 1904 inguruan erre egin zen eta Mari Carmenek berrituta ezagutu zuen. Bere garaian argia errotatik eramaten zuten baserrira.

289. Baserri ingurua (BEA-033/004)

Baserrira nolakoa zen. Etxe-atari ederra; soroak; etab. Behe aldean, baserritik gertu, erreka zuten.

290. Uxategi baserriaren egitura (BEA-033/005)

Baserriaren egitura: sukaldea, logelak, jangela, ukuilua, ganbarak...

291. Uxategi baserriko lur-sailak (BEA-033/006)

Soroan artoa eta garia ereiten ziren oraindik, bera umea zela. Uxategi baserriaren soroak non zeuden; toponimia. Uharka. Itulan ibilitakoa aitonaekin. Baserrian izan zituzten abereak. Aitak baserritik kanpo lan egiten zuen; abereak kentzearen inguruan zalantzak.

292. Jolas eta abestiak erdaraz (BEA-033/010)

Umetan etxetik kanpo erdaraz egiten zuten. Jolas izenak edo abestiak erdarazkoak izaten ziren. Eskolan, mojetan ibilitakoa da Mari Carmen. "Formación del Espíritu Nacional".

293. Auzoko lagunak eta jolasak (BEA-033/011)

Neska-mutilak banatuta ibiltzen ziren eskolan. Auzoan hala ere elkarrekin jolasten zuten. Auzoko lagunak. Umetako jolasak: kanikak. kaniketan nola egiten zuten; kanika klase desberdinak (lurrezkoak, harrizkoak, kristalezkoak). Kanikak, harrizkoak edo berunezkoak izaten ziren.

294. Mutilak erreka bainatzera (BEA-033/012)

Mutilak mendira joaten ziren jolastera, habia bila, esaterako. Ormaiztegitik datorren erreka garbiagoa omen zen eta bertan zegoen putzu batera igeri egitera ere joaten ziren.

295. Karmelitetako eskola-urteak (BEA-033/017)

Karmelitetako eskola-urteak. Garai batean euskaraz hitz egitearren zigorra jartzen zuten herriko eskolan (Escuela Nacional); berak ez du horrelakorik ezagutu mojetan. Mojetan erdaraz hitz egiten zuten.

296. Gaztetan, futbolzaleak (BEA-033/021)

Gaztetako ibilerak; kaleko giroa. Futbola. Lazkaoko lur-sailetan zegoen Beasaingo futbol-zelaia. Ordiziako futbol taldearekin izaten ziren harra-marrak. Herriko plazan dantzaldia.

297. Gaztetako ibilerak: futbol zelaitik plazara (BEA-033/022)

Beste kirol batzuetarako zaletasuna. Beasain futbol taldea. Futbol zelaitik plazara, musika banda entzutera eta dantza egitera. Udan eta neguan dantzaldia non egiten zen. Mutiletan-neskatan.

298. Beasain inguruko herrietako jaiak (BEA-033/023)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Ordizia, Lazkao, Alegia, etab. Idiazabalen San Inazio egunean festa egiten zen.

299. Beasain inguruko jaiak eta erromeriak (BEA-033/024)

Usurbe eta Murumendiko erromeriak. San Joanetan Olaberriara; Kizkitza. Orduko ibilerak. Mutil-laguna izanez gero gaizki ikusia zegoen beste mutil batekin dantza egitea.

300. Belaunaldien arteko aldea (BEA-033/025)

Belaunaldi desberdinetan bizitzarekiko ikuspegi desberdina. Esaera zaharra: "Ordubeteko negarra eta sekulako pakea".

301. Aitona-amonak eta haien aurreko ahaideak (BEA-033/026)

Aitona-amonak. Biak beasaindarrak; amona oso kontalaria. Mari Carmenen aitonaren aitak eta aitonak "liñua" (lihoa) egiten zuten.

302. Fede handia (BEA-033/027)

Bizitzarekiko ikuspegia; erlijioaren eragina. Emakume batek ume jaioberria zuenean hainbat sinesmen, ohitura zahar, eta bestelako zaindu behar izaten zituen. Amonaren pasadizo bat. Erlijioa, fedearen garrantzia gizartean.

303. Elizak emakumeei ezarritako hainbat ohitura (erditu eta gero, ezkontzean...) (BEA-033/028)

Ohitura zaharrak, sinesmenak gizartean. Emakume batek ume jaioberria zuenean hainbat sinesmen, ohitura zahar, eta bestelako zaindu behar izaten zituen. Elizatik pasatu gabe ezin zen emakumea teilapetik irten. Bataioa umea jaio eta berehala egiten zen. Eliza-sartzea. Ezkontzetan ere zapi bat ipintzen zitzaien senar-emazteei.

304. Beasaingo elizak (BEA-033/030)

Beasaingo elizak. Loinazko San Martin.

305. Apaizari errespetu handia; berorika (BEA-033/031)

Meza latinez eta sermoia erdaraz. Euskarazko kantak. Apaizei berorika egiten zitzairen. Klean ikusiz gero, eskuan mun eman behar zitzaion. Garizuman, misioak eta musikarik ez. Aste Santuko ohiturak.

306. Hildako emakume eta gizonezkoentzako hil-kanpaiak (BEA-033/032)

Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren gizon eta emakumeentzat. Prozesioak. Mantilaren inguruko kontuak.

307. Fededunak beldurtzen zituen elizak (BEA-033/033)

Misioetara fraide jesuitak etortzen ziren. Ohitura zaharrak; erlijioaren eragina gizartean. Amonaren inguruko pasadizoa.

308. Baraurik joan behar jauna hartzera (BEA-033/034)

Hilean behin, jauna hartzeko, baraurik joan behar izaten ziren eskolara.

309. Beheko suari buruzko azalpenak (BEA-035/004)

Baserria nolakoa zen deskribatzen du. Gaur egungoa baino handiagoa zen jatorrizkoa. Sukaldean, beheko sua eta labea zeuden. Osagai eta tresna desberdinen izenak.

310. Eguneroko jatorduak (BEA-035/006)

Taldea eta esnea gosaltzen zituzten egunero. Bazkaltzeko urdaiarekin egositako babarrunak. Sagar erreak eta gaztainak negu partean ziren ohikoak. Morokilaren orde, ahia jaten zutela kontatzen du. Honi buruzko azalpenak.

311. Ahia nola egiten den (BEA-035/008)

Ahia nola egiten den azaltzen du. Morokila egiteko arto irina erabiltzen da, ahia egiteko berriz ogi irina.

312. Ez zegoen jateko aukera handiegirik (BEA-035/012)

Baserrian txerria urtero hiltzen zenez, ez zen txorizorik falta izaten. Txorizozko ogitartekoa prestatzen omen zion egunero amak aitari. Esnea klean saltzetik lortutako irabaziekin arraina erosten zuten.

313. Gudugarreta hiribildu izan zen (BEA-035/014)

Sei urterekin hasi zen Beasaingo eskolan. Gudugarretan eskola bat egon omen zen nahiz eta Josek ez zuen ezagutu. Izan ere, Gudugarreta auzoa hiribildu izan zen garai batean. Honi esker lortu omen zuen gerora Beasainek hiribildu titulua. Esaera batek dio: "Villa de Gudugarreta, ez eliza eta ez errota"

314. Inguruko soro, erreka eta mendien izenak (BEA-035/019)

Toponimiaz. Lur sail eta soro bakoitzak bere izena du. "Errekatxoa" bezala ezagutzen den erreka bati buruzko aipamena. Eztanda erreka. Inguruko mendi-tontor eta basoak izendatzen ditu.

315. Lixiba egiteko "tiñea" (BEA-035/024)

Arropak garbitzeko "tiñea" (terreina) erabiltzen zutela kontatzen du. Prozesuari buruzko azalpenak. Arropak ur berotan beratzen egoten ziren.

316. Teileriatik zetorren argindarra etxera (BEA-035/025)

Betidanik ezagutu izan du Josek argindarra baserrian. Maria Pilar Urkiolak (emazteak) ordea, gogoan du Gabiriako baserria karburua eta kinkeaz argizatzen zutela. Ormaiztegiko sarreran kokatzen zen teileriak ekoizten zuen energia hidraulikoaz baliatzen ziren baserrian.

317. Teileria (BEA-035/027)

Adreiluak, tximinietarako hodiak eta teilak egiten zituzten teilerian. Gurdiz ekartzen zuten basotik buztina. Oso Kalitate onekoa zela kontatzen du. Hogei lagun inguruk egiten zuten lan bertan; inguruko lantegi garrantzitsuenetarikoa zen.

318. Gariaren inguruko lanak; gari-jotzea (BEA-035/030)

Gariaren inguruko lanei buruzko azalpenak. Auzolanean egiten ziren lan gehienak. Gari-jotzea, eguzki berotan egin beharreko lan gogorra, eskuz egiten zuten. Seme zaharrena erditu aurreko egunean, garia jotzen ibili zela gogoan du Maria Pilarrek.

319. Gariaren inguruko lanak; ebaki, metatu eta garraiatu (BEA-035/031)

Garia ebakitzeko sega baino, igitaia zergatik erabiltzen zen azaltzen dute. Garia lotu eta metetan pilatzen zuten lehor zedin. Lan horri buruzko azalpenak.

320. Ganaduaren elikaduraz (BEA-035/035)

Belarra, alpapa, pagotxa, arbia eta erremolatxa ganaduari emateko egiten zituzten. Pagotxari buruzko azalpenak ematen ditu: onura eta kalteak. Ailubreari ilargiak eragiten omen zion.

321. Gari lastoa eta zahia ganaduari ematen zitzaion (BEA-035/039)

Ganbaran kokatzen zen egurrezko kutxetan godetzen ziren gari aleak. Lastoa eta zahia behiei ematen zitzaion.

322. Anziarberri etxea (BEA-037/003)

Auzolanean eraikitako etxe handi bat zen Anziarberri (jaiotetxea). Sagardotegia eta denda txiki bat zituzten bertan aiton-amonek. Gerra garaian itxi egin behar izan zuten negozioa. Inguruko baserriak izendatzen ditu.

323. Izen euskalduna izatea oztopo (BEA-037/005)

La Sallen egin zituen ikasketak. Izen euskalduna izateak arazo ugari eman zizkiola kontatzen du.

324. "Formación del espíritu Nacional" (BEA-037/007)

Gerraostean hasi zen eskolara joaten; Politikoki oso nahasia izan zen garai batean. Frankismo garaiko abesti guztiak ikasi behar izan zituztela oso gogoan du. Izen euskalduna izateak ere hainbat iseka eta zigor ekarri zizkion.

325. Beasain, azentu-markarik gabe (BEA-037/008)

Ikasle ona izan zen arren, bizi zen giro politiko ezkor hark jarrera alda arazi zion. Akats ortografiko bat zela eta, irakasle bati aurre egin zion behin. Jarrera politikoagatik zigortu zutela pentsatzen du. Egoera okerrera joan zenez, eskola utzi zuen.

326. On Rufino Movellan, irakasle errepublikanoa (BEA-037/010)

Rufino Movellan irakaslea dakar gogora. Errepublikanoa izateagatik lanik gabe utzi zuten. Aitaren lagun mina, etxera etortzen zen sarri tertuliara. Haren seme bati zor dizkiogu plastikozko iltzeen asmaketa.

327. "Maestros sietemesinos" (BEA-037/012)

Rufino Movellan kanpotarra zen izatez. Irakasle aparta zen baina jarrera politikoagatik debekatu zioten eskolak ematea. Alderantziz, Erregimenaren aldeko zirenek, zazpi hilabetetan lor zezaketen irakasle titulua. "Maestros sietemesinos" esaten zitzaizaien hauei.

328. "Los Xey" taldeko Pepito lantzik piztu zion musikarako grina (BEA-037/013)

Etxean utzi zuten soinu txiki batek piztu zion musikarako grina. Pepito lantzi, "Los Xey" musika taldekoa, soinua jotzen ikusi zuenean erabaki zuen berak ere ikasi behar zuela. Beasainen hasi zen arren, Ordizian egin zituen musika ikasketak.

329. Europan zehar eginiko bidaia (BEA-037/017)

Ignazio Loiola medikuarekin, Europan zehar hainbat herrialde ezagutu zituzten. Bizipen haiek dakartza gogora.

330. Musika ez zuen ogibide bihurtu nahi izan (BEA-037/020)

Musikarekin lotutako goi mailako hainbat ikasketa egin zituen Donostian: armonia, organoa, etab. Hala ere, ez zuen inoiz musika ogibide bezala hartu. Ulertzen ez duenak ere, iritzia eman lezake. Ez dago horrekin ados.

331. Ikasketak egiteko ezin kanpora joan (BEA-037/022)

Gerraostean, Francoren diktadura garaian, beldurrak airean bizi ziren etxeakoak. Ikuskapenak jasaten zituzten sarri. Egoera honetan, gurasoak ez ziren bera, seme bakarra izanagatik, ikasketak egitera kanpora bidaltzen ausartu.

332. Easo abesbatzaren sorrera (BEA-037/028)

Donostiako Easo abesbatzako kide izan zen 35 urtez. Gerraostean sortutako abesbatza da. Antza denez, Donostiako Orfeoak gerra itzulera jarrera politikoagatik onartu ez zituen hainbat kidek sortu zuten Easo abesbatza.

333. Txikiteoa bere gazte sasoiari iritsi zen Beasaina (BEA-039/003)

Bizimodu aldaketa; ohitura aldaketak. Txikiteoa, bera gaztea zenean Bizkaitik etorritako ohitura.

334. Eskolara joan aurretik, ganadua zaindu behar (BEA-039/005)

Bizimodua zenbat aldatu den; belaunaldi desberdinak. Umetako kontuak. Goizean goiz esnatu eta eskolara joan aurretik ganadu-zain joaten zen basora. Ama, zazpietarako herrira jaisten zen esne-saltzera. Gogorik ez eskolara joateko.

335. Amak sukaldaritza ikasi zuen eta Donostiara joan zen zerbitzatzera (BEA-039/006)

Amaren inguruko pasadizoak. Etxegarate inguruko baserri batean josten ikasi zuen. Beasaingo Fonda Paco-n sukaldaritza klaseak hartu zituen. Gerora Donostiara joan zen hotel batera lan egitera. Hango kontuak. Beasainen feriara joateko ohitura. Etxeko giroa; elikadura.

336. Zaldizurreta baserria eta ingurua (BEA-039/008)

Zaldizurreta kale-baserria zen. Poliki-poliki lur-sailak galduz joan ziren, askotan saltzera behartuta: Renfe, errepide nazionala, etab. Soroak; toponimia.

337. Gaztainak eta neurtzeko moduak: anega, lakaria, imina... (BEA-039/011)

Gaztaina klaseak. Garai batean, gaztainak erregalatzeko ohitura egoten zen. Neurriak; lexikoa: lakarie, lakari-erdie, imie, anega, anega erdie. Produktuak neurtzeko pisuak beranduagokoak dira.

338. Telleria eta Elozegi ardozaleak (BEA-039/013)

Ardoa zahagitan gordetzen zuten lehenago. Telleria eta Elozegi ziren Beasaingo bi ardozale garrantzitsuenak. Ardoa trenez ekartzen zuten, egurrezko kupeletan. Ardoa nola deskargatzen zuten Estazioan. Alondegia. Mikeleteak. Katea errepidean, herrira sartzen zen jeneroa zaintzeko gunea.

339. Beasaingo egoera ekonomikoa 1940 inguruan (BEA-039/016)

Beasaingo egoera ekonomikoa, lantegiak... hitzuna gaztea zenean. Bernedo 400 langile inguruko lantegia zen. Eibar oso ongi ikusia zegoen. Eibarko euskara.

340. Beasaingo lantegi handienak: Bernedo eta CAF (BEA-039/018)

Beasaingo egoera ekonomikoa; lantegi garrantzitsuak. Bernedo; CAF. Produksioa.

341. Garai bateko lan giroa Beasaingo kaleetan (BEA-039/020)

Garai bateko lan giroa Beasainen: bizikleta ugari, langileak urdinez jantzita... Egoera ekonomikoa; beharakada handia azkenengo urteetan.

342. Trantsizio garaiko lan giroa Beasainen (BEA-039/023)

Trantsizio garaiko giroa: elkartasuna; mobilizazioa... Etorkezunaren inguruko kezka.

343. CAF lantegia eta produkzioa (BEA-039/024)

CAF lantegia. Lan-produkzioa nolakoa zen.

344. CAF lantegian lan egiteko modua (BEA-039/025)

Lan egiteko sistema zeharo aldatu da azkenengo urteotan CAF lantegian.

345. Eskola kontuak: Karmelitak eta La Salle (BEA-039/027)

Eskola kontuak. Haur hezkuntza non ikasi zuen; Karmelitak; La Salle.

346. Beasainen bazeuden gutxienez lau bolatoki (BEA-041/002)

Igartetxan (Igartza etxea) bolatokia ere ba omen zen. Hura deskribatzen du. Trapuzko baloiarekin futboleko jolasten zuten bertan umetan. Taberna giroko jokoa zen bola-jokoa. Laskaibarren, Urbiñarte eta Arteta baserrietan ere bazeuden bolatokiak.

347. Urtariletik martxora aitarekin artzain (BEA-041/008)

Urtariletik martxora bitartean aitari lagundu behar izaten zion artzain lanetan. Apiriletik aurrera itzultzen zen eskolara baina, hiru hilabeteko atzerapenak, kalterako eragiten zion.

348. Artzainen bizimoduaz (BEA-041/010)

Artzainen bizimoduaz ari da. Aita esaterako, astean hiru aldiz etortzen zen etxera. Neguan ardiak etxe ingurura ekartzen zituen; gainontzeko hilabeteak mendian pasatzen zituen.

349. Entresakan (BEA-041/011)

Artzaintzari zegozkion lanak egiteaz gain, entresakan ere jarduten zuen aita gainosoldata ateratzeko. Prozesu osoa deskribatzen du Paulinok

350. Ardiak neguan etxean izatea ez zen batere merkea (BEA-041/012)

Aita bezala, Paulinoren aitona ere artzaina zen. Neguan ardiak etxe ingurura jaisten zituzten arren, gainontzeko artzainek baino bi hilabete gutxiagoz izaten zituzten. Ardiak etxean edukitzeak, inguruko belardiak erabiltzeagatik ordaindu beharra suposatzen zuen. Dirua aurrezteko egiten zuten.

351. Baserrian berriketa gutxi: jateko lan egin behar zen (BEA-041/013)

Oso gazte zirela ikasi zuten baserriari lotutako lanak egiten: segan, baratzean, aizkoran, etab. Haragia eta barazkiak jan ahal izateko, gogo egin behar da lan aurretik.

352. Lan bat beste lan batekin ordaintzen zen (BEA-041/016)

Auzolanean egiten ziren lan gehienak. Baserriek asko laguntzen zioten elkarri

353. Artzain bakoitzak bere ardiak ezagutzen ditu (BEA-041/017)

Nahiz eta artalde desberdinak mendian elkarrekin egon, artzain bakoitzak bereak ezagutzen zituen. Latxa ardia izan da ugariena hemen. Iruñean aldiz txurra ardiekin egin zuen lan. Ardi arraza desberdinei buruzko argibideak ematen ditu.

354. Ardi gazta egiteko prozesua (BEA-041/022)

Gazta egiteko prozesua kontatzen du. Behar beste denbora ematen zion gazta bakoitzari aitak; gainontzeko artzainek baino gehiago tardatzen zuen gazta bat egiten baina emaitza ere hobea zen. Ketu egiten zituen gaztak amaieran.

355. Martxoan hasi eta San Pedro bitartean gaztak egiten (BEA-041/025)

Martxo inguruan hasten zen gazta egiten. San Pedro inguruan amaitzen zen sasoia. Garaia baino lehenago hasten ziren aitaren arkumeak jaiotzen. Martxo amaieran, mendira igo aurretik, arkume gehienak salduta egotea garrantzitsua zen. Garai hartan, urtean behin bakarrik jaiotzen ziren arkumeak.

356. Hildako ugari eragin zituen Gerra Zibilak Beasainen (BEA-041/028)

Tropak Beasainera sartu ziren lehen eguneko tiroak gogoan ditu. Goizeko zazpitan hasi eta arratsaldeko zazpiak bitartean tiroka jardun omen zuten. Ordizian ez bezala, hildako asko egon zen Beasainen.

357. Baserria eta ingurua (BEA-043/001)

Baserrian jaiotakoa. Ingurua asko aldatu da; desagertutako baserrien izenak, errota. Toponimia.

358. Baserriko sukaldea (BEA-043/003)

Baserria nolakoa zen. Sukaldean: beheko sua, tximinia, etab. Amak taloak prestatzen zituen. Taloak nola egiten diren; sekretua eskuetan dago. Irinak ere garrantzi handia du.

359. Garaian garaiko jakiak; zezina eta mondejuak (BEA-043/005)

Zer jaten zuten; garaian garaikoa. Ardiaren haragiarekin, zezina eta "mondejuk" egiten zituzten. Txerri-hiltzea noiz izaten zen. Txerri-puskak auzoko baserritarren artean banatzen zituzten. "Txerri-erregalok".

360. Baserriko elikagaiak (BEA-043/006)

Jatekoa baserrian: porru-patatak; tomatea, eta abar. Entsaladarik edo dilistarik ez zen jaten. Jai egunetan zer jaten zuten. Oilategiak kanpoko aldean izaten zituzten. Gaztainak, intxaurrak, etab.

361. Jakiak; ahia, arto-zopa... (BEA-043/007)

Jatekoen inguruko azalpenak. "Ahie"; "arto-zopea", eta abar.

362. Beasaingo plazara saltzera (BEA-043/008)

Beasaingo plazara joaten ziren barazkiak edo esnea saltzera. Feria, plaza, etab. Astoarekin plazara edo errotara nola joaten ziren azaltzen du.

363. Artzainak neguan baserrietara etortzen ziren (BEA-043/009)

Artzainek negua inguruko baserrietan ematen zuten; ardiak auzoko larreetan izaten zituzten.

364. Mandoak ere ostatu hartzera (BEA-043/010)

Auzoan egin ziren lan handi batzuetan mandoak erabili zituzten materiala garraiatzeko; lana amaitutakoan beraien baserriko ukuiluan gordetzen zituzten mandoak.

365. Laia, goldea, ereintza eta belar-ondoa (BEA-043/011)

Baserriko bizimodua; lanak asko aldatu dira. Laian nola egiten zuten. Soro-sail handiak. Zer ereiten zuten. Belar-ondoa nola egiten zen.

366. Gari lanketa (BEA-043/012)

Gariaren inguruko lanen azalpenak: noiz erein, ebaki, gari-balak egin, garia metatu, garia jo; etab. Makinak iritsi ziren arte, gari-jotzea harri baten kontra egiten zen ganbaran.

367. Auzolanaren inguruko azalpenak (BEA-043/013)

Auzolana nola antolatzen zen. Garai batean baserri batean gari-jotzea zegoela adierazi eta auzokoei deitzeko, izarak jartzen zituzten etxe ondoan. Garia jotzeko makinak azaldu zirenean, Bitorianaren aitona bat erosi eta auzo guztian jarduten zuen gari-jotzen.

368. Gari-garbitzea (BEA-043/014)

Gari-garbitzea. Aleak kutxatan gordetzen zituzten. Zein errotatara eramaten zuten garia. Errotariaren lana. Gariak izugarritzko lana izaten zuen; lan zikina gainera.

369. Arto zuriketaren unea (BEA-043/015)

Artoaren inguruko lanen azalpena. Arto-zuriketa gauez izaten zen; familia elkartu eta kontu-kontari ibiltzen ziren, edo arrosarioa errezatzen zuten. Etxeko giroa.

370. Meza kontuak (BEA-043/016)

Jai egunetan goizean goiz joan behar izaten ziren mezetara. Elizatik itzulitakoan, behiei jaten emateko "ganajatekoa" egin behar izaten zuten. Gurasoek eta adineko jendeak meza nagusira joateko ohitura izaten zuten. Emakumeak taldean bueltatzen ziren baserrira. Bazkalostean, bezperetara joaten ziren gazteak. Elizara, Arriaran auzora joaten ziren. Bezperak amaitu ondoren erromeriaren batera joateko denbora izaten zuten.

371. Eskolako kontuak; irakaslea, ikasgaiak... (BEA-043/017)

Arriarango eskolara joan zen 14 urtera arte. Auzo desberdinetako umeak elkartzeko ziren bertan. Irakaslea, donostiarra. Zer ikasten zuten. Dotrina Arriarango abadearekin ikasten zuten. Klaseak erdaraz izaten ziren baina beraien artean euskaraz hitz egin zezaketen.

372. Eskola utzi eta neskak neskame joaten ziren (BEA-043/018)

Eskola amaitu eta neska-mutilen irteera zein izaten zen. Neska asko neskame joaten ziren.

373. Beasain inguruko erromerietako kontuak (BEA-043/020)

Salbatore; Arriaran; Kizkitzako jaiak. Soinujolea egoten zen eta jende ugari batzen zen erromerian. Inguruko herrietatik jendea gerturatzeko: Urrestilla, Zumarraga, etab. "Jazbana". Neskatan-mutiletan; dantza kontuak. Oinez joaten ziren leku guztietara. Erromerietara joateko janzten zituzten arropak. "Gutxikin gustora". Baserriko lanak aurreratzen zituzten dantzara joateko.

374. Soinujolearekin dantzan (BEA-043/021)

Mendi-erromeriak jai egunetan. Neguko igandeetan musika egoten zen Beasainen. Neskatan-mutiletan. Mutil taldeen artean sarritan liskarrak edo borrokak izaten ziren. Murumendin ere sarritan egoten zen soinu-joleren bat. Garingo osaba batek ahoko soinua jotzen zuen. Haren inguruko kontuak.

375. Dantza soltea bai; lotua debekatuta (BEA-043/023)

Erlijioaren eragina gizartean. Dantza soltea egitea ondo ikusia zegoen, baina dantza lotua bekatua zen. Abadearen sermoiak. Kongregazioak.

376. Jaunartze txikia eta handia (BEA-043/024)

Jaunartzea Arriaranen egin zuen. Jaunartze txikia eta handia. Ospakizunak.

377. Aldaketak erlijioan eta gizartean (BEA-043/025)

Gizartea nola aldatu den. Gurasoen garaitik beraien sasoiara ere aldaketa ugari.

378. Murumendiko dama (BEA-043/026)

Belaunaldien arteko harremanak. Antzinako ipuinak. Murumendiko dama. Dama-zuloa.

379. Auzoa asko aldatu da, urtegia dela-eta (BEA-045/002)

Arriarango Kortabehekoa baserrian jaiotakoak. Ingurua nola aldatu den; urtegia. Auzoan baserri bakarra geratu zen urpean.

380. Herrirako bidea lokatzez betea (BEA-045/003)

Umetako jolasak. Baserriko bizimodua umetan; jolasa eta lana. Ordu erdi behar izaten zuten eskolara edo elizatik etxera joateko. Lokatzez betetako bideak ziren. Nobenak; hileko lehendabiziko ostiralak, etab. Kongregazioak: "Mariaren alabak". Umetako ibilerak.

381. Baserriko koltxoiak (BEA-045/009)

Artilezko koltxoiak baserrian; nola garbitzen ziren. Arto-malutazko koltxoiak, artoaren zorroarekin, "txorrokarekin", egindakoak. Umeen sehasketan ere arto-zorroak erabiltzen ziren antzina.

382. Umetako ibilerak (BEA-045/011)

Txori-habia bila ibiltzen ziren umetan. Etxeko giroa; umetako ibilerak, okerkeriak. Gaitzizenak.

383. Ume "matxardak" eta ume "melengeak" (BEA-045/012)

"Matxarda" esaten zioten gaztaina-morkotsak biltzeko erabiltzen zuten egur zatiari, eta ume bihurriari ere hala esaten zitzaion. "Melengea", berriz, erdi-gaixoa zenari, ahula zenari.

384. Eskolan gaztelaniaz egin behar (BEA-045/016)

Umetako jolasak. Eskola garaiko kontuak. Jolas-orduan, "kozinaketan" ibiltzen ziren. Irakaslea euskaldun jatorra zen arren, erdaraz hitz egitera behartzen zituen umeak, eta beraiek zer esaten zuten jakin ez. Anekdotak barregarria. Gerra osteko eskolak, hezkuntza; Cara al Sol, errezoak...

385. Arriaran auzoko eskola, oso leku atsegina (BEA-045/017)

Arriaran auzoko eskola nolakoa zen azaltzen dute zehaztasun handiz. Neska-mutilak elkarrekin eskolan; adin desberdinetako umeak guztiak batera. Eskola zoragarria zuten: liburutegia, sukaldea... Zer ikasi zuten; nola esertzen ziren; eskolan zeuden gauzak... Eskolak inguruan zituen baratzea, pilotalekua eta beste hainbat gauza.

386. Mendi batetik bestera gauzak garraiatzeko kableak erabiltzen ziren (BEA-045/018)

Eskolara joateko biderik ez. Eskola egiteko materialak mendi batetik bestera eramaten zituzten kableen bidez. Garai hartan kable bidez egitea arrunta zen.

387. Tabakoa euren kontsumorako (BEA-045/020)

Tabakoa ere ereiten zuten etxean. Aitonak pipa egiten zuen, aitak, berriz, zigarroa. Aitak gutxiago erretzen zuen, eta tabakoa aitonari ematen zion.

388. Aletzean, aitaren kontakizunak; lanak amaitzean kantuan (BEA-045/023)

Familian elkartzen zirenean, garai bateko kontuak kontatzen zituen aitak batez ere, morroi ibili zenekoak. Aletzera elkartzen zirenean kontatzen zituen. Baserriko lanak ondo banatzen zituzten. Bakoitzari egokitutako lana amaitzean, kantari hasten ziren, bertsoak, elizako kantak...

389. Aisialdiko kontuak (BEA-045/024)

Josten, bordatzen eta horrelako lanetan ibiltzen ziren logeletan. Horretan aritzen zirenean, adreiluak-eta labean berotu eta oinetan jartzen zituzten. Txori-zepoak jartzen ere aritzen ziren, eta sabaiko (ganbarako) leihotik txoria noiz erori zain egoten ziren.

390. Baserrian geratu behar zirenean, neska eta mutilen arteko alderik ez (BEA-045/025)

Anai-arrebak zazpi neska eta bi mutil ziren. Etxean norbaitek lanean geratu behar bazuen, txandakatu egiten ziren, ez zitzaielako gurasoei batere gustatzen eskolak galtzea. Alde horretatik, beraz, ez zuten neska eta mutilen arteko diferentziarik egiten. Asteazkenetan aita beti Ordiziara joaten zen.

391. Auzoko lehen irratia (BEA-045/026)

Aurreneko irratia beraien osabak jarri zuen auzoan. Osabarenera joaten ziren anai-arrebak, eta irratiak nola funtzionatzen zuen ondo jakin gabe, Legorretarekin konektatzeko eskatzen zioten, bertako jaiak baitziren. Osabak albisteak entzuten zituen, baina ezer gutxi ulertuko zuen ingelesez baitziren.

392. Don Candido apaiza, dotrina irakasle (BEA-045/027)

Don Candido apaizak irakasten zien dotrina. Askotan Ormaiztegira joaten zen, bertan artziprestea zegoelako. Haurrei ez zitzaien batere gustatzen Don Candidoren eskoletara joatea oso zorrotza zelako, beraz, Don Candido oraindik Ormaiztegitik iritsi ez zenetan haurrek alde egiten zuten.

393. Don Candido apaizaren zigorrak (BEA-045/031)

Don Candido apaizaren zigorrak. Belarrietatik tira egiteko ohitura zuen. Erregela ere erabiltzen zuen eskuan jotzeko. Ipuinak kontatzen zituen; berak irakurtzen zuen aurrena, eta laburpena egiteko eskatzen zuen. Ondoen egiten zuenari estampa ematen zion.

394. Garizuma; debekuak eta txartela (BEA-045/033)

Garizuman haragirik ezin zuten jan, baina haiei ez zitzaien batere inporta, izan ere, urte guztian zehar urdaia izaten zuten eta haren zaporeaz aspertzen ziren. Garizuman dotrina bazenekiela adierazten zuen txartela ezagutu zuten, baina gazte-gazte zirela. Txartela lortu behar zen, eta estutasunak pasatzen zituzten. Jende askok ez zuen dotrina ikasteko asti edo aukera gehiegirik izaten, eta estutasunak pasatzen zituzten txartela lortzeko.

395. Garizuma garaian egindako txirulak ezin jo (BEA-045/034)

Garizuman dantza debekaturik zegoen. Txirulak egiten zituzten, eta txirula haiek ea ondo zebiltzan probatu ahal izateko pazko eguna iristeko irrikatan egoten ziren, garizuma pasa bitartean ezin baitzen musikarik jo.

396. Baserritar askok baserriko lanaz gain, lantegikoa ere bai (BEA-047/003)

Aitak fabrika lan egin zuen. Gaztetan basomutil ibilitakoa. Baserritar askok egiten zuten lan lantegietan. Baserrian eta kalean lanean. Lehenagoko bizimodua.

397. Baserritarraren laneguna (BEA-047/004)

Egun normal batean zer egiten zuten. Belarra edo garia moztu behar izaten zirenean, goizeko 5etan esnatzen ziren. Idiak uztarrian lotu eta lanera.

398. Izoztearen ondorioz garia egiteari utzi (BEA-047/005)

Garia noiz arte erein zuten baserriko soroetan. 1955ean izozte ikaragarri bat egon zen eta orduantxe bukatu ziren bertako gari-lanak. "Burgoi-txorie" asko urritu zen garia ereiteari utzi ziotenean.

399. Gariaren lekuan, ganadu jana (BEA-047/006)

Txahalak hazten zituzten; dirua balio zuen. Gaurko egoera oso desberdina da. Baserritik bizimodua ateratzea ezinezkoa da.

400. Gari eta arta-txoriak (BEA-047/007)

Gari-lanak eta artoa amaitu zirenetik txori gutxiago dago inguruan. Toponimia. Karobi-etxe bat zegoen bide ondoan. Arta-txoriak oso ugariak ziren.

401. Burgoi-txoriei gertatutakoa (BEA-047/008)

Soldadu joan zen urteko abuztuan egundoko harria bota zuen eta burgoi-txoriei gertatu omen zitzaiena kontatzen du.

402. Txoriak lumatzen (BEA-047/009)

Elkarteetan txoriak lumatzen ibilitako gizonak.

403. Txoria prestatzeko era (BEA-047/010)

Txori txikiak nola prestatzen ziren jateko.

404. Ereiten zituzten produktuak (BEA-047/012)

Azaro inguruan garia ereiten zuten; garia ebaki ondoren, arbia sartu eta azkenik lur-sail berean artoa eta babarruna sartzan zituzten, biak nahastuta. Arto-saila nola prestatzen zuten. Baratzean zer edukitzen zuten.

405. Txirrindularia estraperloan (BEA-047/016)

Pataten inguruko kontuak. Lagun baten anekdota kontatzen du; Nafarroatik patata ekartzen zuen bizikletan. Txirrindulari lasterketetan ere ibiltzen zen.

406. Arabako patata eta bertakoa (BEA-047/017)

Nafarroako patata eta bertakoa. Arabakoa onena dela esaten dute, batzuetan lur-gustua ere izaten duen arren. Dena den San Juan inguruan bertakoa ateratzen dutenean, jendeak nahiago izaten du. Patata klaseak.

407. Sagardoa auzoan (BEA-047/018)

Sagastiak; sagar-klaseak. Amonak zioenez, zorrak sagarrak salduz ordaindu zituzten. Sagardogileei saltzen zitzaien sagarra; inguruko sagardogileak. Dolare bat gertu zuten; bertan ibiltzen ziren sagardoa egiten. Dolareak non zeuden; baserri izenak.

408. Eliza kontuak (BEA-047/020)

Ingurua asko aldatu da. Baserriko soroak nondik-nora zabaltzen ziren. Beheko elizara ilunpean joaten ziren; handik behera argi egoten zen. San Martineko eliza. D. Florencio Axpe apaiza. Lazkaoko beneditarrak joaten ziren hil-mezak isilpean ematera. Loinazko eliza. Mezen inguruko kontuak San Martin eta Loinatzen.

409. Txerriak, behiak baino balio handiagoa (BEA-047/022)

Abereak. Errazionamendu garaian, behi bat gutxiago izan zuten. Txerria edukitzea hobe zen orduan: urdaia, koipea, etab. ateratzen ziren. Oiloak aske ibiltzen ziren. Garia eskuz jotzeko etxe aurrean zabaltzen zuten. Ardirik ez dute izan etxean. Garin auzoan ardi asko egoten ziren. Aita bertakoa zen.

410. Batetik bestera joateko, oinez (BEA-047/026)

Igartzako errota. Umetan bera izaten zen garia eraman eta irina ekartzen zuena karretarekin. Astoaren garrantzia baserrian; amonaren inguruko kontuak. Garai batean Itsasotik Bergarara eramaten omen zituen amonak (neska gaztea zela) sagarrak oinez. Oinez ibiltzen ziren batera eta bestera. Txekorrek tratulariei erosi eta harategira saltzen zituzten.

411. Karobian lanean (BEA-047/027)

Baserri inguruan duten karobia. Karea nola egiten zen. Fundizioetan zerbaitetarako erabiltzen zuten eta bertara saltzen zen. Etxeak zuritzeko ere erabiltzen zen. Karobia nolakoa den; nondik ateratzen zen karea; etab. Goiko aldetik egurra, ikatza eta harriarekin kargatzen zuten. Hasieran, berotu arte harri gutxi; berotutakoan, harri gehiago eta egur gutxiago. Beste karobi batzuk. Toponimia. Harria Ataungo harrobitik eramaten zuten. Harria nola txikitzen zuten. San Martin erreka; presa.

412. Aitona ikazkin (BEA-047/028)

Ikazkintzaren inguruko kontuak. Aita, lehenengo morroi eta ondoren basoan ibilitakoa zen. Basomutil lanak: egurra bota, ikatza egin; etab. Iratin ikazkin. Zer jaten zuten basoan zeudenean.

413. Apustuak egiteko zaletasunik ez inguruan (BEA-047/029)

Aizkolari edo harri-jasotzailerik ez zegoen Beasainen. Urretxu; Santa Luzian jardundako mutilak. Bolari onak. Ahari-probak; idi-probak. Toponimia.

414. Zenbait auzotan dantza-lotua debekatuta (BEA-047/030)

Soinujole ezagun bat, Manuel Zaldua. Inguruko herrietako soinujoleak. Dantza-lotua; askea. Garizuman ez zuten soinurik jotzen. Matxinbenta, Garin, Arriaran, Astigarreta eta Mandubiko erromeriak. Auzoetako festak.

415. Inguruko feriak: Zumarraga, Ordizia, Tolosa (BEA-047/031)

Zumarragara, Ordiziara edo Tolosara joaten ziren ferietara.

416. Inguruko herriekin zuten harremana (BEA-047/032)

Inguruko zein herrirekin izaten zuten hartu-eman gehiago: Lazkao, Ordizia, eta abar.

417. Soldadutzan Ceutan (BEA-047/033)

Soldadutzatik itzuli ondoren Lazkaon hasi zen lanean. Soldadu Ceutan egon zen 14 hilabetez. Zaldibiako lagun batek ez zekien erdaraz baina primeran pasatu omen zuen. Orduko kontuak.

418. Beasain inguruko bertsolaritza (BEA-047/034)

Bertsolariak inguruan. Lazkao Txiki eta Arriarango baserritar baten inguruko pasadizoa.

419. Gaztainaren garrantzia (BEA-047/035)

Herri-baso gutxi; bakoitzak bere gaztainadiak izaten zituen. Urrian hasten zen gaztainak biltzeko garaia. Goiz-gaztainak. Nola biltzen zituzten; baserritar batzuk herrira eramaten zituzten saltzera. Etxerako ere gordetzen ziren; batzuetan bildotsei ere ematen zitzaizkien. Egunero gaztainak jan eta sagardoa hartzen zuten.

420. Ereindako jeneroa (BEA-047/036)

Garotara Olaberri aldera joaten ziren. Nola batzen zuten; garo eta belar metak. Sagarrak mendi-etxeetan hobeto kontserbatzen direla diote. Garia, artoa edo babarruna ereiten zuten soroetan.

421. Pagolizarra, inausi gabeko pagoa (BEA-047/037)

Pagolizarrak, zuzenean gora doan pagoa, inausi gabekoa. Pagolizarrekin ikatza egiten zen. Lana arintzearren erabiltzen zen, izan ere, garraiatzen errazagoa zen. Zumarragako Orbegozok ikatz pila behar izaten zuen.

422. Zuhaitz izenak I (BEA-047/039)

Zuhaitz izenen zerrenda egiten du: haritza, pagoa, gaztainondoa, lizarra, urkia, hurritza, astigarra, haltza, akazia, zumarra, makala, lertxuna... Sastraka ugari (sahatsa, zuhandorra, arantza beltza, arantza zuria).

423. Fruitu izenak (BEA-047/040)

Fruitu izenak: albertxikoak, pikuak, marrubiak, gereziak, txermenak,

424. Zuhaitz izenak II (BEA-047/041)

Zuhaitz izenak: ametza, elorria, erramua, gorostia, intsusa, isatsa, txilarra, mihura, otea, karraskila...

425. Belar txarrak (BEA-047/042)

Belar txarrak: almitze, barrabasa, amukoa, muitea.

426. Abereentzako belarra (BEA-047/043)

Abereentzako belarra: pagotxa, alpapa, erremolatxa, frantziberdea... Belarra nola ereiten zen.

427. Baserriko tresnak (BEA-047/044)

Baserriko tresnak: goldea, zazpiortza, laiotza, area, alperra, laia, kirrimarroa...

428. Garai bateko bideak (BEA-047/048)

Irun-Madril bidea zegoen lehen Migelen baserri aurrean. Garai bateko errepideei buruz hitz egiten du.

429. Erreka garbi zegoeneko arrantza (BEA-047/049)

Oria ibaia garbi zegoela ezagutu zuen. Bertan amuarrainak ezagutu zituen. Amuarrainak harrapatzen ziren. Errekan aurkitzen ziren arrainak: amuarrainak, barboak eta aingira bat edo beste. Butroia ekartzen omen zuen Migelen aitonak.

430. Aitonaren belaunaldikoak Nafarroa eta Arabara garia ebakitzera (BEA-047/051)

Aitonaren belaunaldikoak Nafarroa eta Araba aldera joaten omen ziren garia ebakitzera hemengo lanak amaitutakoan.

431. Gurasoei lagundu behar sagardotegian (BEA-048/002)

Gurasoek sagardotegi bat hartu zuten. Sagardoa Olaberriko Berasategik egiten zuen eta handik ekartzen zuten. Gero, amak jateko zerbait prestatzen zuen. Beraiek sagardotegian lagundu behar gazte-gaztetatik. Sagardo garaian bakarrik irekitzen zuten hasieran, baina gero urte osoan hasi ziren. Orduan, ardoa ere izaten zuten. Ogi zuririk ez zegoen gerraostean eta ezkutuan Lazkaora joan behar izaten ziren ogi bila.

432. Inguruko gazte asko joaten zen sagardotegira (BEA-048/005)

Inguruetako gazte asko joaten ziren sagardotegira, bokadiloa jatera. Txistorra edo tortilla egoten zen jateko, edo bestela sardina zaharrak. Bazegoen arabar kuadrilla bat igandero futbol partida ikusi eta gero sagardotegira joaten zena merienda jan eta kartetan egitera.

433. Olaberritik ekartzen zuten sagardoa (BEA-048/008)

Felipek uste du gaur egungo sagardoak kalitate hobea duela, tresna hobek daudelako egiteko ere. Olaberritik ekartzen zuten beraiek sagardoa, kupel handi batean. Gero bonba batekin sartzen zen goitik behera, sagardotegira. Aitak urtero kupelak garbitu behar izaten zituen. Kristalezko depositu antzeko bat ere izaten zen; hura garbitzeko barrura sartu behar. Lehenbizi pospolo bat pizten zen barruan, barrura sar zitekeen ala ez jakiteko.

434. Korrika lasterketetan parte hartzen zuen (BEA-048/009)

Feliperi korrika egitea eta futboleko aritza gustatzen zitzaion, baina gurasoek ez zioten uzten. Korrika lasterketa asko izaten ziren orduan eta berak ere parte hartzen zuen.

435. Futboleko umetatik (BEA-048/010)

Futboleko umetatik hasi zen. Lehenbizi auzoetako taldeetan, era informalean, fitxa gabe (Usurben, Avenida-n...). Gero Loinazen; baina horretarako federatu egin behar zen eta fitxa egin.

436. Futboleko non jokatzeko zuten (BEA-048/011)

Futboleko plazan bertan edo eliza atzean aritzen ziren. Txapelketak jokatzera Senperera joaten ziren.

437. Neurri desberdinetako botekin futbolean (BEA-048/012)

Beraiek futbolean aritzen zirenean, askotan futboleko botak neurri desberdinetakoak erabiltzen zituzten, eta galtzerdiak, berriz, zulatuta. Frontoian pilotan ibiltzen zirenean, abarketak kendu egiten zituzten ez apurtzeko; bestela etxean errieta.

438. Leontxo Lasa futbol jokalaria beasaindarra (BEA-048/015)

Loinaz futbol taldean jokatu ostean pare bat urte egin zituen Umore-ona taldean. Handik, Beasain taldera pasa zen, Leontxo Lasak alde egin zuenean. Fitxa ateratzeko, mediku-azterketa egitera joan ziren Antonio Zufiaurre, Leontxo Lasa eta hirurak. Leontxok ez omen zuen pasa azterketa, eta Andaluziara joan zen. Gero urte askoan jarraitu zuen futbolean; Malagan eta Betisen ere jokatu zuen.

439. Beasain taldean 20 urterekin hasi eta 24rekin utzi (BEA-048/017)

20 urterekin hasi zen Beasain taldean jokatzen eta 24 urterekin utzi egin zuen. Ebakuntza bat egin behar izan zioten eta futbolean ez zuenez aurrera egiteko aukerarik ikusten, uztea erabaki zuen.

440. Lantegitik irten, bazkaldu, futbolean jokatu eta berriz lantegira (BEA-048/018)

Beasainen futbolerako zaletasun handia zegoen. Baita jokatzeke ere. Lantegitik 12etan irten, bazkaldu eta plazara joaten ziren futbolean aritzera. Gero korrika lantegira, ordu bietarako iristeko. Lazkaotik ere Beasainera etortzen zen jendea futbolean jokatzerako.

441. Lehen eta orain ilusio desberdina futbolerako (BEA-048/019)

Bera umetatik hasi zen futbolean eta beti izaten zen ekipo handiagoetan jokatzeke ilusioa, baina gaur egun "egarria" handiagoa dela uste du. Lehen inguruetan ere ez zegoen talde asko. Gaur egun futbol talde ugari daude. Zeharo desberdina da egoera. Bera Erreal zalea da, baina baita Athletic zalea ere. Orduko futbola nola bizi zuten.

442. Garai bateko baloiak (BEA-048/020)

Kalean jokatzen zuten futbolean, kotxe gutxi ibiltzen zen eta. Nolako baloiak erabiltzen zituzten.

443. Futbol-zelaietan bildutako lokatzak nola kentzen zituzten (BEA-048/022)

Lehenengo futbol-zelaietako baldintzak. Lokatza egoten zen. Senperen ur hotzetan garbitzen ziren partidua bukatutakoan, aska handi batzuetan. Ordizian, berriz, egoera txarreko dutxa bat omen zegoen. Andoainen Oria ibaira joaten omen ziren lokatza kentzera. Partidua jokatu ostean lehenengo aldiz dutxa beroa Legazpiko futbol zelaietan hartu omen zuen. Hurrena, Tolosan.

444. Beasain taldean arropak eta oinetakoak garbitu beharrik ez (BEA-048/023)

Beasain taldean jokatzeko hasi zenean neurriko botak ematen zizkieten, eta, gainera, eurak arduratzen ziren botak garbitzeaz. Pertsona bat egoten zen arropak garbitu eta dena prestatzeko.

445. Beasain vs. Ordizia pikea futbolean (BEA-048/025)

Beasain eta Ordiziaren arteko pikea oso gogorra izaten zen futbol-zelaian. Behin partidu baten ostean epailea ihesi zihoala harrikada batekin jo zuten eta trenbidean geratu omen zen. Handik kanpora lagunak izan arren, zelaian tentsioak sortzen ziren.

446. Taldearen antolaketa lehenago; entrenamendua asten behin (BEA-048/026)

Futbol taldearen antolaketa nolakoa izaten zen lehenago: atezaina, bi atzelari, hiru erdilari eta bost aurrelari. Gerora hasi ziren sistemak aldatzen. Berak ezkerretik jokatzeko zuen. Lehengo futbola oraingoa baino gogorragoa zen, futbol zelaia ere halakoak zirelako. Astean behin egiten zuten entrenamendua lantegitik aterata. Lanean galdutako orduak ordaindu egiten zizkieten.

447. Futbola utzi eta gero taldeko diruzain (BEA-048/027)

1955 inguruan utzi zuen berak futbola. Futboleko gehien kobratu zuenean, irabazteagatik 25 ogerleko ordaintzen zizkieten, berdintzeagatik 20 eta galduz gero 15. Gero, Joanito Aranburu jarri zen lehendakari eta bera diruzain gisa sartu zen. Ondorengo urteetan izugarria izan omen zen soldatek eta eskakizunek nola egin zuten gora.

448. Inguruetako gazteak Beasainera igandetan (BEA-048/030)

Inguru guztietatik etortzen ziren gazteak Beasainera plazara, zinera edo dantzara. Ordiziakoei ez zitzaion gustatzen hori. Ordiziako neskek ere Beasainera etortzen omen ziren.

449. Ordizian festetan antolatu zuten lasterketa (BEA-048/031)

Ordizian lasterketa bat antolatu omen zuten behin festetan. sei-zazpi lagun hasi ziren prestatzen lasterketarako eta entrenatzeko Altamirara joaten ziren korrika. Irteeran Ordiziakoak lehenbiziko lerroan jarri ziren, eta Beasaingoak atzean. Hala ere, lehenengo lau sailkatuak Beasaingoak izan omen ziren.

450. Bere lehenbiziko lasterketa Beasaingo Porterian (BEA-048/032)

Inguruan korrika lasterketak antolatzen ziren, festetan batez ere. Lehenbiziko aldiz Porterian atera zen korrika, gurasoen ezkutuan. Anaiak bizikletaz eraman zuen bide-zati baten, lagundu asmoz. Gero norbaitek denuntzia sartu eta saria kendu zioten.

451. Errementari baserrian jaioa (BEA-049/001)

Xanti Enparantza Leunda (1946-02-07), Beasainen bertan jaiotakoa, Errementari izeneko baserrian. Garai batean aitona eta aita errementari eta

perratzaile lanetan aritutakoak. Baserriko tresnak ere egiten zituzten. 1965 inguruan utzi zuen aitak.

452. Beasaingo Errementari baserria (BEA-049/003)

Duela gutxira arte "Ermentari" (Errementari) baserrian bizi izan dira.

453. Errementari baserri ingurua 1960 aldean (BEA-049/004)

Beasainen, eskola nazionaletan ibilitakoa. Beraien baserria herrigunetik nahiko urruti geratzen zen. Soro ugari, zerrategia, etab. Ingurua nolakoa zen: baserriak, errota, dolarea, etab. Baserri izenak. Oria ibaia.

454. Igartzako presa eta Oria ibaia (BEA-049/005)

Oria ibaia. Lehenago gaur baino euri gehiago egiten zuen eta behin baino gehiagotan uholdeak izan dituzte. Igartzako presa. Ibaia beti oso zikina ezagutu du.

455. Ferratzaile lanak; aita eta aitona errementariak (BEA-049/006)

Ferratze lanak. Behiak, idiak, astoak, mandoak eta beste animalia batzuk ferratzen zituzten. Aitari nola laguntzen zioten. Lanaren inguruko azalpen zehatzak.

456. Ferratzaileen lanak (BEA-049/007)

Ferratzaileak lan asko izaten zuen. Larunbat eta igandetan bizikletaz joaten zen baserrietara lan txikiagoak egitera; Mandubira, Garinera, eta abar.

457. Ferratzaileen lanak eta erremintak (BEA-049/008)

Abereak ferratzeko erabiltzen ziren tresnak: "pujamanta", esate baterako.

458. Abereak ferratzearen inguruko kontuak (BEA-049/009)

Abereak piferratzearen inguruko kontuak.

459. Beasaingo gazteen artean futbolak indar handia zeukan (1950-1960 inguruan) (BEA-049/011)

Nola hasi zen futboleant jokatzen. Edozein tokitan ibiltzen ziren futboleant; bideant, eskolan; geltoki ondoan, eta abar. Gazteek, futbolerako pilotarako baino zaletasun handiagoa zuten. Txapelketak antolatzen ziren: kaleen artekoak, esate baterako. Loinazko futbol zelaia. Beasainen betidanik ezagutu du futbolerako zaletasun handia.

460. Lagunarteko futbol txapelketak (BEA-049/012)

Futboleant lagunartean egin ohi zuten gehienetan, San Martingo plazan, besteak beste; gero hasi ziren lagunarteko txapelketak luistarrek antolatuta. Nafarroa etorbide izenez ezagutzen zen Xantiren taldea. Talderik onenak Bideluze eta Arana kalekoak ziren.

461. Beasain mailaz jaitsi zenean, zaharragoekin entrenamenduetan (BEA-049/014)

Beasain 3. mailatik jaitsi zen urtean 18 urte zituen eta zaharragoekin hasi zen entrenamenduetan. Entrenatzaileak ez zuen jarraitzeko animatu eta futbola utzi egin zuen. Anekdota bat kontatzen du gaur egun ere ezaguna den Miguel Angel Lamataren inguruan eta bere iritzia ematen du.

462. Sanse eta Realeko jokalaririk izan zenekoak (BEA-049/015)

Jendeak animatuta hurrengo denboraldian berriz ere futbolera bueltatu zen. Donostiako Sanse taldeetik deitu zuten eta hara joan zen eta Realeko jokalariekin egin zituen lehendabiziko entrenamenduak. Berarentzat haiekin jokatzeko ikaragarria zen. Lasarten egiten zituzten entrenamenduak eta jende pila izaten zuten ikusle gisa.

463. Soldadutza Baztanen egin zuen (BEA-049/016)

Soldadutza Baztanen egin zuen eta han zegoela fitxatu zuten Donostian. Asentamendua zegoen Pirinioetako gunearen barruan eta radar eta ekipamendu teknikoak erabiltzen zen mugimendua kontrolatzeko. Handik Donostiara joan zen eta bertan egoten zen.

464. Futboleko arropa eta oinetakoak (BEA-049/017)

Orduko futboleko arropen inguruan hitz egiten du. Baloiak larruzkoak ziren lehenago eta ondoren plastikoa erabiltzen hasi ziren.

465. Kromoak eta baloiak (BEA-049/018)

Umetan baloia izatea ikaragarria zen. Futbolarien kromoekin bilduma egin eta baloia lor zitekeen eta hura lortzen zuena miretsi egiten zuten. Gomazko baloiak izaten zituzten puzteko aukera zutenak.

466. Ordizia eta beasaindarren arteko pikeak futbolean (BEA-049/019)

Beasaindarrek Real eta Athletic zaleak ziren. Inguruko herrietan Ordiziak zeukan futbol talde onena eta elkarrenganako pike handia zuten. Xantik ere jokatu zuen Ordizian. Maila berean jokatu arren lehia handia izaten zen. Senpere izan zen lehenengo futbol zelaia Loinazkoa jarri bitartean. Bi herrien arteko pikea aipatzen du.

467. Jokalaririk izan zen garaian pasatako taldeak (BEA-049/021)

Sansetik Beasaina pasa zen eta Tolosara joateko gonbidapena ere egin zioten, baina Beasainen geratu zen. Handik Ordiziako Villafranca taldera pasa zen. Hango zelaia eskasa zen baina talde ona zuen, Berbenetako diruarekin laguntza jasotzen baitzuten. Ordizian amaitu eta Legazpira joan zen eta jokalaririk gailenaren titulua irabazi zuen. Handik Bergarara joan zen eta berriz ere Tolosara pasa eta harekin bukatu zuen ibilbidea, izandako lesioak zirela eta.

468. Entrenatzaile lanetan Beasainen (BEA-049/022)

Jubeniletako futbol talde bat entrenatzen hasi zen eta hurrengo urtean goiko taldera pasa zen. 24 urteko gazteak entrenatzea ez zuen atsegin eta berriz ere jubeniletara pasatzea eskatu zuen. 7-8 urte egin zituen lan horretan.

469. Ume-umetatik baserrian lanean (BEA-050/004)

Garia, artoa eta babarruna ereiten ziren batez ere. 18 urterekin fabrikari lanean hasi zen arte, baserriko lanekin laguntzen jarduten zuen Luisen: itulan, ganadu-janetan, ukuiluan, etab.

470. Esnea iragazteko asunak (BEA-050/009)

Esnea pasatzeko, asun sorta eder bat sartzen zen iragazkian. Zikin guztiak bertan geratzen zirela kontatzen dute.

471. Babarruna zen oinarrizko elikagaia (BEA-050/011)

Uda nahiz negu, babarruna zen oinarrizko elikagaia baserrian. Garai hartako elikadura garbi eta natural harri esker, nahiz eta lanerako baldintza gogorrek jasan neguan, gaixotasun larririk ez zuten sekula harrapatu.

472. Eguneroko jatorduak (BEA-050/012)

Orduko jatorduez mintzo dira. Taloa eta esne-zopak gosaritan eta babarrun egosiak ziren ohikoena. Ardiaren zezina ez beste haragirik ez zuten jaten.

473. Jai egunetako otordu bereziak (BEA-050/014)

Babarrun zuria, garbantzuak eta oilaskoa jai egunetan baino ez zituzten jaten.

474. Tifusarekin kutsatuta (BEA-050/015)

Etxeko senide gehienak tifusarekin kutsatu zirela kontatzen du Karmelek (Luisen emazteak). Oso kutsakorra zen. Gaixotasunaren albo-ondorioez mintzo dira.

475. Lakaria eta gaitzerua (BEA-050/017)

Hiru kilo hartzen dituen neurriari lakari esaten zaio. Hamabi kiloko neurriari aldiz gaitzerua esaten zitzaion. Neurri desberdinetako ontziak erabiltzen ziren artoa eta garia pisatzeko.

476. Babarrunak eraman zituen lapurrak (BEA-050/018)

Mutiloko baserriko ganbaratik babarrunak lapurtu zizkietela kontatzen du Karmelek (Luisen emazteak). Arkumea eraman zuten beste behin. Lapurrak ibiltzea ohikoa izaten zela kontatzen dute.

477. Amonak zigarroak erretzen zituen, aitonak aldiz pipa (BEA-050/020)

Tabakoa medikuaren aginduz erretzen omen zuen Luisen amonak. Aitonak aldiz, pipa erretzen zuen. Eskaiolazkoa zela kontatzen du

478. Muruazpi baserria (BEA-050/021)

Bi bizitza zituen Muruazpi baserriak. Baserriaren egiturari buruzko azalpenak. Ganbararen erabilpen desberdinak. Belarra eta orbela gordetzeko borda bat

eraiki zen baserriaren aldamenean. Orduz geroztik ez zen metarik gehiago egin.

479. Fraide euskaldunak eskolak ematen (BEA-050/028)

Euskaraz hitz egiteko askatasuna zuten nahiz eta garai hartan debekatua zegoen. Eskolak ematen zizkieten fraide asko euskaldunak ziren. Gerraostean fraideek sotanaz jantzi behar izan zutelako gogoan du

480. Irina estraperloan (BEA-050/033)

Gerra garaian errotak itxita egon ziren. Beasain eta Ordiziako mugan zegoen baserri batetik ekartzen zuten aitak ogi-irina estraperloan. Egurdiko hamabietan pasatzen zen 100 kiloko zakua astoan hartuta kuartelaren aurretik. Gauetz pasa izan balitz, harrapatu egingo luketela kontatzen du

481. Beasainmendi auzoa eta ingurua (BEA-052/003)

Beasainmendi auzoa nolakoa zen; baserrietik ikusten diren herriak, auzoak. Baso ingurua asko aldatu da; lehenago gaztainadi asko zeuden, orain pinudiak dira guztiak. Gaztainak herrira eramaten zituzten saltzera. Neurriak: anega; lakaria.

482. Garai bateko basoa (BEA-052/004)

Basoa nolakoa zen: gaztainadiak, eta abar. Intxaurra, lizarra. Lizarrak zomorroak uxatzen ditu. Arantzazun ere lizar asko.

483. Garo-sailak (BEA-052/005)

Basoaz gain, belardi ugari egoten ziren. Etxe inguruan soroak. Garotan non egiten zuten. Garo-sailen garrantzia. Ataunen herri-sailak errentan hartzen ziren. Aitonak aitzurrarekin txilarra jotzen zuten garoa ugariago etor zedin.

484. Garia: nola hartzen zuten, gari-motak... (BEA-052/006)

Garoa nola mozten zuten. Beraiek segarekin mozten zuten, baina aurrekoek igitaia erabiltzen zuten. Garia, berriz, igitaiarekin beraiek ere. Garia harrian nola jotzen zuten. Gerra-osteko kontuak. Gari-klase desberdinak; arto-klaseak. Taloak.

485. Gerra osteko gari mota (BEA-052/007)

Gari-klase desberdinak. Gerra ostean ale berriren bat agertu zen; nolakoa zen.

486. Kanoikadak Mandubitik (BEA-052/008)

Gerra hasi zenean, aitona eta amonarekin Astigarretara joan zen. Erreketeak; nafarrak. Toponimia. CAF lantegian gerrarako munizioa egiten zuten. Mandubitik kanoikadak botatzen zituzten CAFera.

487. Auzoko eskola; fraideak (BEA-052/009)

Auzoko eskola; gerra osteko egoera. Inazio fraideetan hasi zen gerra amaitu eta berehala. Mezak latinez izaten ziren. Kaleko umeez baserriarrei burla egiten zieten.

488. Eskolak erdaraz; euskara debekaturik (BEA-052/010)

La Salle; Karmelitik; haur eskola. Euskaraz eginez gero, zigorra jartzen zuten. Inaziori fraide batek eskola partikularrak ipintzen zizkion. Umetan ere lan asko egin behar izaten zuten baserrian; Inazio sarritan azterketak egin ezinda geratzen zen. Aurreko belaunaldiak eskola gutxi hartutakoak ziren.

489. Eskolako ikasgaiak; historia sakratua, Espainiako historia... (BEA-052/012)

La Salle ikastetxean zer ikasten zuten: Historia Sagrada; dotrina; etab. Poliki-poliki, erdara ikasten hasi ziren. Eskolako kontuak.

490. Astoa, animalia azkarra (BEA-052/013)

Ogia egiteko irinik ez, eta 8 urte zituela bidali zuten astoarekin errotara. Astoak bidea ongi ezagutzen zuen. Amona egunero jaisten zen kalera astoarekin; asto-ilara egoten zen plaza inguruan. Astoa, oso animalia azkarra.

491. Astoaren garrantzia (BEA-052/014)

Astoa nola kargatzen zen; pasta jartzen zitzaion saskien azpian bigungarri gisa. Astoaren garrantzia baserrietan.

492. Gramofonoa indabean truke (BEA-052/015)

Gramofonoa zuten baserrian; nolakoa zen. Irratia noizko kontua den.

493. Aitona-amonak eskola gabekoak; dotrina ondo ikasitakoak (BEA-052/016)

Amonak erdara pixka bat zekien; umeekin ere zerbait ikasitakoa zen. Aitonak, berriz, tutik ere ez. Aurreko belaunaldiek eskolarik ez. Dotrina oso ongi zekiten; garizuman txartela atera behar izaten zuten.

494. Amonaren ahozko transmisioa (BEA-052/017)

Aitona-amonak Ataungoak ziren jatorriz. Etxeko giroa. Amona izugarria omen zen; bertso ugari zekizkien. Ipuin zahar asko ezagutzen zituen; eta, arto-zuritzen jarduten zutenean, kontu-kontari ibiltzen zen. Urrian, arrosarioa errezatzen ematen zuten hilabete osoa.

495. Amonak kantatzen zuen bertsoetako bat (BEA-052/018)

Bertso bat gogoratzen du Inaziok, eta bertan kantatzen dena kontatzen du: landan lanean ari zirela zauritutako erbi bat aurkitu, eta haien laguna zen abokatu bati erregalatzeko asmoz, erbia hil eta armairuan gorde zuten. Handik gutxira, ehiztariak agertu, eta erbirik ez zutela ikusi esan zieten. Ondoren, emazteak armairua ireki eta erbiak ihes egin zuen. Ehiztariak horren berri izan zuten, eta horren inguruko bertsoak atera ziren. Horietako bat kantatzen du Inaziok.

496. Aitak luxua lehen aldiz Pasaian ikusi (BEA-052/019)

Amaren ahizparekin ezkonduetako osaba Patxik Pasaiaiko portuan egiten zuen lan, eta Inazio eta Antonioren aitona Pasaiaira joan zen harekin. Kasualitatez turisten itsasontzi bat iritsi eta handiegia zenez ez ziren sartzen ausartu. Aitonak sekula horrelakorik ikusi gabe, erabat harrituta geratu zen bertan ikusitako luxuarekin.

497. Argindarra eta ura (BEA-052/020)

Amonak lau behatz galdu zituen, baina behatz bakarra nahikoa zuen buruan zorriak bilatzeko. Eliza ondoko tabernatik kilometroko luzera zuen kablea jarri zuten, argindarra ematen zuena. Kalitatezko kablea zen eta arazo gutxi ematen zuen. Aitona-amonak maizter egon ziren beste etxe batean. Etxe hura salmentan jarri eta konfiantzazko norbaitek erostea nahi zuten, aitonari hara mugitzeko eskatu zioten. Aitonak hara joatearen truke ura eramateko eskatu zuen, eta hala gertatu zen. Bertara iristen zen ur kopurua eskasa zen, abere ugari baitzegoen. Garai hartan lehorre gehiago izaten zituzten.

498. Urarekin arazo ugari (BEA-052/021)

Garai hartan gehiagotan izaten zituzten lehorreak. Ez zegoen gaur beste baliabide. Etxe inguruan ez zegoen iturburu gehiegi, mendi hau oso pobrea baita, urak alde egiten dio. Erreka bat bazegoen. Egurrezko presa bat zuen, eta jendea bertan bainatzen zen, baina etxetik gertu ez zuten errekarik.

499. Baserrietara iristeko bideen eraikuntza (BEA-052/022)

Baserrira iristeko bideak baserritarren artean egiten ziren, euren kontura. Lagun baten bidez lurra zulatzeko dinamita erosi, eta pikatxoia, idiak eta saskiak erabilita egiten ziren, topograforik gabe.

500. 'Uztapide'ren inguruko kontuak (BEA-052/026)

Langileen Batailoiaren musikaren bat gogoratzen dute. Gazte-gazteak ziren orduan; eta, beraz, ez ziren bertan egon, telebistatik entzunda gogoratzen dute. Basarri eta Uztapide bertsolariei abesarazi egiten zieten, eta haien zale izanik, hortik ere gogoratzen dute musika. Uztapide ezkon-bidaian Madrilera joan zen, eta Antonio eta Inazioaren osabaren etxean eman zuen gau bat, Inazio bertan zegoela soldadutza egiten. Oso ahots ona zuen, eta bertsolari ona zen, garai hartakoa. Egungo bertsolaritza asko aldatu da. Zaila gertatzen zaie gaur egungo bertsolaritza ulertzea.

501. Egungo bertsolaritza ulerkaitza (BEA-052/027)

Bertsolaritza asko aldatu da. Hitz ulergaitzak erabiltzen dituzte orain, abokatuen estilokoak. Bertsoak ulertzeko dira haien ustez. Egun askok txalo egiten diete bertsolariei esaten dutena ulertu gabe. Hizkuntza aldatu da, baina errima egiteko modua ere bai.

502. Kalean gazteleraz, etxean euskaraz (BEA-056/002)

Gerraostean jaioa denez, gazteleraz egin behar izan zituen ikasketak. Aitak ordea, etxean euskaraz egin arazten zien.

503. Mojen eskolatik Nazionaletara, eta handik Karmelitetara (BEA-056/004)

Komunio txikia egin bitartean (6-7 urterekin) mojen eskolan aritu zen. Handik Nazionaletara pasa zen. Adinaren arabera baino, ikasketa mailaren arabera banatzen zituzten ikasleak bertan. Neska eta mutilek aparte ikasten zuten. Makilarekin zigortzen zituen irakasle bati zion beldurra zela eta, Karmeliten ikastetxean amaitu behar izan zituen ikasketak.

504. Bi ohe, armairua, mahaia eta sukaldea genituen gela bakarrean (BEA-056/005)

Hamar urtera bitartean lgartetxan bizi izan zen gurasoekin. Etxebizitza falta zela eta alokatutako gela batean bizi zirela kontatzen du.

505. Beasaingo baserriak (BEA-056/008)

Errementari, Zapatari, Zelata, Zelataberri, etab. izendatzen ditu. Soroz inguratuta zeuden guztiak.

506. Sake, pon, txuti eta kan (BEA-056/011)

Umetako jolasak izendatzen ditu: sokasaltoan, kaniketan, kromotan eta tortolosean ("tabetan"). Jolasei buruzko azalpenak ematen ditu.

507. Neska eta mutilak aparte (BEA-056/012)

Neska mutilek ez zuten elkarrekin jolasten normalean. Ikasketak ere banatuta egiten zituzten. Eskolak ematen zituzten mojen janzkerari buruzko aipamena egiten du.

508. Debeku ugari garai hartan (BEA-056/015)

Eskolan erabiltzen zuten uniformeak deskribatzen du. Debeku asko zeuden. Mahuka motza erabiltzea edo mezatara gosalduta joatea, esaterako.

509. Euskalki desberdinei buruz (BEA-056/017)

Euskalki desberdinei buruzko iritzia. Goierrin ez du desberdintasun handiegirik sumatzen.

510. Jaunartzea eta sendotza (BEA-056/019)

Jaunartzea egin aurretik dotrinara joan behar izaten zuten. Nahiz eta apaiza euskalduna zen, gazteleraz izaten zen. Sendotza, jaunartzea egin zuen urte berean egin zuela kontatzen du.

511. Meza latinez (BEA-056/021)

Latinez izaten ziren mezak. Meza jarraitu ahal izateko liburu bat erabiltzen zuten. Buruz ikasten zuten zer esaten zuten jakin gabe.

512. Lehen bilerak Primo de Riveraren diktadura bukatu ostean (BEA-059/005)

Eusko Alderdi Jeltzalea noiz hasi zen antolatzen herrian. Lehenengo bilerak Primo de Riveraren diktadura bukatu zenean hasi omen ziren. Azaroan izan omen ziren lehen bilerak. Nortzuk elkartu ziren eta zertaz jardun zuten.

513. 1931tik aurrera mugimenduak politikan eta kulturari (BEA-059/008)

1931tik aurrerako mugimenduak. Politika mailan, bilerak egiten jarraitu zuten. Bestela, Batzokian ekintzekin hasi ziren: antzerkia, dantza (bi talde handi zituzten).

514. Beasainera oinez (BEA-064/003)

Baserrirako lurrak goldatzen zituzten. Ateratzen zuten jeneroa etxerako izaten zen. Esnea ere izaten zuten baserrian. Salbatoretik Beasainera oinez joan ohi ziren. Zaldia edo astoarekin ere ibiltzen ziren.

515. "Lejías Patxi" (BEA-064/008)

Lixiba egin eta dendetan saldu ohi zuten. Berak saltzen zuten lixibak "Lejías Patxi" izena zuten. Etxean eta biltegian egiten zuten lixiba, eta kristalezko botilatan saltzen zuten.

516. Dendako kontuak (BEA-064/017)

Denda astelehenetik larunbatera arte irekitzen zuten. Patxi berak erosi ohi zituen gero dendan salduko zituen tresnak. Nafarroara joan ohi zen materiala erostera. Ahal zuten moduan defenditzen zela dio. Dendan saldu ohi zuten; ez zen baserri baserri ibiltzen.

517. Baserriko lana: belarra ebakitzea (BEA-064/027)

Baserrian segan ibilitakoa da. Aranburu baserriak ez omen du terreno asko; lanerako nahikoa. Ebakitako belarra gurdian edo zakuetan jasotzen zuten.

518. "Esperanza" elkarte eta ehiza (BEA-064/031)

"Esperanza" elkarte sortu zuten. Ehizako elkarte zen. Ehizan eta perretxikotan asko ibilitakoa da. Galeperrak ehizatzeri Burgosera joan ohi zuten.

519. Ehiza kontuak (BEA-064/033)

Ehizatutako usoak etxean jaten zituzten. Hiru edo lau lagun biltzen baziren, ehizatutakoa lumatzen zuten gero etxean jan ahal izateko.

520. Birigarroa harrapatzen zaila (BEA-064/038)

Ehiza kontuak aipatzen ditu. Birigarroa harrapatzea zaila dela dio. Ehizan ondo egiteko txakurrak nolakoa izan behar duen azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com